

Antonio Zavala

# KARLISTEN LEENENGO GERRATEKO BERTSOAK



80-2971

30653

# **KARLISTEN LEENENGO GERRATEKO BERTSOAK**

Auspoaren Sail Nagusia

---

Auspoa Liburutegia  
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)  
Tfno. (943) 67 12 82



Antonio Zavala

# **KARLISTEN LEENENGO GERRATEKO BERTSOAK**

Auspoaren Sail Nagusia

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)  
Fotokonposatzaille: Cometip fotocomposición, S.L. - Pamplona  
Inprimatzaille: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)  
ISBN: 84-7158-159-0  
Depósito Legal: N.A. 381-1992

**ITZAURREA**

## ITZAURREA

«Karlisten leenengo gerrateko bertsoak» ezarri diogu izenburutzat liburu oni. Beraren biotza eta zatirik aundiena gerra ori da, izan ere. Baiña izenburu orren mugak eragin eta gai zabalagoa artzen du, bai aurretik eta bai atzetik ere.

Kondaira aldetik gertaerak pixka bat adierazi ditzagun orain, bertso-sail bakoitzaren ondotik zeatzago argituko baditugu ere.

Frantzestea bukatutakoan, 1814'an alegia, Kadizko Konstituzioa baztertu eta absolutismoa eraiki zuan ostera ere Fernando VII erregeak. Andik sei urtera, 1820'an, Riego jeneral liberalaren altxaldia zala bide, Kadizko Konstituzioa berriz ere onartua izan zan. Baiña realistak armetara jo zuten, gerra piztuz. Bai garaile atera ere Frantziko «San Luisen eun milla semeak» emandako laguntzarekin.

Gerra orri *guerra realista* esaten bazaio ere, karlisten leenengo gerratearekin zer ikusirik asko du. Izan ere, karlistatean burrukatu ziran bi taldeak ordurako osatuta zeuden: liberalak alde batetik, eta bestetik realistak, andik urte gutxira karlistak izango ziranak alegia.

Gerra au irabazitakoan, 1823'an, Markina, Xemein eta Etxebarri aldeko realistikak bertsoak jarri zituzten, beren garaipena ospatzearren. Bertso asko dira. Baiña bertso jartzaille eskolaturen batek jarriak, Mogeldarren batek-edo, eta ez erriko bertsolari batek. Baiña ori alde bat utzirik, bertso oiek liburu ontan ezarri bear zirala dudarik ez da.

Urte asko baiño leen, 1828'an, Fernando VII erregeak Euskalerria bisitatu zuan. Tudelatik Iruñera, eta emendik Donostira eta Bilbora. Erri guztietan arrera bikaiña egin zitzaison. Bai bertsoak kantatu ere erderaz eta euskeraz. Karlisten leenengo gerrate ori asteko bost urte falta baziran ere, jendea kezkatzen asia zegoan, erregeak semerik ez eta bera il ondoren zer gerta zitekean.

Ortik aparte, beste elbururik ere bazuan arreraren berotasun orrek: erregeren eta gobernuaren eder egitea, fueroen aurkako burutapenik izan etzezaten. Orregatik, bertso oiek ere liburu ontan bear zuten.

Andik bi urtera, 1830'ean, liberalak altxaldia egin nai izan zuten. Talde bat muga igaro eta Bera-Bidasoara eterri zan. Baiña etzuten ezer ere lortu, eta ostera Frantzira igesi joan bear izan zuten. Bertso edo bertso-kondar batzuk badira ordukoak, eta oiek ere liburu ontan sartu ditugu.

Beste iru urte iraungo zuan bizirik Fernando VII erregeak: 1833'ko iraillaren 29'an il zan; eta orduan komeriak. Aren koroia nork bear zuan? *Ley sálica* izenekoa bazegoan, Felipe V erregeak emana. Lege orrek zionez, erregea semerik gabe il ezkero, koroia aren anai batentzat izango zan, aren alaba batentzat baiño leenago. Liberalak ziotenez, ordea, lege ori kenduta zegoan, eta koroia Fernando VII erregearen iru urteko alaba Isabelek bere-berea zuan. Karlistak, berriz, lege ori zutik zegoala zioten, eta koroia erregearen anai Karlosek bear zuala.

Orrela piztu zan zazpi urtean iraungo zuan gerra. Esan bearrik ez dago, koroia norentzat izan ez-ezik beste arrazoi eta motibo asko izan zirala tartean. Baiña ori argitzea kondairalariantzat utziko degu. Liburu onek, orduko bertsoak argitaratzea beste asmorik eta elbururik ez du.

Gezurra badirudi ere, Euskalerrian Don Karlosen alde aurrena altxa zan erria Bilbo izan zan. Orduko kopla bat bada eta irakurleak bere lekuan arkituko du.

Baiña erri audiak liberalentzat gelditu ziran. Mendiak, berriz, karlistentzat. Auek talde txikietan asi ziran gerra egiten. Talde oiek *partida* izenarekin ezagutzen ziran, eta gero eta indar audiagoa artzen ari ziran; gero eta mutil geiago zijoan mendietara, karlistetara.

Orregatik, liberalak zerbait egin bear eta burutapen gogoangarri bat izan zuten: bertso-paperak ateratzea, Isabel II'aren eskubideak agertzeko eta karlista mutillak etxera arazteko. Gure eskuetara iritxi diranak, zenbait bertso-sail badira; eta itz lauzko beste orri bat edo beste ere bai, erderaz eta euskeraz. Baiña liberalen egiñalak alperrikakoak izan ziran. Etzuten sua itzali.

Beste frutu bat lortu zuten, ordea: karlistak bertso-papereren bidez erantzutea; karlistak ere bide bera artzea beren propaganda egiteko.

Andik aurrera, bertso-saillak maiz samar agertu zituzten bai liberalak eta bai karlistak. Guk andik eta emendik eskuratu ditugunak, liburu ontan eskeintzen dizkiogu irakurleari. Baiña esan bearrik ez dago sail geiago ere moldatu eta zabalduko zirala. Batzuk, guk begiratu gabeko zokoren batean egongo diranak,

eta denborarekin norbaitek arkituko dituanak. Beste batzuk, berriz, betiko galduak izango diranak.

Tiroka ez-ezik, beraz, bertso-paperen bidez ere saiatu ziran alkarren aurka karlistak eta liberalak. Propagandaren burruka da ori, gerra guzietan egin bearrekoa eta prentsa sortu zan ezkerotzik egunkarien-eta bidez egin izan dana. Baita irratia eta telebistaren bidez, aurrerapen oiek eterri ondoren. Baiña karlisten leenengo gerratearen garaian prentsa gutxi izango zan, eta ura erderaz. Euskeraz zer egin, beraz? Utsune ori bertso-paperak bete zuten. Eta, dirudianez, liberalak izan ziran artara leenengo jo zutenak, eta karlistak jarrai.

Batzuetan, nork bere asmoak eta jomugak goraltzeko jarritako bertso-saillak dira. Besteetan, berriz, gizon ospetsuren bat famatzeko edo-ta burru-kaldi edo gertakizunen baten berri emateko moldatuak: Zumalakarregi, Arantzazu, Lekarotz, Aiete, Bilbo, Irun, Andoain, Urnieta, Peñacerrada, Muñagorri eta abar.

Esan bezela, 1839'an bukatu zan gerra ori Euskalerrian, abuztuaren 31'n, Espartero eta Maroto jeneralak antolatu zuten eta Bergaran egin zan besarkadaren bidez. Gertaera ori dala-ta, bertsoak badira. Baiña dan-danak liberalak jarriak. Karlistak ixil-ixilik gelditu ziran. Izan ere, besarkada baten bidez bukatu bazan ere, jokoa berak galdu zuten, eta galtzailleak ez du bein ere kanturako gogorik izaten. Irabazoleak bai, ordea, eta arrosko samar gaiñera.

Andik sei urtera, 1845'ean, Isabel II erregiña Euskalerrira eterri zan. Orduko bi bertso-sail bildu ditugu. Auek ere ez dira karlisten leenengo gerrateari dagozkionak. Baiña iñun argitaratzekotan, liburu ontan bear dutela dudarik ez da.

Urrengoko urtean, berriz, 1846'an, beste gerra bat sortu zuten karlistak: erderazko liburueta *guerra de los matiners* izenarekin ezagutzen dana. Kataluña aldean 1849 urterako arte iraungo zuan. Baiña emen, Euskalerrian, etzuan indarrik artu. Joakin Julian Alzaa oficiatuar jeneralak, 1848 urtean, gizon-taldetxo batekin muga igaro eta alegiñak egin zituan. Baiña Aralar mendian preso artu eta Zaldibian afusillatu zuten. Bertsoak ere badira Alzaaren ekiñaldi ontaz. Eta oiek ere liburu ontan bear zutela uste degu, naiz eta karlisten leenengo gerratearen ondokoak izan.

Liburu ontako bertso-saillik geien-geienak izen gabeak dira. Beren egilleara

nor dan ez dakigunak, alegia. Berdin gertatzen da karlisten bigarren gerrateko bertso-saillekin ere. Ori zergatik dan errez pentsa ditekeala derizkiot: jendea bildurrez zegoalako. Iñork alde baten aurka burua agertzen bazuan, alde orren jarraitzaileen eskuetan erori ezkero zer egingo zioten bildurra alegia.

Ala ere, egille batzuen izena badakigu. Bata, Jose Bizente Etxagarai, donostiarra eta bertso jartzaille ugaria. Aren bertsoak eta bizitzaren berri, *Auspoa*'ren 35-36'an eman genituan. Egille onek iru bertso-sail jarri omen zituan gerra onen denboran, liberalen alde. Liburu ontan eskeintzen dizkiogu irakurleari.

Beste bertso-jartzaille baten abizena eman dezakegu: Argaia. Apaiza bera. Zumalakarregiren alde bertso-sail luze bat jarri zuan onek.

Argaia apaizaren bertso auek Amezketako erretoreak liberalen alde jarritako beste bertso-sail baten erantzuna dira. Baiña bertso oiek ez ditugu iñun ere arkitu. Amezketako erretore ori Pernando Amezketarraren denborakoa da, eta beraren izen-abizenak jakiteko bidea somatu degu: Juan Inazio Urretabizkaia.

Beste jartzaille bat *Ezkerra* izan zan. Irun edo Bera-Bidasoa aldekoa zan bertsolari au. Guk ezagutzen ditugunak, bi bertso-sail jarri zituan liberalen alde. Oietako batean, liberaletan gerran ari zala, Bizkaia, Burgos eta Kantabriak alkar jotzen duten lurraldeetan ibili zan eta bertsoak jarri zituan. Baiña gerra-kronika bat baiño geiago, bidai baten kontaera egin zuan.

Gerra ontako beste bertso-jartzaille bat Ernaniko Agustin Iturriaga izan zan. Onek Muñagorriren alde paratu zituan. Eta baditeke bertso-sail bat baiño geiago jarria izatea.

Liberalen alde zabaldutako bertsorik geientsuenak, Donostian moldatuak izan ziran. Baita bigarren gerrate denborakoak ere. Erri au ez baitzan iñoz karlisten mendeau erori.

Gerra ari, beraz, naiz eta gizon iltzaille eta bazter purrukatzaille aundia izan, alderdi on bat aitortu bear zaio: bertso jartzailleak lanera beartu zituala, eta paperetako bertsoak ugaldu arazi. Gauza bera edo are audiagoa gertatuko zan andik urteetara bigarren karlisten gerratearekin ere (1873-1876). Baiña gero gerokoak.

***GUERRA REALISTA***  
**(1821-1823)**

# **MARKINA, XEMEIN TA ETXEBARRIK IRURAK BAT AGUR EGITEN DEUTSE KONSTITUZIONEKO DAMIARI**

## **ZORTZIKUA**

- 1/ Nozbait biar genduzan  
biotzak askatu,  
lengo illuntasunak  
pozagaz argitu.  
Katigarijo gogor  
iru urtekua,  
ez da señale baga  
alan istekua.
- 2/ Neure adiskide on  
alkarri eutsijak,  
igaro badituguz  
garraitz ta gazijak,  
alkarregaz igaro  
daiguzan gozuak;  
asi bada iminten  
mai eta basuak.
- 3/ Ez izanik Markiñan  
boluntarijorik  
Xemein ta Etxebarrin  
lege barrikorik,  
orregaitik guztijok  
gaur umore onik  
gagoz, ez dogulako  
txanbelan usaiñik.

- 4/ Emen ikusten dogu  
ara irurok bat;  
alan alkartuterik  
nun ete ta zenbat?  
Irurogetaz lagun  
merindadekuak,  
abade eta fraile,  
justizijakuak.
- 5/ Banderola gorrija  
darua Paiazok,  
ez dakuse urretik  
lengo mutil baltzok.  
Ez da zetan geijago  
munduban eskatu,  
baldin berau alferez  
agertu bajaku.
- 6/ Lenengo Te Deuna,  
ostian mezia,  
soñu egokijakaz  
izan da guztia,  
San Martingo ermita  
ondo entzunian,  
maiatzaren oge ta  
zazpigarrenian.
- 7/ Egun alegria zan  
San Martin muruban,  
milla ta zortzireun  
oge ta iruban.  
Kukubak berak bere  
aurtengo soñuban  
zerbait biarko zana  
esan gura eban.

- 8/ Txupin ta eskopeta  
ondo garbitubak,  
guztijak dira emen  
ondo ornidubak.  
Euren trumoe latzak  
gaituz gaur poztutene,  
bizkaitarren garaitzak  
deuskuz gogoratzen.
  
- 9/ Bolandera argi ta  
gora-berakuak,  
izarren irudira  
polbora asmuak  
Markiñan egin dira;  
ez da au txantxia,  
guztijok dakigula  
fabrika etxia.
  
- 10/ Bibolin, guitarra ta  
flauta gozatsubak  
egozan zertxubaita  
erdi garraztubak.  
Aspaldijan ez dogu  
izan umorerik,  
ta alan egon dira  
luzaro geldirik.
  
- 11/ Damaren irudijan  
Konstituzinua  
ekarri izan dogu  
zori gaiztokua,  
aituten emoteko  
gure pozkerija,  
betiko amaitzeko  
gurari bizia.

- 12/ Guztija da garbja  
olgantza onetan,  
gauza txarrik ez dala  
ezetan nastetan.  
Alan beti biar da  
serbillen artian,  
nai dogulako izan  
Jaunaren legian.
- 13/ Jana eta edana  
guztija ugari,  
baña zenbat al eban  
bakotxak igarri.  
Ez da albo-alboka  
iñortxu ikusi,  
zelan olgau biar dan  
ara nun ikasi.
- 14/ Paiazo gixaijua,  
ez asko edanaz,  
ezpada neure ustez  
berde asko janaz,  
zertxubait galdu jakun  
eubarte orduko,  
baña atseen eban  
botarik mandako.
- 15/ Orregaitik Paiazok  
gure damiari  
bota eutsan bertsua  
txito arrigarri:  
A, zital galdukoa,  
euk dona agiri  
zelakua al azan,  
erdi sorgiñ ori.

- 16/ Leen igaruak nekez  
orain kantetia,  
orduan garratz zana  
orain olgetia.  
Sarri egin genduban  
baruba nai ta ez,  
jan ezin gendubala  
sabeleko miñez.
- 17/ Baita ibilli gara  
bein barriz igesi  
armarik ez geunkanok  
mendi eta sasi,  
batian batera ta  
bestian bestera,  
nozbait gazapotuta,  
zelan oi zan era.
- 18/ Etorten ziranian  
pezeta bikuak,  
baita bolante eta  
boluntarijuak,  
gure kamisatxubak  
jantzirik soñian,  
gu otzak igaroten  
mendijen gañian.
- 19/ Aurten liño azija  
biar da ugari,  
bota erruki baga  
gijaurik lurrari.  
Baita gorubai bere  
eragin azarri,  
ezpada biar dogu  
laster barregarri.

- 20/ Okela samurra ta  
ardaua ugari,  
ez oi ziran lapurrak  
gabian egarri.  
Asmau ala guztija  
pezeta bagarik,  
ollo eta kapiroak  
artzeia dugarik.
- 21/ Txapalangarra bere  
mutiltxu samurra,  
astuak mutilzeko  
ez txito makurra.  
Bein eldu bazan bere  
dagu ezaguna,  
triskilladoria zan  
bere aita jauna.
- 22/ Iriarte, Soroa  
-bijak ze mutillak!–,  
esanik dirianok  
ginala serbillak.  
O'Donnell irugarren  
gizontxu biguna,  
ondo txupau euskuben  
mamin eta una.
- 23/ Castañón komandante  
neronen lagunak  
erakutsi euskuzan  
larrijak egunak.  
Preso eruan euskun  
geure markes jauna,  
baita bikarijua  
doktore entzuna.

- 24/ Torrijos jeneralak  
bere señalia,  
preso eruatia  
neure alkatia.  
Artzañak salatziaz  
ixiltxurik bera,  
agertu izan euskun  
zelan euskun gura.
- 25/ Kartutxo, kartutxera,  
erropa barrijak,  
emen artzen zituben  
mutiltxu zurijk.  
Zenbat onako gauza  
ixil ta agiri?  
Baltzak etozanian  
emon igesari.
- 26/ Amaika bidar entzun  
genduban *trágala*,  
zalako gure errija  
ziñuen serbilla.  
Zenbat bider zemaijak  
erre ta iltia?  
Edo bai euren bando  
armak artutia.
- 27/ Baña alper-alperrik  
zemaijak guztijak,  
bardin euren pezeta  
sarri eskinijak.  
Gurasuen legia  
ez dau batek saldu,  
lenago zar ta gazte  
bizitzia galdu.

- 28/ Nun ete dira orain  
komandante jaunak,  
guztijok egiteko  
pozik esku munak?  
Damuz ezin ginaindez  
euren billa asi,  
beti dabiltzalako  
serbillen igesi.
- 29/ Sabelak estututa,  
ezpanak sikurik,  
dabiltz laironak orain  
buruz beraturik,  
poltsaak urritu eta  
ez adiskiderik,  
iñok artu nai ezta  
ezetan lotsarik.
- 30/ Txapalangarrak dauka  
orain fortunia:  
astakuak mutiltzen  
ziatz jakitia.  
Pastoriak ardijak  
ez ditu faltako,  
baltzak badira bere,  
udagueneko.
- 31/ Damatxu apainduba,  
beste kortejuak  
probetxu on eginik  
lengo urtekuak,  
baru egin daijela  
Pazkua ostian,  
azkeneko kostia  
laster jo artian.

- 32/ Zuk bere biar dozu  
atsegin sarija,  
izan zarialako  
eurak iminija.  
Zer emongo al jatzun  
bazkari ostian,  
erabagiten dogu  
guztijen artian.
- 33/ Ondo begiratuta  
ara sententzia,  
ao batezkua da,  
au arrigarrija!  
Tatarraz erabilli,  
azkenian erre,  
guztijok egiteko  
algara ta barre.
- 34/ Onen ostian dogu  
gaur limonadia,  
begira izan ez dedin  
belaun ikaria.  
Otzak eragin leijo  
asko sentitzaka,  
atsuak eukiteko  
barrez ixiltzaka.
- 35/ Otz askoren ondoren  
ardao garbija,  
brinduak botateko  
txito egokija.  
Bakotxak artutен dau  
eskura basua,  
ao batez esateko  
urrengo bertsua.

- 36/ Bizi bedi Fernando,  
baita Amalia,  
añenak eruan dau  
liberal damia.  
Bizi bedi Egia,  
Fernando Zabala,  
diputaziño barri  
prestu eta ala.
- 37/ Orduban dirianok,  
eskubak emonik,  
agur egin genduban  
geldi ta zutunik.  
Adiskide leijalak,  
orain bijar arte,  
beti biarko dogu  
lagun eta maite.



## KONSTITUZIONEKO DAMIAREN ASMUAK ZORTZIKUAN

- 1/ Alperrik dau sagarrak  
kolore gorrija,  
usteldurik badauka  
barruko azija.  
Laster agertuko da  
bere malizija,  
adi bada, euskalduna,  
ta argi begija.

- 2/ EngaÑubak ez oi du  
plazu ain lutzerik,  
askozaz gitxiago  
iñoz azken onik;  
alan jazoten jaku  
gure egunetan,  
esango dodan legez  
zortziko onetan.
  
- 3/ Politika izena  
daben damatxua,  
Kadiztik agertu zan  
txito apainduba.  
Berba labanak eta  
barrez arpegiña,  
barruba euki arren  
ez txito garbija.
  
- 4/ Liburu bat eskuban  
urrez estalduba,  
liberaltxu zaldunen  
dau erregaluba.  
Libertade barri bat  
bardintasunagaz,  
nor gozatuko ez da  
liburu onegaz?
  
- 5/ Frantzijan igartu zan  
arbola ederrak  
eragin bai eutsezan  
askori negarrak.  
Ara bada bizturik  
España barruban  
liberaleen bitartez  
liburu dontsuban.

- 6/ Errege bera bere  
guztien mendian  
erakutsiten jaku  
gaur bere legian.  
Guztijok agintari,  
guztijok nagusi,  
baña alan ete dan  
begira ikusi.
  
- 7/ Eskintsari ederrak,  
español maitiak,  
egin deuskuz ugari  
damatxu gaztiak;  
baña liberalentzat  
dituz ondasunak,  
libertade, agintza,  
nagusitasunak.
  
- 8/ Eurak dira bakarrik  
Españañan juezak,  
alperrik bai ikusi  
jentien nai-ezak.  
Tragau biarko dala  
euren aginduba  
dogu lairon arruen  
lelo ta soñuba.
  
- 9/ Abade gitxi eta  
euren gisakuak,  
arrozturik betiko  
leengo legekuak,  
dotrinatxu eurenak  
nai ez ditubenak,  
izan arren Volterren  
ta naiz Rusorrenak.

- 10/ Agur beti-betiko  
monja ta frailiak,  
malkuak bota arren  
jente ta pobriak.  
Misinoe barrijak  
bere legietan  
ifini izan ditu  
erri andijetan.
- 11/ Kinta ta milizijk  
lantzian ta sarri,  
ez deusku euskaldunoi  
lan txarra ezarri.  
Agur gure forubak,  
agur noblezia,  
koldarturik balego  
emengo jentia.
- 12/ Petxu eskabidiak  
egunero legez,  
iñoren izerdijaz  
aspertu eziñez.  
Patente ta rejistro  
zenbat beste asmo?  
Ez eutsan Barrabasi  
goguak emongo.
- 13/ Orra libertadia:  
dirubak kendurik,  
ez genduban izango  
lapurren bildurrik.  
Damatxu apaindubak  
eukan bai trantzia,  
ez da gitxi jakina  
enemigadia.

- 14/ Baña damatxu arro  
ta bere laironak,  
Napoleontar almutz  
oñdo ezagunak,  
leenago ler egingo  
dozube guztijok,  
guri ezarri baño  
zuben buztarrijok.
- 15/ Euskaldun garbi sendo  
prestu ta nobliak,  
gorde gura ditubez  
asabeen legiak.  
Mutillak orretako  
armetara dira,  
zarrak bere nai leuke  
gaztiak balira.
- 16/ Jangoikuak nai eta  
agintari onak  
eusklaldunak ditube  
txitoko entzunak.  
Egia zarra dogu  
guztijen buruba,  
Quesada urengua,  
gutziz jakintsuba.
- 17/ D. Fernando Zabala  
brigadier jaunak  
irabazirik daukaz  
gure esker onak.  
Gorostidi laguna  
txitoko firmia,  
Frantxo guztiz sendua,  
baita Barrutia.

- 18/ Katalan ta naparrak,  
baita arabarrak,  
dituguz zorijonez  
beti geuretarrok.  
Beste probintziyetan  
gure bando asko  
egunik egunera  
dozuz ikusiko.
- 19/ Alperrik Gipuzkuan  
pezeta bikuak,  
Bilbon barriz bolante  
boluntarijuak,  
kamisa utsian duaz  
igesi gaixuak,  
urten arren etxeti  
txitoko majuak.
- 20/ Armaak lepotik bota,  
ortozik igesi,  
ez zenduzan lenguau  
Mugijan ikusi? (*sic*)  
Mutil urten barrijak  
baditubez goitzen,  
zer da ikustekua  
badira oituten?
- 21/ Ai, liberal tristiak,  
egin dau zubenak,  
laster dozuz ikusi  
betiko azkenak.  
Laironak lutuz dagoz,  
damia geixorik,  
ez dago osatzeko  
iñun medikurik.

- 22/ Prestau egizu laster  
bere enterruba,  
egin bere daijala  
gaur testamentuba.  
Zuzen-zuzen juatzu  
zubei erentzija,  
guzur enbusterijeen  
poltsa ugarija.
- 23/ Baña beragaz neste  
lurpetu biozu,  
ta au benetan dana  
sinistu egizu;  
guk egingo deutseguz  
onra alegríak,  
ijui eta txalo,  
pozezko barriak.
- 24/ Agur bada betiko,  
liberal arruak,  
agur lairon ta dama  
agonijakuak.  
Kadiztik urten eta  
biurtu bertara,  
zuben azur ustelok  
an obitutera.

## AMA DONZELLIARI ZORTZIKUA

- 1/ Oraindik bizi zala  
munduban Marija,  
zeruben erregiña,  
egijaz garbija,  
Españañ artu eban  
bere jartokija  
Jesusen Ama zanak,  
o zer mirarija!
  
- 2/ Pillar baten ganian,  
erri jakinian,  
edertasunen Ama  
agertu zanian,  
aingerubak begira  
dakustaz zurturik,  
zerubak eurak bere  
guztiz arriturik.
  
- 3/ España doatsuba,  
zeren jaube zara?  
Begira nai dabenak  
edozein aldera.  
Ez entzun ta ez ikusi  
iñoz da oraindik,  
ez dau gura aldendu  
Marijak zugandik.
  
- 4/ Agindu izan deutsu  
bere anparuba,  
zaitubalako dino  
erri maitatuba.  
O, Israel ederra,  
benetan garbija,  
zuretzat izan dozu  
bai tenplu bizija.

- 5/ Españolen biotzak,  
pozez zoraturik,  
donzella ta Amari  
dagoz eskenirik.  
Bere anparupian  
ez dauke bildurrik,  
guztijak dira sendo,  
iñor ez koldarrik.
- 6/ Españolen izenik  
ez jake emoten,  
bandera okerretan  
diranei sartuten.  
Oneek iges egiñik  
Amaren mendetik,  
kendu bitez betiko  
begijen aurretik.
- 7/ Luziferrek bai deusku  
guri enbidija,  
ikusirik patrona  
Españan Marija;  
bere diszipulubak  
dauke egarrija,  
ezin dabe iruntsi  
gure poz bizia.
- 8/ Luziferrek nai eban  
España beretu,  
patroe ta nagusi  
betiko gelditu;  
orretarako bada  
bere eskinijak  
egin deuskubez sarri  
liberal barrijak.

- 9/ Uste ebeen guztijak  
tontuak billatu,  
azpijan artu eta  
betiko sakatu,  
eleixa eta kanpo  
guztijan agindu;  
ez ebeen orregaitik  
ain gitxi eskatu.
- 10/ Arrotasunak ez dau  
iñun neurririk,  
ez-da agindu naijak  
ezetan mugarik;  
agaitik liberalak,  
guztija gurarik,  
dakuskuz gaur igesi  
España itxirik.
- 11/ Alperrik liberalak  
Luzifer nagusi,  
laster dira txanbelan  
barriro ikusi.  
Norako ete diran  
itaunen alkarri  
dabiltz aspalditxuban,  
jaken lez igarri.
- 12/ Luziferrek bai dituz  
lekuak zabalak,  
billatu ez daijezan  
español serbillak.  
Bildur naz ete diran  
beragaz sartuko  
zulo izugarrijan  
sekula betiko.

- 13/ Españolen biotzak  
izanik nobliak,  
ez deutsez iñoz opa  
alako kaltiak.  
Arerijuei bere  
dakije parkatzen,  
eurakgaitik Amari  
ondo erregutzen.
- 14/ Orregaitik biar dau  
Españaak garbitu,  
atarako juezak  
erreinubak ditu.  
Euren eskuban dago  
zuzen justizija,  
guk bata bestiari  
parkatu guztija.
- 15/ Juez jaunak dakije  
traidore paltsuak  
erazo ditubela  
askoren malkuak;  
alegiñez dabela  
errege zematu,  
Eleixako fedia  
guganik aldendu.
- 16/ Euren jakiturijak  
ez dau, ez, estali  
zelan liberaltxubak  
jakuzan ibilli;  
gauzarik santubenei  
burla egitia  
izan daña askoren  
oraingo modia.

- 17/ Garizuma santuban  
dantza zoruetan,  
ez dira Pazkuetan  
eldu konpesetan.  
Gisa onetan dua  
enparau guztija,  
geijago esateko  
biar da astija.
- 18/ Lagun zakiguz beti,  
Birjina Marija,  
esker emoten dozu  
España guztija.  
Zuganik artu dogu  
orain biktorija,  
gura deutsugu emon  
al dogun gloria.
- 19/ Baña oraindik bere  
gatortzuz gu eske,  
katigu dogulako  
Fernando errege.  
Gure biotzak dabe  
txito bera maite,  
beragaz bada arren  
errukitu zaite.
- 20/ Len bere an egon zan  
kautibo Frantzian,  
baña zure mesedez  
ondo eterri zan.  
Ezpata ta koroia  
egun garratzetan  
itxi izan eutsuzan  
zeure eskubetan.

- 21/ Ala gorde zeuntsazan  
etorri artian  
Atotxako cleixa  
ondo entzunian.  
Biurreran eskini  
eutsun erreinuba,  
zaukazalako beti  
Amatzat artuba.
- 22/ Alperrik liberalak  
guzurrrak ugari  
bere kontra ditube  
Españan ezarri;  
gure amodijua  
otzitu gurarik  
ibili jakuzana  
ez dago dudarik.
- 23/ Josefa Amalia  
bere esposia,  
erregiña garbi ta  
birtutен loria.  
Naigabez geixoturik  
katigarjuan,  
dago gau ta egunaz  
malko erijuan.
- 24/ Español ikusirik  
gaur eskandalubak,  
emoten ditubenak  
liberal galdubak,  
biotz umildubagaz  
deutsu eskatuten;  
iñok egija dana  
ez dau ukatuten.

- 25/ Gure amodijua  
ain dauke bizija,  
senar eta emazte  
euren egarrija.  
Gugaz bizi guria  
Amaren mendian,  
zauritzen ditubana  
bijen biotzian.
  
- 26/ Eskubide guztien  
jaubia izanik,  
egizu bada, Ama,  
negarrak entzunik,  
alkartu gaitezala  
errege jaunakaz,  
ta bizi zure naijan  
biotz garbijakaz.

Bertso sail luze au Bonaparteren bildumatik degu. Moldiztegi izena onela duan bertso-paper bat da: *Bilbon Jose Basozabal-en Silluteguiyan 1823 garren urtian*.

Aleman liburu batean ere argitaratu ziran bertso auek: *C. A. F. Mahn: Denkmaeler der baskischen sprache. Berlin, 1857*. Baiña aldekatari ez dute, eta Bilboko Jose Basozabalen sillutegian argitara emandako paperari artuak dira, bukaeran aitortzen danez.

Duvoisinen bertso bilduman ere arkitu ditugu bertso auek. Onek ere, ondotik esaten duanez, Bilboko Jose Basozabalen argitaraldiari kopiatu dizkio.

Aita Lino Akesolok, bere *Juan Jose Mogel-en euskal lanak* idazlanean (Euskera, 1981), bertso auctako zati batzuk eskeintzen ditu, aleman liburu ortatik arturik eta Mogelenak dirala esanez.

Alfonso Irigoyenek ere bertso auek argitatu ditu, bere *De re philologica linguae vasconicae* lan bilduman (Bilbo, 1985). Orretzaz gaiñera, argibidez betetako azterketa luze-sakon bat egiten du bertso aueri buruz. Besteak beste, Gernikako batzarretako zenbait agiri ere eskeintzen ditu, bertso foruzale auek ango giroa agertzen digitela erakustearren.



Iru zati ditu sail onek: leenengoak, ogei ta amazazpi bertso; bigarrenak, ogei ta lau; irugarrenak, ogei ta sei. Guztiak, larohei ta zazpi. Bertsoak zenbakirik ez dute bertso-paper ortan; orain daukatena, guk erantsia da.

Bertso auek ulertuko badira, garai artako kondaira berritu bearra dago. Liburuetan-eta azterka saiatuak gera. Baiñaala ere ezin argitu izan ditugu illun-une guztiak.

Frantzestea bukatu ondoren EspaÑiratu zanean, 1814 urtean alegia, Fernando zazpigarrenak Kadizko 1812'ko Konstituzioa baztertu eta berriz ere absolutismoa ezarri zuan. Orduan, Konstituzioaren alde ziranak, liberalak alegia, erbestera joan bear izan zuten. Gobernu-modu orrek sei urte iraun zuan: 1814-1820.

1820'ko urteberri egunarekin, Riego jenerala Konstituzioaren alde altxatu zan. Jarraitzaileak an eta emen izan zituan, eta erregeak amor eman bear izan zuan, martxoaren 9'an Konstituzioaren alde zin egiñez. Biaramonean azaldu zan ageri batean idatzi zituan, ainbeste aldiz errepikatu diran itz aiek: «*Marchemos francamente, y yo el primero, por la senda constitucional*». Idatzi bai, baiña ezin bestez eta gogoz kontra.

Liberalak iru urteko nagusi-aldia izan zuten: 1820-1823, erderaz *trienio liberal* esaten dana. Baiña realistak etzeuden gustora. Karlisten aurrekoak izan ziran oiek. Liberalak *serviles* esaten zieten gaitz-izenez. Itz ori bein baiño geiagotan agertzen da bertso auetan.

Ala, realistak ere egin zuten beren altxaldia, eta guerra realista izenekoari asiera eman: 1821-1823. An eta emen soldadu taldetxoak agertu ziran; edo *partidak*, garai artako itzarekin esateko. Bai Euskalerrian ere. Gorostidi apaiza izan omen zan gipuzkoarren buru. Jaun onen aitamena amazazpigarren bertsoak egiten du.

Europa geienean absolutismoa nagusi zan garai artan. Bai Frantzian ere, Luis XVIII erregearekin. Onek gudarozte bat osatu zuan, gaztelera *los cien mil hijos de San Luis* esaten zaiona, eta EspaÑira bialdu, realistei laguntza ematearen.

Bidasoa ibaia 1823'ko apirillaren 7'an igaro zuten soldadu oiek; eta bidee-

tan oztopo gutxi arkituz, Bilbon apirillaren 13'an sartu ziran; Madrideren, maiatzaren 23'an. Donostia, berriz, gogor egin zien, eta iraillaren 27'a arte aterik zabaldu ez.

Liberal gobernuak, realistak eta frantzesak urbiltzen ari zirala-ta, Madritik Kadizeraño aldegin zuan, Fernando VII berekin eramanik. Baiña bestek orpoz-orpo atzetik jarrai. San Juan egunean inguratu zuten Kadiz, eta urriaren 1'ean errenditu ziran liberalak, erregea aske utzirik.

Bertso sail ontako lendabiziko zatiak esaten digunez, liberalak menderatu eta uxatutakoan, festaren bat antolatu zuten Markina, Xemein eta Etxebarriko realistak; eta San Martin ermitan, maiatzaren 27'an, ospatu, kukuak ere ku-ku egiten zuala, zazpigarren bertsoak dionez. Bertso auek jaialdi ori zer izan zan adierazten dute, eta erri oietako eta Bizkai guztiko realisten neke eta larrialdien berri eman ere bai.



Izen batzuk ematen dizkigute bertso auek: Txapalangarra, Iriarte, Soroa, O'Donnell, Castañón, Torrijos. Jaun oiek garai artako politiko eta militarrak zirala esan bearrik ez dago.

Txapalangarra ori naparra zan; Lodosakoa. Joaquín de Pablo zeritzan. Espoz y Mina'ren agindupean, frantzesen aurkako gerra egin zuan, burrukaldi askotan parte arturik. Liberal purrukatua zan. Alikanteko militar gobernadorea zan 1823'an; baiña realistak eta frantzesak urbildu ziranean, plaza ori errenditu eta bera atzerrira joan zan. Andik urteetara, 1830'ko urrian, Espoz y Mina'k Bera-Bidasoatik barrena muga pasa zuan, Kadizko Konstituzioa berriz ere España ekarri nairik. Aren taldean zetorren Txapalangarra ere. Baiña realistik kontra etorri zitzaizkien. Txapalangarra onek bazekian realista oietan berarekin frantzestean ibilitako gizonak bazirala; eta agirira atera eta itzaldi sutsu bat egiten asi zitzaien. Besteak, ordea, tiroka erantzun eta il. Txapalangarraren lagunak igesari eman zioten orduan. Aien artean zan Espronceda olerkari ospetsua ere, eta olerki bat egin zuan gero izenburu onekin: *A la muerte de don Joaquín de Pablo «Chapalangarra» en los campos de Vera.*

Torrijos orrek, berriz, Jose Maria izena zuan. Madrideren jaio zan 1791-XII-11'n. Amasei urterekin kapitana zan. Frantzesen gerratean aien aurka

altxatu zan. Guerra realista dalako ortan, Kartajenako gudalburua zan, eta 1823-XI-5'ean errenditu zan. Liberal purrukatua izanik, realisten aurka az-pilanean jarraitu zuan. 1831'ko abenduan, berrogei ta amabi lagunekin, Gibraltaretik irten eta Fuengirolan legorreratu zan, EspaÑiako egoera aldatu nairik. Baiña kontrako indarrak eterri, preso artu eta afusilatuak izan ziran bera eta bere lagun guztiak.

O'Donnell ori, Enrike Jose izan diteke (1769-1834); edo bestela bere anai Jose. Biak ere jeneralak eta biak guerra realista ortan parte artu zutenak baitziran.

Baiña beste irurak, Iriarte, Soroa eta Castañón alegia, ez dakigu nor izan ziran, liburuetañ-eta azterka saiatu bagera ere.

«Amaika bidar entzun genduban trágala» esaten digu 26'garren bertsoak. Liberalen kanta bat zan ori, realistei burla egiteko asmatua. Kanta arte edo estribilloak onela zion gutxi gora-bera: «*Trágala, trágala tú, servilón, tú que no quieras Constitución*». Esaera ori eguneroko izkeran sartu zan gero, eta gaur egunean ere erabiltzen da: *cantarle a uno el trágala*. Iñori gogoko ez duanik irentsi edo onartu araztea esan nai du.

Dirudianez, Konstituzioaren irudiren bat erabili zuten Markiñako jaialdi ortan: «Damatxu apainduba», alegia. Eta gero, ogeitamairugarren bertsoak esaten digunez, ao batez eman zitzaison sententzia: «azkenian erre».

Bigarren zatian, *Konstituzioneko damiaren asmuak zortzikuan* deritzan ortan, bertso jartzaillekak konstituzio orri buruz zer iritzi daukan esaten digu.

Beste izen batzuk ematen dizkigute amasei eta amazazpigarren bertsoak ere: Egia zarra, Quesada, Fernando Zabala, Gorostidi, Frantxo eta Barrutia. Oick ere politikoak edo militarrak, noski.

Egia jenerala –Frantzisko Ramon izenez– Durangon jaio zan 1750'an; eta Madriden il, 1827'an. Frantzesen aurka burukatu ondoren, 1820 urtean, absolutista baitzan, Frantzira aldegin zuan. 1822'an, Urgeleko realista buruzagien aurkako iritziak agertu zituan. Urrengo urtean EspaÑira itzuli zan, Angulemarren frantzes gudaroztearekin. Beste Egia bat ere izan zan, jeneral au ere. Durangon 1777'an jaioa, eta Tolosan illa, 1866'an. Baiña bertso auetan aitatzeten dana, bestea izango da, Frantzisko Ramon alegia. Ain zuzen, «Egia zarra» orretxegatik esango da.

Quesada ori, Bizente Jenaro zeritzan. Habanan jaio zan 1782'an. Frantze-

sen aurka gogor gudukatu zan. Burgosko burrukaldian, amaika zauri artu artean etzan errenditu. Dijonera eraman zuten. Iges egin eta Kataluñara etorri, eta andik Kadiza, eta ostera ere frantzesen aurka. 1821'ko maiatzean EspaÑira sartu eta Naparroako realista indarren buruzagia izan zan. Karlisten gerratean liberal gudaroztearen buru izan zan, eta Zumalakarregiren aurka burukatu. Onengandik egurra jaso zuan, ordea. Hortalezan il zan 1836'ko abuztuaren 15'ean; edo, obeto esateko, il zuten, bera igesi zijoala, Madridtik etorritako milizianoak.

Fernando Zabala, berriz, Bilbon zan 1833'ko urrian, Fernando VII'ren il berria etorri zanean. Baita Don Karlosen alde bereala atera ere. Baiña altxaldi orren berri aurrerago emango degu, berari buruz kopla bat ere bada euskeraz eta.

Gorostidi –Frantzisko Maria izenez– gipuzkoarra zan, Albizturen jaioa. Frantzestean parte artu zuan, Espoz y Mina eta Jauregiren agindupean. Gerra ori bukatu eta Anoetako erretore izan zan. 1822'an, ostera ere gerrara atera zan, liberalen aurka oraingoan, talde baten buruzagia izanik. Erri eta toki izen asko aitatzentz dira aren ibillaldietan: Zegama, Motriku, Zarautz, Aia, Urdaneta, Iraeta, Lastur, Andutz, Itziar, Mendaro, Markina, Urrestilla, Beizama, Lizarra, Arroniz, Dikastillo, San Martzial, Irun, Bera-Bidasoa... Gerra ondoren, Fernando VII'garrenak Santiago-Konpostelako kanonigo egin zuan. Erregea ilda-koan, Don Karlosen alde armak artu zituan. Baiña Cabana mendian, Tabeiro斯 erriaren sailletan, Pontevedra probintzian, prisionero egin zuten, eta afusillatu. Liburuxka bat atera zan aren *guerra realista* dalakoaren denborako ibillaldiekin: *Relación histórica de las operaciones militares del Cuerpo de guipuzcoanos realistas acaudillados por el presbítero don Francisco María de Gorostidi... En San Sebastián. En la imprenta de Ignacio Ramón Baroja. Año de 1824.* Argitalpen ontan oiñarriturik, artikulu bat idatzi zuan Pio Barojak 1933 urtean: *O. C., tomo V*, 1177 orrialdean. Guk emen esandakoak, idazlan orretatik artuak dira.

Aitatzentz diran beste jaun oien aztarrenik ez degu arkitu, Frantxo eta Barrutiarenik alegia, billa saiatu bagera ere.

Irugarren zatian, berriz, Ama Birjiñari otoitz egiten zaio, EspaÑian gauzak bideratu ditezen.

Zati ontako emeretzigarren bertsoak, «katigu dogulako Fernando errege» esaten du. Len esan degunez, Urriaren 1'ean askatu zuten.

Azkenik, bertso auen egillea nor ote degu? Gizon eskolaturen bat noski,

eta Markinakoa edo oso urbillekoa. Ezaugarri oiek Juan Jose Mogel euskal idazlea gogora arazten digute, garai artan Xemein-Etxebarriko erretorea zana. Ura ote, beraz? Ditekena da ori ere, baiña segurutzat ezin artu.

## **DONOSTIAN SOLDADO**

- 1/ Mila zortzi ehun eta  
ogei ta irurian,  
zerbitzuan ginauden  
Donostia hirian,  
liberalitateko  
bandera berrian;  
hartarik desertatu  
inozentkerian,  
miserable erori  
etsaien erdian.
  
- 2/ Hura zen ekainaren  
amabigarrena,  
gauazko bederatzia  
partitzeko orena;  
konda ahal a bana  
gehiago du pena,  
sofrizia ere ahal da  
hal a dabilena,  
etsaiaren esklabo  
munduko abilena.
  
- 3/ Murraila pian sartu  
bederatzietan,  
kanale bat barna  
atera errestan;  
bederatzi baginen  
kompañia artan,  
zenbaitek malezia  
zuten beren baitan,  
deklaratzerako nua  
aski doloretan.

- 4/ Murrailatik atera  
ondoko segida,  
errepartitu ginene  
oro bana bida;  
seinale garbia da  
ez ginela fida,  
guardiak erne zauden  
azantzer begira,  
kontent ginene bizirik  
heltzia zubira.
  
- 5/ Zubira ginenean  
oro elgarrengana,  
presentatzeko lotsa  
guardiarengana;  
batek, berak juaiteko  
hartu zuen plana;  
gu bida gibeletik  
beldurrez hengana,  
arribada unian  
sartzeko oreña.
  
- 6/ Arribada baneza  
ongi manifesta,  
lastima ez laitenik  
konpañian ezta;  
bi aldetarik tiroka  
gure errekesta,  
kosta aize bateki  
lur barna tempesta,  
han ikusi ginuen  
terribleko besta.

- 7/ Bestaren erretoria  
dolore tristia,  
miletan aisago da  
orai erraitia;  
ingurina guzia  
etsaiez betia,  
miserable zen gure  
estremitatia,  
ez ginuen dudatzen  
an desegitia.
- 8/ Parlamenduko bida,  
tristeziareki,  
etzanik kontserbatu  
biziak uroski;  
gero frantzesetara  
juntatziareki,  
nezesario zela  
juaitia preziski  
jeneralarengana  
gure arrazoineki.
- 9/ Prinzipal hari nion  
eskatu grazia:  
«Jauna, otoi, barkatu  
gure ausartzia!  
Konpaña badugu  
gibela utzia;  
desiratzen ginuke  
harat laguntzia,  
konbeni balitzaizu  
gutan fidatzia».

- 10/ Errepostua fite  
prinzipalak neri:  
oben egin liola  
bere graduari.  
«Jauna, urrikal zite  
gure manerari,  
biziaz nahi dugu  
berme jarri,  
deus gerta balakio  
zure armadari».
- 11/ Soldaduak an ditu  
manatzen berehala,  
konpañiarengana  
lagun gintzatela;  
zenbaitek uste zuten  
hilak gintzatela,  
alegerarik zauden  
herioa bezala,  
otoitzak guretako  
eginik zaudela.
- 12/ Fite konsolatzeko  
gaizki abiatu,  
desfortunak holako  
seinaleak ditu;  
gu ere guardiara  
zortzi arribatu,  
gidari berriekin  
bidiari lotu,  
jeneralari behar  
zela presentatu.

- 13/ Jeneralaren gana  
arribatzen gira,  
pasaporten hartzera  
Tolosa hirira;  
bi jendarmen artian  
atseko Ernanira,  
an sala polizian  
alojatzen gira,  
miserabliak odre  
onaren begira.
- 14/ Tolosara arribatu  
biharamunian,  
ilaren amairu-  
garren egunian;  
zuzenak ginelakotz  
opinionian,  
dekret bat eman zuten  
umore unian,  
esplikatu gabe zer  
kausaren gainian.
- 15/ Dekretatu zenian  
Tolosan konpleta,  
sententzia emaile  
bazen fornimenta;  
nigar iturrietan  
iru madamita,  
guri ordenatziaz  
ainbertze tormenta,  
bainan bertzek ereman  
ontsa lotu eta.

- 16/ Utzi ginuenian  
Tolosa gibela,  
segur da bihotzian  
pena ginuela;  
ordenatzen zaguten  
heriotze krudela,  
anitz pikarderia  
egin ginuela,  
Mitxelenaren plaza  
behar ginuela.
- 17/ Billafranka herrira  
hurbiltzen pausia,  
begien bistan daukat  
hang presentzia;  
lehenbiziko pena  
zepuan sartzia,  
bigarrena esperantza  
galtzeko bizia,  
hobe zela Jainkoari  
bihotza altxatzia.
- 18/ Bertze bi egunetan  
gero Mondragora,  
irugarrena pausan  
dezagun ohora;  
gau erdiko jeikirik  
bidiari gora,  
guri beti bezala  
hiltzia gogora,  
nunbaitereko ditxa  
gabeko denbora.

- 19/ Salinasko mendira  
gira arribatzen,  
unibersalak hasi  
gure arrobatzen;  
ez diru ez arropaik  
etzaigu baratzen,  
bertzen zaharrak ditû  
soinian paratzen,  
halako pobrerikan  
ez da paseatzen.
- 20/ Unibersal horiek  
zer kaballeruak!  
Gerla bertzek egin ta  
soldadu beruak;  
gizon mañifikuek  
dituzte graduak,  
Herodesen pareko  
salbai borreguak,  
legerik ez dakiten  
jende barbaruak.
- 21/ Bitoria aldera  
berehala martxe,  
uste ginuen hiltzen  
ginuztela hantxe;  
gure kontra espantuz  
hangongo dama beltxek:  
presentatu ginela  
sobera berantxe,  
barkamendurik etzela  
guretzat oraixe.

- 22/ Gobernadoriaren  
gana arribatu,  
gure manerak oro  
hari deklaratu;  
kristauren legian  
harek errezibitu,  
bai eta kordetarik  
guziak libratu,  
nola bere semeak  
harek konsolatu.
- 23/ Konsolatu ginituen  
kaesa beruan,  
eta menbro guziak  
paratu libruan;  
despatxa gintzazkela  
etxerat lerruan,  
balitz gure eremuko  
zonbaiten graduan;  
gure tribunalia  
zela Nafarruan.
- 24/ Nafarruako seme  
kreatu mundura,  
probintzian penetan  
ibili ardura;  
arribaturik ere  
gure eremura,  
mila barbaridade  
eta arrangura:  
purgatoriolarik  
sartu infernura.

- 25/ Infernu bat in daike  
españolezkua,  
ez dute ikusi nahi  
presuna justua;  
nola serbitza diron  
jendiak gustua?  
Beti errespetatzen  
dute injustua,  
lur huntan dugulakotz  
gobernu gaiztua.
- 26/ Goberniaren kontra  
erreklama naite,  
behar den erregela  
ez dutela maite;  
jende miserablia  
arrobotzen dute,  
pena da irautia,  
erran ahal daite  
afer mantenatzen da  
sobera tunante.
- 27/ Tunantekeriako  
arraza guzia,  
damurik utzi behar  
munduko bizia!  
Odolian dutela  
beren noblezia,  
negoziatzen dute  
mila malezia,  
larrutu nahi dute  
jende buluzia.

- 28/ Nafarruako serbil  
lepondo gorriak,  
Luzifer lotsa diro  
haren koloriak;  
montañesak girela  
oro traidoriak,  
martier finitzeko  
emanez odriak,  
arrasatu balitu  
enperadoriak!
- 29/ Zortzira ehun palo  
ordenatu zauten,  
duda niz halakuek  
arimarik bauten;  
ez dakit nehork ere  
sinetsiko nauten,  
zenbat purgatorio  
erakutsi zauten;  
bihotza trankilago  
bizi gira aurten.
- 30/ Gure libertatia  
ongi etorri dela!  
Lehen ikusi dugu  
denbora krudela;  
estima dezagula  
gure amodio fidela,  
pena duten guziak  
konsola ditela,  
atsegin duteneri  
egin guri bezala.

Bertso auek Jose Maria Satrustegi jaunak argitaratu zituan, bere *Bordel bertsularia* liburuan, *Auspoa*'ren 45-46 zenbakian. Berak nundik zituan adierazteko, onela esaten du:

«*Pedro Lizarraga*'ren bertso papera.– Eskuz idatzirik dago. Asieran esaten du: «Cantiac formatiac luzaiden Juan Echamendi zenak zorci eun eta lauetan ogoiyan». Orduko hila zen bertsularia, 1879'ko mayatzaren 30'ean. Behar bada Lizarragak bere «kopia» atera zuen urtea izango da asieran duena.

Pedro Lizarraga Bordelen denborakoa zen eta, berez, maistrua. Luzaiden, Karrikaburuko semea, paper asko utzi zuen galdu ta erre ez balira».

Ondoren bertso auen aldaketak ematen ditu Satrustegi jaunak. Aldaketa oiek ikusi nai dituanak, dalako liburu ortan arkituko ditu.



Leenengo bertsoak dionez, 1823 urtean Bordel bertsularia «Donostia hirian» zan, «zerbitzuan», «liberalitateko bandera berrian».

Ez da, beraz, Enrike Zubiri *Manezaundi* idazleak esaten duana: «Carlos V'ren gerlan, Zumalakarregi-ren denboran, Luzaide-tik ereman zitzuten bortxaz, ahari artalde bat bezala bahituak muthiko gazte andana bat Donostirat, eta heien artean zen «Boryel». Ez dakigu nola eta zergatik La Mota deithu gazteluan sartu zitzuten hobendunak bezala lurpeko gela beltz batian».

Karlos V'ren gerra asteko, eta Zumalakarregi karlisten buru izateko, amar urte falta ziran. Gure iritzirako, Manezaundik erriaren aotik artuko zituan zer esanak, eta erria ez da txeetasun oietan oso xuxen ibiltzen. Ortik aparte, realisten gerra ori (1821-1823) beste bi gerra aundiren arteko gerra txiki bat izan zan: frantzestea (1808-1814) eta leenengo karlistatea (1833-1839). Eta aundiak txikia estali eta izkutatu egiten du beti.

«Zerbitzuan» zegoala esaten du berak; soldaduskan alegia. Onek beste arazo bat ekartzen digu: nola ote zegoan Bordel soldaduskan, bera Naparroako semea izanik eta fureoen denbora zalarik? Orduan ez baitzeuden naparrak armak artzera beartuak. Berak alaxe naita joan ote zan, beraz? Edo-ta, gerra iñoren eskubideak errespetatzen ez dakiana baita, artu eta nai ta nai ez eraman ote zuten, Manezaundik esaten duan bezela? Ez dakigu zer esan.

Gerra artan, «San Luisen eun milla semeak» deitu zitzaien soldaduak etorri ziran Frantzitik, realistei liberalen kontra laguntzera. Bidasoa ibaia 1823'ko apirillaren 7'an igaro zuten. Madrid, berriz, urte bereko maiatzaren 23'an artu zuten. Donostiarra, ordea, arpegi eman zien; eta naizta inguru guzia frantzesak artua egon, etzuan amor eman iraillaren 27'a arte. Egun artan errenditu zan.

Frantzesak kanpotik ziran, beraz. Bordel eta bere soldadu lagunak, berriz, erri barruan. Frantzesen aldera pasatzea erabaki zuten bederatziz lagunek. «Dessertatu» alegia, berak leenengo bertsoan esaten duanez. Zergatik ote? Ziur aski, Madrid ere artua zala, frantzesak andik ere aurrera zijoazelarik eta gerra galdua zutela pentsatuko zutelako. Gero ikusiko zuten gurutz-bidea kontuan arturik, «inozentkerian» emandako pausoa izan zan noski.

Bigarren bertsoak dionez, ekainaren 12'an, gaueko bederatzietan, abitu ziran igesi. Urte garai ortan eguna luzea izaten da; baiña ordurako illundu berria, eguzkiaren orduetan ibiliko baitziran. Nundik joan ziran irugarren bertsoak esaten du: «muraila pian sartu», «kanale batia barna atera errestan» eta «murailatik atera ondoko segida». Manezaundik onela dio: «Eta gaztelu lurpeko ixurginen bidia harturik, ukhurtuak eta kasik herrestan lekhu okaztagarri hartan ardiesten dute kanporat heltzea».

Kanpora irten eta bana-binaka sailkatu ziran: «errepartitu ginen oro bana bida». «Guardiak erne zauden azantzer begira» esaten du laugarren bertsoak. Baita igeslariak ere, guardien bildurrez.

Urrengoko pausoa Zubia igarotzea zuten. «Kontent ginen bizirik heltzia Zubia» dio laugarren bertsoak. Eta bostgarrenak: «Zubia ginenian oro elgarrengana». Zein zubi zuten, ordea? Ez, gure iritzirako, erderaz *puente levadizo* esaten zaiona, ordurako murailletatik aurrera zijoazen eta. Urumea ibaiaren Zubia izango da, beraz. Zubia bakarra garai artan, eta zurezkoa, geroago ere Donostiarra grabadoetan agertzen danez.

An guardia izaki, ordea, eta bildurra: «presentatzeko lotsa guardiarengana». Lan ortarako bat prestatu zan: «batek bera joaiteko hartz zuen plana». Bordel eta beste lagun bat ziran ondotik: «gu bida gibeletik beldurrez hengana».

Unerik arriskutsuena bera zuten: alde batetik bestera igarotzerako alegia. Españoiko azkeneko gerratean pauso ori eman zuanik ezagutuak gera. Itzegin ere bai gai ortaz. Bildurrik aundieta orduantxe pasa zutela esan oi dute danak

ere. Alde batetik igesi zijoazela, beste aldekoak nola artuko zituzten ezin jakin. Badira une ortan bizia galduak ere.

Bordel eta bere lagunak ere larri ibili ziran. Alde batetik eta bestetik tiroka eraso zieten: «bi aldetarik tiroka gure errekesta». «Ingurina guzia etsaiez betia» baitzegoan. «Parlamenduko bida» zirala esaten du zortzigarren bertsoak. Baiña oiek ozta-ozta atera ziran bizirik: «etzanik konserbatu biziak uroski». Oietako bat Bordel zan.

Jeneralarengana eraman bear zituztela esan zion frantzesen ofizialak. Bordelek, berriz, lagunak bazituztela atzean utziak eta aiengana lagunduko ote zion erantzun. Asarretu egin zitzaison orduan ofiziala. Bordelek, berriz, ezer okerrik gerta ezkero bere biziarekin pagatuko zuala esan. Orduan soldadu batzuekin bialtzen ditu lagunetara. Auek, Bordel eta bere laguna illak ziralakoan zeuden, eta bizirik ikustean pozaldi ederra artu.

Etzan talde osoa beste aldera iritxi. «Gu ere guardiara zortzi arribatu». Satrustegik onela esaten du: «Nork esan bear zuen salatzailea beren artean izanen zutela!». Eta Antonio Arrue zanak, berriz, onela dio: *«viene a decir Bordel que eran nueve los soldados que se evadieron, pero que entre ellos había un traidor y que éste les vendió...»*. Eta ondoren: *«...nos dice que cayeron en manos de los franceses, pero solamente ocho, esto es, todos menos el traidor, naturalmente»*.

Baditeke ori orrela izatea, irugarren bertsoak onela esaten baitu: «zenbai-tek malezia zuten beren baitan». Baiña bederatzigarren lagun ori salatzaillea zutela ez da garbiegi ikusten. Tiroketa artan eroria ere izan zitekean. Une au ez dute bertsoak bear aiñean argitzen, gure iritzirako beintzat.

Bordel eta bere lagunak dana eginda zutela usteko zuten. Ezta urrik eman ere. EspaÑiako azken gerratean alde batetik bestera pasatutakoak ere orrenbestez okerrena egiña zutela pentsatzen zuten. Baiña oraindik bereak eta bi ikusteko zeuden. Nor eta zer ziran artean garbitzeko baitzegoan. Emen ere berdin gertatu zan.

Leenengo, jeneralarengana bialtzen dituzte «pasaporten artzera». Andik «bi jendarmen artian atseko Ernanira».

«Mitxelenaren plaza behar ginuela» esaten du amaseigarren bertsoak. Au Antonio Arrue zanak argitu zuan. Onela dio:

«En estos versos se refiere indudablemente Bordel al sacerdote Matías Michelena, quien durante la noche del 3 al 4 de mayo de 1823, esto es, treinta y pocos días antes solamente de la iniciación de los hechos a que se contraen los versos de Bordel que comentamos, y juntamente con siete frailes del Convento de San Telmo, fue asesinado y despeñado al mar desde el Monte Urgull por varios soldados, mandados por un subteniente, de las fuerzas constitucionales de la guarnición del Castillo de la Mota».

Ordizin ere larri ibili ziran: «leenbiziko pena zepuan sartzia; bigarrena esperantza galtzeko bizia». Andik, Arrasatetik barrena, «Salinas'ko mendira». Arlaban gaiña izango da. Antxe, *unibersalak* izeneko soldaduak lapurretan asten zaizkie. «Ez diru ez arropai etzaigu baratzen» esaten digu, eta besteen zaharrak dituzte soiñean paratzen.

Andik Gasteiza. Baiña «gure kontra espantuz hango dama beltxek». Zergatik ote? «Presentatu ginela sobera berantxe». Besteren batzuk ere baziran, beraz, alde batetik bestera pasatuak Bordel eta bere lagunak baiño leenago.

Gasteizko gobernadoreak ondo artzen ditu. «Bai eta kordetarik guziak libratu» ere; eta «nola bere semeak harek konsolatu». Baiña aien epailea Naparroan zala eta ara bialdu. Eta zertarako? Purgatoriok infernura sartzeko.

Naparroako realistik gaizki artzen dituzte. Bordel aien aurka sutu egiten da. «Nafarruako serbil lepondo gorriak» esaten die.

«Lepondo gorriak» zein diran onela argitzen du Satrustegik: «Nafarruak baditu Mendi-aldea ta Erríbera. Beherekoendako gu «montañesak» gera. Ez da euskeraren gora-bera bakarrik; askotan aragonesekin ikusteko gehiago dute gurekin baino. «Nafarruako serbil lepondo gorriak», Bordelen bertsuetan erriberakoak dira; «montañesak», berriz, euskaldunak».

*Serbil* itzak, berriz, zer esan nazi duan, onela argitzen du Espasa enziklopediak: «Apodo con que los que profesaban ideas liberales designaban, en el primer tercio del siglo XIX, a los que preferían la monarquía absoluta».

«Arrasatu balitu enperadoriak» esaten du Bordelek erriberako oiengatik. Enperadore ori Napoleon izango da, guk uste; Bidasoaz ego aldera ere ainbeste buruauste, ondamendi eta eriotz ekarri zituana. Olakorik berriz ere ikustea iñori opa izatea madarikazio aundi samarra da noski.

Baiña gizarajo aien guruzbidea bukatu gabe zegoan. Zortzi lagunei euna

makilkada ematea agintzen dute. Manezaundik, erriaren aotik jasota dudarik gabe, txeetasun gogoangarri bat jakin arazten digu:

«Bakotxari ehun makhil ukhaldi bizkarrian...

Eta hemen agertu zen nolako bihotza zien gure «Boryel» phertsulariak. Bere anaya ere harekin zen, hobendunen artean, bainan osagarri xarrean eta sukarrarrekin izanik, Boryelek ezagutu zien izagarriko zigorrada haren ondotik etzela bizirik atherako gaixo anai.

Ordian galdezen du aitzindarier othoi utz dezaten berak hartzea anaiaren ordainak, eta baimena ardietsirik, bere bizkar buluzian emaiten dazkote berrrehun makhil ukhaldi...

Erdi hila, odolztatua, sarraskitua ereman zuten eritegirat, eta heriotzarekin borroka ibili ondoan, mirakuluz sendatu zen».

Baiña noizbait ere askatasuna lortzen dute. «Gure libertatia ongi etorri dela!» esaten du Bordelek azken bertsoan pozez beterik. Baiña utsune bat arkitzen degu guk emen: ez duala askatasun ori noiz eta nola eman zieten esaten.

Geiegi luzatu gera bearbada. Baiña Bordelen bertso auek ulert errezagokoak biurtzea izan da gure asmoa.

**LEENENGO KARLISTATEAREN  
AURREKO BERTSOAK**

**(1823-1833)**

**AMA GIPUZKOAREN SEME-ALABA MAITIAK,  
BEREN ERREGE TA ERREGIÑA ONEGIEN  
ETORRERAK POZKIDATURIK,  
KANTUZ JOSTALDITZEKO ATERA DIRADEN  
BERTSO EDO ITZ NEURTUAK.**

- 1/ Milla zortzi eun ogei  
eta zortzi urte  
Jesukristo jaiorik  
orain bear dute;  
era gozo onekin  
pozkida ainbeste  
gipuzkoatarrentzat  
ez nuen nik uste.
- 2/ Osasun onarekin  
gañera pakea,  
gogoangarri degu  
aurtengo urtea;  
Fernando errege ta  
bere emaztea  
Gipuzkoak txit nai du  
emen ikustea.
- 3/ Gipuzkoa izanik  
ain leial ta piña,  
gogoz datozen errege  
eta erregiña;  
neurri gabekoa da  
gure atsegíña,  
etzaiku damututzen  
berai on egiña.

- 4/ Motrikora joanik  
Ama Probintzia,  
batzarrean eman du  
bere iritzia:  
Fernando onarekin  
Amalia eztia  
ondratzen gastatzeko  
bear dan guzta.
- 5/ Bidez gastatzen dana  
damu bear ezta,  
Tolosan egiten du  
lenbiziko festa;  
andik Donostiarra,  
Bergara ere prest da,  
dantzatuko da zenbait  
mutil eta neska.
- 6/ Iñork nai badu asi  
jostarien billa,  
guzietan onenak  
Donostian dira;  
zoraturikan berai  
legoke begira,  
nork joan bear ez du  
alako errira?
- 7/ Dantzari mota asko,  
egoki jantziak,  
denbora labur batez  
ongi ikasiak,  
dama galai eder ta  
zar gazte guziak  
jarri ditu jostari  
orain probintziak.

- 8/ Itxasoz ta leorrez  
asko ikuskari  
txukinkiro dituzte  
Donostian jarri;  
etxe guziak ere  
txuri eta garbi,  
errege maitearekin  
gure ondragarri.
- 9/ Festak izango dira  
ain ikustekoak:  
dantzari ariñakin  
zezen iltzekoak;  
seme alaba eder  
jostari pijoak  
prest jaririk daduzka  
Ama Gipuzkoak.
- 10/ Zarrik eta gazteak,  
nere iritzian,  
pozkidaturik daude  
gure probintzian  
errege maitatzeko  
alegin guzian;  
damurik egongo da  
denbora gutxian.
- 11/ Gipuzkoar prestuak  
munduak badaki  
jostariak dirana  
guzien gañeti;  
erregeak maitatzen  
len orain ta beti,  
amodio beroaz  
biotz-biotzeti.

- 12/ Errege ta erregiña  
jartzeko tokia,  
jauregi eder galant  
guziz egokia;  
apainduriaz ere  
ain dago goitia,  
Corral jaunaren etxe  
bere berekia.
- 13/ Nekezak izan arren  
onelako lanak,  
aisa egin oi ditu  
jakintia danak;  
gipuzkoar guziok  
maite degun Amak,  
artako jarri ditu  
diputadu jaunak.
- 14/ Aldamar, Olazabal  
eta Etxague,  
Lardizabal laugarren  
lagun omen due;  
bat bearrean ez da  
txarra sartu ure,  
zenbait gauza egoki  
berak egin due.
- 15/ Atsegíñetan gera  
Gipuzkoan bizi,  
iñork etzuen uste  
era au ikusi;  
eman genduen itza  
ez degu nai ausi:  
Fernando erregea  
da gure nagusi.

- 16/ Erregiña maitati  
andre Amalia  
ikusten degula da  
bigarren aldia;  
bera dalako aiñ on  
ta maitagarria,  
biotzetan daukagu  
betiko jarria.
- 17/ Bizi bitez errege  
eta erregiña,  
oen zoriona da  
gure atsegina;  
sendatuko litzake  
gipuztarren miña,  
beti-betiko beren  
aldean bagiña.

Or goiko izenburu luze orrek ederki adierazten du bertso auen gaia zer dan: Fernando VII eta bere andre Amalia Gipuzkoara 1828 urtean nola etorri ziran eta zer arrera ona egin zitzaien.

Iru tokitan arkitu ditugu bertso auek: Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren paperetan, inprintatuta. Baiña sail osoa ez. Papera puskatuta dago eta bost bertso bakarrik ditu: 12, 13, 14, 15 eta 16'garrena, eta oiek ere ez osorik.

Beste bietan eskuz idatzita daude: Don Manuel Lekuona zanaren bilduman eta Aita Frantzisko Apalategi zanaren paperetan. Ez dute aldaketarik alkarrekin.

Lekuona jaunak onela aditzera eman zuan bein batez, paper ori nundikan zuan:

«...Alkote-xarra deritzan etxe aberats bateko liburutegian, beste zenbait papertxoen artean, koloredun papera politez egindako toxoa bezelako zar bat arkitu nun: karteratxo bat zan, orain eun urte ta geiagoko andereño batek, bere gordairu kutun bezela, erabili oi zuan kartera edo toxatxo bat. Eta aren barruko amar-amabi paperen artean, beste *Bertso Berri* zenbaitekin, eskuz egindako

Santa Klararen bizitzako koplatxo oiek zeuden ondotxo tolestaturik. Ikusten danez, gure antziñako andereño aiek ere kantatzen zituzten kopla polit oiek, beste batzuen artean, maitezko ta beste olakoren artean. Kantatu ta ezkutuan gorde ere, kontuz-kontuz tolestatuta... Gure karteratxoaren jabea, gero monja sartu zan Oñati-Bidaurretako konbentuan: Santa Klararen Ordenako monja...».

Beste *Bertso Berri* oien artean, onako auek zeuden.



Erregea Kataluñatik zetorren. Bartzelonan bost illabete eginda. Maiatzaren 19'an Tudelara iritxi zan. Bere santu eguna, illaren 30'garrena, Iruñen igaro zuan, eta andik Gipuzkoara abiatu.

Garaiz jarri zan bidean Naparroako diputazioa, *El Pensamiento Navarro* egunkariak, 1980'ko otsailaren 16'an argitaratutako *Fernando VII en Pamplona (1828)* idazlanean esaten danez:

*«Sabida ya que la llegada del monarca a Tudela sería al 19 de mayo, tres días antes salió de la capital la Diputación del Reino, presidida por el señor Virrey y seguida de todo el acompañamiento de maceros, porteros, lacayos y criados, para testimoniar al Rey el amor y lealtad de los fieles navarros».*

Tudelako erriak prestamen audiak egin zituan erregeari arrera ona egiteko:

*«Tudela se estiró en detalles para el recibimiento. En la ciudad se colocaron arcos artísticos para conmemorar el acto. Proliferaron las alegorías y las inscripciones. Algunas, de este tipo:*

*Las penas huyeron  
del Pueblo Vascón,  
la risa y el gozo  
allá las hundieron  
do nunca brillara  
hispano campeón.*

*Aquí su regocijo  
su Trono fijó  
desde que Fernando  
cariñoso dijo:  
«Que yo la visite  
Navarra logró».*

Baiña beste errietañ ere etziran nagi ibili. Danak ere alegiñean saiatu zirala dudarik ez da:

*«En Arguedas, Valtierra y Caparroso colocaron a ambos lados del camino centenares de árboles adornados de cintas y letreros alusivos. Tafalla preparó todo un festival folklórico. A la entrada de la ciudad el Ayuntamiento organizó un balcón cubierto de telas y colgaduras donde se colocaron todos los mocetes de la escuela, vestidos de blanco, con palmas en las manos, con bandas coloradas y unos corazones dorados colgando del pecho con esta inscripción: «¡De todos para Fernando!...». En el festival se desarrollaron unas danzas de damas y galanes, otro baile llamado «de locos», otro de pastores y por último uno de niños, consistente en una especie de ezpatadantza a base de evoluciones con sables y lanzas.*

*En Garinoain se dispuso una arboleda a costa de la riqueza forestal del Carrascal. Doce mozas vestidas de blanco y armadas con fusiles evolucionaron con gracia y marcialidad ante los reyes, provocando la complacencia del Rey y los celos de su consorte».*



Erregearen etorreraren oroigarri izan zedin, liburuxka bat argitaratu zan gero, izenburu luze onekin:

*«Relación del tránsito y estancias de los Reyes Nuestros Señores D. Fernando Sétimo y Doña María Josefa Amalia en la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa, desde el dia 2 de Junio de 1828 en que entraron desde el reino de Navarra por el punto limítrofe de Illarrazu, hasta el 14 del mismo en que pasaron al Señorío de Vizcaya por el de Olarreaga. Tolosa (1828)».*

Pirala kondairalariak, berriz, liburuxka polit bat idatzi zuan izenburu onekin: «*San Sebastián en el siglo XIX. Madrid, 1909*».

Bi liburu oietatik artuak dira orain emen esango ditugunak.

Bostgarren bertsoak, erregea Tolosa, Donostia eta Bergaran izana zala esaten digu. Ura nundik nora ibili zan, zeatzago esan genezake.

Garagarrillaren 2'an, Illarrazura etorri zan. Andik, Lizartza eta Amaroztik barrena, napar zubia igaro eta Tolosara. Emen, Plaza Zaarreko Idiakez jauregia eman zioten ostatutzat.

Biaramona bertan igaro zuan, eta zernai jaialdi egin zitzaito. Urrengokoizean, garagarrillaren 4'an, Tolosatik irten, Irura, Billabona, Andoain, Urnieta eta Ernanitik barrena, Donostira.

Sarreran arkupe audi bat jarrita zegoan, latiñez, gazteleraez eta euskeraz iru irakurgai zituana. Ona euskerazkoa:

«Fernando VII maitagarriari  
Españetaco errege, españarren aita  
anciña-eraco Cantauria icustatzen duena  
Guipuzcoako seme guciac, ta batez ere Donostiacon  
aurreratua daucatelako uriaren berriztutcea  
ceña bucatzea uste duten beraren berri onan bidez  
escaintzen diote oroicarri au.

Erreguiña Amalia maitatiari  
Erreiñoaren apaingarria, erriac chit asco maite duena,  
zorion guziona, Guipuzcoa osoac, eta batez ere Donostiac  
berari dion naitasun bero bici banaitarequin  
errege-enganako ichupen gartsua gatic, eta doaitasunen saritzat  
escaintzen du amodiozco zati chiqui au chit gogoz.

Ilion berriztatura bector Fernando  
galquerac dacuste gure fedea  
oroitgarriac goit-alchatzen dute bedorren erreinaldia  
erori zan bedorrengatik, jaso zuen  
eta bedorrengan icheroten du edertcea».

Jende eskolatuak ez du «Ilion berriztatua» zer dan argitu bearrik, baiña ala ere esango degu, iñork ez badaki. Antziñako Troia iria aitatzan da orrekin. Ilion ere esaten baitzoten. Erri ura grezitarrok erre eta apurtu zuten, 1813'an ingle-sak-eta Donostia egin zuten bezela. Baiña amabost urte igaroak ziran, eta au «berriztatzen» ari zan.

Konstituzioko plazan, *obelisco* bat, zutikako arri bat jarri zuten, ura ere latinez, gaztelaniaz eta euskeraz iru irakurgai zituana. Euskerazkoa onako au:

«Donostia edo Ilion berriztatua  
gere goienengo ostatesa maiteai  
naitasuna dauca betico ciñeztatua  
bera ta beraren languin anaituac dute nai  
beren erregue onguilleari metarri au  
escañi naitasunaren icusgai.

Pirineoco mendi tontorren gañean  
Guipuzcoa bere erregue-enzaco ernai beti  
leial eta pin jarri ezquero gaiean;  
eta janzquera egatzen goiti  
oroipentzat ipini zan gure erregue  
maite zori onecoaren pozcarri».

Laugarren bertsoak dionez, Gipuzkoako diputaduak Mutrikun egin zuten aldi artan beren urteroko batzarra, eta erregearen etorrera ospatzeko gastatu bildurrez ez egoteko erabaki.

Festak eta jostaldiak antolatzeko gizonak ere berezi zituzten. Oien izenak amalaugarren bertsoak ematen dizkigu.

Leen esan bezela, Donostia osoki berriztatu gabe zegoan oraindik. Orrek buruauste batzuk sortu zituan. Leenengoa, errege-erregiña ostattuz nun jarri. Onela dio Piralak:

«Dispuestos el Ayuntamiento, Consulado y vecindario, y nombradas las consabidas Comisiones, empezaron éstas su trabajo, habilitando para alojamiento del Rey la recién construída casa que en la Plaza Vieja tenía D. Fausto Corral.

*Alquiláronse también para la servidumbre los almacenes y casas de Doña Magdalena Muñoa, D. Juan Urrozola y D. Andrés Urbano.*

*Costosas fueron las obras y el decorado del improvisado palacio, al que contribuyeron con sus muebles muchos particulares. Colocóse elegante trono, por el que se pagaron 3.800 reales a M. Bergarac, y un oratorio pedido por el Rey, que deseaba oír misa diaria, arreglado por Doña Juana Amestoy».*

Etxe orren aitamena, amabigarren bertsoak egiten du.

Bertsoak ez dute olakorik ezer aitatzen, baiña merezzi du Piralaren itz auek onera aldatzea:

*«Surtían la real mesa cazadores a jornal, y no pequeño; pescadores recogían a diario mariscos en la costa y salmones en el Bidasoa; 720 reales se pagaron a la viuda de Pozzy por Champagne; 476 por nieve a la popular Facunda Ortí, dueña del Café del Cubo; 720 a D. Pedro Queheille por cigarros habanos. algunos curiosísimos, que asciende, sólo los de mesa y boca, a 81.598 reales, y que demuestran la esplendidez y buen gusto de los comisionados encargados de proveer la real mesa, que se cubría con rica mantelería adquirida a doña Francisca Bally; la adornaba vajilla de Nicolás Pedrallo y otros, y rico servicio de plata del que estaban encargados D. Antonio Esnaola y D. José L. Aspiazu, víctima éste años después de las luchas civiles».*

Erregea etorri aurretik, etxeak apaindu egin ziran. Zortzigarren bertsoak esaten du ori. Baita Piralak ere:

*«A las diez de la mañana del día 4 anunciaron los cañones del Castillo la llegada de los Reyes, para la que estaban ya preparados los vecinos, que adornaban las recién blanqueadas fachadas de sus casas con ricas colgaduras y follaje, y con larga cenefa de tela carmesí y guirnaldas de laurel el cornisamiento y arcos de la Plaza Vieja».*

Zenbait bertsotan, dantzarien aitamenak egiten dira. Euskal dantzak bein baiño geiagotan dantzatu baitziran erregearen aurrean, Piralak dionez:

*«Pesada sería la relación detallada de las fiestas que se celebraron en observio de la Real Familia, porque fueron muchas y muy variadas, empezando aquella misma tarde delante de los Reyes con las danzas de las comparsas de Ezpatadantzaris y Burruga, bailes que agradaron a los Reyes por la novedad y el*

*pintoresco aspecto que sin duda ofrecía la adornada Plaza Vieja, llena de gente que se apretaba en arcos y calles, y coronaba la altísima muralla.*

*Presenció también Fernando lucido y vistoso simulacro de combate naval en la bahía; iluminación general; zortzicos bailados por la muy notable comparsa de Pastores de Arcadia, que cantó composiciones del maestro Albéniz...».*

«Itxasoz ta legorrez asko ikuskari» izan zirala esaten digu zortzigarren bertssoak. Itxas ikuskari bat aitatu berria degu. Beste bat onela egin zan:

*«Curiosa fue la fiesta de la bahía. Tomaron parte en ella más de cien marineros uniformados, que extendieron gran red de mil brazas que estrechaban hacia la playa, donde recogieron la pesca entre la algazara del gentío que llenaba los arsenales(1), y en bandeja de plata ofrecieron algunos peces a los Reyes, que desde un tablado presenciaron el espectáculo».*

Legorreko jaialdirik ere izan zan. Oietako bat aitatu nai genduke orain. Udaletxea artean egiteko zegoan, eta leenengo arria erregeak jarri zuan. Ona Piralaren itzak:

*«Una de las fiestas más gratas para la ciudad se celebró el día 10, colocando el Rey la primera piedra para el edificio de la actual Casa Consistorial, en el mismo sitio que ocupaba la antigua, de la que se habían demolido en 1819 la escalera y algunos muros que quedaron en pie después de la ruina. Aprovechando la estancia del Rey y lo agradecido que debía estar a los agasajos y fiestas que en obsequio suyo celebraba San Sebastián, presentóle el Ayuntamiento una exposición en la que, recordándole su Real Decreto de 21 de Julio de 1816, por el que se declara Fernando protector de la reedificación, le suplicaba se dignara colocar con sus manos la primera piedra de la Casa Concejil, por ser edificio de imprescindible necesidad y para tener «casa donde poder guardar el Decreto de 1816».*

*A esta exposición contestó el Rey con una Real Orden, en que decía:*

*«Queriendo N. S. dar a su ciudad de San Sebastián una prueba del interés que toma en su reedificación, se ha servido acceder a la solicitud de V. S. S. de 6 del corriente, resolviendo colocar por sí mismo la primera piedra del edificio que debe construirse para servicio de ese Ayuntamiento.*

*Y lo digo a V. S. S. para su gobierno y satisfacción. San Sebastián, 9 de junio de 1828.— Calomarde».*

*Halagó este documento a los vecinos, y mucho más a los entusiastas monárquicos el su ciudad, que el Rey había puesto, como deferencia a ella, en el documento.*

*Señalóse el día 10 para la ceremonia, y a las seis de su tarde esperaban ya en la Plaza el Cabildo y comunidades religiosas, presididas por el Obispo de Ciudad Rodrigo. No tardó la regia comitiva: a pie los Reyes, precedidos por el Ayuntamiento y Consulado, la Junta de obras, músicas, ezpatadantzaris y los tamborileros Pedro Latierre y otros.*

*Pisando rica alfombra tendida desde la entrada de la Plaza, llegó el Rey a la zanja. El Alcalde, D. Joaquín L. Birmingham, le presentó una bandeja, cogió de ella Fernando una Guía de forasteros, una octava alusiva y el acta municipal, e introduciendo estos objetos en un tubo de cristal, le embutió en la piedra, entre atronadores vivas, armado de dorada palanqueta de acero, ayudó el Rey a colocar y alinear en su sitio la citada primera piedra, en la que estaba grabada esta inscripción:*

*FERDINANDUS VII REX.  
IPSEM ET POSUIT  
DIE. X JUN. AN. MDCCCXXVIII.»*

Oso festa ederra, baiña garestia; 356.003 erreal gastatu ziran beintzat.

Festa orrentzako bertsoak ere izan ziran. Jose Bizente Etxagaray bertso jartzaille ugariak moldatu zituan saillak –urrengo orrialdeetan arkituko ditu irakurleak— eta onako au, norena dan ez badakigu ere. Erderaz ere paratu zituan norbaitek.

Garagarrillaren 11'n irten zan erregea Donostitik; berriro Tolosara joan eta gaua an pasa.

Biaramoneko ibillaldia: Alegi, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga, Urretxua, Antzuola eta Bergara. Plazaraiño

sartu ez, baiña Altzo, Itxaso, Ezkio, Gabiria eta Legazpiko lurretatik ere igaro zan.

Illaren 13'a Bergaran egin zuan; eta 14'an, Plazentzi eta Eibartik pasa eta Olarreagatik barrena Bizkaian sartu.

- 
- (1) Ez al da *arenales* izango?

# **DONOSTIYAK ERREGE ETA ERREGIÑAREN ZORIONEKO ETORRERARI ZORTZIKOA**

- 1/ Biotz nereko seme  
maite geiegiyak,  
itxoroten dizute  
Ama Donostiyak;  
beso zabal laztanka  
atozte guztiyak,  
aditzera pozezko  
zorion berriyak.
  
- 2/ Laugarren egunean,  
Garagar illean,  
degu Korpus bezpera  
aurtengo urtean;  
egun artan sartuko  
dirade goizean  
errege ta erregiña  
Donosti lurrean.
  
- 3/ Gure errege Fernando  
oberik eziña,  
Amalia onegi  
gure erregiña,  
donostiarrok egin  
arren alegiña,  
ez liteke beñere  
izan zuben diña.

- 4/ Denbora laburra da  
gelditzen zaiguna,  
baña borondatea  
aundiya ta ona;  
egin dezagun bada  
gogoz al deguna,  
gabaz eta egunaz  
utzi gabe lana.
  
- 5/ Erregeak agertzen  
diran istantean,  
festak asiko dira  
lurrean ta urean:  
eleizan, itxasoan,  
kanpoan, bidean,  
gazteluan, murallan,  
kaiean, kalean.
  
- 6/ Kontxan egongo dira  
txalupa ta ontziyak,  
banderaz apaindurik  
errenkan guztiyak;  
eta beren mariñel  
jende egokiyak  
erregeri egiten  
ongi etorriyak.
  
- 7/ Arku bat egongo da  
sorotik aldean,  
poliki ipiniya  
San Martin bidean,  
bere pillare eder  
berdiñen gañean,  
apainduba guztiya  
goien eta bean.

- 8/ Ezpata-dantzariyak  
irtenak bidera,  
zanko aztal ariñak  
ager egitera;  
erregeren aurretik  
biurtuko dira  
bere palaziyoko  
plaza atarira.
  
- 9/ Dantza-modu guztiyak  
izango dirade,  
egunaz eta gabaz,  
goiz ta arratsalde:  
brokeadu, jorrari,  
esku, gizon, andre,  
artzai ta beste milla  
zeñek bere alde.
  
- 10/ Piramide galantak  
edo metarriyak  
plazaren bi aldetan  
berdin ipiniyak,  
gutziz ederrak eta  
ekusigarriyak,  
egunaz itxugarri,  
gabean argiyak.
  
- 11/ Iru egunez dira  
iltzeko zezenak,  
Nafarroan arkitzen  
diran oberenak;  
Españian autubak  
arteko gizonak,  
pika, banderilla ta  
ezpata onenak.

- 12/ Txit panparroia dago  
egiten karroza,  
edertuko dubena  
aundizkiro plaza;  
eman bear diyote  
lau idik laguntza,  
adar urrezkoetan  
loturikan lantza.
- 13/ Barrenen juango dira,  
naikeran jantziyak,  
berrogeietaraño  
dama ta galaia:  
kantari, soñulari  
eta dantzariyak,  
etxeandre, manuak,(1)  
gazteak guztiyak.
- 14/ Gabak egun egiñik  
gure begiyetan,  
argi ta subak eder  
plaza kalietan,  
baile ekusgarriyak  
agintariyetan,  
soñubak eta dantzak  
leku guztiyetan.
- 15/ Ez naiz aspertu baña  
asko degu gaurko,  
utzi dezagun bada  
zerbait gerorako;  
Donostiyan diranak  
dute ekusiko  
emen esan ez degun  
gauzarikan asko.



Bertso auek ulertzeko, aski da aurreko saillaren ondotik jarri ditugunak irakurtzea.

Moldiztegi izenik gabeko paperetan agertu ziran. Paper oietako ale bat, Parisko Liburutegi Nazionalean dago eta mikrofilmez bialdu ziguten. Beste ale bat Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren paperetan arkitu genduan.

Bertso-paperak ez du egillearen izenik esaten. Baiña Parisko ortan, eta gure ustez Jose Manterolaren letraz, *Jose Vicente de Echagaray* irakurtzen zala esaten genduan, Echagaray onen bizitza eta bertsoekin osatutako liburuan: *Auspoa*, 35-36; eta egillea bera zala esan naiko zuala. Echagaray ori, izan ere, Donostiko bertso jartzallerik ugariena izan zan garai artan.

Baiña orain, Paristik bialdutako mikrofilm ortan ez ditugu itz oiek ikusten. Ala ere, argibide ori ontzat artzekoa dala uste degu, beste nurbait arkituko genduan eta.

---

(1) *Matronas y Genios*. (Bertso-paperaren oarra.)

## **A LOS REYES NUESTROS SEÑORES, ARKADIAKO ARTZAIAK**

### **MARTXA**

- 1/ Zer gertatzen da gaur Donostiyan?  
Nondik dator gure poza?  
Nora dijoaz gure begiyak?  
Zeñek darama biyotza?  
Gure Fernando maitea eta  
gure Amalia eztiya  
emen arkitzen dirade eta  
esana dago guztiya.
- 2/ Gure egun eta denborarako  
zerubak zeukan gordea  
zoriyon audi antziñetako  
erak ekusi gabea,  
Donostiyara etorririkan  
gure jaun eta jabea,  
erregeetan dan oberena  
eta erregiña andrea.
- 3/ Zor audiyan gelditzen gera  
onenbeste mesederi,  
ez dan bezela baliteke izan  
gure eman gaia ugari;  
Jauna, artu bada borondate on  
esker eta oroipenak,  
donostiarrak biyotz osotik  
eskaintzen dizkizutenak.

## ZORTZIKOA

- 1/ *Adorado Fernando*  
zazpigarrengoa,  
*oh rey esclarecido*  
Españiakoa,  
*Majestad soberana*  
biyotz gurekoa,  
*recibe el homenaje*  
Donostiakoa.
  
- 2/ *Estrella de Sajonia,*  
gure erregiña,  
*de las virtudes centro*  
zerubak egiña,  
*de la bondad modelo*  
oberik eziña,  
*cándida como tierna*  
iñor ez adiña.
  
- 3/ *Con huéspedes tan magnos*  
dago Donostiya  
*de admiración y gozo*  
beterik guztiya;  
*a felicidad tanta*  
ez erakutsiaya,  
*mira, ve, palpa, duda*  
bere on zoriya.
  
- 4/ *San Sebastián felice,*  
gaur zure semeak  
*son los más venturosos*  
doaiez beteak;  
*con música los unos,*  
kantari besteak,  
*todos entonan loores*  
zar eta gazteak.

- 5/ *Los San Sebastianenses,*  
adiskide arrotzak,  
*todos grata memoria,*  
esker on bakoitzak;  
*con voluntad os rinden*  
amoriyo pozak,  
*acogida y obsequios,*  
gañera biyotzak.
- 6/ *El rey Fernando viva*  
Amaliarekin,  
*vivan largas edades*  
biyak alkarrekin,  
*felices, venturosos*  
bat bestearekin,  
*y después en la gloria*  
Jaungoikoarekin.

Leen esan ditugunak aski dira noski, Fernando VII Donostira etorri zaneko irugarren bertso sail au ere ulertzeko. Ain zuzen, *Arkadiako artzaia* an aitatzen ziran, eta bertso auek berak kantatzeko moldatuak dira, izenburuan ageri danez.

Lau tokitan arkitu degu: moldiztegi izenik gabeko bertso-paperetan, Chicago, Bonaparteren bilduman, eta Azpeitian, Jose Maria Garmendiaren paperetan. Eskuz idatzita, berriz, Aita Frantzisko Apalategiren paperetan eta Jose Manterolaren bilduman.

Onek itz auek ditu erantsita: «*Autor: J. Vicente de Echagaray*».

**EL AYUNTAMIENTO Y VECINOS  
DE LA CIUDAD DE SAN SEBASTIAN  
A SU REY Y SEÑOR  
DON FERNANDO SÉPTIMO  
EN EL ACTO DE FIJAR CON SU AUGUSTA MANO  
LA PRIMERA PIEDRA FUNDAMENTAL  
DE SU CASA CONSISTORIAL  
EN 10 DE JUNIO DE 1828.**

*Ténganse allá otros Príncipes su gloria  
los que en humosas ruinas y en cruento  
estrago aspiran a eternal memoria.*

*Zanja, Fernando, tú, firme cimiento  
de nuestro Capitolio, y da a la historia,  
de sangre el nombre y de crueldad exento;  
y bendigan por siempre los humanos  
la palanqueta en tus augustas manos.*



**HIMNO  
CANTADO A SS. MM.  
EN LA CIUDAD DE SAN SEBASTIAN(1).**

*Salve, Fernando, venid buena hora,  
aquí os atienden la fe y amor;  
Amalia, salve, seais por siempre  
del Rey delicia, del sexo honor.*

**CORO**

*Caro Fernando,  
cándida Amalia,  
sed venturosos,  
serálo España.*

*Con puras preces Guipúzcoa fiel  
llana os ofrece su humilde don;  
sus tiernos pechos son su presente  
propio de leales, digna de vos.*

*Caro...*

*Cual son frondosas estas montañas,  
sencillos, fracos sus hijos son;  
y cuando os juran, Fernando, fe,  
creed en sus votos, creed su adhesión.*

*Caro...*

*Entre las ruinas y el polvo humeante(2)  
que vuestras plantas huellan aun hoy,  
himnos de gozo sólo oiréis;  
flébiles ayes no oiréis, no.*

*Caro...*

*Mengua creyeran llorar sus males,  
précianlos antes por su blasón;  
salvóse el Rey, no importa cómo;  
vemos al Rey, ya no hay dolor.*

*Caro...*

*Si alguna dicha hora alcanzamos  
en este suelo, obra es de vos.*

*Unión gritasteis, y estas montañas  
unión retumban, fin al rencor.*

*Caro...*

*Tu fausto soplo, cual el febeo,  
de sus cenizas al pueblo alzó;  
su industria y naves del solio excelso  
vital aliento reciben hoy(3).*

*Caro...*

*Tanto deber en pechos tales  
abona y fía la ingenua voz,  
que por doquiera exenta clama:  
«Fernando, Amalia, bendígaos Dios».*

*Caro...*



*LAS JOVENES DE SAN SEBASTIAN  
A SU AMADA REINA  
MARIA JOSEFA AMALIA DE SAJONIA.*

*LA PALOMA MENSAJERA*

*Bate las blandas alas,  
cándida palomita,  
y parte cabe Amalia  
por nuncia de las ninfas*

*que del claro Urumea  
habitan en la orilla;  
mas toma antes sus señas  
porque bien la distingas.  
Si no fueras tan simple,  
sería demasiá  
recelar que pudieras  
con otra confundirla.  
De más es ponderarte  
su beldad peregrina;  
sobre todas las gracias  
descuello sin medida.  
El jazmín y la rosa  
coloran sus mejillas,  
de formas majestuosas,  
así nobles cual lindas.  
El pudor en sus ojos  
reside, y de allí inspira  
decencia a los demás,  
compostura y medida.  
Rare fue y es ver juntas  
beldad y pudicicia;  
Amalia las concuerda;  
de aquí has de distinguirla.  
La modestia más llana  
otra es de sus divisas;  
la sola es que sus gracias  
y su altura no mira.  
Mas si cres que a los otros,  
porque de sí se olvida,  
olvidará también,  
insensata serías.  
Del escabel sublime  
desciende, y su delicia  
es indagar los males  
y tornarlos en dichas.  
Y aunque digan que el sol*

*quema a quien se avecina,  
la lumbre de este sol  
ni aun de cerca es dañina.  
Y si porque es virtuosa  
estoica la imaginas,  
yerras, pues su dulzura  
se pinta en la sonrisa.  
Y aun suele del alcázar  
al Pindo hacer salidas,  
y libar con donaire  
de Hipocrene las linsas.  
Sobre todo, paloma,  
la que en candor te imita  
y te gana, es a quien  
nuestra afición te envía.  
Y ya que la conoces,  
llega y con voz sumisa  
explica tu mensaje  
con estas frases mismas:  
«Las ninjas de Urumea  
cerca de vos me envían;  
bien conocéis por qué  
tanto honor de mí fían.  
De tu honor prendadas,  
de tu candor movidas,  
piden que yo a tu lado  
de nuncio y feudo sirva.  
Protestan por modelo  
tomaros de su vida,  
ya que del seco ornato  
os juzgan sin porfía.  
Además me encargaron  
que por ellas os diga,  
por sus padres y esposos  
y los demás que habitan:  
Esta tierra, que Hernando  
—nombrarle me permitas—*

*es su Padre y su Numen  
y que a tu amor le fían,  
tus cariños le alivien,  
tu consejo le sirva,  
y aduerma sus cuidados  
tu diligencia amiga.  
Cuidad que en él y vos  
vuestra hispana familia  
su esplendor y su gloria,  
su ser y todo libra».  
Bate, bate las alas,  
cándida palomita,  
y lleva este mensaje  
a Amalia la querida.*

Bertso auek ere, Fernando VII Donostira etorri zanean jarriak dira. Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren paperetan arkitu genituan. Moldiztegi izenik gabeko kanta-paperetan agertu ziran. Naiz-eta erderaz izan, emen ezarri nai izan ditugu, jaialdi aien berri obeto eman dezagun. Aurreko sail batean eskeiñi ditugun argibideak naikoak dira bertso auek ere ondo ulertzeko.

Ala ere, Donostiko neskatzak egin zuten festa zer izan zan obeto jabetuko gera, Piralaren beste itz auek onera aldatzen baditugu(4):

*«De las otras fiestas, fue notable por su originalidad la celebrada en la Plaza Nueva por comparsas de muchachos y doncellas, vestidos aquéllos con pantalón blanco y corpiño rosa, y ellas con blanca túnica adornada de guirnaldas y coronada de flores su suelta cabellera. Danzaron en vistoso tablado; cantaron estrofas compuestas por D. Pedro Albéniz, y al grito de «¡Viva el Rey!», lanzado por la matrona que representaba Guipúzcoa, abrieron grandes granadas y globos dorados que en un templete había, se convirtieron en amapolas y de éstas salieron volando palomas y tórtolas, que conducían, colgados de sus cuellos con cintas de colores, versos dedicados a los regios huéspedes, «y con la ayuda de un mecanismo preparado al intento, se envió desde el tablado a SS. MM. otra paloma blanca engalanada con cintas y lazos, que conducía también en el pico, en un estuche dorado, un ejemplar de la oda dedicada a la Reina Nuestra Señora por las jóvenes de San Sebastián. Su Majestad se abalanzó a recibirla, acaricióla, la*

*entregó a la reina, y volviéndola a tomar el Rey, la besó repetidamente, sin recatarse ni disimular la tierna emoción que se expresaba tan enérgicamente por sus augustos labios». Esta escena impresionó a los espectadores, dice el cronista de aquella visita; emocionó a los autores de la fiesta; hizo llorar a algunos, e impulsó a los bailarines espatadanzaris a formarse en dos filas, y con sus espadas, lanzas y arcos, simular una larga bóveda, bajo la cual pasaron los Reyes al retirarse a pie a su alojamiento».*

Beste erderazko kantuengatik, berriz, onela dio Piralak:

*«Las musas tomaron también parte en festejar la solemnidad. Himnos y odas abundaron, sobresaliendo el cantado el día del Corpus en la citada fiesta de la Plaza Nueva, haciendo popular su estribillo:*

*Caro Fernando,  
cándida Amalia,  
sed venturosos,  
serálo España.*

*Las inscripciones en arcos y fachadas merecen copiarse, ya que no todas, una de las escritas en la parroquia de San Vicente, que decía:*

*Vivan Amalia, Fernando,  
vivan nuestros caros Reyes,  
que con pacíficas leyes  
la España están gobernando.*

*En el arco extramuros se leía con gruesos caracteres:*

*Id en paz, buen Fernando; el cielo santo  
la vía siembre de ventura y flores;  
nosotros a llorar vamos en tanto.*

*Y de la serenata que para despedir a la Real Familia cantaron la víspera de su marcha, no debemos omitir los siguientes famosos versos:*

*¡Del miserable humano  
cuán duro es el destino!  
Vino, y apenas vino,  
Fernando se nos va.*

*También la amable Amalia,  
también huye y se aleja.  
La suerte ¿qué nos deja?  
El poder de llorar.*

*El día 11, después de entregar al Alcalde 7.000 reales para la Beneficencia, marcharon los Reyes con su numeroso acompañamiento a continuar visitando pueblos en aquel largo viaje, que quizá sirvió para distraer al Rey de sus padecimientos físicos y morales».*

---

(1) *Este himno ha sido puesto en música por D. Pedro Albéniz, maestro de capilla de la misma ciudad, profesor que acaba de distinguirse en París. (Bertso-paperaren oarra.)*

(2) *La ciudad de San Sebastián fue reducida completamente a cenizas en la gloriosa guerra de la independencia, durante los días 31 de agosto y 1.<sup>o</sup> y 2.<sup>o</sup> de setiembre de 1813. (Id.)*

(3) *La generosa protección del Gobierno de S. M. ha alentado en gran manera la reedificación de esta ciudad, y su Real decreto de 21 de febrero del presente año, habilitando este puerto para el comercio de América, va a poner en movimiento y restituir a la industria los brazos y capitales que yacían en la inacción. (Id.)*

(4) *Antonio Pirala: San Sebastián en el siglo XIX, Madrid, 1900.*

**BIZKAI GUZTIZ LINARGI(1) ETA LEIALAK  
DON FERNANDO 7.<sup>º</sup>  
ETA MARIA JOSEFA AMALIA  
BERE JAUN ETA JAUBIEI BAGILLAREN  
ETA 16, 1828'GARREN URTIAN.**

**SARRERIA**

*Ezin dogu estaldu  
poza bularrian,  
Bagillaren amasei-  
garren egunian.  
Ordu zoragarrija  
Bizkaiko lurrian,  
dakuskuna Fernando  
begien aurrian.*

**ZORTZIKUA**

- 1/ Bizkaitar linargijak jauna ikusirik, pozaren pozez dagoz erdi zoraturik; adurra darijue gaur ezpanetarik, bedeinkatuten dabe biotz-biotzetik.

## POZGARRIJA

*Ongi etorri,  
geure jauna,  
bizitza luze  
ta osasuna  
opa deutsubez  
bizkaitarrak,  
zeruraño jasorik  
euren diadarrak.*

- 2/ Bere emazte maite  
Josefa Amalia  
ikustia Bizkaijan  
da atsegin betia,  
izanik ain andija  
da bere onestia,  
jakin ta doe  
guztien jaubia.  
*Ongi etorri...*

- 3/ Nekia igarota  
oi da atsegin,  
au berau jazoten da  
gaur egun egina.  
Liortu bitez bada  
leijalen malkuak,  
poztu bene-benetan  
erri Bizkaikuak.  
*Ongi etorri...*

- 4/ Kataluñan jagirik  
malmutz ta gaitzuak,  
laster agertu ziran  
zituben asmuak:  
guzurrezko jantzijaz  
ondo apaindurik,  
berbatxu labanakaz  
engañaú gurarik.  
*Ongi etorri...*

- 5/ Jainkuaren legia  
arturik minian,  
plagiaren asmua  
euken biotzian;  
gura eben Fernando  
eretsi tronotik,  
eta itxi España  
betiko galdurik.  
*Ongi etorri...*

- 6/ Baña jaun onek deutsez  
bidiak zarratu,  
ez ditezan ostera  
iñolaz asartu.  
Eraille(2) prestubezen  
aurrian jarririk,  
itxi dituz guztiak  
zurtu ta arriturik.  
*Ongi etorri...*

- 7/ Amaitu ziraneko  
ango zer eginak,  
eldu ziran Bizkaiko  
biralkai(3) jakinak;  
erregututen deutse  
datorrela ona,  
eta bertatik euken  
bere bai emona.  
*Ongi etorri...*

- 8/ Bizkaitarren biotzak  
dagoz arroturik,  
curen jaun ta jaubia  
curakaz eukirik.  
Nok sinistu eukian  
igezko urtian  
zein poz izango ginan  
gaurko egunian?  
*Ongi etorri...*

- 9/ Esker milla deutseguz  
Fernando jaunari,  
bere duin dan andra  
gure laztanari.  
Maitetuko dituguz  
bizitza guztian,  
azkeneko arnasa  
amaitu artian.  
*Ongi etorri...*

- 10/ Beti Bizkaija leial  
bere jaunarentzat,  
eta izugarrija  
arrotz gaiztuentzat.  
Bizkaiko bularretan  
gaztelu senduak  
aurkituko ditubez  
zure arerijuak.  
*Ongi etorri...*

- 11/ Bizkaitarren biotzak  
zuriak izanik,  
ezin emon ginaizu  
ondasun obarik.  
Jauna, zure aurrian  
guztiak jarririk,  
ez daukagu zer egin  
beste eskintzarik.  
*Ongi etorri...*

- 12/ Isuli biar balitz  
odola zugaitik,  
ez genduke egingo  
inok atzerarik.  
Zarrak eta gaztiak  
guztiak dagoz prest,  
preminarik baletor  
inoz zori txarrez.  
*Ongi etorri...*

13/ Fernando ta Maria  
Josefa Amalia,  
gure biotzetako  
señora maitia,  
zerubari deutsagu  
bai erregutuko,  
gorde zaigubezala  
urte askotako.  
*Ongi etorri...*

Bertso auek Bonaparteren bildumatiik ditugu. Moldiztegi izenik gabeko kanta-paper bat da.

Izenburuak ederki adierazten du bertsoen gaia zer dan. Ala ere, zenbait argibide ematea on izango da, bertsoak obeto ulertu ditezen. Orretarako, idazlan onetaz baliatuko gera: *Pablo de Alzola: Fernando VII en Bilbao, Euskal-Erria* aldizkaria, XXXIV, 1896.

Kataluñaian izan berria zan naspillaldiaz itzegiten digute 4, 5 eta 6'garren bertsoak; 7'garrenak, berriz, erregea Bizkaira etortzea bizkaitarrak eskatu zute-la esaten digu.

Ona nola argitzen dizkigun zera oiek Pablo Alzola jaun orrek:

«...en 1827 alcanzó tales proporciones el levantamiento ultra-realista de los apostólicos de Cataluña, encaminado al restablecimiento de la Inquisición y de la pureza e integridad del viejo absolutismo, que el Monarca hubo de trasladarse al Principado para dominar el movimiento sedicioso, precursor de la guerra de los siete años.

*No se propagó a estas provincias la insurrección iniciada en Manresa, porque el país vascongado rechazó con indignación la tentativa de Lansagarreta en Álava, y aceptando Fernando VII la invitación de las Diputaciones forales, se resolvió, una vez sofocada la formidable rebelión catalana, a visitar Guipúzcoa, Vizcaya y Álava en el año 1828, antes de su regreso a la corte».*

Bertsoak, irakurleak ikusi duanez, erregea etorri aurretik jarriak dira, ari ongi etorria egitearren.

Errege Katolikoak izan ziran ezkeroztik, ez omen zan beste erregerik Bizkaira iñoiż etorri. Orregatik, arrera ona egin nai izan zioten Fernandori. Orretzaz gaiñera, onek mesede ederra egin berria zion Bizkaiari:

*«...se había acentuado el entusiasmo por Fernando VII con la derogación del contrafuero cometido el año anterior al pedir a Vizcaya el contingente para el ejército...».*

Onen aitamena zortzigarren bertsoak egiten du.

Bilboko udaletxeak batzorde batzuk izendatu zituan, jaialdiak prestatu eta al dan ondoen egiteko. Antolaketa oiek eta jaialdi guziak zer izan ziran, ezin esango degu emen. Argibide batzuk eman bai, ordea:

*«Del arreglo del palacio destinado a los regios huéspedes, que era el contiguo a San Nicolás, se hizo cargo la Diputación, descollando este edificio con majestuosa pompa sobre el apacible recinto del Arenal...»*

*Las cuatro corridas de la Plaza Vieja –que entonces se llamaba Mayor– exigieron la construcción de talanqueras y tendidos; se aumentó el alumbrado público; se organizaron bailes de etiqueta en los salones del Consulado... y otros bailes populares en el café de Delmas; se prepararon dos arcos de triunfo, brillantes comparsas, músicas, partidos de pelota, fuegos de artificio y otros regocijos, ordenando se colgasen vistosamente los balcones, ventanas y antepechos de la carrera».*

Dakigunez, errege eta erregiña Gipuzkoatik zetozent. Bagillaren 14'ean sartu ziran Bizkaian, eta gaua pasatzera Durangora bildu. Uurrengoa eguna eta gaua emen igaro; eta biaramonean, illaren 16'an, Bilbora iritxi:

*«Reúnense en el salón de la Casa Consistorial los individuos del Ayuntamiento, beneficiados del Cabildo eclesiástico y los jóvenes de ambos sexos que forman las comparsas. A las ocho y media se dirige al alto de Miraflores una comisión compuesta de diputados segundos y varios regidores del Señorío, escoltada por 20 jinetes vestidos con lucidos trajes de moros abencerrajes y acompañada de un grupo de alumnos del Colegio de Santiago; poco después parten las tres corporaciones de la Villa, Consulado y Cabildo, que esperan bajo el arco levantado en Achuri, en el límite jurisdiccional de Bilbao y Begoña.*

*A las nueve se arría la bandera izada en el Puente Nuevo y el estallido de un*

*cohete confirma la llegada de SS. MM. Se había situado en Miraflores la carroza triunfal de hierro, construída en Durango a expensas del Señorío –que se custodia en la Armería Real de Madrid– y un repique general de todas las campanas de las iglesias y conventos, las descargas de las piezas de artillería disparadas por los voluntarios realistas en el alto de San Francisco, el estruendo producido por la de grueso calibre del bergantín El General Longa y los millares de cohetes lanzados desde los edificios del Señorío, Villa y Consulado demuestran con gran estrépito la aproximación de la comitiva...».*

Ona nundik nora ibili ziran errege eta erregiña, eta lagun egiten zien taldeak:

*«...dirigiéndose al palacio de San Nicolás por la plazuela de los Santos Juanes, Plaza Mayor, Ribera y la calle de los tilos del Arenal. En los tablados construídos en la plaza para las corridas de toros y en los balcones de una y otra orilla esperan más de ocho mil personas...».*

Biaramonean, goizean meza, *Te Deum* eta abar. Arratsaldean, konpartsak, kantak, dantzak eta abar.

Urrengo egunean, goizean, errege eta erregiñak ospitala bisitatu. Arratsaldean, zezenak:

*«Por la tarde del referido día 18, y en las tres inmediatas, asistió el Rey a las corridas de los toros... S. M. no podía conservarse indiferente a la novedad extraña de que se disfruten las corridas desde los barcos, desde las peñas, desde los caseríos y desde los montes. Diez mil personas, desguindándose por los mástiles, burlando las continuas amenazas de la marea, tendidas sobre el heno y el césped con sus frugales meriendas, y las demostraciones de júbilo y entusiasmo lanzadas por la multitud enajenada que ocupaba las talanqueras, debieron lisonjearle...»*

Urrengo egunean, 19'an, pelota partidua:

*«En la mañana del día 19 se celebró un partido de pelota entre los más diestros jugadores de las provincias en el frontón contiguo a la morada del Monarca. Hubo que suspenderlo a las dos horas y media, y aunque se renovó dos días después, tampoco pudo terminarse por lo equilibradas que estaban las fuerzas y los ardores de un sol abrasador».*

Santiago ikastetxeari bisita, 20'an.

Santiagoko elizan elizkizuna, 21'eko goizean. Arratsaldean, ezpatadantza eta abar.

Erriko Erruki-Etxeari bisita, 22'ko goizean. Arratsaldean, Arenalean, erromeria eta dantza: «*al son de tamboril y de gaitas o zarrabetes*».

San Juan bezperan, meza nagusia, Santanderko obispoak emana. Dan-dana prestaturik omen zegoan Olabeagatik Portugaletera txalupaz joateko; baiña etzan olakorik egin.

Festa ederrak, beraz. Baiña bilbotar guzien gustokoak izan ote ziran galdeztzen du Pablo Alzola dalako orrek:

«*¿Fue el entusiasmo tan unánime como se refleja en las poesías dedicadas a los egregios huéspedes y en las incessantes aclamaciones consignadas en las pomposas crónicas? No es verosímil, dadas las persecuciones que sufrieron los impurificados desde la caída del régimen constitucional, realizada en 1823 con el apoyo de los 100.000 hijos de San Luis; pero como en aquellos tiempos no había en Bilbao periódicos ni libertad para manifestar ideas contrarias al régimen dominante, y se cuidaron poco los liberales vizcaínos de trasmitir a la posteridad sus impresiones sobre los asuntos locales, es difícil ahondar en la materia...».*

---

(1) Linargi: noble. (Bertso-paperaren oarra.)

(2) Eraille: asesino. (Id.)

(3) Biralkai: diputado. (Id.)

## «ARMADA EDER BAT...»

Realistak EspaÑiako nagusi izan ziran 1823'tik aurrera. Liberalak bein eta berriro saiatu ziran gauzak aldatu naian, olakorik lortu ez bazuten ere.

Altxaldi oietako bat, Mina, Jauregi *Artzaia* eta Fermin Legiak Bera-Bidasoatik barrena 1830'eko urrian egin zutena, muga igarota.

Baiña gobernua jakiñaren gaiñean zegoan aiek zer asmo zerabilkiten, eta indarra prest zeukan aiek uxatzeko.

Besteak, berriz, jende gutxi ziran: lareun bat gizon-edo. Uurrengo bertso auetan burlaz esaten danez, «armada eder bat».

Ala, egun batzuk zalapartan Naparroako eta Gipuzkoako mendietan igaro ondoren, ostera mugaz beste aldera joan bear izan zuten.

Bertsoak ere jarri ziran, ekiñaldi ori zala-ta. Pio Barojak, bere *El aprendiz de conspirador* nobelan, onela esaten du:

«*La mayoría de la gente era hostil a los constitucionales; un poeta y carpintero de Alzate hizo contra Leguía estos versos, en vascuence, que corrieron mucho:*

Armada eder bat ekarri digu  
Berara Fermin Legiak,  
judu ta sastre protestantiak,  
ark ere eztitu beriak,  
galtzaen neurriyak artu diyote  
español kazadoriak.

Galtzak bidean lisatu eta  
eskuak trabak lotzeko,  
gizon oriyek planta txar dute  
Madrid aldera joateko,  
adiskidiak galdu dituzte  
Komisantura goizeko.

(*Un hermoso ejército nos ha traído a Vera Fermín Leguía, judíos y sastres protestantes, que tampoco son los suyos, porque la medida de los pantalones se la han tomado los cazadores españoles.*

*Alisándose los calzones en el camino, las manos para atarse las bragas, esos hombres tienen mal aspecto para ir hacia el lado de Madrid. Han perdido sus amigos el día de Todos los Santos.)*

También corría por Vera otra canción contra los liberales, que decía así:

Mina eta Artzaia bere odolez  
ukaturikan dabiltza,  
esku gaitotan paratu naizik  
fede santuaren giltza,  
eztute oriyek kanbiatuko  
gure Jaungoikoaren itza.

(*Mina y el Pastor (don Gáspar de Jaúregui) andan negando su sangre, queriendo dejar en malas manos la llave de la santa fe. Tampoco éstos podrán cambiar la palabra de Nuestro Señor.*)

Todas esas canciones solían cantar la hermana de la madre de Pello, la tía Felicitas, furibunda realista; en cambio, la tía Micaela, que era hermana de Pedro Mari, sabía otras canciones liberales como ésta, que se refería a la expedición de Mina, y que comenzaba así:

Mina eta Artzaia,  
Fermin beratarra,  
aurten etorri dira  
Españara,  
ikusi bear dute  
beren lurra.

(*Mina, el Pastor y Fermín el de Vera, este año vienen a España, porque dicen que quieren ver su tierra.*)

*Y la tía Micaela solía cantar también una canción en honor de los generales constitucionales, y, sobre todo, de Jáuregui, de quien decía:*

Don Gaspar de Jauregui,  
Billarrealko semia,  
ondo gobernatzen du.(1)

*(Don Gaspar de Jáuregui, hijo de Villarreal, dirige muy bien su gente.)*

*Y la canción tenía este estribillo:*

*¡Mina de mi vida,  
Longa de mi amor;  
don Gaspar de Jáuregui  
de mi corazón!». (2)*



Beste nobela batean, *Los caudillos de 1830* izenekoan, ostera ere mintzatzen da Baroja bertso auetzaz, beste bertso bat eta argibide berri batzuk emanet:

«Algunos que llegaron de Vera (a Bayona) contaron su persecución y trajeron unos versos en vascuence que había escrito el versolari Martín Coplari contra Leguía. Este versolari era conocido en el país por su canción sobre Buenaparte.

*Los versos contra Leguía empezaban así:*

Armada eder bat ekarri digu  
Berara Fermín Legiak.

*(Un hermoso ejército nos ha traído a Vera Fermín Leguía.)*

Y concluía explicando el fracaso:

Komisantura goizian zuten  
viserregeren tranpiya,  
Iruñiako bidia libre  
eben ustez balentiya,  
zakua bidean lertu eta  
isuri zaio kantia.

*Lo que traducido libremente quiere decir:*

*«El día de Todos los Santos, por la mañana, tenían la trampa preparada para el virrey. El camino de Irún, libre. Ellos se creían valientes, pero el saco se les ha reventado en el camino y se les ha derramado el grano». (3)*

Bertso auek, zalantzarak gabe, Berako aiton zaarren bati jasoko zizkion Barojak. Baiña ez degu uste dan-dana ondo artu zionik. Okerrik nabarmenenak zuzendu ditugu. Ulertzen ez ditugunak, berriz, dauden bezela kopiatu. Itzulpena ere ez dakigu ondo dagoan beti. Ori ere bere ortan utzi degu. Ortografia ere erderazkoa erabiltzen du.

---

(1) Ziur aski, zerbait falta du bertso onek. Ain zuzen, Barón de Montevilla zanak kopiatzen ditu bertso auek bere bilduman, eta oni *bere jendia* eransten dio bukaeran. Orrela obeto dator Barojak egiten duan itzulpenarekin ere.

(2) Pío Baroja: O. C., III, 24 orrialdean.

(3) Pío Baroja: O. C., III, 991 eta 992 orrialdeetan.

**KARLISTEN LEENENGO  
GERRATEKO BERTSOAK**

**(1833-1839)**

## BILBO

Markesa presidente,  
Batiz diputadua,  
Fernando Zabala  
Bizkaiaren burua.

Gerra asierakoa degu kopla au, eta Baron de Montevilla zanaren bilduman arkitua. Berak nundikan zuan, itz auen bidez esaten du: «*Facilitado por D. Enrique Zabala, nieto del General D. Fernando».*

Beste argibide au ere badu: «*Don José María de Orbe y Elío, tercer Marqués de Valde-espina, Santiago Batiz y Zabala, los que el 5 de octubre de 1833 proclamaron en Bilbao los derechos al trono de San Fernando de S. M. el Rey Carlos V».*

Fernando VII erregea, 1833'ko San Migel egunean, iraillaren 29'an alegia, il zan. Aren koroia jantzi bear zuana, liberalak ziotenez, Isabel II zan, Fernandoren alaba, artean iru urte osatu gabeko aurra. Beraren ama, Maria Kristina, jarri zan ordezko, erreinua gobernatzen. Karlistak etzuten ori onartu. Errege-tza Fernandoren anai Karlosi zegokiola zioten.

Onen alde jeiki zan leenengo erria Talavera de la Reina izan zan. Baiña liberalak bereala zapaldu zuten altxaldi ori. Euskal-Errian aurrena atera zana Bilbo izan zan. Onela gertatu ziran gauzak, Antonio Pirala kondairalariak kontatzen duanez:

«*Llegó en esto el 2 de octubre, y a las tres de su mañana, la noticia del fallecimiento del rey. Reunióse la diputación, y temiendo lo hicieran los dos batallones de realistas, trató de evitarlo; pero mientras mediaban sobre ello algunas contestaciones, oyóse el toque de llamada por la villa, y reunida la fuerza tomaron las avenidas de Bilbao. El corregidor publicó un bando para que se retirasen, pero fue desobedecido; y no teniendo fuerza para hacerse respetar, pues*

*los únicos miguelletes a su disposición se unieron a los realistas, acudió a la diputación, la cual acordó que Zabala, valiéndose de su influencia con los realistas, se presentara a ellos para que se marcharan a sus casas. Opúsose este diputado, cuestionando con Uhagon y La Mota, y en cuanto se hizo pública la disidencia de las autoridades, cobró nuevos bríos la insurrección...*

*Zabala y el comandante de voluntarios Novia se propusieron organizarla y acudir a la primera necesidad. Al efecto fue invitado el marqués de Valde-espina, que vivía en su palacio de Ermua. Zabala en tanto restableció el orden, e interpuso su influencia en favor de algunos liberales.*

*Apresuróse Valde-espina a acudir al llamamiento, y formó parte de la nueva diputación, que publicó un manifiesto con fecha del 5, firmado por el citado marqués, Javier de Batiz y Fernando Zabala. En él decían que una facción anti-religiosa y anti-monárquica se había apoderado del mando durante la enfermedad del rey, y trataba de ir adquiriendo ascendiente para dejar indefensos los ataques de la revolución y de la anarquía que combatieron en 1823; que se engañaban al considerar abolidas las leyes antiguas y fundamentales del reino por otras nuevas, y en haber alterado audazmente el orden de sucesión al trono...»*

Agiri orrek eman zion gerrari asiera Euskal-Errian; eta bera izenpetu zuten iru gizonak kopla orrek aitatzen dituanak dira.

Sua laister zabaldu zan Bizkai guztira. Baita Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxa'ra ere. Beren buruzagitzat, Santos Ladrón de Cegama, *mariscal de campo* zana, artu zuten altxatuak. Aren aurka, Lorenzo jenerala bialdu zuten liberalak. Los Arcos'en topo egin eta burrukatu ziran. Lorenzo'k errez irabazi zuan; eta Santos Ladrón preso artu, Iruñera eraman eta afusillatua izan zan.

Santos Ladrón ori naparrak asko maite omen zuten, eta aren eriotza oso mingarria izan zitzaien. Orregatik, bukatu bearrean, indar berria artu zuan altxaldiak. Gaiñera, orduantxe azaldu zan Tomas Zumalakarregi, Ormaiztegiko semea bera, edozeinének dakianez.

Iruñen bizi zan, erretiratuta. Egun batez, Frantziko atetik paseatzera erten, Arga ibaiaren bazterrean zaldi bat artu eta iges egin zuan karlistetara. Auek arrera ona egin zioten. Buruzagiak alkarrengana bildu eta erabaki au artu zuten, 1833'ko azaroaren 14'an:

*«...de común acuerdo, convencidos de las sobresalientes virtudes militares*



Fernando VII erregearen eriotza.

*que adornan al coronel vivo y efectivo don Tomás Zumalacarregui, perteneciente a este ejército, cuyos servicios así en este Reino como fuera de él le han merecido siempre el más alto concepto, unánimamente han dispuesto que desde luego se encargue del mando superior de estas tropas...».*

## **EGIA ARRIGARRIAK ZORTZIKOAN, SINISTAGARRIAN ETA KONTRAEGOTZAN JARRIAK**

- 1/ Urte oroigarria  
gogoango dena,  
milla zortzireun ogei  
ta amairugarrena;  
agorreko illean  
San Migel eguna,  
erregeren iltzeak  
arratstu ziguna.
  
- 2/ Agitz goibel egunaz,  
gabean txit illun,  
nork esan geroztikan  
zer gertatu zaigun?  
Gelditu beziñ laster  
Kristina alargun,  
bere kontra zituan  
makiña bat lagun.
  
- 3/ Izan bear zutenak  
on pakeosoak,  
«gerra, gerra!» diote  
lendabizikoak;  
jarraitzen ditzatela  
erritar eroak,  
mendira irten dira  
txit odolgiroak.

- 4/ Erregetzat nai zuten  
Karlos infantea,  
borta balitz bezela  
printzesaz gaztea;  
obeto sendotzeko  
gendukan katea,  
..... zuten .....(1)  
tronuan jartzea.
- 5/ A, nekazari on ta  
langille prestuak!  
O nola zaduzkaten  
txit engañatuak!  
Karlosek deretxoak  
daduzka galduak,  
ezperen entzun kontuz  
oien zimenduak.
- 6/ Bigarren Partidako  
lege onradua,  
Felipe bosgarrenak  
gaitzkiro kendua,  
Don Karlos laugarrenak  
ostera bildua,  
Fernandok larga digu  
ongi apaindua.
- 7/ Utsikan ez dalarik  
arkitzen ezertan,  
koroak jarrai dezan  
ondorenguetan,  
erabakia dago  
lege eder artan  
alabak gozatzea  
semearen faltan.

Maria Kristina,  
erregin ordezkaria (1806-1878).



Isabel II erregiña (1830-1904).

- 8/ Argatik da Isabel  
tronkoaren oña,  
español erriaren  
poz ta atsegíña,  
errege Fernandoren  
alaba bikaiña,  
jatorriz ta deretxoz  
gure erregiña.
  
- 9/ Bai, eregin gaztea,  
zure deretxoak  
txit dira zuzen, garbi  
eta bidezkoak;  
arturik dauzkalako  
ontzat nazioak,  
ez dizkitzu kenduko  
munduan jaioak.
  
- 10/ Zu edadera arte,  
eskerrak aitari,  
onek utzia dizu  
ama gobernari;  
ditxa ta zori onak  
emateko guri,  
zeruak egiña da  
andre andi ori.
  
- 11/ Gure osakai ona,  
sendo eta fiña,  
ebakirik gaitzaren  
sustrai edo zaiña,  
gizonaren izatea  
biurtu diguna  
da dudarik gabe  
Maria Kristina.

- 12/ Bai, gure biotzeko  
Ama liberala,  
esango det libreak  
zugatik gerala;  
eman diguzulako  
karta erreala,  
guzion Egilpeak  
bedeinka zaitzala.



## SINISTAGARRIA

Nik sinisten det Isabel bigarrenagan, erregiña poderosa almen aundikoa, Espanako zoriontasuna, zeña kontzebitu zan Fernando zazpigarenaren obraz, jaio zan Kristina Ama erregiña gure gobernariagandik, padezitu zuan Calomarde, Cea ta beste antuste soberbioen agintearren ondoan, izan zan mendeztua, oprimitua, betzitzta, infamatu eta irautua, ultrajatua karlin kanallakgandik; jetxi zan bere nausitasuna lurpeko presondegietaraño eta erbesteetan penatzen arkitzen ziran español on guzietara, erakarri ditu oek ta ipiñi bear ziran tokie-tan; igo zan aitak utzi zion tronu jargoira, ta an dago eseririk Ama Erregiñaren alde eskuitik; andik juzgatuko ditu onak eta gaitzoak; sinisten det Espíritu Santuaren liberalidadean; España, Frantzia, Inglaterra eta Portugalko potentzian unio batasuna, on guzien komunioa, damutuen barkazioa, uri-batzaa Korteen resurrezioa; eta oen bizitza sekulakoa: amen.



## KONTRAEGOTZA

Izar ederra, birtuteen ispilla,  
seguru gaituzu milla gaitzetatik,  
ara, ezin konta ala, alde guzietatik;  
bakarrik zuk, zaituguna erregiña,  
Españako ontasuna, poza ta atsegíña.  
linbotik aterata gaituzu zure diña.

Kakalardo arazoan ibilli aizan zikiña,  
arma atsak, lan garratzak ire gauzak,  
Roma aldetik fedea, sutunpak ta bolborea,  
linbo illuneko taldea dana karlin jendea,  
odol ixurlaria, zeña mendiko otsoa,  
sua ta garra, ostu ta iltzea dek kondizioa.

Bertso auek Bonaparte printzipearen bildumatik ditugu. Bertso-paper bat da. Moldiztegi izena onela du: «*Moldizquiratua Tolosan, Juan Ignacio de Men-dizabalen echean, ceñean arquituco da*».

Izenburuak adierazten duanez, bertso-paper onek iru zati ditu: zortzikoa, sinistagarria eta kontraegotza. Obeto esateko, *kontragoetza* esaten da izenbuan, eta gero *kontraegotza*. Bietan berdin jartzearen, bigarrengo au aukeratu degu, orrela bear dualakoan.

Leenengo zatian, *zortzikoa* esaten zaion ortan, Fernando VII'aren eriotzaren berri ematen zaigu; baita ere, Isabel alaba aurtxoa izanik, bere alarguna, Maria Kristina, utzi zuala gobernari, *regente* alegia; baiña karlistak bereala gerrara jo zutela.

*Ley sálica* izeneko legeaz mintzatzen dira 6, 7 eta 8'garren bertsoak. Felipe V'aren erabakiz, erregea semerik gabe il ezkerro, alabarik ezin zitekean erregin jarri; errege zanaren anairen bati egokitzen zitzaison erregetza. Lege ori Karlos IV'garrenak eta Fernando VII'garrenak kendua zala esaten zuten liberalak; karlistak ezetz. Aiek Isabel II'garrena nai zuten; auek Don Karlos.

Argibideren bat eman bearra dago, 12'garren bertsoa ulertuko bada. Fer-

nando VII'a il aurretik ere, oso gaixorik zegoala, andrea izan zan gobernari; Maria Kristina alegia. Eta onek, 1832'ko urriaren 15'ean, *amnistía* eman:

«...concedo la amnistía más general y completa de cuantas hasta el presente han dispensado los reyes a todos los que han sido hasta aquí perseguidos como reos de Estado, cualquiera que sea el nombre con que se hubieren distinguido y señalado, exceptuando de este rango benéfico, bien a pesar mío, los que tuvieron la desgracia de votar la destitución del rey en Sevilla, y los que han acaudillado fuerza armada contra su soberanía...».

Bigarren zatiari, *sinistagarria* izena ematen zaio. Kredoaren gisako otoitz antzeko bat da, izan ere. Emen, eta bai bestetan ere, karlistei *karlin* esaten zaie.

*Amnistía* ere aitatten da. Baita España, Frantzia, Inglaterra eta Portugalek alkar artu zutela ere. *La Cuádruple Alianza* deitu zitzzion itzarmen orri, eta 1834'ko apirillaren 22'an izenpetu zan.

Irugarren zatia, *kontraegotza* dalako ori alegia, *acróstico* bat da. Leenengo bertsoa artu eta lerro bakoitzaren asierako letra berezita, goitik beera *Isabel* irakurtzen da. Bertsoak, ain zuzen, aren goralpenak egiten ditu. Bigarren bertsoarekin berdin egiten bada, *Karlos* irakurriko degu, eta berau iraiñez betetze-ko egindako bertsoa da.

---

(1) Lerro au paperaren zimur batek arrapatu du eta ezin diteke osorik irakurri.

## VIZCAICO ERRITAR ARMADUNAC

Bertsotan ez-ezik, itz lauz ere saiatu ziran liberalak gerra asieran, karlistak armak utziko ote zituzten. Ala, onako agiri au zabaldu zuten, or goiko izenburuarekin. Jose R. de Urkijok fotokopiaz bialdu zigun, goien itz auek erantsita: «*Arch. Ayto. Plencia. Leg. 32*».

Onela dio:

«Asmo gaistoac dauqueez illunduric zubeen adin edo entendimentubac, eta zaruez desgraciariic negargarrienera. Biguntasunaren ondoren oi dator Justiciya, eta ez arren lecuric emon bere tribunal ziurrian aguertu biar izateco. Nastari gaistoac prestau dabe zubeen galtzeya, éta jarraituco dabe amaitu artian, ez-pazará aldenduten gaistoen aldreetati, etorrijagaz gocetará ERREGUIÑA geure Señoriac opadetzuben parcaziñoya. Armac artucendubezanian, sinistu cragineutsuben, ciñoezala zuben Foru maitegarrijac gordeetará; baña ez olacoric, ceuben escubetan dagó oneec osoro gueratutia, baldin zubec umildauric bazatoz ainbat lasterren geure Señora ta Burunagusi ISABEL bigarreenagana. Entzun eguzube ceubeen eguiyasko Diputau Generaleen Gurasozco deija; batuzaitce beragana beti egindabén-leguez zubeen Azaba linarguijac, eta daigun galdu zoraquerija errudun bategaitic, eurac ichi euscuben ondasun ondamu edo embidija garrija. Lecuric laburena emoten badeutsazubé luzebidiarí, nastaucozaitubé odolezco errequetan, eta dudatzaca galduba-izango da Señorío privilegiadu oneen ondo itzate eta itzen ona, dirauscun leguez sendaro Jaun Guztiz Linargu General nagusi, ctorridanac iru Probincija euscaldunetan aguinetetará. Begciratu eguizu bada ondo, ce arriscu andijan dagozan ceuben persona eta gueure jaiot-lurmaitia, cein doian betetará aldra eta tropa barriz, eta ceinzuc gueituco dirian aurrerancian, eta triscauco zaitubez, zeuben desesperaciñojak bardinduko baleubere soldauben jaquituria. Ez arren lecurik emon aurreracó zuben ondoren-goa madaricatu zaijezan ainbeste familijaren galtzia dacartzabelaco, eta zeubec bacarric zariela bitartekoac galdutecó ainbeste guiza aldetan Vizcaitar gustijen atseguin gozua izandirien Foruac. Bilbon Cemendijaren 28 garrenian, 1833.

Juan Modesto de la Mota. Pedro Pascual de Uhagon. Mariano de Eguia».

Erderaz ere zabaldu zan agiri au bera. Beraren fotokopia Jose R. de Urkijo orri berari zor diogu. Goien itz auek erantsita dauzka: «*Arch. Excma. Dip. de Vizcaya. Arch. Ayto. Plencia. Leg. 32. A. E. D. V. Acuerdos diputación, tomo 82 y 83*». Gure iritzirako, erderaz sortuko zan agiri au, eta ondoren euskerara itzuli.

Oncla dio:

## ***PAISANOS ARMADOS DE VIZCAYA.***

*Pérfidas sugerencias ofuscan vuestro entendimiento y os conducen a las más deplorables desgracias. Tras la clemencia viene la Justicia, y no deis lugar a comparecer en su inflexible Tribunal. El genio de la discordia ha preparado vuestra ruina, y la consumará si no abandonáis inmediatamente las filas rebeldes acogiéndoos al Indulto concedido en nombre de la REINA NUESTRA SEÑORA. Al empuñar las armas os hicieron creer que de esta resolución pendía la conservación de los venerandos Fueros de Vizcaya, cuando sólo depende de vuestra pronta y entera sumisión a nuestra Señora y Soberana ISABEL II. Escuchad la voz paternal de vuestra legítima Diputación general; reuníos a ella como lo han hecho siempre vuestros ilustres Ascendientes, y no perdamos por un delirio culpable el envidiado patrimonio que nos dejaron. La menor indecisión de vuestra parte os envolverá en arroyos de sangre, y causará sin ulterior remedio la pérdida de la existencia política de este privilegiado Señorío, según nos lo asegura el Excmo. Señor General en Jefe del Ejército de operaciones en las tres Provincias vascongadas. Contemplad pues vuestro peligro personal y el de nuestra cara patria que va a ser ocupada por nuevas tropas, y cuyo número irá en tal progresión ascendente que os abrumará, aun cuando vuestra desesperación supliera la pericia del arte militar. No deis lugar a que las generaciones sucesivas os increpen de haber causado la desolación de tantas familias, y de ser la única causa*



Karlos V, karlisten erregea (1788-1855).

de la pérdida de unos fueros que por tantos siglos han sido la delicia de los Vizcaynos.

*Bilbao 28 de Noviembre de 1833.*

*Juan Modesto de la Mota. Pedro Pascual de Uhagon. Mariano de Eguia.*

## **«MILLA ZORTZIREUN ETA OGEI TA AMAIRUAN...»**

1/ Milla zortzireun eta  
ogei ta amairuan,  
urte oroigarria  
guretzat zegoan;  
errege Fernando il da  
San Migel ondoan,  
ezagun zan jendea  
zertara zegoan,  
eztira bukatuko  
lan abek beingoan.

2/ Sarsfield eta Ezpeleta,  
Rodil, Valdespina,  
beste jeneralekin  
eztira oien diña;  
Lorenzo eta Córdoba,  
Espartero fiña,  
egin gabez eztira  
beren alegiña,  
aisa izutzen zituzten  
eunerekin milla.

Bi bertso auek, Azkuek Altzan jaso zituan, Jose Inazio Arzaken aotik. Baiña etzituan bere kanta bilduman argitaratu, eta orain beraren esku idatzietan azaldu dira.

Leenengo bertsoak Fernando VII'ren eriotza aitatzen du. Len ere esan degunez, 1833'ko iraillaren 29'an gertatu zan ori, San Migel egunarekin.

Bigarren bertsoak jeneral mordoa aitatzen du. Danak liberalak, bat izan ezik: Valdespina. Au cre liberaletakoa zala usteko zuan bertsolariak.

Esan bearrik ez dago, bi bertso auek lagunak izango zituztela. Bertso sail luzcagoa izango zała, alegia. Inprintatu eta bertso-paperetan zabaldu izana ere ditekena da noski.

## **DON GASPAR DE JAUREGUIK BERE ANAI EUSKALDUNAI ZORTZIKOETAN**

- 1/ Don Gaspar de Jauregui  
orobat *Artzaia*k  
itzegiten dizute,  
euskaldun anaiak;  
entzun bada arretaz  
nere ots ta deiak,  
ez dakar gauza onik  
seta edo leiak.
  
- 2/ Probintzia onetan  
tropen burungari (*sic*)  
denbora gitxi da nau  
erregiñak jarri;  
sotilki nai nioke  
ckin nik lanari,  
antustea ez nazan  
arrotu geiegi.
  
- 3/ Ekusten banaiz erc  
gaur txit goratua,  
nere gazte denbora  
ez daukat aztua;  
nekazarietatik  
izanik sortua,  
oien galeraz nago  
agitz penatua.

4/ Zuentzat dira bada  
nere abisoak,  
zeren engañaturik  
zaudeten gaixoak;  
atozte utzirikan  
mendi ta basoak,  
nik zabalik daduzkat  
zuentzat besoak.

5/ Ezaguturik noizbait  
zeren utsegíña,  
atozte ematera  
neri atsegíña;  
gure artean dago  
pakea egiña,  
esaten dezutela:  
bibia erregiña!

6/ Etzaiteztelan izan  
zoro, itsu, gorrak,  
sobera dituzute  
sinistu gezurrak;  
arrapa etzaitzaten  
burutik egurrak,  
ausi esaleai  
mami ta ezurrak.

7/ Iratzarri lotatik,  
iriki begiak,  
oiekin ez daduka  
parterik egiak;  
alde bat utzirikan  
fede on guziak,  
zuen odolaz daude  
kasakaz jantziak.

- 8/ Begira zenbat gezur  
zortzi illabetean  
sinistu dituzuten  
zerontzat kaltean,  
Don Karlos infantea  
ekusi ustean  
tronoan eseririk  
Madridko kortean.
- 9/ Batzuetan itxasoz,  
bestean legorrez,  
Karlos datorkiela  
oi daude deadarrez;  
ejerzitu andiak  
zaldiz eta oñez,  
beti bidean bañan  
iñoiz iritxi ez.
- 10/ Egin ere badute  
askotan ametsa  
fabore dituztela  
ingeles, frantzesa;  
gezurrez anditurik  
darie barautsa,  
guretzat da mamia,  
orientzat utsa.
- 11/ Portugal, España,  
bai eta Frantzia,  
laugarren dutelarik  
ingeles andia,  
alkarturik daudela  
da gauza argia;  
jakin nai badezute  
auxen da egia.

- 12/ Nola ezagutzen dan  
arbola frututik,  
orobat beste gauzak  
jarraipenetatik:  
Karlos ingelesaren  
eskupe jaririk,  
skula guzirako  
joan da Portugaldik.
- 13/ Orain, nere anaiak,  
atera kontuak:  
ea ote zauzkaten  
txit engañatuak;  
arkitu etzaitezten  
betiko galduak,  
jarraitu bada, arren,  
nere kontsejuak.
- 14/ Egin det zuekgatik  
alegin guzia,  
onez bukatu dedin  
dakargun auzia;  
bañan asko czpada  
nere au grazia,  
egin bearra nago  
zuzen justizia.
- 15/ Berdiña izan dedin  
guzion suertea,  
konbeni da gurekin  
zuek esatea:  
bibia erregiñ gazte  
Isabel maitea,  
bibia ere Kristina  
bere amandrea!

Bertso-paper au Bonaparte printziaren bildumatik degu. Nun argitaratu zan, bean esaten du: «Moldizquiratua Tolosan, Juan Ignacio de Mendizabalen echean».

Izenburuak adierazten duanez, Gaspar Jauregi jeneralak, izengoitziz *Artzaia* esaten ziotenak, dei egiten die euskaldunei, armak utzi eta nor bere etxera ditezen.

Jauregi edo *Artzaia* ori Urretxukoa zan, eta gazte denboran artzaia izana. Ortik beraren izengoitia. Frantzesen kontra asi zan gerran; eta, graduak irabaziz, jeneral izateraiño iritxi.

Fernando VII erregea il zanean, Frantzian bizi zan. Baiña liberalak etorri arazi zuten, eta 1833'ko azaroaren 6'an *comandante de la columna de voluntarios de Guipúzcoa* izendatu.

Bertso auek, bere kargu ori artu berri xamarrean zabañduko zituan. Noiztsu jarriak diran, izan ere, gutxi gora-beera soma ditekela uste degu.

Bigarren bertsoak dionez, denbora gutxi da erregiñak *Artzaia* ori buruzagi jarri duala. Eta, esan degunez, izendapen ori 1833'ko azaroaren 6'koa da.

Zortzigarrenak, berriz, onela dio: «Begira zenbat gezur zortzi illabetean sinistu dituzuten...». Zortzi illabete oiek, erregea il zanetik kontatu bearrok izango dira. Ala, 1834'ko maiatzak edo garagarrilla eldu zaigu.

Amabigarrenak jakin arazten digunez, Don Karlos Portugaldik atera eta Inglaterra aldean zebillen. Eta, kondaira-liburuak diotenez, 1834'ko garagarriaren 3'an erten zan Portugaldik ingles itxasontzi batean, Inglaterrara joateko.

Artean onera gabe zegoan, bederatzigarrenak dionez. Ain zuzen, urte artako uztailaren 12'an igaro zuan muga, Dantxarinea'tik barrena.

Orregatik, 1834'ko garagarrillaren ondotik jarriak izango dira bertso auek; baiña urte bereko uztailaren 12'garrena baiño len.

Gauza bera adierazten du beste txectasun batek. Amaikagarren bertsoak, euskaldunei berri ori ematearren-edo, Portugal, España, Frantzia eta Inglaterrak alkar artu dutela esaten du. *La Cuádruple Alianza* alegia, len ere esan degunez, eta Londres'en izenpetu zan, 1834'ko apirillaren 22'an.



Baiña guztira ogei ta zazpi bertso ditu sail onek, bi zatitan banatuta: leenengoan amabost, eta bigarrengoan amabi. Auek ez ditugu emen agertzen, onen aurreko *Egia arrigarriak* izeneko saillean ere badaude eta. Ontan, lerro auek aldatzen dira: 2/8: milla bat korodun; 10/3: onek utzia dago; 12/1: O gure biotzeko.

Laugarren eta amaikagarren bertsoak, berriz, erabat aldatuta daude:

- 4/ Deitzen duten fedea  
ezagutu gabe,  
erlijio santuaz  
ez degu zer galde;  
Karlos kinto dutela  
esanaz errege,  
egiten dutena da  
ostu, ill eta erre.
- 11/ Da dudarikan gabe  
amarik onena,  
edo esan dezaket  
beintzat bigarrena;  
lenbizikoa baizan  
Maria Birjiña,  
jarraitzen diona da  
Maria Kristina.

Garrantzi aundiikoa da 2/8'garren lerroko aldaketa. Leengoan «makiña bat lagun» esaten zan, eta oraingoan «milla bat korodun». Apaiz asko erregiñaren aurka zeudela, alegia. Bertso-jartzailleak onela idatziko zuan. Gero kejak izango ziran, eta eztenkada ori kendu.

## **«ZUMALAKARREGI DA GURE JENERALA...»**

1/ Zumalakarregi da  
gure jeneral,  
onek amaituko du  
asitako lana;  
biotza zintzo dauka  
fedearengana,  
ez da inguratuko  
beltzik orrengana.

2/ Sutan abiatu da  
*Artzaia* atzera,  
nere ustez gudari  
onen bat bazera;  
saiatzen ez bazera  
plaza artutzer,  
*Artzaia*, joan ziñezke  
laixerka etxera.

3/ Biba gure On Tomas  
Zumalakarregi,  
beste onelako bat  
ez baita agiri,  
atzera egiteko  
areriyuari;  
isabeltarrok igesi  
dijoazkiyo ari.

4/ Karlos bostgarren jauna  
 gure erregia,  
 Espaňiya guziya  
 du bere-beria;  
 ezin izan gentzake  
 beste bat obia,  
 euskaldunok daukagu  
 kolkuan gordia.

Lau bertso auek, Tolosako Manuel Urreta zanak bialduak ditugu. Baditeke, ordea, eskuren batek «orraztuta» egotea. *Gudari eta On Tomas* ez baidira orduko itzak.



Zu-ma-la-ka-rré-gi gu-re je-ne-ra-la be-

ro-rrrek kon-pon-du-ko du a-si-ta-ko la-na bi-

o-tza pri-me dau-ka fe-de-a-ren-ga-na bel-

tzik a-mi-ma-tu-ko ez-ta o-rren-ga-na.

- 1/ Biba, biba Don Tomas,  
biba Karlos *quinto!*  
Joan dan urtebetean  
penatu due franko;  
beltz oien enpeñoa  
ilko dutelako,  
nai duten azañarik  
eztute aterako.
  
- 2/ Zumalakarregi  
gure jenerala,  
berorrek konponduko du  
asitako lana;  
biotza prime dauka  
fedearengana,  
beltzik arrimatuko  
ezta orrengana.

Doiñu au eta bi bertso auek Iruñe'n arkitu genituan, Barón de Montevilla zanaren bilduman. Bertsoen azpian itz auck irakurtzen dira: «*De Ataún, Guipúzcoa. Comunicado por R. M. Azcue, que no lo incluyó en su Cancionero, ni letra ni música*».

Urreta'ren leenengoa eta Montevilla'ren bigarrena bertso bera dira, itz guzietan bat ez badatoz ere. Ortik, ordea, indartu egiten da gure susmoa: Urreta'renean norbaitek itzen batzuk aldatu dituala.

*Gurasobide*'k, Urreta jaunak alegia, bere sailleko irugarren bertsoa idazlan batean argitaratu zuan, Iruñeko *El Pensamiento Navarro* egunerokoan, 1926'ko maiatzaren 7'an, bi aldaketa auekin: 3/1: Gore gure on Tomas; 3/3: beste orrelako bat.

Barón de Montevilla jaunak, berriz, Urreta jaunaren laugarren bertsoa *Coplas y brochazos del vivac* liburuan agertu zuan, bi aldaketa auekin: 4/7: euskaldunak kolkoan; 4/8: daukate gordea. Ondoren, onako argibide au: «*Intitúlase Laukos de Berso Berriak, está dedicado a Zumalacarregui y se lo debemos al erudito sacerdote euskelduna don Resurrección María de Azkue*».

Noiz jarritako bertsoak ote dira? Zumalakarregi gerran zebillela noski;

1833'ko azaroaren 14'etik 1835'eko garagarrillaren 24'era artean, beraz. *Artzaia* ere aitatzen zaigu; Urretxu'ko Gaspar Jauregi jeneralia, alegia. Baiña onek gerra-denbora guztia arrapatu baitzuan, argirik ezin ortik atera.



Garai artako bertsolariak sarritan goratu zuten Zumalakarregiren izena, irakurleak urrengo orrialdeetan ikusiko duanez. Ona zer dion Felix Lichnowsky printzipeak, bere *Recuerdos de la guerra carlista* liburuan:

«*Tomas Zumalacárregui es el héroe de cantos y baladas que harán resonar su nombre cuando no se acuerde nadie de don Carlos ni de Cristina*».

## ARANTZAZU

Arantzazuko eliza eta komentua liberalak erre egin zituzten, 1834'ko abuztuaren 18'an. Gauzak nola gertatu ziran azaltzeko, Juan Karlos Gerra jaunaren *Ama Birjiña Arantzazu-koaren kondaira* idazlanetik kopiatuko degu (*Euskal-Erria* aldizkaria, 1891), euskeraz kontatzen duan ezkero:

«...Nork ez daki Fernando Erregea ill zanean sortu zan zazpi urteko gerra? Nork ez du entzun gerra aren asieran Arantzazun zer gertatu zan?

1834-ko Abuztuaren 18-garren eguneko illunkeran batalloe bat agertu zan Aranzazun. Fralleak ongi etorria emanik eta adiskideak legez arturik, afalduta gero despeditu ziraden gabeko amarretan. Ordu bete baño len agertu zitzaion euren agintaria Aita Guardianari esaten eze Rodil Jeneralaren agindegunean zeukala fralleak preso eraman eta Arantzazuko eliza ta konbentua auts biurtze-ko, guzti guztia bukatu izan biar zuana urrengo goizaren zortziretako. Ordu batetan entzun zan tiro bat, beriala onen otsera sartu ziraden soldaduak alde guztietatik leku santu artara eta asi ziraden ate, aldare, ormak eta koroa bustitzen ur errekiñ bategaz. Iruretan Aita Guardianak artu zuan Gure Jauna, andik ordu batera, bildurik fralle denak kanpainen soñura, lauren artean jaso zuten bizkarretan Ama Birjiña, eta besteak kandela irazeki bana eskuan zeramatela, abiatu ziraden Oñatira, soldaduz inguraturik, negargarrizko prozesioan letania errezatzen.

Bitartean suak erretzen zuan Aranzazu, garrak kiskaltzen zituen ainbeste lanez miragarriro egindako eliza ta bakarlekua, ainbeste doai kristauen jaierak bialdutakoak, erregeen ta aundikien ofrenda ikusgarriak, Murillo famatuaren pinturak, Gregorio Hernandez-en talluntzak, gorputz biziak zirudienak, Okendo umantaren itxas garaitzetako oroitzak eta beste ezin kontala erlikia berdiñ gabeak...

Ezin esan liteke Euskal-errian zabaldu zan naigabea. Berrogei ta amasei urte igaro dira, eta oraindik gure mendietako andreak, euren aurtxoai lotaratzean erakusten diete gau triste ura gorrotatzera kantatuagaz:

Neure Ama Birjiña  
Aranzazukua!  
Rodilek erre dizu  
zure konbentua».



Rodil jenerala liberal gudaroztearen buru zan orduan, eta aren aginduz egingo zan, Juan Karlos Gerra jaunak esaten duanez, basakeri ura.

Kopla ori toki askotan arkitu degu. Baiña leenengoz agertu zuana, oso oker ez bagaude, Gerra jauna izan zan. *Euskalerriaren alde* aldizkarian ere argitaratu zuan jaun onek berak kopla ori 1923 urtean.



Arantzazuko bertso-bilduman, eskuz idatzita, iru kopla auek arkitu ditugu:

Neure Ama Birjiñc  
Arantzazukue,  
Erredolek erre dotzu  
zeure komentue.

Karlosek badaruko  
Bizkaien tellarik,  
etzara zu egongo  
komenturik barik.

Opillek erreten dagoz  
erregiñarentzat,  
eta tremesik bere  
Karlos kintorentzat.

Noren aotik jasoak diran, onela adierazten da: «Demiku, Bermeo, Emeteria San Nikolas, 80 urtekoari entzunak».

Irugarrén koplak ez du ematen Arantzazu erre zaneko beste kopla oiekin zer ikusirik daukanik. Baiña danak batera azaldu zaizkigun ezkero, eta irugarrén ori beste iñun agertu gabea izanik eta gerra oni dagokiona, bera ere emen ezartzen degu.



Arantzazuko bertso-bilduma ortan, beste orrialde batean, eta aurrekoak bezela eskuz idatzita, leenengo eta bigarren kopla jasota daude, oso aldatuta ordea:

Neure Ama Birjiñc  
Arantzazukue,  
baltzak erre dotzue  
zuri komendue.

Bizkagijen badago  
teille errenikorik, (*sic*)  
etzara zu egongo  
komendu bagarik.

Eta, ondoren, onako argibide au: «*Cantado por Victoria Martina Noverán Oñederra, Gauteguiz de Arteaga, Agosto, 1935*».



Argia astekarian, 1936'ko garagarrillaren 7'an, Arintzondo izenordeaz izenpetuta eta Arantzazuko Amaren Koroazioko ikusle batekin aldarrizketan izenburuarekin idazlan bat agertu zan. Ontan beste onela daude kopla auek:

Neure Ama Birjiña  
Arantzazukue,  
baltzak erre dotzue  
zuri komentue.  
Balldin gelditzen bada  
Bizkaien teillerik,  
etzara zu egongo  
komentu bagarik.



Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, beste iru kopla auek, sail berekoak seguru aski:

Gure Ama Birjiña  
Arantzazukoa,  
laguntzalle ona da ta  
askoren gogokoa.

Nola botatzen zuten  
etxetik kanpora,  
begira zeuketen  
gure Jaungoikoa.

Berriz ere egingo da  
Arantzazun obrea,  
len galdu zutenari  
ez eskerik ordea.

Kopla auek, Ataungo Jokin Dorronsoro jaunak 1934 urtean bialduak dira, eta berak «Juana Frantxiska Arruabarrena’ri entzunak» omen zituan.



*Aranzazu* aldizkarian, 1944'eko urrian, *Fuego en Aránzazu, cinco veces en cinco siglos* izeneko idazlana agertu zan, *Gisasola*'k izenpetuta. Gertaera berdintsu kontatzen du, eta leenengo eta bigarren koplak agertzen, baiña Gerra jaunak eta Bermeoko Emeteria San Nikolas amonatxoak bezelatsu.



*Aranzazu* aldizkarian, 1955'ko azaro-abendukoan, onela daude bertso auek:

Neure Ama Birjiña  
Arantzazukua,  
baltzak erre dotsue  
zuri komendua.

Baiña baldin badago  
Bizkaien teilarik,  
etzara zu egongo  
komendu bagarik.



*Aranzazu* aldizkarian, 1959'ko abenduan, beste onela daude bertso oiek:

Nere Ama Birjiña  
Arantzazukua,  
beltzak erre dizue  
zuri komendua.

Bizkaian baldin bada  
oraindik teillarik,  
etzera zu egongo  
komendu gaberik.



Aita Salbatore Mitxelena zanak, bere *Ogei kanta Arantzazuko* liburuxkan, emezortzi bertso eskeintzen ditu gai oni buruz, gertaera kontatuz. Berak asmatuak baitira, eta ez erriak jarriak, ez ditugu onera aldatzen. Baiña iñondik eskuratzen baditu, irakurleari atsegin izango zaizkiola uste degu.

*Aranzazu* aldizkarian, berriz, 1949'ko otsaillean, ogei ta lau bertso agertu zituan Aita Mitxelenak, *1834'ko urtean Arantzazu erre zanekoa* izenburuarekin.



Aita Jose Inazio Lasak, *Aranzazu* aldizkarian, 1968'ko apirillean, *La guerra carlista y la quema de Aránzazu* izeneko idazlana argitaratu zuan. Onela dio:

«...A mediados del año 1834, D. José Ramón Rodil y Galoso había sido nombrado General y Jefe del Ejército del Norte para reemplazar al General Quesada. Y llegaba a Navarra con 14.000 soldados de refuerzo. Eufórico de su triunfo en Portugal, confiaba plenamente en derrotar a sus contrarios. El día 9 de Julio de 1834 dirigía a los navarros, vizcaínos, guipuzcoanos y alaveses desde su cuartel general de Mendavia una proclama en la que decía entre otras cosas: Que en breves días había acabado la campaña de Portugal, arrojando lejos de allá al pretendiente D. Miguel (el mismo problema que en España se había planteado en Portugal, donde D. Miguel y D. Carlos mutuamente se ayudaban) y a D. Carlos; que las dos poderosas naciones Francia e Inglaterra eran aliadas de España; que todas las provincias de España, «excepto este desventurado territorio» (se refería al País Vasco), estaban obedientes y tranquilas al mando de Isabel; que el Gobierno abundaba en medios y recursos, y que el partido de Carlos estaba «cada día más débil y exhausto, haciendo el último esfuerzo como que ya se siente en la agonía».

*La contestación a su proclama, que se figuraba Rodil fuese una capitulación incondicional, fue muy otra: ¡Una derrota colosal!* Zumalacárregui, genial estratega, luchando con un número reducido de hombres contra un ejército numeroso, bien equipado y provisto de todos los medios, salía siempre triunfante. El día 3 de Agosto de 1834, en el núm. 36 del Boletín carlista se escribía: «El orgulloso Rodil

*con siete mil infantes y doscientos caballos ha sido batido por solos tres batallones...». Cada día nuevos reveses y contratiempos caían sobre Rodil. Veía que todos sus planes eran desbaratados por la astucia zorruna de Zumalacárregui. Su plan favorito, por el que ponía toda su carne en el asador, consistía en apoderarse de la persona de D. Carlos. Saliendo de Pamplona, se había dirigido a Elizondo en seguimiento de D. Carlos. Supo aquí que había bajado a Lecumberri, y va a Lecumberri. Aquí se entera de que en la noche anterior había dormido D. Carlos en Lizarraga, y sin pérdida de un solo instante toma el camino hacia este pueblo, donde tampoco lo encontró, pues había salido reforzado por varios batallones para Oñate. Y llegaba Rodil con 11.000 soldados a Oñate, y mientras tanto D. Carlos había llegado a Segura. Rojo de ira ante los continuos fracasos, Rodil ordenó la quema del Santuario de Aránzazu el día 18 de Agosto de 1834...*

*De las relaciones de los testigos presenciales sabemos que en la entrevista de Rodil con los frailes después de la quema del Santuario se redujo todo a gritar y blasfemar contra Zumalacárregui. ¿Qué tendría que ver Zumalacárregui con el Santuario de Aránzazu?...*

*...De propósito he silenciado los detalles y las circunstancias que acompañaron al incendio. El solo recuerdo del hecho hace sangrar a nuestro corazón y no he querido detallar para no renovar las heridas.*

*Rodil fracasado antes los suyos y extraños, fue relevado de su cargo, siendo destinado a la capitánía general de Extremadura, provincia a la sazón tranquila...*

*La memoria de los incendiarios de Aránzazu ha sido execrada. Y lo doloroso del caso es que han sido involucrados en esta reprobación nuestros paisanos. Los ejecutores de las órdenes de Rodil fueron los «chapelgorris» o «peseteros», bajo las órdenes de Anselmo Iñurriagorri, lugarteniente del General Jáuregui...».*



Azkenik, Aranzazu aldizkarian, 1968'ko ilbeltzean, Arantzazu erre zutene-koa idazlana agertu zan. Onela dio:

*«Este archivo viviente de recuerdos de Oñate que es D. Esteban Arriarán –alias Txarrasko–, tiene su versión propia del incendio de 1834 y del retorno de la Virgen en 1846, tal como él la ha oído contar a sus mayores. El relato del Sr.*

*Arriarán ha sido tomado en cinta magnetofónica. Hay en él ciertos detalles curiosos (tales como el del «pesetero» que se destripó en el barranco) que son seguramente fruto de la fabulación popular, en medio de otros muchos datos rigurosamente exactos. La familia Txarrasko ha sido siempre muy adicta a las monjas de Bidaurreta y a los frailes de Aránzazu.—L. V.*

Emen zerbait artu naian etorri zait Aita Villasante frantziskotar argi eta zintzo au. Eta nik dakidana esateko asmoan guraso zarrai aituta, lendabizi asiko gera Arantzazu erre zutenetik. Gure zarrak esaten zutenez, Arantzazu erretzeaz naigabe aundia artu zuten danak, baiña batez ere Oñatiako erriak. Rodil gaiztua zetorrela jakin zutenian kontzejal zeudenak –gure aitona omen zan bat–, sakiatzeko asmuan etorriko zala-eta, Alhondigan zeuden zaragiyak gure bodega zarrera ezkutatu omen zitzuzten.

Gau areten Antzuelako semia Iñurrigarro (apenas izan bear zuen tresna zuzena), eta Rodillen ordenaz ori juan omen zan Arantzazura pesetero soldaduakin; peseteruak esaten ziotenakin. Oneik pesetero oneik izan bear zuten dirutan pagatzen zittuanak Gobiernuak. Peseta bat jornala zeukatelako peseteruak esaten omen zioten. Arantzazura jun eta bapo jan da edan egin ondorian, Aita Guardianuari esan omen zion erre ein biar zuala Rodillen ordenaz, eta Ama atera nai bazuten ateratzeko, eta bestela etzeuala ezetarako astirik. Ala su eman eta Ama atera omen zuten eta praille gizajuak negarrez zijuazela, Oñati-ratu omen ziran. Eta kondaira edo entzuna da, baiña gure amonak esaten zuan pesetero batek zelan bayonetakin ein zion Amari ikusi biar zuala a be, ta nardapera amildu eta an lertu omen zan. Kalera etorri ziranian pesetero aren falta billatu omen zuten».

## ***CHANSON CRISTINO***

- 1/ Milla zortzi eun ta ogei ta amalau urte,  
bertsu bi paratzera obligatzen naute;  
friolera otarik ematen dut merke,  
nere fabrikan bada katadral bat bete.
- 2/ Ona gure erregina Doña Isabela,  
ez dute ezagutu nai etxeko andre dela;  
batzuek Karlos kinto errege biar dela,  
gauz au iduritzen zait mengantza bat dela.
- 3/ Batzuek kontent ziran agitz arrigarri,  
Karlos kinto errege biar zela jarri;  
gauz au iduritzen zait asi bezain berri,  
Betiri Santz jeneral izango da sarri.
- 4/ Zenbat jende geran ta anbat oponio,  
iñork iñori itz bat fidatzen ez dio;  
au da mengantza gaitzo bat dela medio,  
tontoak abillari pusk añitz zor dio.
- 5/ Pentsamentu berri bat obeko da egiñ,  
denbora juan eta damutu ez dadiñ;  
Karlos kint'ori non den biar litzake jakiñ;  
elkar uni dezagun, pake on bat egiñ.
- 6/ Esan zuten bezala abiatu bazen,  
karakola izan ta gargero emen zen;  
espazio gaiztoa ezpaidigu artzen,  
tropa martxa doblean ez du sofogatzen.

- 7/ Batzuek erregiña, bertzeak Karlos kinto,  
ardoz t'ogiz ase ta salto eta brinko;  
lege obeagorik ez dute'karriko,  
papel eskiñ batekiñ zor guziak kito.
- 8/ Ez dago akabaturik asi degun dantza,  
sefiak egin artiño al duten arrantza;  
lumezko amu eta papelazko lantxa,  
erri bat arrasatu ta urengora martxa.
- 9/ Aita semeren kontra, anai anaiaren,  
arriturikan gaude gauz ori nola den;  
bake on bat egizu, Jaungoikoa, arren,  
nekazari gaixoa iretsi baiño len.
- 10/ Probentzian Jauregi, Nafarroan Mina,  
oraiñ agertu zaiku lengo gizon fiña;  
batzuek pena dute, bertziak atsegiaña,  
oraiñ arrapatu du lengo uts egiña.
- 11/ Jose Mari Exkerra, lengo enpleguan,  
bertsu berri paratzen toki seguruan;  
pentsamentu gaitztorik ez dauka goguan,  
ala badiote're zonbaitek munduan.

Bertso auck Jean Haritschelhar'ek argitaratu zituan, bere *Quelques chansons basques de la première guerre carliste (1833-1839)* lanean (*Actes du colloque international d'Etudes Basques (Bordeaux 3-5 mai 1973, Bayonne 1978)*.

Aurretik argibide auck ematen ditu kanta oni buruz:

«Le manuscrite se trouve à la Bibliothèque Nationale de Paris (Celté basque 169, feuillets 233/234 et 234/235, Recueil de textes basques). Les poésies collectionnées par J. Duvoisin vont du feuillet 228 au feuillet 251 et son adressées à M. Garay de Monglave, Chevalier de la Légion d'Honneur, Inspecteur Général des Sourds-muets. Cette dédicace, soigneusement barrée, reste cependant visible. C'est une chanson de 11 strophes de 4 vers dont l'auteur est Jose Mari Ezkerra d'Irun. Mais voici ce qu'en dit Duvoisin:

«*Jose Mari Ezkerra d'Irun est l'auteur de cette chanson; c'est le plus fameux coupletier de la frontière et on peut juger de sa facilité à faire des vers par ce qu'il dit lui-même, qu'il y a dans sa fabrique de quoi remplir une cathédrale.*

*On reconnaît, de prime abord, que notre poète n'est pas carliste. José Mari Ezkerra avait suivi la cause des constitutionnels en 1823. Il passa en France avec les débris de leurs troupes. Il profita de l'amnistie publiée par Ferdinand VII. Ennemi du travail, il vécut en faisant la contrebande en France et, de plus, quelques tours dans les prisons de Bayonne, chansonnant les douaniers, les geôliers et ses compagnons d'infortune; toujours gai et partout le bienvenu, même en prison. Au milieu de tant de malheurs son caractère jovial, loin de prendre une teinte de tristesse ou d'aigreur, semblait au contraire exciter davantage sa verve sans lui rien enlever de sa modération habituelle. Pendant la dernière guerre civile, José Mari courut aux armes; il servit dans le corps des chapel gorrirs sous son ancien colonel El Pastor (général Jauregui), gagna les galons de sergent, une décoration, des blessures et une pension qu'on ne lui paie pas».*

Ezkerraren beste bertso sail bat aurrerago azalduko degu. Bi sail oiek naikoak dira beren egillea bertsolari ona zala erakusteko. Duvoisinek dionez, txapel gorrietakoa izan zan; liberaletakoa, beraz. Karlistak txapel txuria erabilten zuten orduan.



Bertso auek noizkoak diran asieran esaten zaigu: 1834. Beste bide bat ere badago txeetasun ori zeatzago jakiteko. Amargarren bertsoak dionez, Mina jeneralta agertu berria da. Liberalen indar guzien buru izendatu zutenean, Iruñea-ra etorri eta dei bat zuzendu zien bere mendeko soldaduei, 1834'eko azaroaren 4'an. Andik laster jarritako bertsoak izango ditugu, beraz.



Duvoisin'ek orrek berak eskuz idatzitako bilduman –Baionako *Musée Basque*'n gordetzen da–, sail ontako amar bertso agertu dira; aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe. Baiña 6'garrena falta.



Gaizki kopiatuak zeudelakoan, onako auek zuzendu ditugu Haritschelhar jaunak eskeintzen dituan bertsoetatik: 5/3: *lizate: litzake*; 9/4: *nekazalle: nekazari*; eta seigarren bertsoaren puntuak onela zeuden: *bazan, zan, artzan* eta *sofogatzan*. Dendarik ez da *bazen, zen, artzen* eta *sofogatzen* edo *sofokatzen* bear dutela.



Francisque Michel, bere *Le pays basque* liburuan (Paris, 1857), 414-415 orrialdeetan, sail ontako iru bertso ditu: 2, 7 eta 3'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 2/1: Gure erregina Doña Isabela, 2/4: gauza hori iduritzen zait bengantza bat dela; 3/1: Iendea ere kontent zen anitz harrigarri; 3/3: gauza hori iduritzen zaut hastian bezain berri; 7/1: Batzuk erregina, bestek Carlos-Quinto; 7/2: ardoz eta ogis ase eta salto eta brinko; 7/3: lege hobeagorik ez dute izango; 7/4: paper buztan batekin zor guziak kito.

Eta ondotik beste iru bertso auek:

Musiu Petiri Sanz aurten alegera,  
su bazterrian dantzan Abendua gabe;  
Jaungoikoak eskerrak kontent niz halere,  
kanpoa baiteraukat maiatzian ere.

Hirur seme baditut, hirurak armetan,  
gaixuek ez baidute minikan hanketan.  
Bata ekarri dautek eria hagetan,  
balaz porroskaturik, dena odoletan.

Lau lagun juan gineng pitar edatera,  
milagro handiagorik munduan ote da?  
Xapel Txurik zaizkun sasistik atera,  
dezidatu gaituzte odol ixurtzera.



Aita Donostia zanaren artxiboan, *Cuaderno de Argentina* izeneko batean, iru bertso auetako bigarrena azaldu da, aldaketa auekin: 2/3: gaixoek minikan; 2/4: ez dutc anketan; 2/5: bat ekarri deraitet; 2/6: airian hagetan; 2/7: balaz porroskatua.

Ta bai beste bertso au ere:

Nerorrek eman nion  
Karlosi abisa:  
gerla hori uzteko  
otoi bere gisa;  
bordarik ez izanez  
sasian dabilta,  
gaixtoak dira eta  
otsoak jan beitza.

LEKAROTZ

- 1/ Zazpi urteko gerran, karlisten denboran, agindaria Mina gobernu aldean; Belate aldetik dator zerbaiten billean: jarri tropa audiarekin Baztango ballean.
  - 2/ Zazpi urteko gerran karlisten agindari: euskalduna Don Tomas Zumalakarregi; ordun Baztan osua zen zapela gorri, bañan egizkoena Lekarotzko erri.
  - 3/ Bordazuri gañetik tiroz zirikatzen, karlisten soldaduek kalte audi egiten; eta Mina Elizondon bakerik ez artzen, karlisten gibeletik bidia omen du artzen.

- 4/ Lekarotzko erria,  
mirabe ta nausi,  
Umarritzko aldera  
laxterka igesi;  
Mina mason gaiztua  
erriko xaarrekin,  
kañonak ia badiren  
nai baitzuen jakin.
- 5/ Txapela gorri dunak  
bein naiago du ill  
mundu guzien antziñet,  
ta ez erran gezurrik;  
ortaz lekaroztarrak  
man zioten erriari  
orduan sekulako  
oore ta izen audi.
- 6/ Lekaroztarrak zuzten  
armetan denetaz,  
bolbora ta kañonak,  
egi edo gezurraz,  
aterazi zabezten  
onez edo bortxaz:  
sutan jarri biar zuela  
erria bertzenaz.
- 7/ Ortiberroko ondoan  
Minak egin zuena,  
argi ta garbi erteko,  
zen zarkeri aundiena:  
zaar gaixo tiroka  
ilezi in zitucena,  
oi zer agindaria  
ori agindu zuena!



Lekarotz'ko erria sutan, 1835-III-14.

8/ Sabaitako urrin goxo,  
sagar ta soroena,  
Lekarotzko etxetan  
somatzen eztena;  
ckearen usaiaik  
artu du erri dena,  
non-nai bakardadea,  
nigarra ta pena.

9/ Orduan gertatu zena  
nork adieziko du?  
Ainbateko naigabe  
ezta beñere aditu;  
etxe xuri guzietan  
sugarrak nausitu,  
eliza ederra sutan,  
erriaren dolu!

10/ Etxe ta erri ederrak  
benturaz erreko,  
gorputzak armarekin  
naiz illek kusiko;  
bañan biotzak erne  
euskal erriendako,  
ta odola il arterao  
Jangoikoarendako.

11/ Plazatik daramazte  
iru gorputz illen,  
elizain kontra daude  
cnterratuak antxen,  
lekaroztarrak artian  
gogora dezazten,  
beren antziñekuak  
leialak baitziren.

Amaika bertso auek, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman arkitu ditugu, *Poesías Populares, Certamen 1932* izeneko sortan, Jabier Lazkoz'ek bialduta.

Bertsoen saiets batean argibide au irakurtzen da: «*Versos de autor desconocido. Colección de Juan Karrikaburu*».

Izenburutzat onelaxe idatzita dago: «*La quema de Lecaroz por el general Mina*». Gaia orixe da, izan ere. Baiña bertsoak ondo ulertuko badira, gertaeraen berri eman bearra dago.

Elizondoko erria liberalen mende zegoan. Baiña karlistak, Sagastibeltza buru zutela, inguratuta zeukaten, barrengoaak «tiroz zirikatzen» zituztela eta «kalte audi egiten», bertsolariak dionez.

Espoz y Mina jeneralak, al zituan soldadu guziak bildu eta Iruñetik Elizondo aldera jo zuan. Zumalakarregi bidera atera zitzaion, eta gogorki burrukatu ziran Larremiarko mendietan, 1835'ko Martxoaren 12'an. Espoz y Mina, nekez bada ere, Elizondora pasa zan, maltzurkeri baten bidez bidea libratuz: mezu bat idatzi omen zuan, Zumalakarregiren izenez firmatuz eta orrela Elio jeneral karlista engañatuz.

Lekarotzkoa andik bi egunera izan zan, martxoaren 14'an. An zer gertatu zan, gauzak bere begiez ikusi zituan batek kontatuko digu. Orduan Espoz y Mina'rekin zebillen eta denboraren buruan jeneral famatua izango zan Antonio Ros Olano degu bera. Onela dio bere liburu batean:

«*Antes de amanecer salieron de Elizondo, pueblo inmediato, unas compañías de cuerpos frances con un pliego cerrado para el alcalde de Lecároz y se posessionaron del pueblo. Por orden del general en jefe, debían los vecinos de este pueblo esperar reunidos en la plaza pública la llegada del ejército. Eran estos vecinos ventitantes ancianos, vestidos con las modestas y aseadas galas de los días festivos. No había jóvenes entre ellos, porque estaban entre todos los del reino de Navarra reunidos en armas. Presentóse el general, y los ancianos rodearon su mula para saludarle con palabras vascuences y patriarcales ademanes. Entonces Mina, contestándoles en el propio idioma, les conminó para que declararan el lugar en donde los facciosos habían escondido la artillería, o que de lo contrario, aquellos a quienes se dirigía serían pasados por las armas en castigo de su tenacidad, y que tras de esto haría incendiar el pueblo de Lecároz. Todos a la vez se sorprendieron cual si los hubiese sacudido un rayo, y unánimemente contesta-*

ron que nada sabían de lo que se les preguntaba. Repitió su mandato el general, y como nada más contestaran, sino que antes juraban su inocencia, los mandó contar de cinco en cinco, y el que cerraba este número quedaba aferrado entre las manos de un cabo. Las víctimas resultaron ser cinco, y los había tan infirmes que apenas podían andar; ancianos caducos arrastrándose bajo el peso de los años. Poco después la población era pasto de las llamas».

Gertaera negargarri onek zer esan audiak sortu zituan bazter danetan. Orregatik, alegin audiak egiten ditu Mina'k, *Memorias del general liburuan*, bere burua garbitzearren:

«Se ha pensado sin duda que se ha pasado a cuchillo la quinta parte de hombres, mujeres y niños de una grande población, sin tener en cuenta que Mina no es hombre que a sangre fría haga derramar la de sus enemigos. Se quintaron en efecto sólo los hombres que se hallaron en el pueblo, y resultaron siete, que según la disposición del general, debían ser pasados por las armas. No se hubiera hecho en ello más que usar de justas represalias: el pueblo de Lecaroz por su localidad era el más a propósito para hacer mal desde allí a la guarnición de Elizondo; todo su vecindario estaba notado como el más adicto a don Carlos de todos los de aquella circunferencia; todo él se ocupaba en servicios de los facciosos y principalmente en el espionaje; sus burlas a la guarnición del fuerte de Elizondo eran continuas; era el depósito de los proyectiles y toda clase de municiones de guerra de los facciosos, y acaso por sus delaciones fueron sacrificados al furor de éstos varios de los confidentes del general Mina encargados de llevar comunicaciones, y en muy pocos días ocurrió en aquellos mismos momentos que asesinaron a cinco de estos servidores del gobierno de la reina...

Sin embargo, Mina, queriendo economizar la sangre aun de sus propios enemigos, mandó que solos tres de los siete quintados fuesen pasados por las armas, y a los otros cuatro los destinó al descubrimiento de los cañones con que los facciosos batían días antes el fuerte de Elizondo; y a pesar de que su ayuda no fue de grande utilidad en las diligencias, descubiertos y recogidos que fueron dos morteros y un obús por los tiradores de Isabel II, ayudados de otros montañeses, dejó a los cuatro referidos de Lecaroz en entera libertad; por manera que todo el grande espanto y asombro que el hecho de Lecaroz ha causado lejos del sitio, está reducido a tres vecinos fusilados, cuya pena tenía merecida todo el vecindario, y a la quema de una veintena de casas entre todas las que componen su población desparramada, y que por cálculo —pues no tenemos a mano ningún libro ni otro

*documento que nos dé un estado exacto— juzgamos que será de ciento treinta a ciento cuarenta...».*

Erderazko zati auek oso batera datoak bertsoak esaten dutenarekin. Baiña gure iritzi bat: bertso auek andik urteetara jarriak izango dira; ez gertaerak gertatu eta bereala. Adibidez, «Zazpi urteko gerran» etzegoan esaterik, tiroak ixildu eta pakea egin artean beintzat.

## BERTSO BERRIAK

- 1/ Karlista baliente, prestu ta argiak, badakit zeratela txit maitagarriak; zuen prodijioak ain dira andia, esplikatzera noa egia garbiak.
  - 2/ Relijio santuak asko du balio, zuzen dabilenari Jainkoak nai dio; gutxitik zeratela goienera igo, zuen korajeaz da jendea txit fio.
  - 3/ Izketan balekite mendi ta sasiak, eskerrak emateko ondo mereziak; eskaldun korajetsu, azkar ta biziak, iztu dituzute kristino guztiak.

- 4/ Egun bian zerate  
egin izan kasi  
Kristinaren soldadu  
guztien nagusi;  
ezin dutela arras  
dutenean etsi,  
estranjeroen eske  
omen dira asi.
  
- 5/ Ingelesak bezala  
frantzes erregeak,  
ezaguturik ondo  
zer diran legeak,  
gorde nai izan ditu  
bakotxak bercak,  
arkitzen diralako  
ur otzez erreak.
  
- 6/ Desengaño andi au  
dutela ikusi,  
diruz gizon erosten  
omen dira asi;  
berakin nai badute  
baza irabazi,  
kristinoen kontua  
etzeagok gaizki.
  
- 7/ Asi dira etortzen  
erosi berriak,  
iltzalle, alper eta  
lapurrik erdiak;  
ingelesen izeneko  
kasaka gorriak,  
bizar gutxitxo dute  
bañan txit ordiak.

- 8/ Bosteun bat ordi putzu,  
txuri ta beltz neste,  
donostiarrok guztiz  
maitaro dauzkate;  
ezta erraz billatzen  
orrenbeste traste,  
berentzat asko dira  
sei euskaldun gazte.
  
- 9/ Gerrarako molderik  
ez daukate kasi,  
ejerzizioetan  
orain dira asi;  
erratzen dutenean,  
naiz buruak ausi,  
beti ordiak daude  
ta ezin ikasi.
  
- 10/ Naiz dala sarjentoa,  
orobat kapitan,  
ez dute ezagutzen  
agintaririkan;  
kontuan dabiltzala  
esanagatikan,  
ezin altxatu dira  
ostikopetikan.
  
- 11/ Esperantza onetan  
badago Kristina,  
ez dauka lograturik  
bere atsegīña;  
zer izan al diteke  
oen alegīña,  
baldin txarrak baziran  
Rodil eta Mina?

12/ Egia esan bage  
ez det nik lagako,  
a zer mutillak oek  
mendietarako!  
Etorriagatikan  
milloi bat alako,  
eskaldunak bazarik  
ez dute galduko.

Amabi bertso auek bi tokitan arkitu ditugu: Azpeitiko Jose Maria Garmendiak utzitako bertso-paper batean eta Oiartzungo Manuel Lekuona zanaren bilduman, eskuz idatzitako orri batean.

Bertso-paperak moldiztegi izenik ba ote zuan ez dakigu, ertz guziak gurai-zez moztuta dauzka ta. Baiña garai artako papera da, dudarik gabe.

Eskuz idatzitako orria, berriz, Oiartzungo Sein Irigoyen familiaren paperten arkitu zuan Don Manuelek. Bertsoen bukaeran, lau letra edo izki auek irakurtzen dira: *M. J. S. O.*

Bi iturri auek ez dute aldaketarik alkarren artean.

Bertsoak, karlistak jarriak dira. Noiz ordea? Ori sumatzeko bideak badirala uste degu.

Liberalak, bertsoak diotenez, atzerrian laguntza eske asiak dira. Laguntza ori, len ere esan degunez, *Tratado de la Cuádruple Alianza*'ren bidez lortu zuten, 1834'ko apirillaren 22'an, Inglaterra, Frantzia, Portugal eta España alkar artu zutenean. Armak eta dirua ez-ezik, soldaduak ere bialdu zituzten: inglesak amabi milla, Lacy Evans jenerala buru zutela; eta Portugal eta Frantziak ere talde bana, Das Antas eta Degrelle jeneralak buru zirala. Ain zuzen, soldadu oiek asi dira etortzen. Bosteun bat Donostiratu dira. Noiz iritxi ziran oiek? Esku artean erabilli ditugun liburueta ez degu txeetasun ori arkitu.

Amaikagarren bertsoak Rodil eta Mina jeneralak aitatzen ditu. Dakigunez, liberaletakoak ziran oiek, eta Zumalakarregi'ren aurka burrukatuak. Baiña ez dira gerran ari; len ari izanak baizik. Rodil'ek, 1834'eko uztaillean artu zuan buruzagitzza, eta urte bereko iraillean utzi. Aren ordain Mina etorri zan; baiña 1835'eko apirillaren 8'an utzi berak ere. Egun oiek baiño geroago jarritako bertsoak, beraz.

Inglesak gerra artan jo zituzten burruka-aldirik gogorrenak, Gipuzkoa aldean beintzat, Aietekoa (1836-V-5), Oriamendikoa (1837-III-16) eta Andoaingoa (1837-IX-14) izan ziran. Baiña ez dira aitatzentz. Leenagoko bertsoak izango dira, beraz.

Bestalde, bertso auetan ageri danez beintzat, karlistak etzitzuten inglesak- eta aintzakotzat artu. Aien etorrera etzituan bildurtu. Eta gauzak ere alaxe gertatu ziran. Oriamendin eta Andoainen, beintzat, jipoi audi samarra eraman zuten inglesak.

## «KARLOS ONDARRUARA...»

- 1/ Karlos Ondarruara  
egun batez juan zan,  
Madrillara esan dute  
urrengo bueltan;  
siñestu etzuenik  
Ondarruan etzan,  
eskiñ guziyetatik  
kanpan soñua zan:  
*tin-tin kintin kintan,*  
kalian ta plazan  
jende dena dantzan  
· · · · ·  
jaunak, egiya da ori,  
ala pasa zan.
- 2/ Bergara artu zutela,  
Eibar ta Azpeitiya,  
gero Billafranka ta  
nai den guztiya;  
biyar Tolosa eta  
etzi Donostiya.  
«Au gerra irabazteko  
gonbenientziya!  
Geren mende iya  
degu probintziya!»  
denak irrintziya;  
ori fantasiya!  
Osterat utzi biar  
penagarriya.

3/ Zenbat guraso txarrek  
beren semiari:  
«Mutill, seguro ziagok  
eta juan adi.  
An dituk Bartol, Anton  
eta Pello Mari,  
biyar gure auzoko  
Jose Inazio ta i;  
lagundu alkarri  
eta Karlos jarri  
denon agintari,  
preziso dek ori;  
lanak azkar egin ta  
etxera etorri».

Bederatzi puntuko iru bertso auek, Barón de Montevilla zanaren bildumatiik ditugu. Bera-Bidasoako erretore zan Frantzisko Elortzak bertako baserritar bati jaso eta bialduak omen zituan berak.

Liberalak jarritako bertsoak diran ezkero, ez degu uste leendabiziko bertsoan esaten diranak benetan artu bear diranik; Don Karlos Ondarruara eterri izana ta an egin zioten arrera, alegia.

Bigarren bertsoak ematen du bertso auek noizkoak diran somatzeko bidea. Karlistak, Bergara, Eibar, Azpeitia ta Billafranka artuak dituzte; Tolosa eta Donostia berenganzeko ere ez omen dute asko falta.

Donostia etzuten karlistak iñoz ere artu. Baiña beste erri oick danak bai, leenengo gerratean beintzat, eta bertso orrek esaten duan moduan artu ere: egun gutxiren aldearekin.

Zumalakarregi, 1835'eko maiatzaren 25'ean inguratu zuan Ordizia. Orduan, Jauregi eta Espartero jeneral liberalak aurka atera zitzazkion Tolosatik eta Bergaratik. Baiña Zumalakarregik bere mendeko bi jeneral bialdu zizkien, Gómez eta Eraso, aiek Ordizira gabe bidean geldi erazteko. Gómez'ek etzion Jauregiri Tolosatik ateratzen utzi. Erasok, berriz, jipoi ederra eman zion Espartero'ri Deskargako gaiñean, eundaka prisionero egiñik. Urrengo goizean, garagarrillaren 3'an, mandatari bat bialdu zuan Zumalakarregik Ordizira, gertaeraen berri emanetz eta errria errenditzeko eskatuz. Liberalak sinisgaitzak izan.

Baiña karlistak egokiera ori emanik, beretako bat bialdu zuten. Onek, Zuma-rragan zegoan prisionero pilla ikusi zuan, eta atzera etorri eta dana egi-egia zala esan. Orduan, Ordizia ez-ezik, beste erri asko ere errenditu ziran: Bergara, Tolosa, Eibar eta Durango.

Ziurtzat ematen ez badegu ere, orduantxe jarritako bertsoak izan ditezke auek.

## **ZUMALAKARREGIREN KANTIA**

- 1/ Orai kanta dezagun,  
o lagun maitiak,  
orai altxa ditzagun  
gerlari handiak;  
eskualdun guziak niri bitez segi  
kantatzeko baltsan Zumalakarregi.
  
- 2/ Hura da eskualdunen  
gerlari handia,  
etsairik bortitzenen  
beldurrik gabia;  
etzaut deus iduri ederregi  
sujetzat dutanean Zumalakarregi.
  
- 3/ Ikus zagun guduan  
ikus haren karra,  
suntsitzen duenean  
etsaien indarra;  
deusek haren tropak ez detzake mogi,  
ezen heiekin da Zumalakarregi.
  
- 4/ Berak ditu hautatu  
gerlako lagunak,  
eta dire gertatu  
oro eskualdunak;  
heintzat ez baita deusik hazkarregi,  
berekin duteno Zumalakarregi.

- 5/ Harek hau, Espania,  
harek hau salbatu;  
galdu huen bizia  
hark derauk bihurtu;  
ez hadila izan eskergabegi,  
ez zakala ahantz Zumalakarregi.
- 6/ Jeneral eskualdunak  
ohora dezagun,  
esker gabetasuna  
urrun kasa zagun,  
sckulan ez dugu erranen goregi:  
Biba, beraz, biba Zumalakarregi.

Bertso auek Jean Haritschelhar jaunak argitaratu zituan, bere *Quelques chansons basques de la première guerre carliste (1833-1839)* lanean, (*Actes du colloque international d'Etudes Basques (Bordeaux 3-5 mai 1973) (Bayonne 1978)*).

Aurretik onako argibide auek ematen ditu:

«Zumalakarregiren kantia: *Six couplets dont il est dit qu'ils seraient l'oeuvre de Adema et Elizanburu, les deux de Saint-Pée-sur-Nivelle et étudiants au Petit Séminaire de Larresore. Mais tous deux sont nés en 1828. Cette chanson est donc écrite bien après la fin de la guerre carliste, du moins avant 1849, date à laquelle Elizanburu quitte le Petit Séminaire. Le manuscrit se trouve à la Bibliothèque Nationale de Paris (Celte basque 116, feuillet num. 3, Recueil de chansons basques).*

Gerra ondokoak ditugu, Haritschelhar jaunaren iritzirako, bertso auek. Gure ustean, berriz, gerra denborakoak dira, eta Zumalakarregi bizi zala jarriak. Jeneral au, dakigunez, 1833'ko azaroan artu zuan karlisten buruzagitzar, eta 1835'eko San Juan egunean il zan. Orduan zazpi urte zituzten Elizanburuk eta Ademak. Gaztegiak, beraz, bertso auen egilpeak izateko.

**IKUSIRIK  
BERTSO BERRIAK, EGIA GARBIAK  
IDIKITZEKO BEGIAK,  
AMEZKETAKO ERRETORE JAUNAK  
JARRIAK,  
BERAREN ANAIA, APAIZ ARGAIA,  
ANIMA ZAIÀ, EZAGUTURIK GAIA,  
ETA EGIÑIK ERANTZUN NAIA,  
PRESTATZERA NOAKIO LELENGO MAIA.**

1/ Biba Karlos quinto ta  
biba euskaldunak,  
España guztian  
ondo ezagunak;  
gu kontsolatzeko  
eldu da eguna,  
berak ere badaki  
txit maite deguna.

2/ Karlos bostgarren jauna  
gure erregea,  
España guztia  
du bere-berea;  
ezin izan gintzake  
beste bat obea,  
eusklaldunak kolkoan  
daukate gordea.

- 3/ Mendian dabillena  
zabaldu da sona,  
galdu bagetanikan  
bere osasuna;  
buruz abilla da ta  
jenioz txit ona,  
nork maitatuko ez du  
alako gizona?
- 4/ Beltzen religioa  
klaro degu ikusi:  
lasaikeria libre,  
konzentruak itxi;  
esaten dute ala  
obe dala bizi,  
gogoratzea ere  
ez deditzat gutxi.
- 5/ Enpeñatuak daude  
artarako lazki,  
ortik aterako da  
gauza onik aski;  
gazte arrotuentzat  
ez datoza ain gaizki,  
len ere usteldurik  
galduak daukazki.
- 6/ Religio santuaz  
burlaturik farraz,  
kristino beltzak dabiltz  
arroturik galaz;  
lege zuzen guztiak  
urraturik arras,  
beren errege ona  
pasa nairik balaz.



Tomas Zumalakarregi jeneralra (1788-1835).

- 7/ Kristino buru lotu,  
itxusi, berdeak,  
nola zerate ain txar,  
prestuez, erreak?  
Bide gabe austeko  
leneko legeak,  
zer gaitz egin dizute  
Karlos erregeak?
- 8/ Kortearren  
omen dira pijo  
Karlos deseredatzen  
sekula betiko;  
tonto ezjakin bat naiz,  
baña nerekiko  
ez dio bere gauza  
iñori erekiko.
- 9/ Mundu guziak daki  
Karlos kinto jauna  
España buru  
jaiotzatik dana;  
Madrida juateko  
koroarengana,  
gogoz egingo dute  
eusklaldunak lana.
- 10/ Aizez ondo puztuta,  
buruak txit arro,  
ikusi dira emen  
jeneral franko;  
bañan etorri arren  
eun milla alako,  
Euskal Herri leiala  
ez du menderako.

- 11/ Etorri dira asko  
brigada osoak,  
iduri dutelarik  
leoi ta otsoak,  
Karlos arrapatzeko  
emanik plazoak;  
toki txar-txarrak dira  
emengo basoak.
  
- 12/ Erraz aski oi dira  
itzak eman aurrez,  
ondoreari asko  
begiratu bagez;  
ala etorri ziran  
menditarren galdez  
Sarsfield ta Quesada,  
Butrón eta Valdés.
  
- 13/ Oen soldadu triste  
zar eta berriak,  
sutan asi orduko  
ill ziran erdiak;  
berak martxa igesi  
bustirik begiak,  
leneko parajeant  
utzirik mendiak.
  
- 14/ Ainbeste jeneralek  
biziro zuten min,  
berak nai zuten gauza  
etzutelako egin;  
ostera etorri zan  
arroturik Rodil:  
Karlos ta euskaldunak  
bear dirala ill.

- 15/ Bere billaukeriaz  
egiñikan gala,  
emen ibilitu da  
trikili-trakala;  
sentitu bezin laster  
mendarren bala,  
arin aski juan zan  
besteak bezela.
  
- 16/ Mundu guztian dira  
zabaldu berriak,  
nolakoak diraden  
onen pikardiak:  
erre, ostu ta illaz  
aingeru garbiak,  
egin uste zituan  
milagro aundiak.
  
- 17/ Uste bazuen ere  
Rodil jaunak ala,  
Euskal Erria ezta  
Portugal bezala;  
badaki orañ ondo  
diferentea dala,  
eman diotelako  
ipurdian pala.
  
- 18/ Gaiztoago asko  
etzaiola pasa,  
lotsa gorri onekin  
badagoke lasa;  
munduan oraindaño  
izan eztan gauza:  
euskaldunai nai zien  
irabazi baza.

- 19/ Atzeraturik arras  
beltzen erregiña,  
gizonen gañekotzat  
ipiñi du Mina;  
bañan au ere izan  
andreak egiña,  
eztakit nik ote dan  
lengoak adiña.
- 20/ Gabetikan goizera  
txit estu ta larri,  
txintxarri andiakin  
zuten erakarri;  
tropa guztien buru  
bear zala jarri,  
soroetako gisa  
txori izugarri.
- 21/ Arkitzen bada ere  
gorputzetik eri,  
iltzeko gogoa  
badauka geiegi;  
baldin esan bezela  
egin al baledi,  
aisa burlatzen zaio  
Zumalakarregi.
- 22/ Gipuzkoatarra da  
gizon au ain fiña,  
gerrarako apropos  
Jainkoak egiña;  
ikusirik jaun onen  
bondadezko griña,  
jendea batzen zaio  
nai duen adiña.

Bertso auek, izenburu luze orrekin, edo obeto esateko bertsoz egindako adierazpen orrekin, Aita Lino Akesolo adiskideak bialdu zizkigun. Orri bat da, letra txiki baiña garbi batez idatzia. Garai artako papera, dudarik gabe.

Itxura danez, Amezketako erretoreak beste bertso batzuk jarriak zituan, orain betiko galduak izango badira ere; eta, ondoren, Argaiaren izaera beste apaiz batek onako auek paratu.

Barón de Montevilla zanaren bilduman ere arkitu ditugu bertso auek, aldaketarik gabe eta oar onekin: «*Proporcionados por D. Resurrección María de Azcúe, el 2 de Diciembre de 1924*».



Bertso auek noiztsu jarriak diran somatzeko bide batzuk badirala uste degu.

Jeneral asko etorri ziran Zumalakarregiren aurka. Baiña jipoi ederrik artuta atzera lengo bidetik joan bear izan zuten. Jeneral oien zerrenda amabigarren bertsoak ematen digu:

Sarsfield ta Quesada,  
Butrón eta Valdés...

Urrena, Rodil jenerala eldu zan, 1834'ko uztaillean. Baiña ori ere, egurra emanda bialdu zuan emendik Zumalakarregik. Ori adierazten digute 14-18'garen bertsoak.

Urrengoko bertsoak Mina aitatzen du. Jeneralori naparra zan, frantzestean frantzesen aurka gogotik saiatua. Naparroa-ta ondo ezagutzen zituala-ta, orregatik aukeratu omen zuan Madridko gobernuak karlistei gerra egiteko. Baiña berari ere berdin gertatuko zitzzion. Bertsoak etorri dala esaten dute; joan danik ez, ordea. Mina emen gerran ari zala jarritako bertsoak izango dira, beraz. Naparroako liberal soldadu guztien buru, 1834'ko iraillaren 22'an izendatua izan zan; eta, osasun paltaz, urrengoko urteko apirillaren 8'an kargu ori utzi. Bitarte ortakoak izango dira, beraz, bertso auek.



Etorkizuna dizdizka ikusten du bertso auen jartzailleak. Karlistak izan zuten garairik onenean moldatuak dira, izan ere.

Amazazpigarren bertsoak onela esaten du:

Uste bazuen ere  
Rodil jaunak ala,  
Euskal Erria ezta  
Portugal bezala...

Madridko gobernuak, 1834'ko apirillaren 6'an, amar bat milla soldadu Portugalera bialdu zituan, Rodil jeneralak buru zutela, Don Karlos arrapatzera. Portugal'en ere gerra zebillen, batzuek Don Pedro eta besteak Don Miguel errege jarri nairik. Rodil'ek bere naia ia-ia lortu omen zuan. Baiña inglesak traba egin ziotelako-edo, nai zuan txoririk etzuan eskuratu. Joan-etorria, ordea, erreza eta frankil egin zuan, Euskal-Errian baiño askoz lasaiago ibiliz.



Izenburuak Amezketako erretorea aitatu digu. Ori irakurri orduko, Fernando Amezketarraren (1764-1823) denborakoa izan zitekeala bururatu zitzagun. Izan ere, danok dakigunez, Fernandoren bizitzan atal berezi eta luzca betetzen du eliz jaun orrek.

Ortaz gaiñera, bertsolaria ere ba omen zan. Jose Manterola'k, bere *Cancionero Vasco* liburuan(1), onela dio:

*«Entre los coblakaris o improvisadores populares que han dejado grata memoria en Guipúzcoa, cuéntase el famoso Rector de Amézqueta, más conocido con este título que por su nombre propio, y Fernando Amezqueta.»*

*Refiérense de ellos un sin número de chistes agudos y de versos improvisados en el calor de la conversación, algunos de los cuales, transmitidos de boca en boca por la tradición, o más o menos alterados en su forma, se conservan todavía en la memoria por gran número de personas».*

Ondoren, Fernando bein batez txarteletara joan eta erretoreak zer bertso bota zion eta arek beste batekin nola crantzun zion kontatzen du.

«Como muestra de este género especial de menuda literatura, que en medio de todo no carece de cierto mérito, voy a trasladar en este lugar los versos que se dicen improvisados por Fernando de Amézqueta, interrogado en cierta ocasión por el Rector de su pueblo acerca del misterio de la Santísima Trinidad, cuando fué a recoger de manos de éste la cédula de comunión.

*En verso dirigió su pregunta el famoso cura, y en verso le dio Fernando acto seguido su ingeniosa contestación.*

*He inquirido acerca de diversas personas sobre dichos versos, y de los varios textos que he obtenido, más o menos alterados, he podido formar los siguientes, que si no son exactamente los mismos que salieron de los labios de los dos famosos improvisadores populares, no me cabe la menor duda de que se diferenciarán si acaso poquísimo.*

*He aquí la pregunta formulada por el Rector:*

Esan bear dirazu  
instante batean,  
liburutik txartela  
nik atera artean,  
nola sinisten dezun  
zuk zere artcan  
daudela iru pertsona  
Jaungoiko batean.

*Contestación de Fernando:*

Nola sinisten dedan  
arrazoiarekin,  
orain esango diyot  
sagartxo batekin:  
usai ta saborea  
kolorearekin,  
orra iru jenero  
gauza bat batekin».

Ta erretoreak onela erantzun omen zion:

Nerauek uste nuen  
zerbait banintzala,  
errespondu didazu  
galdetu bezela;  
Jaunak urte askuan  
konserba zaitzala,  
Fernando, zoaz etxera,  
torizu txartela.(2)

Ori alde batetik. Bestetik, berriz, *Euskal-Erria* aldizkarian(3), iru bertso arkitu ditugu, izenburu edo adierazpen onekin:

«Kartatxo bat bertsoan Amezketa’ko erretoreak bere lagun bati egiña:

Nere biotz guztiko  
adiskide Kintin,  
nola ote nagoan  
naiko dezu jakin:  
ni beti emen nago  
nere gaitzarekin,  
arren, lagun zaidazu  
badezu zerekin.

Aza, meñoi, kalabaz,  
piper ta tomate,  
erein bearrok dira  
jango badirade;  
azirik ez det eta  
nagokizu eske,  
bialdu zaizkiatzu  
bertso oien truke.

Esatea daukazu  
Doña Frantziskari,  
nere etxe koandre eta  
zure emazteari,  
agindu nai badio  
gotoso zarrari,  
ementxen dagoela  
bere serbitzari».

Batetik, iru bertso auek; bestetik, berriz, galdu tako beste sail ori, karlisten denborakoa; ta bai aotik aorako bertsolaria zala ere, Manterola'k esaten digunez... Orregatik, berari buruz argibiderik ateratzen saiatu bearra zegoala pentsatu genduan. Ala, Donostiko eliz artxibora joan giñan, Amezketa koko parroki-liburuak ere an daude eta.

Liburu oictan agertu danez, «Juan Ignacio de Urreta-vizcaya» erretoreak, 1806'ko apirillaren 10'ean firmatu zuan leenengo bataio-agiria, eta 1834'ko martxoaren 13'an azkenekoa. Esan degunez, Fernando 1823'an il baitzan, urte mordoa izan zuten artu-emanetarako.

Aren izena ez da geiago azaltzen 1834'tik aurrera. Baiña beraren eriotz-agiririk ez degu arkitu. Ziur aski, erritik kanpora joango zan bizi izatera.

Aren ordez, beste firmatzaille batzuk agertzen dira. Baiña guziak *rector interino* bezela: leenengo, 1837'ko abenduaren 15'era arte, Martin Francisco Mayza; bigarren, 1840'ko uztailaren 15'era arte, Jose Inazio Arizmendi; irugarraren, 1841'eko martxoaren 4'ra arte, Jose Inazio Galatas. Ondoren, Gaspar Agirrek firmatzen du, baiña onek erretoretza berea du.

Juan Inazio Urretabizkaia Amezketa koko semea zan, 1780'eko ilbeltzaren 25'ean jaioa. Gurasoak: Juan Bautista, Alegikoa, eta Josefa Inazia Garagartza, Amezketa koko(4).

Bataio agiriaren saietsean, beste esku batek idatzita, onela irakurtzen da: «*Rector, Rector*».

Amezketa, garai artan. Urretabizkaia abizena duanik famili bakarra agertzen da. Gero, ordea, ez da abizen ori azaltzen. Familia beste erriren batera aldatuko zan. Esan degunez, erretorearen il-agiririk ere ez dago.

Fernando, berriz, 1764'an jaio eta 1823'an il zan. Amasei urtez, beraz, erretoreea baiño zaarragoa.

Amezketako erretore au bere illoba baten aita-pontekoa izan zan, 1815'eko abenduaren 30'ean. Anai baten semea zuan, eta bere izena ezarri zion: Juan Inazio. Migel Inazio Oriozabala apaizak bataiatu zuan aurra(5).

Garai artan Gipuzkoako alderdi ori Iruñeko gotzai-barrutikoa baitzan, ango obispoak astero itzaldi bana alkari egitea agindu zien Amezketa, Ugarte eta Bedaiko apaizei. Sei apaiz ziran: Amezketatik lau, eta beste bi, baillara oietatik bana. Biltzeko ordua, arratsaldeko ordu bi ta erdiak aukeratu zuten; tokia, berriz, Amezketako Jauregi-Andia: «...en la sala del Palacio llamado Jauregui-andia, habitación del Sr. Beneficiado Arizmendi...»(6).

Baiña Amezketako erretoreak ara joaterik baldin bazuan: «...a no ser que el Rector Presidente, no estando encamado, se hallase imposibilitado por su mal degota, que padece, para pasar a ella, en cuyo caso y con su aviso, convinieron en acudir a la de éste...».

Zotz egin eta Amezketako apaiz Domingo Antonio Irazustari egokitu zitzaison leenengo izlaria izatea. Gaia: *sacramentos en general*, eta 1833'ko urriaren 11'n eman zuan itzaldi ori. Bigarrena, Ugarteko apaiz Jose Manuel Ubillosek egin zuan, andik aste betera: *materia y forma de los sacramentos*. Irugarrena, Amezketako apaiz Jose Inazio Arizmendik: *ministro de los sacramentos*. Iru itzaldi oiek Jauregi-Aundin izan omen ziran.

Urrena egiterako, ordea, amairu urte igaroko ziran, gerratea etorri baitzan.

Arestian irakurri degunez, erretorea etzebillen osasunez ondo: *gota* gaitza zuan. Berak ere *gotoso* zarra esaten dio bere buruari, leen aitatutako ber-tsoetan. Eta gaitz ori, sarritan beintzat, geiegizko jan-edanak ekartzen omen du.

Erretore jaun ura, itxurak diranez, umore onekoa, jatun bikaiña, ber-tsolaria, Fernandoren erritarra eta kide samarra izan zan. Nola etzuten ba alkar ezagutuko? Alkarrekin zerabilzkiten bromak eta parrak, argibide auekin obeto ulertzen dirala uste det.



Orain urte batzuk, *Kuba'ko gerra liburua* (*Auspoa*, 161) prestatzerakoan, Donostiko garai artako *La Voz de Guipúzcoa* egunkaria aztertzen ari giñala, 1897ko azaroaren 12ko zenbakian, *Proceso integrista* izena duan eta *Calei-cale* izenordeaz firmatuta dagoan idazlan bat arkitu genduan. Idazlan ortan, bukaera aldean, onela esaten da:

«*Qué a fondo conoció a la sociedad en que vivió allá en el revuelto período descrito (1823 al 1833), el famoso párroco de Amézqueta, don Juan de Urreta, quien sintetizó toda aquella vergonzosa época en los siguientes versos (música de Pello Joshepe):*

Ai, bada, Pello, zuk ez dakizu  
gaurko eguneko legia;  
oroiutzaitez frailiak ere  
daramatela doblia,  
ill eta ostu gaur libre dira  
gorde ezkerro fedia».

Karlisten gerra aurretik jarritako bertsoa degu, beraz, itxura danez, bertsori. Eta lagunak ere izango zituan noski.

*La Voz de Guipúzcoa* egunkari ori aztertzen jarraitu genduan, eta denbora asko baiño leen, 1897ko abenduaren 17ko zenbakian, beste idazlan bat arkitu genduan, *Caleicale* dalako orrek firmatuta, eta *Cosas de la tierra / D. Juan de Urreta* izenburuarekin. Oso-osorik onera aldatzea merezi du:

«*El gran patriota don Juan de Urreta, de quien he hablado por incidencia en uno de mis anteriores pasatiempos, desempeñó el cargo de párroco en el liberal pueblo de Amézqueta y alcanzó aquel período revuelto de nuestra historia, conocido por la ominosa década del año 23 al 33, a que dio término la muerte del rencoroso y vengativo Fernando VII.*

*Dotado de grandes virtudes y de una honradez acrisolada, además de un conocimiento perfecto del corazón humano, con el cual suplía la carencia de otras cualidades que se obtienen con estudios sólidos, y también con su espíritu fino de observación, Urreta se dedicó con todo su afán a inculcar en el pueblo amezquetano la hermosa doctrina liberal.*

*Poseía un gran corazón y el don especial de hacerse comprender fácilmente*

*de todo el mundo, condiciones que unidas a la firmeza en las convicciones y a la inquebrantable fe con que predicaba las ideas, dieron el resultado que no podía menos de esperarse: la formación de un numeroso núcleo de decididos adalides de la libertad.*

*La azarosa época en que esto tenía lugar allá por el año 1823 al 1833, vergonzoso período de nuestra historia política, en el que se desencadenaron sobre esta desgraciada patria todos los horrores de una reacción brutal, sanguinaria y feroz, no pudo quedar sin castigo la valiente campaña llevada a cabo por el entusiasta rector de Amézqueta, y cayeron sobre él las iras de la reacción, siendo separado de su parroquia y recluído a un convento de frailes de Navarra (creo que de Olite), de donde escribió a su amigo el rector de Belaunza, Pello, aquellos famosos versos que reproduzco con gusto:*

Ai, bada, Pello, zuk ez dakizu  
gaurko eguneko legea!  
Oroitu zaitez frailiak ere  
daramatela doblea;  
ill eta ostu gaur libre dira  
gorde ezkerro fedea.

*Tal influjo alcanzó a tener el gran Urreta, y llegó a adquirir tal dominio sobre las gentes, liberalizando a todo el pueblo e inculcando en el ánimo de sus convecinos ideas de civilización y progreso, que para explicar en Goyerri la influencia de las nuevas ideas y la transformación radical sufrida por el pueblo amezquetano, se generalizó la frase, que se hizo célebre, de sintetizar el proceso diciendo «Amezquetan Jaungoiko berriya eguin dute» (en Amézqueta han creado un nuevo Dios), aludiendo al espíritu que reinaba en el vecindario.*

*Urreta fue autor de un catecismo liberal, única obra en su género que se ha escrito en el vigoroso idioma éuskaro.(7)*

*Poeta de nervio, de energía en el apóstrofe, vigoroso en el estilo, sobrio y expresivo en la concepción de las imágenes, agudo en la sátira, sus composiciones pasan por ser modelos en su género y son, desgraciadamente, poco conocidas. Las escasas que son del dominio público, corren por ahí de boca en boca y han llegado hasta nosotros, trasmitidas por la tradición, único libro de nuestra*

*historia que ha poseído la indomable raza éuskara para perpetuar sus gloriosos hechos y sus grandes infortunios.*

*Urreta venía a ser el sostén de su anciana madre y de dos hermanos que vivían con él, y cuya laboriosidad debía sufrir grandes eclipses a juzgar por la frecuencia con que se arrimaban a la rectoría de Amézqueta, a colocarse, como vulgarmente suele decirse, pareta arrimo.*

*Además, tenía otros dos hermanos, uno de los cuales residía en Bilbao, y en Pamplona el otro. Pues bien; para dar una idea aproximada de la agudeza que caracterizaba al poeta, cuando a éste así le placía, voy a referir una anécdota que pone de relieve las levantadas cualidades que le adornaban. Un día que el rector se encontraba de buen humor y tatareando sotto voce una canción muy en boga en aquel tiempo, invitáronle sus hermanos a improvisar algunos versos, ruego al que se mostraba muy reacio en acceder el bueno de D. Juan, hasta que su anciana madre apoyó la petición formulada por sus dos hijos y llegó a vencer la tenaz resistencia opuesta por el poeta.*

*Veamos cómo se despachó éste:*

Bi anai baditut  
kanpo zabaletan,  
bat Bilbaon dago,  
bestia Panplonan;  
ondo bizi litezke  
bere gustuetan,(8)  
destierroan nago  
emen Amezketan.

*Una significativa muestra de aprobación lanzada por la madre y secundada ruidosamente por los dos hermanos presentes, molestó al poeta, muy poco amigo de la lisonja; así que propuso vengarse de los manifestantes y lo hizo de la manera siguiente:*

Beste bi ere baditut  
oraindik etxean,  
oiek mantendu bearra  
nere bizkarrean;

beñere ez ditut  
ikusten lanean,  
maiera biltzen dira  
jan bear danean.

*Excusado será pintar la indignación que se pintó en los semblantes de los aludidos en los anteriores versos y la contrariedad que experimentó la pobre madre.*

*Diz que uno de los hermanos no le perdonó en la vida la mortificante alusión dirigida a su holganza, pero don Juan consiguió sacudirse por este medio a sus molestos huéspedes.*

*Urreta cultivó todos los géneros. Cualquier asunto le era familiar.*

*Es en extremo gráfica la definición que hace de la echadora de cartas (aztiya), en versos atrevidos, sí, pero que retratan admirablemente a este tipo despreciable, portaestandarte de la superstición y la ignorancia, miserable ser cuya existencia en la actual sociedad no se concibe.*

He aquí los versos:

Zer dirala uste dezu  
munduko aztiyak?  
Emakume galduak  
dirade guztiyak,  
lapur engañaatzale,  
p. zar urdiak,(9)  
anima galduetako  
gezurti aundiayak.

Ez del bada egiten (*sic*)  
aztiyaren falta,  
au badakigu ere  
andre galdu bat da.  
Zaldunik badijua  
pronto dago sota,  
tontuen bizkarretik  
berotzeko poltsa.

*Llegó el levantamiento carlista iniciado en 1833 por los estúpidos defensores de aquel remedio de monje llamado Carlos María Isidro Borbón, y don Juan de Urreta, como otros muchos liberales de aquella época, se vio obligado a emigrar a San Sebastián, donde murió siendo fiel a la bandera que con tanto entusiasmo había abrazado.*

*He aquí cómo arraigó en Amézqueta la semilla sembrada por el gran Urreta».*

Badakigu, beraz, Urretaren firmarik zergatik ez dan azaltszen Amezketako bataio agirietan, 1834'eko martxoaren 13'garrena ezkerotzik. Baita ere, karlisten gerra denboran jarri zituan bertsoak zein aldetakoak ziran. Eta sail bat baiño geiago jarriko zuan bearbada.

- 
- (1) Jose Manterola: *Cancionero Vasco*, Segunda Serie, Tomo II, mayo de 1878.
  - (2) Bertso auen beste era batzuk: *Fernando Amezketa liburua*, Auspoa 54.
  - (3) Euskal-Erria, Tomo V, 1882.
  - (4) Amezketako VII bataio liburuan, 143 orrian.
  - (5) Amezketako IX bataio liburuan, 109 orrian.
  - (6) Amezketako *Libro de conferencias* deritzaionean.
  - (7) Guk beintzat ez degu liberal dotriña ori ezagutzen.
  - (8) Emen, seguru asko, beren beariko luke.
  - (9) Besteak «y» grekoarekin; puntu au, berriz, gabe. Bi esanai izan dezazke, dagoan bezela, itz orrek: *ordiak*, mozkorrak alegia; edo *urdeak*, zerriak alegia.

## **CANCIONES DE LOS URBANOS**

1/ *En el nombre del Padre  
banoa astera  
a cantar unos versos  
erdiyak euskceraz.*

*Siempre con esperanzas  
emen bizi gera:  
cuándo viene esa gente  
Bilbao atakatzera.*

2/ *Tenemos la noticia  
batozela nafarrak,  
también los chapel chiquis  
eta bizkaitarrak.  
Cuando vean esta gente  
kañoi ta bonbakaz,  
los urbanos se ponen  
tripetako miñakaz.*

3/ *Poniendo los cañones  
Begoña parteán.  
pondrán el parlamento  
entregau gaiteán.  
Si no, de lo contrario  
gogortzen badira,  
los urbanos afligidos  
arkituko dira.*

4/ *Las paredes tienen secas  
karerikan gabe,  
¿qué sirven las trincheras  
ezpadagoz fuerte?  
Porque al primer cañonazo  
orren kastillua,  
por más fuerte que sea,  
bera badijua.*

Erderaz eta euskeraz jarritako bertso auek, Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman arkitu nituan, paper xaar batean, eskuz idatzita.

Izenburuak dionez, urbanoak paratuak dira. Urbanoak, liberalak antolatu zuten soldadu mota bat izan ziran. Oker ez bagaude, etziran mendiz-mendi eta ola ibiltzen. Errietako gizonak ziran, armaz ornitu eta norbere erria zaintzeko prest zeudenak.

Urbano auek bilbotarrak dira, eta karlistak «Bilbao atakatzen» noiz etorriko diran zai daude.

Karlistak iru bider eraso zioten Bilbori leenengo gerratean: aurrena, 1835'eko garagarrilean, Zumalakarregi zauritu eta il zanean; bigarren, 1836'ko urrian; eta, azkenik, azaroaren 7'an etorri eta Gabon gabean aldegitera beartuak izan ziranean.

Bertso auetan ez da esaten leen iñoz erriari eraso diotenik. Orregatik, gure iritzirako beintzat, leendabiziko aldiaren aurretik jarritako bertsoak izango dira; 1835'eko garagarrillaren aurretik alegia.

## **ZUMALAKARREGI**

- 1/ Non dira, bada, orai koplari eskaldunak,  
herritarren loriak hunkitzen tuenak?  
Zer ari dire, bada? Non da heien karra?  
Orai dute eskaldunek, bai, heien beharra.
  
- 2/ Utz atzik, koplaria, utz, sujet ergelak,  
kanta orai eskaldunak eta heien gerlak.  
Zer? Egonen ote haiz herabe eta nagi,  
dukenian ikusten Zumalakarregi?
  
- 3/ Zikin ezak ahoa kopla lizunetan,  
egin zatzik bertsoak ostatu tzarretan,  
sal zak hire antzia, sal, zenbait sosetan;  
ez duk, ez duk eskaldun odolik zainetan!
  
- 4/ Haizeak nola kea baitu barraiatzen,  
iguzkiak errexki iluna kasatzen,  
hala hire bertsuak, oi, hau doloria!,  
geroak ahantziren ditik, koplaria.
  
- 5/ Bihotzetan ordean barna landatuak,  
izanen tuk nereak beti kantatuak,  
eskaldunen arrazak irauten dueno,  
eskaldunek eskaldun odola duteno.
  
- 6/ Nik sentitzen ditiat ene zainak sutan,  
sukarra sartua duk, bai, ene fuñetan,  
hartzen diat guduko eskaldun tronpeta,  
goraki detzadantzat eskaldunak kanta.

- 7/ Hamar bat eskaldunen buruan jarririk,  
arma, diru, deus gabe, bihotzaz bertzerek,  
jeneral eskalduna, eskaldunez segur,  
ez da, ez, erresuma guzi baten beldur.
- 8/ «Niganat, cskaldunak –du oihu egiten–,  
buruzagi atze bat daukute ematen;  
gure errege dute urrun desterratu,  
bere azpian nahi gaituzte lehertu.
- 9/ Nahi du eskaldunak hoin behera jarri?  
Atze baten nahien azpirat erori?  
Atze bat du burutzat hozki ikusiko?  
Emazteki atze bat tronuan utziko?
- 10/ Orroit hadi, eskalduna, hire arbasoez!  
Cesar berak doi-doia, hamar urte betez,  
zian gure herria azkenik beretu,  
sekulan cz, ordean, bihotzak garaitu!
- 11/ Berek harturikako errege ziteken,  
ez ziteken bertzerek nausi ezagutzen;  
gudukatzen zakiten, bazakiten hiltzen,  
ez, ordean, laxoki atzei obeditzen!
- 12/ Lehenago, zioten, gure menditarat  
itxasoko uhinak dire higaturen,  
ezen ez eskalduna atzen eskutarat,  
ahantzirik nor zer den, baita eroriren!
- 13/ Ez beza eskaldunak entzun ene boza!  
Ez beza jo loriak haren bihotz hotza!  
Banoa ene aitek bezala egiterat,  
ene erregerentzat odola ixurtzerat!».

- 14/ Dio, eta eskaldunak osteka armetan,  
zaizko, bai, multzokatzen bere ingurutan;  
nafartarra, lehenik hi agertu hintzen,  
hik huen erakutsi eskalduna zer zen.
  
- 15/ Hire egin ederrak ikusirik gero,  
altxatzen tuk bertzeak bortitz eta bero.  
Lehen iduri flako, orai harrigarri,  
etsaia duk jadanik ikaretan jarri.
  
- 16/ Hala xiripatto bat, lehen mehe zena,  
baratze xokoz xoko ixillik zuana,  
ur lagunez egina ibai izigarri,  
garaitiar doazu, eder eta lodi.
  
- 17/ Nork orai, oi, nork atxik eskaldunen kontra?  
Nork orai bara hauien jeneral suharra?  
Ase dire mendiak aski, bai, odolez,  
pentzek behaute estali beltzen gorputz hillez.
  
- 18/ Denbora duk, o Baldes, altxa tropa denak,  
jadanik lur planetan horra eskaldunak.  
Bainan arta har zak, zuhur izan hadi!  
Gudukatu behar duk Zumalakarregi!
  
- 19/ Orai duk, eskalduna, orai duk ordua!  
baionet eta lanzak xorrotx, soldadua!  
Begoz orai laxoak urrundik tiroka,  
baionetaz hik dakik hurbildik guduka!
  
- 20/ Ez du oste handiak baratzen karlista,  
badoa, bai, superat, xorrotx baioneta;  
ibai handiz odola badoa landetan,  
beltz bat ez dago xutik haien aldaketan.

- 21/ Ez zen gudukari bat karlisten artean,  
gorritua ez zenik beltzen odolean;  
hire ezpata horri, suzko jenerala,  
gudu ondoan zarikon oraino odola.
- 22/ Oi, ze(i)n laster doazin ihesi herrestan,  
bere arma etxaturik, ikara erraictan,  
erreginak zituen gizon hoberenak,  
bere ahoz guduka hain bortiz zirenak.
- 23/ «Ezpata kolpe batez eskaldun herriak  
gure eskuetarat dituk eroriak  
-dio soldaduari jeneral suharrak-:  
bertze batez detzagun xehaka hiriak!».
- 24/ Ximistaren pareko, erran bezain sarri,  
sua darioela zaldian da jarri.  
Animestatzen ditu bere eskaldunak,  
animatuak aski jadanik zirenak.
- 25/ Zerra, zerra, Bilbao, hire portaliak!  
Jar beitez, jar, armetan hire beralliak!  
egin zak auhen, egin, o hiri superra!  
Erori behar baituk, erori, lurrerat!
- 26/ Jadanik eskaldunek, beti garaitiar,  
muraillen ingurutan, bortiz bezin suhar,  
hedatuak dituzte bere bataillonak;  
jadan aditzen ditut hiriko auhenak.
- 27/ Hirur gudu handitan eskaldunen karrak  
arras hautsi zituen etsaien indarrak.  
Entsegu bat oraino, hiri mutiria!  
Zumalakarregi, duk segurki hiria.



Zauritu ondoren, Zumalakarregi Bilbotik Zegamara daramakite.

- 28/ Bainan, oi, onditsozko gure zorigaitza!  
O, ene Jainkoaren justizia latza!  
Haren eskua liok bara lasterregi,  
hil behar duk, hil behar, Zumalakarregi!
- 29/ Harekin hautsi dire, bai, gure indarrak,  
nork ditu baratuko, nork, gure nigarrak?  
Galdu duk, eskalduna, hire esperantza,  
ikusak hedatua haren gorputz hotza!
- 30/ A! Zure justizian, gure jendeari  
eman izan diozu kolpe handi hori!  
O, ene Jaungoikoa, ordu da oraitik,  
zure eskua dadin bara sarraskitik!
- 31/ Ema bedi, Jauna, zure sumindura,  
ikus ezazu, otoi, oi, gure herstura!  
Fedea bera dago hirrisku handitan,  
a!, beroren ezpata sar bedi magiñan!

Zumalakarregiren gorantz jarritako bertso bero auek ez dute, kondaira-ren aldetik, argibide askoren bearrik.

Jerónimo Valdés liberal jenerala aitatzen du amazazpigaren bertsoak, 1835'eko apirillaren 19'an gerra ontan asi zana. Oni ere kukuak oker joko zion. Baiña gauza on bat egin zuan: erderaz *tratado de lord Elliot* deritzana firmatu, Zumalakarregirekin batera; prisioneroen bizitza errespetatzea, alegia.

Azken bertsoak, ogeitabostgarrenetik aurrera, Zumalakarregi Bilbo artze-ra nola joan dan esaten digute; baiña zauritu eta il dala. Dakigunez, Zegaman itzali zan, 1835'eko San Juan egunean. Andik laster jarritako bertsoak, beraz.



Bertso auen egillea, Jean-Baptiste Camusarri ziburutar apaiza izan zan. Ikus: Maria Guadalupe Artola Cornu: *Jean-Baptiste Camousarry (1815-1842)*.

Una primera aproximación a su vida y a su obra azterketa, *Anuario del seminario de filología vasca «Julio de Urquijo»*, 1988, Bertsoak, Baionako Euskal Museoan bi esku-idatzi ba omen dira Camusarriren bertsoekin, 93 eta 94 zenbakiiek, eta aietatik artuak ditu.

Zumalakarregiren bertso auek bi esku-idatzi oietan daude. Baiña 93 zenbakiak daukan ortan, ogei ta amar bertso; eta bestean, 94'an, ogei ta amaika. Orregatik, oni kopiati diogu, lerro batean izan ezik: 27/4'garrena onela du: *Zumalakarregi segurki hiria*. Beste esku-idatziari *duk* artu diogu, eta *Zumalakarregi* ondoren koma bat jarri *vocativo* dan ezkerro, eta onela idatzi: *Zumalakarregi, duk segurki hiria*.

Ona beste esku-idatziak, 93 orrek, dauzkan aldaketak:

Esan bezela, bertso bat falta du: 11'garrena. Gaiñera, *eskualdunak* esaten du beti; ez *eskaldunak*. Orretzaz aparte: 1/4: orai dute eskaldunek, orai, heien beharra; 2/2: kant'orai; 2/3: herab'eta; 3/1: Zikin ezak ahoa kopla zikinetan; 4/2: iguzkiak iluna aise kasatzen; 6/2: fuinetan; 7/1: Eskualdunen buruan jarririk; 8/3: erregea; 9/2: atze bat nahien azpirat erori; 10/2: Cesar berak, doidoa, urte betez; 13/4: odol'ixurtzerat; 14/1: Dio, eta osteka gizonak armetan; 16/1: xirripatto; 17/4: behaut'estali; 18/1: Beldes; 19/3: begoz etsai laxoak urrundik tiroka; 20/3: hur handiz odola badoa landetan; 20/4: zutik; 21/1: Ez zen gerlakari bat karlistan artean; 21/3: ezpat'horri; 21/4: gud'ondoan; 22/2: ber'armak; 23/3: dio soldaduei jeneral gorriak; 25/2: beiralleak; 25/4: erori behar baituk, Bilbao, lurrera; 27/3: entseiu; 27/4: Zumalakarregi duk segurki hiria; 28/1: ondizkozko; 28/2: o, Jinkoaren justizia latza; 28/3: eskura; 31/4: maginan.



Baionako Euskal Museo ortan, 96 zenbakiarekin, bada beste esku-idatzi bat, Camusarriren bertsoekin. Zumalakarregirenak ere badakarzki.

Aldaketak: 1/2: ukitzen; 2/2: kant'orai; 2/3: herab'eta; 3/2: bersuak; 6/3: trumpeta; 6/4: goraki dezadantzat eskaldunai kanta; 10/2: Cesar berak doidoa doidoa urte betez; 13/3: bezal'egiterat; 13/4: odol ixurtzerat; 14/1: Dio eta osteka gizonak armetan; 16/1: xirripatto; 17/3: ase dire mendiak, ase, bai, odolez; 17/4: behaut'estali; 20/4: heien; 21/1: Ez zen gerlakari bat karlisten artean; 21/4: gud'ondoan; 22/2: ber'armak etxaturik ikar'erraietan; 22/3: erregi-

nak zituen gizon gogorrenak; 23/3: dio soldaduei jeneral gorriak; 25/1: Zarra, zarra; 25/2: beiraliak; 25/4: erori behar baituk, Bilbao, lurrera; 26/3: bataillunak; 27/3: entseiu; 27/4: Zumalakarregi, duk segurki hiria; 28/1: ondizkozko.

Azken bertso-lerroaren segidan itz auek irakurtzen dira: (*Jerem 47,6*). Biblia artu eta onela irakurri degu Jeremiasen toki ortan: «*¡Oh espada de Yavé! ¿Cuándo reposarás? Vuelve a la vaina, descansa, reposa*».

Eta ondoren beste auek: «*J. B. C. vicaire, dececé le 27 aout 1842*». Guadalupe Artolaren lanean, argibide ori Ziburuko artxiboaetik artuta, Camusarri 1842'ko abuztuaren 21'ean il zala esaten da. Guk, bertsoen ondoko itz oietan, «27» irakurtzen degu. Baiña oso garbi ere ez dago, eta baditeke «21» izatea.

**EPITAFIO TRILINGÜE  
A D. TOMAS DE ZUMALACARREGUI**

**I**

Zenbat balio zuben  
Tomasek nork daki?  
Ezin esana da-ta  
ezin erabaki.

**II**

*Quis qualisve Thomas quaeris?  
Quod fulmen in hostes?  
Ne nimis alta petas.  
Dicere lingua nequit.*

**III**

*Una vida aproximada  
me pides del gran Tomás...  
Como pides lo imposible  
no te lo daré jamás.*



Iru izkuntza eta iru bertso edo kopla oraingo ontan. Aita Jose Inazio Aranaren bildumatik ditugu.

Argitu bearrik ez dute ezer ere. Zumalakarregi, dakigunez, Zegaman ilzan, 1835'eko garagarrillaren 24'ean; eta kopla auek eliz-gizonen batek-edo ondoren jarriko zituan, aren izena goraltzearen.

## EUSCALDUNAC

Beste agiri au, gerra asi eta andik bi urtera zabaldu zuten liberalak, goiko izenburu orrekin eta beeko barrenean moldiztegiaren berri ematen zaigula: «*Imprenta errialian*».

Au ere Jose R. de Urquijok bialdu zigun, fotokopiaz eta oni itz auek erantsirik: *A. R. A. H. 9/6698 carta n. 141. 8-II-836. A. E. D. V. Primera guerra carlista, 57.*

Bearbada, 8-II-836 orrek, agiri ori zabaldu zan eguna adierazi naiko du: 1836'ko otsaillaren 8'garrena, alegia. Baiña gerra asirik bi urte dirala dio agiriak; eta 1833'ko iraillean il baitzan Fernando VII, eta gerra bereala piztu, 1835'eko udazkena degu.

Aurreko batean egin degun bezela, bere ortografian uzten degu agiri au. Onela dio:

«Bi urte igaro dirá, desleyalqui acullaturic, zuben usarijo eta izcuntza etzequiten guizon batzuegatik, errebelatu ciñatela gure Erreguiñaren contra, ceñac iñoz etzuen gogorátu zuben anciñaco legue eta fueroac ucatcea, ez eta ere zuben gurasoen Errelilio Santua beñere quentcea. Bi urte dira lur orijek zuben semeric onenen odolez bustiric daudela, eta ondo daquizute, ceiñ guchi aurreratu dezuten zuben aguintari orren mempea, zuben genijo gogorraz, eta mendi orijen ventajaz lagunduric izan bada ere.

Gure urrengoac ez dute iñoz sinistuco, Provincia oriec, ceñetan gorderic egon diran onaraño libertade eguiascoac, eta jaquinde onac, Europa gustija illuntasean etzinic izan dan demboran, eta ain famatuac beren gobernu onen asiera, eta beren fueroaren seasca, eta gordeera izan diralaco, nola dembora aubetan arrendu edo escatu ceiqueen inquisicioa eta aguimpe arrazoigabea.

¡Ez Euscaldunac! Demborada orain zuben iruipenac gustiró guentzeco. Odolguiroqui engañaturic zuben desgracia, eta naigabe guztien lenendico eguielle orijegatic, guezurra guezurraren gañean beti darijela, inoiz sinistu erazó

dizuté, Nortetik espera dituztela socorro andijac; bañan urrutijegui dago bosteun leguaz apartaturic Norteco Erreinua, eta Londresco ta Parisco Gobernuben naigabez, ecin etorri leizque ariyec beren arteco desongundeac compontzea an bear dirala.

Ez dezute bada eceren esperanzaric eduqui triunfatzeo, eun milla Soldadu valeroso dijuazen onetan, Inglaterraren, Franciaren, eta Portugalen laguntasunarequin Provincija orijec sujetatcera, eta istante beldurgarri onetan zubenzaco eta posgarri libertadearenzaco, asqueneco aldiz nai du Erreguiña andreac zuberi itz-eguin, eta ama maiteacbezala zuben nai gabeac erremediatu.

Bere gaisqui eguiñac ezaguturic nai dubenac igues eguiñ Franciara; izango da barcatuba Erreguiñagandic, eta Bayonaco gure Consulac emango diosca lau errial egunero Soldau danari, erri, edo lecu señaladuco diranian, eta gueijago Sargento edo Oficiale bada, edo Zaldizcoa izanic, presentatcen bada Zaldi eta armarequin emen beian esaten dan bezela.

Modu onetan izango dezute seguridadea eta descansu ona aguintari gaisto orijen menderic alderatuta, arquituco dezute dembora batean oguija zuben seméen eta emastéen gocea quentceco, eta chit laster biurtuko zerate zuben echetara Erreguiña andi onen ontasuna esagutcera; bada beti damuz égongo lizaque zuben ichustasuna dala medioz, onen aguimpera obedecituco ez bacinduzque, eta Provincija orijec zuben culpaz galduco baliraque. Bada ez da beste erremedijoric.

Soldau bacochari, lau errial egunero .....	4
Sargento eta cabuei, bost errial .....	5
Aguintari guztiei Capitanerainocuei, zortci errial .....	8

Aguintari nausijaei, edo aguintzen-dabenei tropia, edo euren nagusi eguiten-dabenei, emongojacue euren gradu edo nau-sitasunai toquetan jaquena.

Juaten bada soldauric Frantzijara bere aita, edo amagaz, edo onéc juatenbadira leenago edo gueruago euren semien ondora emongojaquez irurei, aita, ama, eta semiai sei errial; onetan sartzen dira arec lau errial soldaubarenac .....

Mutil guztiei, juan-gura-ez Carlos-en bandara, eta etorrico balira, ecarten ditubela euren gurasuac (aita-ta-ama) libretiarren bandoleruben gach-gustietati, emongojaque sei errial egunero, vi, edo iru personarentzaco .....	6
---	---

Etorten diran gustiei euren armequin eta zaldijequin emongo jaue.

Escopetia, edo fusilagaitic baijonetiaz, iruroguei errial .....	60
Cartucheria, edo canania-gaitic, oguei errial .....	20
Lantzia, sablia edo espatia, eta zaldija-gaitic, laureun errial	400



Antonio Piralak, bere *Historia de la guerra civil liburuan (libro VI, documento núm. 19)*, agiri au bera erderaz dakar. Ziur aski, gure iritzirako, gaztelerez sortua izango zan, eta ondoren euskeratua. Onela dio:

## VASCONGADOS

*Han pasado dos años desde que instigados pérfidamente por un puñado de individuos la mayor parte estraños á vuestras costumbres y á vuestro idioma, alzásteis el pendon de la rebelion contra un reina que ni trató nunca de abolir vuestras antiguas y venerandas instituciones, ni pensó jamás en destruir la sacrosanta religion de vuestros padres. Dos años hace que vuestro suelo está bañado en la sangre de vuestros mejores hijos, y á pesar de la tenacidad de vuestro carácter y de las ventajas que ofrece vuestra situacion topográfica, hoy es el dia que no habeis aumentado en una sola pulgada el dominio de vuestro caudillo.*

*La historia no creerá nunca que en una tierra tan célebre por el origen y la tradicion de sus instituciones liberales, en un país donde se refugiaron la libertad práctica y las luces cuando el continente europeo yacia sepultado en el despotismo y la ignorancia, haya podido invocar en el siglo XIX el poder absoluto y la Inquisicion.*

*No, vascongados, tiempo es ya de que se desvanezcan completamente vuestras ilusiones. Engañados cruelmente por los principales autores de vuestras calamidades, concebísteis un momento la absurda esperanza de ser socorridos por un gobierno septentrional; pero situado á quinientas leguas de vosotros, y no pudiendo mover un solo hombre sin la vénia de los gabinetes de Lóndres y París, mal podria auxiliar vuestra causa quien para mantener la esencia peculiar de su gobierno, necesita preservarse particularmente de la reaccion moral del siglo y de las ideas.*

*Lejos, pues, de quedares la menor esperanza del triunfo, un ejército de cien mil valientes apoyados en la omnipotente alianza de la Inglaterra, Francia y Portugal, va á ocupar vuestro territorio: y en momento tan terrible para la rebelion, y tan halagüeño para la lealtad, S. M. quiere por última vez hablaros como reina, y remediar vuestros males como madre.*

*Todo el que vuelto de su error quisiere dejar las banderas del usurpador, podrá retirarse á Francia, quedará de hecho amnistiado, y recibirá por la autoridad española, en Bayona, cuatro reales diarios siendo soldado, y más si hubiese sido oficial, ó se presentare con armas y caballo, según la nota que a continuacion se inserta.*

*Así lograreis seguridad y reposo contra las vejaciones de vuestros opresores: hallareis, al mismo tiempo, pan con que satisfacer el hambre de vuestros hijos y mujeres, y volvereis, en fin, al amoroso seno de una reina que lloraria eternamente las terribles consecuencias á que os espondrian vuestra ingratitud y vuestra obcecacion.*

- Al soldado que se pase: 4 reales diarios.*
- A los sargentos y cabos: 5 reales diarios.*
- A todos los oficiales hasta capitán inclusibe: 8 reales diarios.*
- A los principales que mandan las tropas ó hacen de jefes, se les dará lo que á sus grados corresponda.*
- A los que vinieren trayendo á su padre ó madre, ó que antes ó despues vinieren con ellos, se les dará al padre y madre é hijo 6 rs., comprendiendo los 4 rs. del soldado: 6 reales diarios.*
- A todos los mozos que por no ir al servicio de Carlos vinieren y traigan*

*consigo á sus padres y madres por librarlos de las manos de los bandoleros se les dará 6 rs. por cada dos o tres personas: 6 reales diarios.*

- A todos los que se presenten con sus armas y caballos:*
- Por escopeta ó fusil con bayoneta: 60 reales diarios.*
- Por cartuchera ó canana: 20 reales diarios.*
- Por lanza, sable ó espada, y caballo: 400 reales diarios».*



Bizkaitarrentzat ez-ezik, naparrentzat ere zabaldu zan dei ori bera paperten, goien gaztelerez, eta beeán Naparroako euskeraz:

*«Todo carlista que se presente desertado de las filas de don Carlos, se le pagará lo que se expresará a continuación que disfrutará pacífico, tranquilo y seguro del mejor tratamiento en el pueblo ó pueblos de Francia que se les fijarán. Los pueblos de la frontera donde se presentarán son Beovia, Sara, Baigorri y St-Jean-Pied-de-Port: en estos pueblos hay encargados que los dirigirán á Bayona á la persona que deve pagarles, a saber:*

*Al soldado que se venga desertado, diariamente: ..... 4 reales*

*A los sargentos y cabos que vinieren, por día: ..... 5*

*A todos los oficiales inclusibe capitán que vinieren desertados  
diarios ..... 8*

*A los principales que manden la tropa ó hacen de jefes, se les dará lo que á sus grados corresponde.*

*A los desertores que vinieren de la tropa, ya traigan padre ó madre, con los mismos ó antes ó después vinieren, se les dará al padre y madre é hijo al dia 6 r. pero comprendidos en estos lo que ha señalado al soldado de los 4 reales ..... 6*

<i>A todos los mozos que por no ir al servicio de Carlos vinieren y traigan sus padres y madres por librarlos de las manos de los vandoleros, se les dará lo mismo por dos ó tres 6 reales .....</i>	6
<i>A todos los desertores se les dará por una vez si se presentan con sus armas y caballos por escopeta ó fusil con Bayoneta .....</i>	60
<i>Por cartuchera ó canana .....</i>	20
<i>Por lanza, sable, ó espada y caballo .....</i>	400

«Carlos quinto erraten dioten guizon arren zervizuan seguizenduten gazteriari, eta veren Aita eta Amari, avisionen medioz gaquin hacen zaiote desertazen diren mutil gucieri, nola beren Aita eta Amari Francicico lurrean, ya Behoviaco pausuan, Saraco errian, Baigorrin, eta Donivano Garazin, puntu oyctan opatucoten commisionatuetara emanen zayote veren mantenuco viridaizquen eguneco sustentourequin.

Soldadu vacochari desertaturic etorcendenari, egunean lau erreall, ó pesetavat .....

4 reales.

Sargento eta caboeri etorzendireneri egunean vorzerreale vellon: .....

5

Oficiale guzieri capitanaño, etorzenderenari de sertaturic, zorzi erreall vellon eguneco: .....

9

Principal alcindarieni, edo tropa mandazen duten gefeeri emanen zayote veren graduez correspondizen zayotena.

Desertoreac tropatican etorzendirenac, ecargen vaditute, ya aita, edo veren ama, verequin edo lenago ó gero etorcenvadire, emanen zayote aita, ama eta semeari, direla vida edo iru, gurendako sei erreall egunean, vana oquetan surtua izanenda soldaduari sena laturic dauden lau erreala: .....

6

Mutil Guzieri, Carlos en zervizura ezyuanaiez etorzendirenenri, eta ecarzenvaditute veren Aitac eta Amac, Vandoleroen esquetar can librazeagatic, emanen zayote orobat, viendako, ó iruendako sei erreall eguneco .....

6

Desertore gurieri, emanen zayote aldivatez veren arma eta zalviarequin presentazenvadire escopeta edo fusilaren gatric vere bayonetarequin: .....	60
Canana, edo cartucheraren gatric: .....	20
Lanza, sable edo ezpata, eta zaldiaren dako emanen zayote: .....	400

Señalatuco dire fronterara urbil alderdi bacochetan erriac non vizi etorcentren guzi eri. Emanen zayote faltaric egungabe veren señalatua. Franciako autoridadec edo justiciac emanendiote protecciónea eta seguridadea guciac errespetatuac izateco. Acavazendelaric oraingo padecimentuac eta sosegua edo vaquea parazen delari EspaÑan, orduan yuanen dire guziac vere echetara, non izanen vaitire ongui vegiratuac eta lagunduac justiciaren partetic, onen vea-  
zera gueriabalaizque».

## «KONTRABANDIXTAK DIRA...»

Kontrabandixtak dira  
orai doługarri  
jeusik ezin atera  
Gobernamenduari.  
Guardaz beterik daude  
zokoak igeri,  
ezin konfida gaude  
sekretuz nehori.

Bertso bakarra degu oraingoan. Onako idazlan ontatik artua degu: L. Pochelu: *Kontrabandixtak, karlixten lehen gerlan*, Gure Herria aldizkaria, 1935, VII-VIII.

Karlistak bear zituzten gauza asko, kontrabandistak ekartzen zizkieten. Ortaz luze eta zeazki itzegiten du idazlan onek, eta bertso au azaltzen du. Ikusten danez, asieran errezago egiten zuten kontrabandistak beren lana. Ondoren, ordea, 1835 urtean-edo, Frantziako gobernuak soldaduak ere ekarri zituan mugako guardei laguntza egiteko, eta gauzak zaildu. Ona L. Pocheluren idazlanaren zatitxo bat:

«Laster soldadoak ezarri zituzten mugaren hegiz-hegi guarden laguntzeko. Pausuko errekan, gau ala egun, untzi batzu han ziren soldadoekin, arraintzarien untzixken miatzeko eta zaintzeko. Bazter guzietan ez zen muga-zain kafiarik baizik.

Ez zuten bakarrik kontrabandixten harrapatzea beren gain, bainan oraino mugaren español soldadoetarik zaintza. Karlixt ala xapelgorri, etsaiari ihesi, Frantzian sartzen ziren, berriz ateratzeko padara jin artio, gibeletik gero jauzi egiteko. Karlixtak behar zituzten holakoetan muga-zainek gerlako tresnetarik larruturik gibelerat haizatu, eta heiek ala xapelgorriak ez utzi egiterat ohointza edo gaineratiko tzarkeria hunaindiko jendeeri... Bertzalde behar zituzten harra-

patu Frantziatik Don Carlosen kidekoen laguntzerat zohazin español ala frantzak.

Haatik ez harri oroz gainetik aiher baziren kontrabandixteri. Soldado xoi-lek bazuten heien hatzemaiteko eskua eta gero sari ona. Hastean gaihendu ondoan, kontrabanda ttipituz zoan. Ez zen jostetarik! Guarda ala hede-xuri okaztingarriak ziren, etxetan noiz-nahi xoko-moko guzien miatzen. Gero bardin ahurtara bat bolborarentzat Donapaleuko auzitegirat deituak eta han moltsari zimiko...».

## **MAIATZAREN BOSTEKO SALIDAREN GAÑEAN BERTSO BERRIAK**

- 1/ Egun oroigarria  
maiatzaren bosta,  
Donostian egin da  
odolezkoa festa;  
asko bazaigu ere  
funtzioa kosta,  
faziosoa ziran  
ingurutik bota.
  
- 2/ Segovi, Oviedo,  
Jaén, Zaragoza,  
txapelgorriak eta  
tropa ingelesa,  
egiñikan barrena  
sua eta brasa,  
lenbiziko trintxera  
arin zuten pasa.
  
- 3/ Gure kazadorien  
konpañi fiela,  
peligro guzietan  
an zan bereala;  
patriarengatikan,  
askotan bezela,  
ixuri ere zuan  
ark bere odola.

- 4/ Beti dakit esaten  
garbiro egiak,  
ez dira nekatzeko  
karlista nagiak;  
gaztelu biurturik  
aldeko mendiak,  
egiñikan zeuzkaten  
txit obra audiak.
  
- 5/ Azeki, parapeto,  
zanja eta foso,  
murallak jasorikan  
artetsu ta oso,  
baterian jarririk  
kañoiak eroso,  
alde guzietatik  
ziguten eraso.
  
- 6/ Despreziaturikan  
bala ta metrallak,  
aurrera sartu giñan  
nausi ta mutillak;  
ez dira irabazten  
alako batallak,  
izan gabetanikan  
eritu ta illak.
  
- 7/ Donostiar señorak  
eta señoritak,  
urrikaltsuak eta  
txit biotz biguñak,  
eriari laguntzen  
beren alegiñak  
lazkatu gabetanik  
dauzkate egiñak.



Karlistak Donostia inguratzen, 1835.

8/ Sei orduren buruan  
kontrario gabe,  
arkitutzen giñaden  
kanpoaren jabe;  
bandera galdurik  
larri juan dirade,  
gañera artu ziran  
iru kañoi ere.

9/ Arako ingeles(1)  
ume ezerezak  
goiz artan garaitzeko  
etzeuden erre札ak;  
arturikan eskuan  
beren fusil utsak,  
ikaratu zinduzten  
aien urra utsak.

10/ Testigurik onenak  
gaur zerok zerate,  
alako soldadurik  
noski ez dezute;  
Españian oraindik  
makiña bat urte  
aiekin neurtutzeko  
pasa bear dute.

11/ Ea bada, karlista,  
zaude jakiñean,  
etzerala soldadu  
aiek adiñean;  
ez artu ingelesik  
zere mingañeán,  
muñ egingo diezu  
oraindik oñean.

- 12/ Bost illabete ziran  
erreguz geundela,  
konbeni bazan Jaunak  
bisita gintzala;  
kontsolatzalle on bat  
agertutzen zala,  
orra non datorkigun  
Evans jenerala.
- 13/ O gure konsuelo  
poz ta atsegíña,  
o kapitan aundia,  
geiago eziña;  
zu bakarrik ziñaden  
egiteko diña,  
libratuko bagiñan,  
alako azaña.
- 14/ Artu duan ezkerot  
ainbeste bat neke,  
gure erantzadera  
ark merezi luke;  
nere eskuan gauza  
baldin balegoke,  
egingo nuke Evans  
Aieteko Duke.
- 15/ Onen izen gozoa  
geren egunetan  
josia egongo da  
gure barrenetan;  
aztu ere ez dedin  
ondorenguetan,  
eskribituko degu  
brontzezko plantxetan.

Bertso auek, izenburu orrekin, Aita Frantzisko Apalategiren paperetan agertu dira, eskuz idatzita.

Urterik ez da esaten. Eguna bai, ordea. Eta, au jakiñik, oso erreza izan da beste utsune ori betetzea: 1836'ko maiatzaren 5'ean Aiete aldean izan zan burrukari buruz jarritako bertsoak ditugu.

Urte ortan, karlistak Donostia inguratuta eta oso estututa zeukaten. Liberalak, erriari lasaitasuna eman naian, *legión inglesa* zeritzana ekarri zuten eta erasoa jo. Gauzak nola gertatu ziran, Pirala liberal kondairalariak kontatzen du:

*«...pidieron con muchas instancias auxilio a Córdoba, quien les envió, como hemos dicho, la legión inglesa al mando de Lacy Evans; temible enemigo, por cierto, de los carlistas, que no olvidaban había pedido al parlamento inglés se declarase a don Carlos fuera de la civilización, como lo fue Napoleón en 1815.*

*La llegada a San Sebastián de las tropas que iban en su socorro, hacía necesario el refuerzo de los carlistas, y le pidió Sagastibelza; pero le contestó Eguía que apenas podría prevenir y oponerse con las suyas a los movimientos de Córdoba. El temor de Sagastibelza se vio cumplido, y en la madrugada del 5 salió Evans de San Sebastián con la legión inglesa y una brigada española, a la que iban agregados bizarros y entusiastas nacionales.*

*La proximidad de la línea carlista hizo que el ataque empezase al instante, cayendo impetuosamente los sitiados sobre algunos de los puntos de la línea, y generalizándose después el fuego en toda ella de una manera espantosa. Lo brusco de la acometida hizo cejar a los sitiadores hasta las posiciones de Lugariz, Mantua y Puyo; pero hacen alto en el punto avanzado de Santa Teresa, centro de la posición, y reciben a una columna a la bayoneta y la rechazan con denuedo a costa de la vida del capitán Arregui. En Ayete, casi el centro de la línea, presentan los carlistas una resistencia desesperada, haciendo uso de tres piezas de grueso calibre contra la columna inglesa que atacaba. Las fuerzas liberales cargan a la izquierda de la línea carlista, y sus defensores y los de las casas inmediatas al convento de la Antigua tienen que replegarse a la posición de Lugariz, a donde van también los ingleses; pero recibidos en los mismos parapetos por el primero y quinto guipuzcoanos con las puntas de las bayonetas, crúzanse las de uno y otros, y retroceden los hijos de la Albiót dejando en el campo unos cien cadáveres.*

*Preludio era éste de una gloriosa victoria, y cuando se aprestaba Sagastibelza al último esfuerzo y estimulaba a sus voluntarios infundiéndoles el aliento que su*

juvenil corazón sentía, una bala de fusil inglés le atravesó la cabeza y expiró en el acto. Su muerte se supo al instante en toda la línea, pero lejos de desalentar a sus paisanos suceso para ellos tan infausto, se proponen vengar al jefe cuya pérdida lloraban, porque le querían. Le reemplazó Arana en el mando, y contando apenas con unos 13,000 cartuchos, después de haber consumido más de 200.000, se dispone a proseguir el combate a pesar del refuerzo que por mar reciben los ingleses, a quienes auxilian además los cañones de los buques anclados en la bahía, siendo tan certeros los disparos del Fénix, que sus granadas incendiaron en breve el caserío de Lugariz, y arruinaron los parapetos en que tan bizarramente se habían defendido los carlistas, y continuaron defendiéndose, hasta que diezmados por los proyectiles, que causaban grandes huecos en las filas, tuvieron que abandonar aquel terreno de desolación(2). Reforzados los legionarios con dos regimientos británicos que acababan de desembarcar con Lord Jhon-Hay, avanzaban arma al brazo con su impavidez característica y su glacial resolución hasta las bayonetas de sus contrarios, y los arrollan al fin. Era imposible resistir tanto empuje y dos ataques simultáneos con desiguales medios. Los carlistas, sin embargo, tomaron posición a media legua, en Oriamendi, donde se consideraron seguros. Los vencedores se hicieron dueños de su línea y artillería, y se adelantaron a provocar a los vencidos.

Los habitantes de la culta y liberal San Sebastián y los de los caseríos carlistas socorrieron a porfía y sin distinción a los numerosos heridos de ambos bandos. La humanidad, tan afligida entonces con tantas escenas de horror, pudo contemplar gozosa el bello espectáculo de que todas las clases, y lo mismo el uno que el otro sexo, arrostrando con impavidez el peligro, curasen con esmero y condujesen a la ciudad o al caserío a los valientes con quienes no había sido propicia la fortuna; saliendo la madre y la hermana a saber del hijo o del hermano, y a prodigarle sus socorros sin esperar el término del combate, penetraron entre las filas prestando a todos con caridad evangélica sus importantes servicios. Al ver algunas en tierra sus enemigos, olvidaron que lo eran y las ofensas que de ellos habían recibido, y les levantaron amorosas restañando la sangre de sus heridas. No atendieron menos solícitas las liberalas de San Sebastián a los ingleses, practicando así el sublime principio de que la caridad no tiene patria. Empleadas en obsequio de los heridos, su oportuna y amorosa asistencia dio la vida a muchos y el consuelo a todos. Lacy Evans se conmovió profundamente, y se conmovieron todos a la vista del cuadro que presentaban las mujeres de San Sebastián, que adquirieron aquel día una gloria inmarcesible.

*La pérdida de los carlistas fue de 58 muertos, 198 heridos y unos 50 contusos; siendo excesivamente superior la de los defensores de la reina a pesar de la victoria, pues sólo entre jefes y oficiales quedaron fuera de combate unos cincuenta.*

*Los habitantes de San Sebastián y de los caseríos de sus inmediaciones no pudieron olvidar en mucho tiempo el terrible día 5 de mayo. Aquellos vistosos campos que se extienden frente de la majestuosa Concha, ofrecieron por tres días un espectáculo deplorable y horroroso. Sangre y cadáveres por doquier, escombros humeantes aún y cenizas, ruinas y estrago era lo que se veía en todas partes.*

*Las líneas quedaron destruidas, y la plaza, que se vio durante cuatro meses asediada, respiró al fin, y hubiese celebrado con doble entusiasmo su triunfo a no haberse adquirido a tanta costa»(3).*

Kontaera luze onekin, bertsoak ederki argitu dirala uste degu. Oar batzuk egingo ditugu ala ere.

Bigarren bertsoak aitaten dituan «Segovi, Oviedo, Jaén eta Zaragoza» liberal batalloien eta rejimientoen izenak izango dira, guk uste. Txapelogorriak, berriz, mikeleteak ditugu, euskaldun mutillak alegia, liberalen aldetik ziranak.

Irugarrenak, «kazadorien konpañía» aitaten du, eta bertsolariak «gure» esaten dio. Bearbada, bertsojartzaille ori konpañí ortako soldadua izango zan. Seigarrenean, izan ere, «aurrera sartu giñan nausi ta mutillak» esaten du, bere burua ere taldean sartuz.

Bertsolariak, izarretaraiño goraltzen ditu ingles soldaduak. Ala ere, armazeta obeto ornituak izan arren, bereak eta bi artu zitzutzen aiek ere Oriamendin eta Andoainen. Eta Aieteko au ere erdipurdiko garaipena izan zuten, Piralak berak aitortzen duanez etaurrenko bertsoak adieraziko digutenez.

---

(1) Apalategiren esku-idatzian: *Arakoko inglés*.

(2) *La explosión de un solo proyectil dejó en el sitio a catorce granaderos del batallón de chapelchuris.* (Piralaren orarra.)

(3) Antonio Pirala: *Historia de la guerra civil y de los partidos liberal y carlista, segunda edición, tomo II,* Madrid 1868.

## AIETEKO BURRUKA BERRIZ ERE

Onako bertso auek oso ezagunak izan ziran, garai batean beintzat, Euskal-Erian. Bertso-paperetan zabaldu ote ziran ez dakigu. Alerik ez da beiñepein gure eskuetara eterri. Eta aotik aora guganaiño iritxi diranak, zazpi bertso dira. Baiña geiago izango ziran noski.

Bertso auek ere, aurrekoak bezela, 1836'ko maiatzaren 5'eko burruka-aldiari jarriak dira. Baiña aiek, liberal bertsolari batek; eta onako auek, karlista batek moldatuak.

Ain zuzen, karlista bertsolari au ere an zan burruka-aldi ortan. Zauritu ere egin zuten, zazpigarren bertsoak dionez.


Ingles soldaduak jantzi gorria erabiltzen zuten orduan; kasaka gorria, alegia. Orren aitamena laugarren bertsoak egiten du.

Bertso auek toki askotan arkitu ditugu, eta iturri batetik bestera asko aldatzen dira. Leenengo, iturri batetik lerro bat artuko degu, eta bestetik bestea, beti ere erarik jatorrena bereziz, zazpi bertso oiek osatu arte. Urrena, berriz, bertsoen atzetik, zein iturri izan ditugun esango degu, eta zer aldaketa dauden adierazi.


Ona, esterik gabe, bertsoak:

- 1/ Milla ta zortzireun ta  
oi ta amaseyian,  
maiatzeko illaren  
bostgarren goizian,  
batalla bat genduan  
Donosti aldian,  
kristinuak gugana  
eterri nayian;  
goizian ainbat gizon  
etzan arratsian.

- 2/ Orduko egiña gendun  
makiñat trintxera,  
goizian juanak giñan  
gerenak artzera;  
onera datorrenak  
kontuak atera,  
pentsa dezake datorrela  
apropos iltzera;  
asko etorri zan baño  
gutxi juan atzera.
- 3/ Pezetero ta urbano,  
arjelino ta inglés,  
gu arrapatutzera  
irten ziran ustez;  
aurrena zetorrena  
jo ta bota auspez,  
bigarrengoa berriz  
ikaratu ta iges;  
gerrako legia dek  
gogorrena juez.
- 4/ Amabi millen kontra  
bi milla ta erdi,  
geren parapetuan  
firme giñan jarri;  
an gelditu ziraden  
zenbait kasaka gorri,  
ankak oztu zitzaizkan  
iru-lau inglés;  
aiek il ziran bañan  
gu oraindik bizi.



Donostia, 1836.



Inglesak Donostira datoza, liberalei laguntzera, 1835.

- 5/ Kasaka gorrietatik  
gutxienaz milla  
goizeko sei etako  
izango zan illa;  
trintxeraren aurrera  
etortzen zan pilla,  
lotan zegolakuan  
gure kuadrilla;  
nekez arrapatzen dik  
tontuak abilla.
- 6/ Artilleria ere  
ezkendun makala,  
trabajatzen ziguten  
gizonak bezela;  
erruz botatzen zuten  
granada ta bala,  
batzuek anka falta,  
bestiak masalla;  
kristinuentzat txarra  
orduko batalla.
- 7/ Neronek ere badet  
orduko erida,  
apuntatu ziraten  
oñaren erdira;  
nik neria artu ta  
bela erretira,  
gelditu gabetanik  
atzeria begira;  
ondo kuratzen naute,  
sendatzen ari da.

Orain, len esan degunez, bertso auek zein tokitan arkitu ditugun azalduko degu; eta, denbora berean, toki bakoitzaren aldaketak, or goiko bertsoekin konparatuta.

Barón de Montevilla zanaren bilduman, zazpi bertsoak agertu dira, Franzisko Elortza Berako erretore zanak bialduta. Onek, bertako baserritar bat jaso omen zizkion.

Aldaketak: 1/8: Aleko birian; 1/10: etzegon gabian; 3/1: Txapelgorri ta urbano; 3/2: kastillano ta ingles; 3/3: gure arrapatzera; 3/4: etorri ziran ustez; 3/7: urbillenikan zena; 3/8: itzuli ta iges; 3/9: gerrako legia da.

4'garrena:

Ameka millen kontra  
bi milla ta erdi,  
etzen idukitzerik  
atzaparrik geldi;  
geren parapetuan  
firme giñan jarri,  
ankaz gora juan zen  
zenbat kasaka gorri;  
aiek ere bazuten  
diru ainbat zorri.

5/5: trintxerakin gañera; 5/6: beti eldu zen pilla; 5/9: nekez arrapatzen du; 7/1: Neunek badet; 7/5: kolpia ura artuta.



Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman, lau bertso: 4, 5, 7 eta 3'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 3/5: aurretik zetorrena; 3/6: tira ta bota auspez; 5/1: Ingelesetik banaz; 5/3: goizeko lauetako; 5/7: lotan zeguelako; 7/6: ordun erretira; 7/7: luzaro egon gabe.



Periodiko puska batean, bost bertso: 1, 5, 4, 7 eta 3'garrena, orden ortan; eta firma: *Txapelzuritarra*.

Ezin igerri diteke zein egunkari dan. Bai, ordea, zein egunetakoa. Asieran onela baitio:

«Gaur dira irurogei ta amasei urte Donosti inguruan jo zutela sinismen eta lege zar zaleak burruka gogor bat beren etsai gaiztoakin.

Txapelzuritarren kaltez ziran baturik beltz, ingeles ta gañerakoak.

Txapelzuritarrak zuten agintari Sagastibeltza, euskal gudari azkar eta in-dartsua.

Erabat burruka irabazteko, aizken mutur bat bear zan, eta onen billa ekiten gogor sartu zanakiñ batean, erori zan illda, ingles balak arrapatuta, Jose Migel Sagastibeltza jauna.

Euskal mutillak etziran orregatik oztu, baizik beren agintari bikaiñ eta ona galdu azi ziotela ikusirik, berotasun osoan eraso zioten etsaiari, ingeles anka luzeak garbituaz ugari.»

Beraz, 1836'ri 76 erantsita, 1912'ko maiatzaren 5'garrena degu.

Aldaketak: 1/5: burruka bat izan da; 1/9: goizian aña gizon; 3/5: lenbizi zetorrena; 3/6: tiratuta auspez; 4/4: jarri giñan ongi; 4/5: atzeratu giñuzen; 4/6: bi kasaka gorri; 4/8: asko ingelesi; 4/10: ni oraindik bizi; 5/1: Ingelesetik bazan; 5/3: goizeko laubetako; 5/7: lotan zegubelako; 5/8: karlostar mutilla; 7/3: etorri zitzaidana; 7/5: nik artu eta gero; 7/6: joan nintzan errira; 7/7: luzaro egon gabe; 7/9: ondo gordetzen naute.



Bertso-papera, *Tolosa-n: F. Muguerza ta Semeen moldizteguian* argitaratua eta bertako Manuel Urreta zanaren eskutik jasoa. Ez da iñola ere garai artakoa, askoz geroagokoa baizik. Onek lau bertso ditu beeko barrenean: 1, 5, 4 eta 3'garrena. Goien, berriz, beste bertso batzuk.

Aldaketak: aurreko periodiko puskarenak, auek izan ezik: 4/10: gu oraindik bizi; 5/8: karlista mutilla.

Izenburuaren azpian onela dio: «*Anton Izkiñen doñuan*». Doiñu ori, *Ai gure antziñako guraso nobleak* asten diran bertsoena da, bigarren lerroa bi aldiz kantatuta.

Bertso-paper onek or goiko periodiko puskaren adierazpena dakar, beste lerro auek erantsita:

«Sagastibeltza napar euskalduna izan bear zuan berez, Baztan aldeku. Nun dauden bere ezurrak ez dakigu ondo. Adituba degu Beteluko Lur Santuban daudela. Gai onetan egin gentzake gaztiak makiña bat lan eder eta on. Egin dezagun bada. Saiatu, aztarrenak atera, billatu ta zabaldu».

«Beteluko Lur Santuban» itzak tatxatuta daude, eta eskuz erantsitako beste auek irakurtzen dira: «Leitzako elizan». Ain zuzen, bertako semea zan Sagasti-beltza jaun ori; eta ez Baztan aldekoa, adierazpen orrek esaten duanez.



Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea. Ez nuan apuntatu noren eskutik jaso nuan. Paper berri samarra da. Bost bertso ditu: 1, 4, 7, 5 eta 3'garrena.

Onek ere, bertso guziak len aitatutako periodiko puskak bezelaxe ditu, auek izan ezik: 1/5: arazo bat izan da; 4/10: gu oraindik bizi; 7/3: apuntatu zidaten; 7/5: zaurituta ondoren; 7/6: gero erretira; 7/9: ondo zaintzen naute ta.

Periodiko puskak eta aurreko beste bertso-paper orrek duten adierazpena badu onek ere. Baiña gauzak obeto ikasi ditu eta onela dio bukaieran:

«Sagastibeltza napar euskalduna Leitzarra zan berez. Bere erriko eliz nagusian Karmen'go Amaren Aldarepean arkitzen dira bere ezurrak. Gai onetan egin gentzake gaztiak makiña bat lan eder eta on. Egin dezagun bada. Saiatu, aztarrenak atera, billatu ta zabaldu. Euskaldunok geren edesti edo Kondairaren berri jakiñan gañean jarri».

Gure iritzirako, adierazpen oien egillea Tolosako Manuel Urreta zana da; *Gurasobide* izenordeaz ere izenpetzen zuana.



Beste periodiko edo aldizkari puska batean bost bertso: 1, 5, 3, 4 eta 7'garrena. Zein periodiko edo aldizkari dan ezin genezake esan.

Aldaketak, aurreko bertso-paperak dituanak, onako auek izan ezik: 7/3: begiz jo izan ziraten; 7/5: nere jotze onekin.



Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman, Aita Damaso Intza zanak 1932 urtean jaso eta bialduak, lau bertso: 2, 5, 4 eta 3'garrena.

Aldaketak: 2/3: goizetik goiz joanak giñen; 2/4: geuren aiek artzera; 2/7: pentsarik apropos; 2/8: datoziela iltzera; 2/10: juan gutxi atzera; 3/1: Arjelino ta urbano; 3/2: prantzes ta ingles; 3/4: etorriak ustez; 3/5: lenengo zetorreña; 3/6: tira ta auspez; 3/7: urrena zatorreña; 3/8: izutu-ta iges; 3/9: gerrako legea da; 4/3: etzen idukitzerik; 4/4: atzaparrak geldi; 4/5: geren parapetuan; 4/6: firme giñan jarri; 4/7: bai eta bota ere; 4/8: zenbait kasaka gorri; 4/9: aitxek ere bazuten; 4/10: diru ainbat zorri; 5/1: Goizeko lauetako; 5/3: ingles oietatik; 5/5: parapeto gañera; 5/7: lotan zegoelako.



Lekarotzen, Aita Donosti zanaren artxiboan, 1922 urtean-edo Arjentinan eskuz idatzitako kuaderno batean, 6, 7, 4 eta 5'garren bertsoak.

4/ Hamasei milen kontra  
bi mila eta erdi,  
ez ginian egoiterik  
aztaparrak geldi;  
hil ere baginian  
zenbeit txapelgorri,  
tonto heiek hobe litekek  
ez balire etorri.

- 5/ Goizeko lauretako  
gutxienaz mila  
ingelés hoiatarik  
baginien hila;  
gure trintxeren ondora  
etortzen pila,  
ustez eta lo zagoen  
gure ezkamila;  
nekez engaña ziok  
tontoak abila.
  
- 6/ Gure artilleroa ez da  
aferra ez totala,  
ongi konportatzen da  
gizona bezala;  
zuzen tiratzen zuen  
balarekin mitralla,  
batzuer ankak hautsi,  
bertzier matralla;  
kristinoentzat txarra zen  
orduko batalla.
  
- 7/ Nerorrek ere badet  
orduko erida,  
apuntatu ziraten  
ankaren erdira;  
kolpe hora har eta  
ni ere erretira,  
luzaz egon gaberik  
hekier begira;  
ongi kuratzen naute,  
sendatzen ari da.



Beste iturri batzuk ere badira. Geienak bi edo iru bertso dituzte. Aldaketak, berriz, oso berdintsuak. Orregatik, ez det uste iturri geiago aitatzerik merezi duanik.

## **BERTSO BERRIAK**

### **BILBAOKO SITIOA ALTXATZEAN**

### **DONOSTIAN JARRIAK**

- 1/ Berri onak ditugu  
Bilbao aldetikan:  
ez omen da arkitzen  
faziosorikan;  
ogei eta bost kañoi  
bertan utzirikan,  
iges egiñak dira  
betiko andikan.
  
- 2/ Fazioso gaixoak  
igaz eta aurten  
Bilbaoko sitioan  
gaizki dira irten;  
galdetu naiagatik  
zenbat galdu duten,  
ez dakite beñere  
egia esaten.
  
- 3/ Igaz jeneralta  
aurten soldaduak  
sei milla ta geiago  
dituzte galduak;  
gañerako guziak  
txit daude aulduak,  
gerra irabazteko  
oiek bai moduak!

- 4/ Ala ere karlistak  
beti esperantzak,  
desengañoa artzeko  
ez dira errazak;  
ain zorrotzak baziran  
Bilbaoko arantzak,  
nola ar ditzakete  
gaztelu ta plazak?
- 5/ Egin zigutelako  
guri traizio,  
igaz artu zituzten  
zenbait guarnizio;  
Karlosek Elioti  
txit asko zor dio,  
guztia gertatu zan  
au zala medio.
- 6/ Itzegin zioneko  
Estellan Valdés'i,  
gure jeneral ori  
ark zuan erosi;  
ordutanikan ziran  
gure gaitzak asi,  
ez degu oraindaño  
gauz onik ekusi.
- 7/ Ematen ziotela  
amore alkarri,  
gizon andi egin zan  
Zumalakarregi;  
jakiñikan aurrena  
gurcaren berri,  
aisa artu zituan  
makiña bat erri.



Lutxana'ko burruka-aldea, 1836-XII-24.

- 8/ Ezin oroi ninteke  
iñoz Billafrankaz  
negarrik egin gabe  
an gertatu zanaz:  
aste bat eta erdiz,  
egunaz ta gabaz,  
arras urratu zuten  
bala eta bonbaz.
  
- 9/ Anglo guarnizioa,  
odoltsu, biziro,  
defenditu izan zan  
fiel ta finkiro;  
kapitulatu zuan  
ekusi ezkero  
etzala sokorrurik  
iñondik espero.
  
- 10/ D. Gaspar de Jauregi  
ez gizon motela,  
ark ezagutu zuan  
zebillen pastela;  
pentsaturikan ongi  
zer gisaz ta nola,  
berak salbatu zuan  
askoren odola.
  
- 11/ Probintziako erri  
bikain ta gozoan,  
bere kolunarekin  
Tolosan zegoan;  
nai zuten arrapatu  
au ere lazoan,  
bañan eskamentuak(1)  
zeduzkan auzoan.

- 12/ Guarnizioa eta  
kristino on asko  
agitz maite zituan  
galtzera uzteko;  
esanik direnai  
ari jarraitzeko,  
bera izan genduan  
aingeru guardako.
- 13/ Garagar illean zan,  
lauetik bostera,  
izan Tolosatikan  
gure irteera;  
geroztik Donostian  
arkitzen oi gera,  
emen ekusi degu  
zenbait gora-bera.
- 14/ Egia esateko,  
igazko neguan  
makiña bat otz-bero  
ekusi genduan;  
etsai gaiztoak ziran  
gure inguruan,  
aiek bot a ezker  
oi gaude zeruan.
- 15/ Batez ere egun oiek  
txit dira alaiak,  
izanik artarako  
motibo ta gaiak;  
libratu diranean  
Bilbaoko anaiak,  
gure biotzak daude  
pozez erdi naiak.

- 16/ Animaturik dago  
gure nazioa,  
oso akabatzeko  
laster fazioa;  
eman diguna indar(2)  
eta azioa  
dudarikan gabe da  
konstituzioa.

Bertso auek moldiztegi izenik gabeko paperetan zabaldu ziran. Bi tokitatik eskuratu degu paper ori: Jose Manterola'ren bildumatik eta Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren eskuistik.

Bi paper oiek berdin-berdiñak dira, baiña aldaketa bat dute alkarren artean. Manterolarenearan *beti esperanza* esaten du laugarren bertsoaren bigarren lerroak; Garmendiarenearan, berriz, *beti esperanzak*. Onela bear duala dudarik ez da, bertsoaren gaiñontzeko puntuekin ondo uztartuko bada. Denbora berean, papera gutxienez bi bider argitaratu zala esan naiko du.

Aurrena izenburuan eta gero leenengo eta bigarren bertsoetan adierazten danez, «Bilbaoko sitioa altxatzean» jarritako bertsoak dira.

Bigarren bertsoak argibide geiago ere ematen ditu:

Fazioso gaixoak  
igaz eta aurten  
Bilbaoko sitioan  
gaizki dira irten...

Bilbaoko leenengo sitioa, 1835'eko garagarrillaren 10'ean asi zan, eta urte bereko uzaillaren 1'ean bukatu. Bigarren sitioa, berriz, 1836'ko urriaren 20'an asi, eta urte bereko Eguberri egunean bukatu. Ala, 1836'ko bukaeran edo 1837'ko asieran jarriak izango dira bertso auek.

Leenengo sitioan, Zumalakarregi Begoñan zauritu eta Zegaman il zan. Orregatik esaten du irugarren bertsoak, karlistak «igaz jeneralta aurten soldaduak» galdu dituztela.



Espartero jenerala Bilbon sartzen da, Lutxana'n garaile atera ondoren, 1836-XII-25.

Gerra ura, asieran batez ere, izugarria izan zan: prisioneroak afusillatu egiten zitzuten, bai batzuek eta bai besteak. Basakeri ori kentzearen, Inglaterrik mandatari bat bialdu zuan: Lord Elliot jauna. Onek bi alderdietako buruekin itzegin zuan, Valdés eta Zumalakarregi jeneralekin, eta *Convenio Elliot* firmatu zan 1835'eko apirillaren 27'an, prisioneroen bizitza errespetatzeko, aiekin *canje* edo truke egiteko eta abar.

Dirudianez, ori etzan bertso auen jartzaillearen gustoko gauza izan. Aundiak esaten baititu: Don Karlosek Elliot orri asko zor diola; Valdés jenerala arek erosi zuala; Zumalakarregi orrela egin zala aundi; eta era ortan galdu zirala makiña bat erri...

Erri oietako bat zortzi eta bederatzigarren bertsoak aitatzen dute: Billafranka edo Ordizia, 1835'eko garagarrillaren 3'an karlistak artu zutena.

Ori jakiñik, Tolosa ere utzi egin zuten liberalak andik bi egunera, Don Gaspar Jauregi'ren aginduz. Onetzaz 10, 11, 12, eta 13'garren bertsoak itzegiten dute.

Bertso-jartzaillea tolosarra zala ematen du, 12, 13, 14 eta 15'garren bertsoetan esaten danez. Edo Tolosan bizi zana beintzat. Eta, liberalak erria ustuztenean, bera ere Donostira pasa.

---


(1) Bertso-paperak: *eskarmentua*.

(2) Bertso-paperak: *eman digun indar*.

## **IRUN**

- 1/ Milla ta zortzireun da  
ogei ta amazazpi,  
maiatzeko illaren  
amaseian noski;  
orotuko gerade  
irundarrak beti,  
berak ematen digu  
motiborik aski.
  
- 2/ Goizeko amarretan  
giñan sutan asi,  
egi (y) au esan gabe  
ez nezake utzi:  
indarran esperantzan  
guk ere beti eutsi,  
ogei ta lau orduan  
ez genduen etsi.
  
- 3/ Bigarren egunian,  
amarrauk aldian,  
enemigo guziya  
gendukan gañian;  
gu ere irundarrak  
geren egíñalian,  
ai zer negarra zeguen  
Irungo kalian!

- 4/ San Juan erriko plazan,  
kontzeju aurrian,  
erruz botatzen zituzten  
granadak aidian;  
bala arrasak ere  
aiekin batian;  
guk ezin abantatu  
guztien tartian.
  
- 5/ Bosteun gizon giñaden  
barrunen asiyak,  
paisano ta soldadu  
diranak nasiyak;  
asko amaren seme  
nekian aziyak,  
aisa laja zituzten  
zenbaitek biziyak.
  
- 6/ Bosteun gizonen kontra  
oi ta bi batallon,  
begiyen aurrian zegon  
galdetu gabe iñon;  
gu ere irundarrak  
barruan eun gizon,  
laguntza aundirik gabe  
iñondikan iñon.
  
- 7/ Ikusirik gazteluba  
errenditu zala,  
orduantxe eskatu  
genduen kuartela;  
oiu egiten zuten  
guretzat etzela,  
armetan pasatzeko  
ordena zutela.



Inglesak Irun artzen, 1836-V-17.

- 8/ Aditurik guziyok  
gauz ori orrela,  
erabaki genduen  
biziya galtzera;  
illik edo bizirik  
asi giñan aurrera,  
orduban esan zuten  
bazela kuartela.
- 9/ Schister jeneralta ta  
Gaspar Jauregi,  
mesede bat aundiya  
egiñ digu guri:  
belauniko jarririk  
beren tropa ari,  
biziya eman digute  
larogei gizoni.
- 10/ Ondorian genduben  
pena bat pasatu,  
gero ginduztenean  
guztiyok formatu:  
jenderik ederrena  
ziuten aukeratu,  
orain Habana'n daude  
serbitzen soldadu.
- 11/ Au ura biotzeko  
penaren tristia:  
elkar ikusi eta  
despeida ematia:  
Adios Junkaleko  
Birjiña maitia!  
Iruditzen zitzaigun  
orduban iltzia.

- 12/ Iritxi ere laister  
Donostiko onduan,  
bidia lajatu eta  
formatu soruan;  
iltzia gendukagun  
geienak goguan,  
jarri ziradenian  
tropak inguruan.
  
- 13/ Andikan laister giñaden  
Donostiyara asi,  
biotza samin eta  
koloria txuri;  
alde guzietatik  
desapiyo guri,  
a zer lekura geran  
onera etorri!
  
- 14/ Santanderren sartzian  
gure estimaziyua:  
pizturikan zeukaten  
lumenariyua,  
ezkillak biribilka,  
fusillen tirua...  
A zer despeida ona,  
gure Jaungoikua!
  
- 15/ Barku ausi batian  
orrenbeste lagun,  
geok dakigu ondo  
zer eraman degun;  
miseriya aldian ta  
bastimentuba urrun;  
an etzeguen besterik:  
Jaungoikua lagun.

- 16/ Uurrengo egunian  
gizon bat eldu da,  
berak sartu giñuzen  
gu beste barkura;  
ez ipintziagatik  
jendia gustora,  
bota nai giñuztian  
erdiyak putzura.
- 17/ Iritxirik giñanean  
Donostiyako urira,  
bi milla pertsona bazan  
gutxiyenaz begira;  
geienak egiten zuten  
pozturikan: «Biba!  
Panparroiak izan arren  
seguratu dira!  
Ez dirade, ez, joango  
geiago mendira!».
- 18/ Birjiña Junkaleko,  
Zeruko Printzesa,  
zure etxian dago  
sarturik inglesa;  
Seme Dibinuari  
egiñik promesa,  
nere orduko pausoak  
kanta al banitza.

Karlistak, 1837'ko maiatzean, beren soldadu talderik onenak bildu ta *expedición real* esaten zaionari ekin zioten. Illaren 14'an atera ziran Naparroatik. Iraillaren 12'an Madrid begien aurrean zuten. Baiña etzioten eraso, eta andik erretiratu egin ziran. Urriaren 15'ean, Ebro ibaia igaro ta Euskal-Errira sartu ziran.

Liberalak, etsai oien faltaz baliatu nairik, atake gogorra jo zuten: leenengo,

Donostitik irten eta Oriamendi artu zuten; urrena, maiatzaren 16'an, Oiartzunen sartu eta Irun aldera jarraitu.

Amabi milla gizon ziran liberalak: zazpi milla españolak eta bost milla inglesak, auek Lacy Evans jeneralu buru zutela. Guzira «oi ta bi batallon» esaten du seigarren bertsoak.

Oiei arpegi emateko, karlistak bosteun gizon zeuzkaten Irunen, batzuek naparrak eta besteak gipuzkoarrak. Auetatik eun, irundarrak; eta auetako bat, bertsoa auek jarri zituan eta beraren izenik ez dakigun bertsolaria.

Karlistak bi tokitatik erantzun zieten liberalei: kontzejutik eta erderaz *el fuerte del parque* esaten zitzaconetik. Oni *gazteluba* deitzen dio bertsolariak. Bera kontzejuan zegoan. Piralak onela kontatzen du:

*«En la mañana del 16, los dos batallones carlistas que ocupaban a Oyarzun le abandonaron al acercarse las tropas de Evans, y los habitantes abrieron las puertas a los liberales, que le ocuparon, le guarnecieron con setecientos hombres, siguieron las columnas su marcha, y circunvalaron y atacaron por la tarde el fuerte del Parque y pueblo fortificado de Irun, que hallaron en buen estado de defensa, y hecha ésta con bizarria. Le guarnecían cuatrocientos sesenta carlistas mandados por el gobernador comandante, don Antonio Segura. Tuvo que jugar la artillería de la legión, y lo hizo con acierto; pero era demasiado ligero su calibre, y la bravura de las tropas abrió paso con sus armas, superando todas las dificultades. Distinguiéronse los regimientos británicos rifles, reales, irlandeses y primero, bien mandados por sus coroneles. Treinta y seis horas duró la pelea con ardor inextinguible, y a la diez de la mañana del 17 fue el pueblo asaltado, teniendo que capitular aquellos héroes después de noventa bajas y causar triplicado número a los ingleses. Rindióse casi al mismo tiempo el fuerte del Parque a los ayudantes de Evans, Schelly y Cotoner, a la cabeza de algunas compañías del regimiento de la Princesa».*

Aurrena, gaztelua artu zuten liberalak; eta orduan, kontzejuan zeuden karlistak errrenditu egin ziran.

Oietako batzuk liberalak Habanara bialdu zituztela esaten du amargarren bertsoak. Ala egiten omen zuten, prisionero arrapatzen zituzten karlistekin: Ameriketara-edo soldadu bialdu. Carlos Dembowski polako idazleak onela dio bere *Dos años en España y Portugal durante la Guerra Civil (1833-1840)* liburuauan:

«No lejos de allí está el pueblo de San Carlos, donde en la actualidad se hallan presos tres mil prisioneros carlistas. Se embarca para la Habana a los que piden servir en las colonias y los otros se utilizan en obras públicas en los alrededores de la isla de León...».

Irundik Donostira eta andik Santanderra nola eraman zituzten, bertsolariak oso zeatz kontatzen du.

Edozeiñek dakiana, Junkaleko Ama Birjiña Irungo Zaindaria da, eta berta-ko parrokian dago. Uraxe du bere etxea.

Maiatzaren 16'aren gauean, antxe sartu ziran inglesak, zortzireun bat gizon. Erretore jaunak, Pedro Nikolas Lanz'ek, balioko gauzarik geienak elizatik atereaak zituan, eta orri eskerrak. Inglesak gau artan audi samarrak egin baitzitzuten: batzuek, aldareetako gurutzeak eta al zuten guzia artu; besteak apaiz erropak jantzi; batzuek korutik organoa jo eta besteak beeán dantza eta bulla; txekorrak, zerriak eta egaztiak lapurtu eta elizara ekarri; emen su egin, maniatu eta jan...

Deabruzko festa ori orduko jendearen gogoan ondo jasota geldituko zan; eta, bera oroitarazteko, naikoa zan bertsolariak bertso batean diona:

Birjiña Junkaleko  
Zeruko Printzesá,  
zure etxian dago  
saturik inglesa...

Len esan bezela, bertsolariaren izenik ez dakigu; ezta ere Ameriketatik ostera etorri zan edo zer egin zuan.



Leenengo amasei bertsoak, Barón de Montevilla zanaren bilduman arkitu genituan.

Kopiatzaillearen okerrak diralakoan, iru zuzenketa egin ditugu. Onela daude berez bilduma ontan: 8/6: azo giñan aurrera; 11/5: Agur Junka kaleko; 16/7: bota nai giñuzian.



Tolosako Manuel Urreta zanaren orri batean, berriz, amasei bertso oiek berak daude, baiña aldaketa auekin:

Leenengo, bertsoen ordena beste onela: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 10, 15, 16 eta 14'garrena.

Itz-aldeketa: 1/8: naiko izpide noski; 3/3: areriyo guziya; 3/5: gu berriz irundarrak; 4/5: bala rasak ere; 4/7: guk ezin aguantatu; 5/2: barruan asiyak; 5/6: neketan aziyak; 6/1: Bosteun gizonen aurka; 6/3: jakiña erabakiya; 6/4: zein aldetza zegon; 7/2: menperatu zala; 7/3: beragatik eskatu; 7/8: agintza zutela; 8/5: illikan edo bizirik; 8/6: sar giñan aurrera; 8/7: orduan esan ziguten; 8/8: kuartela bazela; 9/3: zalapartada arretan; 9/4: ziraden agiri; 10/1: Genduben orren urren; 10/2: min aundi bat artu; 10/3: ginduztenean denok; 10/4: berriro formatu; 10/6: zuten aukeratu; 11/2: naigabe tristia; 11/5: agur Junkal kaleko; 12/1: Andikan giñadela; 13/1: ondorian barrura; 13/3: biotza naigabez eta; 14/5: ezkillak bueltan eta; 14/7: a zer azken agurra; 15/1: Nolabaiteko barku; 15/2: aul eta zarpallun; 15/4: zer sufritu degun; 15/5: zekeneriya aldian; 16/6: jendia onura; 16/7: botatu nai giñuztian.



Tolosako Manuel Urreta zanaren beste paper batean ere, amasei bertso oiek daude, orden berarekin eta itz-aldeketa auekin: 1/8: motiborik aski; 5/6: dolorez aziyak; 6/5: gu berriz irundarrak; 10/6: ziuten aukeratu.

Urretaren bigarren orri ontan, aurrena idatzia tatxatuta dago zenbait aldiz, eta itz berriak erantsiak. Baiña lenagoko itzak ere irakurtzen dira. Onela diote: 3/5: gu ere irundarrak; 7/2: errenditu zala; 7/8: ordena zutela; 9/3: mesede bat aundiya; 9/4: egin digu guri; 10/3: ginduztenean berriz; 10/4: berriro formatu; 11/2: penaren tristia; 12/6: geienak orduan; 14/7: a zer despeida ona; 15/1: Barku simple batian; 15/2: orrenbeste lagun; 15/5: mixeriya aldian ta; 16/8: guztiyok putzura.

Era onetan, bertsoak Barón de Montevilla zanaren bilduman bezelatsu daude. Urretaren paperetan, beraz, norbaitek eskua sartu du, bertsoak *garbitzearen-edo*.



Amazazpigarren bertsoa, Manuel Urretaren bilduman arkitu degu; baiña saillaren beste bertso guzietatik berezita, eta izenburutzat *Abestiya* itza idatzirik daukala. Bost puntukoa zergatikan dan ez dakigu. Bertso onen lekua, berriz, 13'garrenaren ondoren izango litzake, seguru aski.

Emezortzigarren bertsoa bi tokitan arkitu degu: Erreenteriko Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuaderno batean bere doiñuarekin, eta Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman. Ontan beste onela dago:

Birjiña Junkaleko  
Zeruko Printzes,  
gure oker guziyak  
arren zuzen bitza,  
Seme Dibinuari  
egiñik promesa;  
zure etxian sarturik  
or dabil inglesa.

Bertso au saillaren zenbatgarrena bearko luken, ez da erreza esaten. Baiña Zabaletak dakarren eran beintzat, bigarren-edo jarri bear litzakela ematen du.

Ona Juan Zabaletaren kuadernoan arkitu degun doiñua:

The image shows four staves of musical notation. Each staff begins with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The time signature is 3/4. The music consists primarily of eighth notes and sixteenth notes. The first three staves begin with a quarter note followed by a series of eighth and sixteenth notes. The fourth staff begins with a half note followed by a series of eighth and sixteenth notes. The notation is typical of traditional folk music notation.

## **KARLOS BOSTGARREN ERREGE DEITZEN DANARI EUSKALDUNAK ZORTZIKOA**

1/ Basoko erregea,  
Karlosizar gorri,  
Majestade aundia,  
gaur agur zerorri;  
Isabelen tronuan  
nai badezu jarri,  
Madrilla joan oi zera  
ametsetan sarri.

2/ Karlos odolgiroa,  
zital arritua,  
zori ordu gaitzean  
mundura sortua,  
errege txantxetako  
madarikatua,  
gizatxar mendekari,  
dollor kaltetsua.


3/ Karlosek lege bage  
nai luke agindu,  
gogoak dionari  
bizia ekendu,  
zar eta gaztearen  
egunak azkendu,  
Españaiko lurra  
ezurrez apaindu.

- 4/ Illobaren koroa  
ezin atziturik,  
osaba Karlos dabil  
burua galdurik;  
txoratua beingoan  
ez dauka zentzurik,  
ez arrazoi, ez lege,  
ez ezaguerarik.
- 5/ Ezkurrean ametsa  
du txerri goseak,  
eta beti Madrillen  
Karlos erregeak;  
arbolari begira  
dio azeriak:  
«Eldu bageak daude,  
oraindik berdeak».
- 6/ Emen eror, an altxa,  
bera eta gora,  
eskintxoka dijoa  
Karlosen denbora:  
Jamatik Hueskara,  
andik Barbastrora,  
gero etorri zaigu  
txoria eskura.
- 7/ Madrilla bearrean  
galdurik bidea,  
Kataluñara joan da  
sasi-erregea;  
bakan etorri oi da  
bakarra kaltea,  
bidea galdu eta  
ondoren jendea.



Los Arcos'ko burruka-aldea, Nafarroan, 1833-X-11.

- 8/ Apaiz ernegatua  
jeneral Cabrera  
zegoan irtentzeko  
Karlosen bidera;  
bata eta bestea  
itzuli joan dira,  
zergatik Baron de Mer  
sartu dan erdira.
- 9/ Aita San Antonio  
bezpera eguna,  
illaren amabia  
etzuben txit ona;  
korde bage zegoan  
Karlos alarguna,  
galdurikan ugari  
Guisonan gizona.
- 10/ Karlos ikaraturik  
egon da begira,  
nola bere jendea  
dijoan mendira;  
amorratu zorian  
igeska asi da,  
ortzak estutu eta  
illeari tira.
- 11/ Karlosen kontsejari  
jakintsun bakarra,  
Abarca obispoa,  
jeneral azkarra;  
Eleizaren abea,  
fedeko indarra,  
bedeinkazioakin  
egiten du gerra.



Karlistak Madrid inguruan, 1837.

- 12/ Karlos iltzen daneko  
gordetzen fedea,  
aurreratua dago  
bere aldarea;  
Abarcak garbitua  
zeruko bidea,  
*Requiescant in pace*  
apaiz, erregea.

Bertso auek Bonaparte printzipearen bildumatik ditugu. Moldiztegi izenik gabeko kanta-paper bat da.

Egillea, Donostiko Jose Bixente Etxagaray bertso-jartzaille ugaria degu, Jose Manterolak bere *Cancionero Vasco*'n(1) esaten duanez:

«*Echagaray, que profesaba ideas liberales, ha dejado entre sus canciones políticas sus Ay, ay, ay, cantac, (escritas en 1838); su Carlos Bostagarren erregue deitzendanari Euscaldunac zortzicoa (1838), y una composición en vascuence y castellano A la paz, escrita en 1839, todas las cuales fueron impresas sin nombre de autor».*

Orregatik, bertso auek leen ere argitaratuak ditu *Auspoa Liburutegiak*, bere 35-36 zenbakian, 161 orrialdean, Etxagaray jaun orren liburuan.

Bertso auek 1838'koak dirala esaten du Manterolak, baiña baditeke urtebetetako leenagokoak izatea. *Expedición real* deitzen danaren denboran jarriak baitira.

1837'ko maiatzaren 14'an Naparroatik atera zan Don Karlos, amazazpi batalloiekin eta milla bat zaldizkoekin. Illaren 24'an, Hueskara iritxi ziran. An liberalekin burrukatu eta garaipena lortu, etsaien buru zan Iribarren jeneralak illik.

Garagarrillaren 2'an, Barbastron, karlistak berriro garaile gertatu ziran, liberalak Oráa jeneralak buru zutela.

Orregatik dio seigarren bertsoak: «*Jakatik Hueskara, andik Barbastrora*». Baiña ez dakigu Jaka zergatik aitatzen duan, karlistak ez baitziran andik igaro.

Bi jipoi oiek ixildurik, zortzi eta bederatzigarren bertsoak Leridako Guisona eta Gra errien inguruan egin zan burukaz pozik mintzatzen dira. An libera-

lak garaile atera baitziran, barón de Meer jenerala buru zutela. Orregatik bederatzigarren bertsoaren itz-jokoa: «galdurikan ugari Guisonan gizona». San Antonio bezperan gertatu zan ori.

Cabrera jenerala apaizgaia izana zan. Orregatik, «apaiz ernegatua» esaten dio zortzigarren bertsoak.

Andik aurrera ez digute bertso auek beste burrukarik aitatzen, ez beste txeetasunik ematen. Orregatik, or goien esan degunez, bertso auek 1837'koak izango dira, gure iritzirako beintzat; eta ez 1838'koak.

Don Karlos Madriloko ateetaraiño iritxi zan. Cabrerak-eta, iriari eraso eta artu nai zuten. Baiña etzan olako agindurik eman, eta Madrillen sartu gabe gelditu ziran. Bertso auek ez dakigu Don Karlos Madrillera urbildu aurretik edo ondotik jarriak diran. Baiña, bata edo bestea izan, ulerterreza da leenengo bertsoak diona: «Madrilla joan oi zera ametsetan sarri». Erretiratu egin ziran, eta urte bereko urrian Bizkaian sartu.

---

(1) Jose Manterola» Cancionero Vasco, Segunda serie, Tomo IV, pág. 55.

## KARLOS V'REN DENBORAKO KANTAK

1/ Or ibillitu dira  
lau jeneral abil:  
Lorenzo ta Quesada,  
Valdés eta Rodil;  
tropen erdiyak martxan,  
bertziak gosiak il,  
*están en sepulturas*  
*más que ventidós mil.*

2/ Bostgarren jenerala  
genduen Espartero.  
aren alabatzeko  
ez nabill txit bero,  
nere lagun maitiak  
ill zitzuten ezkero;  
*por eso de mi parte*  
*poco te quiero.*

3/ Seigarren jenerala  
Don Leon Iriarte,  
erregiñaren alde  
saiatzen da fuerte;  
aretxek biar luke  
general en jefe,  
*que viva muchos años*  
*con toda su gente.*

- 4/ Sagastibelza jauna  
illaren bortzian  
Rusiara eraman dute  
zurazko kotxian;  
tropak ekarko ditik  
andik onuntzian,  
santo parako ditek  
gauzak konpontzian.

Lau bertso auek, izenburu orrekin, Barón de Montevilla'ren bilduman arkitu genituan, eskuz idatzita. Bera-Bidasoan jaso omen zituan berak, bertako erretore izan zan Frantzisko Elortzaren eskutik. Oni, berriz, bertako baserritar batek eman omen zizkion.

Leenengo bertsoa liberaletako lau jeneral aitatzen ditu: Lorenzo, karlisten aurka aurrena saiatu zana; Quesada, probintzi auetan liberalak zitzuten soldadu-talde guztien buru 1834'eko otsaillean egin zutena; Rodil, urrengo burua izango zana, 1834'eko garagarrilletik urte bereko iraillera; Valdés, au ere alaxe izan zana, leenengo 1833'ko azarotik 1834'ko otsaillera; eta, bigarren aldian, 1835'eko udaberriaren asieratik urte bereko uzaillera. Oiek danak Zumalarregik garaituak izan ziran.

Bigarren bertsoak Espartero jenerala aitatzen du. Au ere liberaletakoa, baiña gerra guzian jardun zana.

Irugarren bertsoak izendatzen duan Iriarte orri buruz, ez degu iñon berirrik ikasi al izan.

Laugarrenean azaltzen dan Sagastibelza orretzaz, onen aurreko sail batean itzegin degu. An esan bezela, Donosti ondoan il zan, 1836'eko maiatzaren 5'ean.

Barón de Montevilla dalakoak laugarren bertso ori bere *Coplas y brochazos del vivac* liburuan agertzen du; eta bertsoak Sagastibelza Rusiara eraman dutela dion ortan, onako oar au egiten du: «*Alusión a la simpatía con que el imperio moscovita miraba a los carlistas*».

## **ANDOAIN**


- 1/ Orain abiatzen naiz  
paratzen kantuak,  
kobardiatu dute  
kristino tontuak;  
karlistak *a cuchillo*,  
an ziran kontuak;  
milagroa egin du  
gurutze santuak.
  
  
- 2/ Seko gelditu dira  
zortzi eun da pikoa,  
zuzen ibilli balira  
etxituzten ilko;  
etxerik erre gabe  
ez dutela utziko,  
orañ pagatuko dute  
larrutikan pijo.
  
  
- 3/ O'Donnell jeneralak  
zuela agintzen,  
panparroia zebillen  
etxeak erretzen;  
solamente jaun ori  
ez da gaitz izutzen,  
kapela galdurian  
Ernanin sartu zen.

- 4/ Kapela galdu zuen,  
gañera zaldia,  
beste batena artuta  
itzuri abia;  
gezurrik gabetanik  
esain det egia:  
traidorea da baña  
kobarde andia.
- 5/ Merezi duen gisan  
ari naiz ondratzen,  
alegiña badabill  
bazterrak ondatzen;  
mundu guziak daki  
gauza ori nola zen,  
orren gerra guzia  
etxeak erretzen.
- 6/ Orrenbeste bat pena  
ne kazariari  
eman gabe zebillen  
Dn. Gaspar Jauregi;  
gogor abiatu da  
O'Donnell jaun ori,  
besterik ezin du ta  
jende komunari.
- 7/ Zer asi duen ongi  
ez daki lan ori,  
len amar kontrario,  
orain dauzka amabi;  
jendeak ikasi du  
tiratzen armari,  
ez geiegi fiatu  
abarkadunari.



Leopoldo O'Donnell jenerala (1809-1867).

- 8/ Enemigorik ez den  
lekuau baliente,  
mundu guztian gaizki  
juzkatuko dute;  
gero nonbait karlistak  
kontra egin dute,  
kanpamentuak laja  
etxearen truke.
  
- 9/ Ainbeste kanpamentu  
asko zabalduak,  
uste ortan etziran  
araño biralduak;  
aiek guztiak ere  
dituzte galduak,  
zer zirala uste zuten  
probintzianuak?
  
- 10/ Laguntzalle ez txarra  
gañetik naparra,  
esan geiago baña  
batalloi bakarra;  
tirorik egin gabe  
baioneta kala,  
laister izutzen dira  
kristinuak ala.
  
- 11/ Jainkoak daki zenbat  
urdai eta baba,  
beste portziyotxo bat  
arroza ere bada;  
berentzako asmoan  
eramana ara,  
gu deskantsuan jaten  
orain ari gera.



Jose Uranga jenerala.

- 12/ Bakallua eta illarra  
eta barbantzua,  
utzirikan juan ziran  
beren arrantxua,  
zergatik etzitzaien  
eman deskantsua;  
aintzako kaltea  
gure probetxua.
- 13/ Kantidadez zapata,  
arropa ta zaldi,  
pozik uzten zituzten  
dan guztiak geldi;  
arrapatzen zanari  
burua bi erdi,  
zergatik egin zuten  
ainbeste pikardi.
- 14/ Andoaingo elizan  
olioa ugari,  
arin iriki diye  
karlistak beltzari;  
dan guztiak utzita  
juan ziran itzuri,  
bastimentua eraman  
diote ontzari.
- 15/ Orra amabost bertso  
aspaldiko partez,  
aditzeria eman det  
noski orrenbestez;  
aziyo bat polita  
eman da nere ustez,  
gurutze santuaren  
obraz ta birtutez.

Bertso auen gaia, Andoainen, 1837'ko iraillaren 14'an gertatu zan burruka-aldea da. Egun ori, Gurutze Santuaren festa da. Orren aitamena, leenengo eta azken bertsoak egiten dute.

Bertsoak ondo ulertuko badira, gertaeraren berri ikasi bearra dago. Ortarako onena, berriz, Pirala kondairalariak diona onera aldatzea izango da, luzetxoabada ere:

*«Después de los ruidosos sucesos de Hernani, de los que nos ocuparemos al hacerlo de las insurrecciones militares, dejó el conde de Mirasol encargado el mando de las tropas a O'Donnell, que guió después la vanguardia, y Jáuregui el cuerpo de ejército. Se batío el 7 de agosto en Portus, y el 28 en Lasarte. Enfermo Jáuregui, dimitió la comandancia general del ejército de la costa de Cantabria, y le reemplazó O'Donnell.*

*...Uranga tenía sólo en Guipúzcoa cinco batallones, de los cuales cuatro acampaban en Urnieta y Andoain, y el quinto estaba en partidas por la costa, Guetaria, Oyarzun e Irún; y con tan poca fuerza no vaciló en hacer frente a la muy superior de su contrario, aumentada diariamente con las altas que daban los hospitales de los que habían sido heridos en las jornadas de marzo.*

*El 8 de setiembre movió O'Donnell su gente y numerosa artillería, con dirección a Hernani y Urnieta, y fue tan repentina y brava la acometida, que no pudieron contenerla los carlistas; se batieron en retirada, se vieron abrumados por el número de sus contrarios, abandonaron ambas poblaciones, y traspasaron el puente de Andoain buscando abrigo tras el Oria y Leizarán. Al avanzar los liberales fueron quemando los caseríos, resultando unos ciento ventiséis, que dejaban mayor número de familias sin hogar; teniendo los ingleses la mayor parte en estos incendios. El que sus habitantes hubieran abandonado sus casas, no justificaba su quema; será ésta ley de guerra, pero habremos de convenir que es ley bárbara, inhumana, y el hecho de quemar tanto caserío, aislados casi todos, infundió en los guipuzcoanos odio y rencor.*

*En este hecho de armas se contarán unas doscientas bajas entre los muertos y heridos de una y otra parte.*

*Del 9 al 13 siguieron contemplándose ambos contendientes, sin grande empeño de batirse, aunque hubo un continuo tiroteo, causándose alguna pérdida.*

*Hallábase Uranga en Navarra cuando tenían lugar estos sucesos, y al saberlos el 10 de setiembre por un despacho extraordinario, se dirigió con dos batallo-*

*nes y una compañía de guías a Guipúzcoa, cuya desplorable situación le acongojaba; entra aceleradamente en Tolosa, consuela a sus partidarios su inesperada y rápida llegada, y trata lo primero de apoderarse de las posiciones que los liberales ganaron en Andoain y sus alrededores, donde se parapetaban. Ejecuta un reconocimiento sobre el campo contrario; ve que había establecido cañones en la parte alta, inmediata a la iglesia, y que se preparaban a ejecutar otras obras de defensa considerables; comprende lo conveniente que es tomar al instante la ofensiva, se decide por el ataque y las disposiciones necesarias para el apronto de la artillería y demás medios conducentes al efecto.*

*O'Donnell estaba resuelto a esperar el combate, aunque eran superiores sus fuerzas y a ambos combatientes dividían los dos ríos: el Oria invadable, y el Leizarán poco menos.*

*En la noche del 13 al 14 establecieron los carlistas una batería en el monte Ichaso, y otra junto a Soravilla sobre la casa llamada Bazcardo, montando en ambas cuatro cañones de grueso calibre; otro menor se colocó en el camino real.*

*Ya tenía Uranga su proyecto formado, pero era importante cualquiera resolución por las consecuencias que pudiera tener, y convocó un consejo de generales y brigadiers para acordar si sería conveniente atacar desde luego al enemigo, o esperarle en posición al auxilio de los cañones. El comandante general de Guipúzcoa manifestó parecerle poco menos que imposible el atacar a un enemigo que contaba doble número de gente y en posición dominante, teniendo que atravesar los dos ríos; pero los brigadiers de las tropas opinaron por el ataque, diciendo que ellos se pondrían en primera fila al frente de los batallones, tomando sobre sí toda la responsabilidad. Con tales jefes y aquellos soldados, poco hay imposible. Uranga, que ardía en deseos de pelear, mostró su asentimiento por tomar la ofensiva, y se aprestó a ello, disponiendo inmediatamente el jefe de E. M. Vargas el siguiente plan de ataque. Cinco compañías debían atravesar el Oria por junto a Lasarte, subir fondeando el monte Burunza, y ponerse en emboscada antes de amanecer; tres batallones habían de pasar el Leizarán por unos tablones y seguir por la derecha del monte de en frente, y emboscarse al pie del Achular; otros tres debían presentarse por la faz en el barrio de Zumea, de cara al puente de Andoain, ejecutándose todo antes del alba. Así que al asomar ésta comenzó a tronar la artillería, salieron de su escondite las compañías de la izquierda y avanzaron hacia el camino.*

*Preparado O'Donnell, les hizo frente, y viendo otras fuerzas, creyó que por*

*aquel punto era el ataque principal, y envió tres batallones que rechazaron a las cinco compañías. Esto no obstante, movió el jefe liberal su centro hacia aquel punto, y como éste era justamente el deseo de los jefes carlistas, apenas vieron el desmembramiento de parte del ejército liberal, salen de su emboscada los tres batallones, y sin disparar un tiro cargan a la izquierda liberal, que aturdida por la sorpresa y sin tiempo apenas para disparar sus fusiles, se retiran en el mayor desorden. Hace O'Donnell esfuerzos de valor con los batallones de Gerona que dirigía personalmente; pero los tres de carlistas que estaban en Zumea, pasan el Leizarán por el puente y sus inmediaciones, y viéndose los liberales del centro abandonados por su izquierda, y alejados de la derecha, principian a retirarse en dispersión. Cargados de frente y cortados por la derecha carlista, son acuchillados sin piedad; no se daba cuartel, porque los paisanos que habían perdido sus casas, mezclados con los soldados, vengaban matando el incendio de sus hogares y gritaban: ezdá cuartelic sú ematendubenentzat(1). Se hace horrible la mortandad, y siendo este proceder tanto más extraño, cuanto que siempre se había dado cuartel, ni aun resistencia oponían muchos que creían quedar prisioneros.*

*Corren así mezclados unos y otros hasta el frente de Hernani, cierra el gobernador las puertas temiendo la entrada de los carlistas, pero éstos se retiran, y mientras se ocupaban esparcidos en recoger el armamento y demás despojos del campo de la pelea, se rehacen los liberales al abrigo de los muros de Hernani, quieren volver por su honor, avanzan hasta Urnieta, incendian la iglesia y casi todo el pueblo, cuyas ennegrecidas ruinas se ven aún al pasar en el ferrocarril, se aprestan de nuevo los carlistas a hacer frente, pero es tan grande la indisciplina del ejército liberal, que impide reconquistar lo perdido, y se retira a Hernani.*

*Seiscientos veinte muertos liberales se hallaron en el espacio de una legua de longitud por media de latitud; siendo las dos terceras partes ingleses, inhumanamente sacrificados algunos de éstos, que se obstinaron en permanecer en la iglesia(2); se salvaron pocos heridos, y se hicieron ciento catorce prisioneros españoles. O'Donnell logró salvarse en caballo ajeno y sin tricornio. Ochocientos fusiles, un excelente depósito de víveres y otros efectos constituyeron un rico botín. Los muertos y heridos carlistas no llegaron a ciento. Su triunfo era importante por las posiciones de que se apoderaron, y por la fuerza moral que adquirieron.*

*Vargas, Iturriza, Alzáa e Iturriaga contribuyeron muy mucho, no obstante la fatiga de una penosa marcha por caminos resbaladizos e intransitables, y lloviendo*

*do, que obligó a que hiciesen alto, emboscada la tropa, para tomar algún descanso, a conseguir el triunfo, que tan celebrado fue para las armas carlistas, y con razón; pues pocos ignorarán la consideración con que eran miradas las líneas de defensa en uno y otro campo».*



Garaipen ori karlistak nola kontatzen zuten ikusteko, Uranga jeneralak diona aldatuko degu onera:

*«Día 11: En Cirauqui se recibió la noticia de que los enemigos de la línea de San Sebastián habían penetrado en Andoain, cometiendo los mayores excesos y reduciendo a cenizas más de ciento y veinte caseríos de las inmediaciones. S. E. dispuso inmediatamente montar a caballo y dirigirse en socorro de Guipúzcoa, amenazada por el rebelde O'Donnell. El Cuartel General salió de Cirauqui a las seis y media, vino a comer a Artázcoz y a dormir a Lecumberri. Los dos batallones, tercero de Guipúzcoa y undécimo de Navarra, siguieron la misma jornada, habiendo salido de Allo la tarde anterior.*

*Día 12: De madrugada salió S. E. de Lecumberri, y llegando con su Cuartel General a las diez y media a Tolosa, después de comer se dirigió a la línea, reconoció las posiciones que ocupaba el enemigo, sus puntos fortificados y avanzados, se enteró de la fuerza con que contaban y regresó a pernoctar a Tolosa.*

*Día 13: Dispuso la llegada de los dos batallones y algunas piezas de artillería, la construcción de dos baterías y el plan de ataque para el día siguiente. En Tolosa.*

*Día 14: A las tres de la mañana los batallones ya ocupaban sus posiciones para el ataque. S. E. salió a la misma hora de Tolosa, llegando de noche al campo de batalla. Los enemigos ocupan las alturas orientales de Andoain, apoyados de reducto y foso que habían construído en ellas, coronadas de infinidad de tiendas de campaña. Cuatro batallones guipuzcoanos, el undécimo de Navarra, la Compañía de Guías de S. E. y otra que estaba en Segura, eran las fuerzas con que contaba nuestra línea de batalla, al paso que los enemigos enumeraban sobre siete mil hombres acaudillados por el cabecilla Leopoldo O'Donnell, fuertemente atrincherados. La artillería nuestra rompió el fuego a las seis menos cuarto de la*

mañana, y fue contestada por la del enemigo con una alternativa de disparos de granada y bala rasa por una y otra parte sin intermisión, que duró hasta las once y media en punto, hora en que nuestras fuerzas desplegaron en guerrilla y masa a la bayoneta, sobre los puntos más fortificados del enemigo, que viendo la decisión de los defensores del Rey, aterrados y sin disparar apenas un tiro, huyen despavoridos abandonando sus tiendas de campaña. Corren a más no poder, pero los guipuzcoanos y navarros y todos cuantos tenían la dicha de ver tal espectáculo, se avanzan sobre ellos, los acuchillan y derrotan, causándoles una mortandad horrorosa. Corren a encerrarse en la fortificación de Hernani, pero dejando el campo hecho un cementerio, cuyo número de cadáveres pasan de mil, con más de cien prisioneros, al paso que nuestras pérdidas apenas llegan a cuarenta heridos y cinco o seis muertos. Fueron ocupados sobre 120.000 cartuchos, mucha porción de bacalao, tocino, galleta, etc. y cuanto tenían almacenado ya en la iglesia de Andoain. Tal ha sido el resultado de este memorable día de la Exaltación de la Santa Cruz. El Excmo. señor Capitán General con su P. M., después de haber dado todas sus disposiciones para asegurar el fruto y despojos de tan gloriosa batalla, regresó a las cinco de la tarde a comer a Tolosa, en donde pernoctó»(4).

Egun artan egin zan sarraskiaz, onela esan zigun Astigarragako Domingo San Sebastian Txadonzaia zanak: «Andoaingo Kale Txikin –malda aundikoa bera– odolak txapel bat eraman zuan». Bere aurrekoengandik ala entzuna zuala.



Tolosako Manuel Urreta zanaren paperetan, periodiko puska bat arkitu genduan idazlan onekin: *Una victoria carlista de antaño. La batalla de Andoain en 1837*. Ez dakigu zein egunkari dan; ezta eguna ere. Beean onela dio: *Gurasobide. Septiembre 1933*. Urretak erabiltzen zuan izenordea zan ori.

Idazlan onek oso argibide gogoangarria dakar, nundik ikasi duan esaten ez badu ere:

«*Una mujer, espía de O'Donnell, que se hallaba en Tolosa, dirigióse a los voluntarios de un batallón carlista navarro que acababa de hacer entrada en dicha villa, preguntándoles:*

– *¿Qué batallón es éste?*

*Y los soldados de Carlos V respondieron:*

– *Once de Navarra...*

*Y se dio el caso de que la vieja entendió que eran once batallones carlistas navarros los que hacían entrada, y de esta forma se fué con el cuento a O'Donnell, y excuso decir a mis lectores el canguelo que se apoderó en las entrañas del después cantado el gran héroe de África.*

*¡Qué hubieran sido once batallones navarros, cuando el solo undécimo en unión de los seis guipuzcoanos dieron tanto que hacer en la tan memorable acción llamada de Andoain!».*

Urretak idazlan ontan esaten duana, oso ondo uztartzen da amargarren bertsoak dionarekin:

Laguntzalle ez txarra  
gañetik naparra,  
esan geiago baña  
batalloi bakarra...

Orrelaxe dio iturririk zaarrenak. Geroztikako guziak, ispiarena etzekitela-ko edo ez dakigu zergatik, beste onela esaten dute:

besterik etzan baña  
batalloi bakarra.



Azkuek, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, bertso auek kantatzeko bi doiñu azaltzen ditu.

Bata, 608 zenbakian, Ezkurrako (AN) Sor Antonia izeneko mojari jasoa. Letra, berriz, 14'garren bertsoaren aurreko erdia eta leenengoaren atzeko erdia.

Bestea, 667 zenbakian, Amasako Karmen Mendiluzeri jasoa, irugarren bertsoaren letrarekin.

Ona emen doiñu oiek:

Music score for the first song, Andoain, in 2/4 time, G major. The vocal line consists of three staves of music with lyrics in Basque. The lyrics are:  
An- do-ain-go E- Li-zan o- li- o u- ga- ri ai- sa ken-duzi-  
o- ten kar- lis-tak bel-tza- ri, kar- lis-tak a cu- chi- llo; an  
zi- ran kon-tu- ak! mi- la- gro-ak e- gin tu gu- ru- tze san-tu-  
ak.

Music score for the second song, O' Donnell, in 6/8 time, G major. The vocal line consists of four staves of music with lyrics in Basque. The lyrics are:  
O' Don- nell je- ne- ra- la zu- te- la a- gin- ta-  
ri pan- pa- rroi or ze- bil- tzen e- txe- ak e- rre-  
tzen. So- la- men- te jaun o- ri ez- ta gaitz i- zu-  
tzen, txa- pe- la gal- du- ri- kan Er- na- ni- ra joan zen.



Bertso sail onen iturririk zaurrena, guk ezagutzen ditugunetan, Don Manuel Lekuona zanaren bilduman arkitu degu. Berak Oiartzunen eskuratu zuan, Sein Irigoyen familiaren paperetan. Eskuz idatzitako orri bat da. Guk oni kopiatu diogu.

Lekuonaren bilduma ortan, makinaz idatzitako bi orri ere agertu dira bertso auekin.

Bata, ziur asko, Sein Irigoyen dañako orren paperari kopiatua, baiña aldaketa auekin: 2/3: zuzen porta balira; 2/6: etzutela utziko; 3/6: ez da gaitza izutzen; 4/4: itzuli abiya; 8/6: gogor egin dute.

Bestean, berriz, amairu bertso; 7 eta 11'garrena falta. Aldaketak: 1/3: kobardiati dira; 1/7: mirari bat egin du; 2/3: zuzen porta balira; 2/6: etzutela utziko; 2/7: orain pagatu dute; 3/3: panparroiak zebiltzan; 3/7: txapela galdu-eta; 4/1: Txapela galdu zuen; 4/3: besterena artuta; 4/4: itzuli abiya; 4/6: esain dut egoya; 6/3: eman gabe ibilli zan; 6/8: baserritarri; 8/1: Etsaiarikan ez dan; 8/6: gogor egin dute; 9/4: onuntz biralduak; 10/3: geiago etzen baño; 10/7: erraz izutzen dituk; 10/8: kobardiak ala; 12/8: guretzat protxua; 13/1: Makiña bat zapata; 13/3: pozik utzi zituzten; 13/4: lan guztiyak geldi; 15/5: atake bat polita; 15/6: egin da nere ustez.



Loiolako Aita Jose Inazio Arana zanaren bilduman, bertso auek eskuz idatzita daude.

Aldaketak: 2/1: Seko gelditu ziran; 2/3: zuzen ibilli baziran; 2/6: etzutela utziko; 2/7: orain pagatu dute; 3/1: O'Donnell jenerala; 3/2: zutela agintzen; 3/3: panparroi oi zebiltzen; 3/7: txapela galduirikan; 3/8: Ernanira joan zen; 4/1: Txapela galduirikan; 4/3: beste bat artu eta; 4/4: igesi abia; 4/6: orra esan egia; 6/3: eman gabe ibiltzen da; 6/5: panparroitxe dabil; 7/1: Zer ari duen lan ori; 7/2: orain berak badaki; 7/4: orain amabi; 8/1: Enemigorik ez dan lekuau; 8/2: dirade baliente; 8/4: juzgatu dituzte; 8/5: gure karlistak nusbait; 9/2: zeuden zabaldauak; 9/3: uste artan etziran; 9/4: aruntz bialduak; 10/1: Laguntzalle txarra ez; 10/3:

besterik etzan baña; 11/6: eramanak aisa; 11/7: gu jaten deskantsuan; 12/8: guretzat protxua; 14/3: arin eragin diote; 14/5: dan guztia utzi eta; 14/6: juan ziran igesi; 15/4: noski onenbestez; 15/5: azio polita egin; 15/6: dute nere ustez.



Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman, eskuz idatzita, sail ontako bost bertso arkitu ditugu: 1, 2, 12, 3 eta 4'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 1/1: Abiatzera nua; 1/7: kobardiatu dute; 1/8: kristino tontuak; 2/1: Seko gelditu ziran; 2/6: etzutela utziko; 2/7: orain pagatzen dute; 3/3: panparroiak zebiltzan; 3/7: txapela galdu eta; 3/8: Ernanira juan zen; 4/1: Galdu zuan txapela; 4/6: orra esan egiya; 4/7: traidoria zan baña; 12/1: Bakallo eta arroz; 12/4: zuten arrantxua.

Eta ondoren beste zortzi bertso, auekin zer ikusirik ez dutenak eta urrengo orri-aldeetan azalduko ditugunak.



*El Correo de Guipúzcoa* egunkarian, 1911'ko apirillaren 30'ean, sail ontako iru bertso agertu ziran: 2, 9 eta 13'garrena.

Aldaketak: 2/1: Seko gelditu ziran; 2/7: orain pagatzen dute; 9/3: usti artan etziran; 9/4: aruntz biralduak; 13/1: Makiña bat zapata; 13/3: pozik utzi zituzten; 13/4: lan guztiak geldi; 13/5: arrapatzen zunari; 13/8: ainbeste txarkeri.

Eta aurretik argibide auek:

«Poz audi batekin irakurri det, joan dan egunean, Urnieta'ko ezkutitza albistari onetan.

Esaten zuan nola berriro egin duten, orain dala 74 urte arte antxiñatik zuñik egondu zan Aitzkorta'ko Gurutze Donearen elizatxoa.

Gizaldi osoetan kristau katolikoak antxiñatik maitatuaz igaro zan Aitzkorta Gurutze Deuna, 1837'garren urtean izandu zan erre ta kiskaldua, beltz liberal, ingeles ta deabru guziengandik.

Bertan egoten zan Gurutze Deuna billatu zan mirari audi batez erre gabe, nun berrialaxe eraman zuten Andoañara, t'andikan bi urtera Urnieta'ko parrokira, ta an egon da orain artean kristau katoliko guzien agurrak artzen.

Bada berriz altxa da Aitzkorta'ko elizatxoa ta Gurutze Deuna len bezela an egongo da emendikan aurrera.

Ori nai zuan Urnieta'ko erri osoak. Urnieta'ko seme guzien naiak bete dira orrekin, eta urnietarrakin batean poztutzen gera biziro kristau katoliko guztiak, deadar egiñaz:

– Bizi bedi Aitzkorta'ko Gurutze Deuna!».



Bertso-papera, *Tolosan*: – *F. Muguerza ta semeen echean* inprentatua, bertako Manuel Urreta zanaren eskutik jasoa, eta ziur aski jaun onek berak argitara arazia.

Aldaketak: 1/3: kobardiati dira; 1/7: mirari bat egin du; 2/1: Seko gelditu ziran; 2/6: ez dute utziko; 2/7: oraiñ pagatzen dute; 3/7: txapela galdu eta; 3/8: Ernanira joantzen; 4/3: betterena artuta; 4/6: esan dut egiya; 5/6: gauz ori olashen; 5/7: orren guda guziya; 6/3: eman gabe ibilli zan; 6/4: On Gaspar Jauregui; 6/8: baserritarri; 7/1: Zer egin duen ongi; 7/3: len amar bere kontra; 7/4: oraiñ ditu amabi; 8/1: Etsaiarikan ez dan; 8/3: mundu guztiyak gaizki; 8/6: gogor egin dute; 9/3: uzte artan etziran; 9/4: onuntz biraldubak; 10/3: geiago etzen baño; 10/7: erraz izutzen dituk; 10/8: kobardiak ala; 12/8: gutzat probechu-ba; 13/1: Makiñabat zapata; 13/3: pozik utzi zituzten; 13/4: lan guztiyak geldi; 14/3: ariñ erakindizte; 14/5: lan guztiyak utzi ta; 15/4: noski onenbestez; 15/5: atake bat pollita; 15/6: egin da nere ustez.

11'garren bertsoa berria da:

Emen etorri ziran  
eusklaldunen galdez,  
Rodil eta Quesada,  
Butrón eta Valdés.

Oriyen soldadubak  
zar eta gaztiak,  
sutan asi orduko  
ill dira guztiyak.

Puntua aldatuta dago, beraz. Orretzaz oartu eta beste onela idatzita dago bertso orren saietsean:

Zerbait ziralakuan  
aundi beren ustez,  
neurtzen asi zuen da  
gelditu ezer ez.

Bertsoen atzetik, oar jakingarri au du paper orrek:

«Aurrenengo gudako itz neurtuak dira oiek. Irurogei ta amar urte dituzte. Andoaingo atakiaren gañean jarriyak. Beltzak eta ingelesak baturik baztar guziyak kiskaldu bazituzten ere, urrenako gogoak joan zitzazkien. Jipoi ederra artuta sartu ziran O'Donnell eliz eta etxe-erretzallea ta gañerakuak Donostira.

Karlistak agintari zuten On Jose Uranga, gudalari bikañ eta azkarra, Azpeitiyako semia.

Tolosan 1913-garrengo Agorraren 14-an».

*La Constancia* egunkariak ere argitaratu zituan bertso auek, 1934'eko abenduaren 16'an; baiña aurreko bertso-paper orri kopiatuta.



Barón de Montevilla zanaren bilduman, bertso auek eskuz idatzita daude; baiña aurreko bertso-paper orri kopiatuta.

Orretzaz gaiñera, beste orri batean eta eskuz idatzita, bost bertso auek: 3, 4, 9, 10 eta 2'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 2/1: Illak utzi dituzte; 2/2: milla eta piko; 2/3: zuzen ibill

baziran; 2/6: etzutela utziko; 2/7: orañ paga dituzte; 2/8: larruakin kito; 3/1: O'Donnell jauna orrek; 3/3: panparroi zebiltzen; 3/5: bañon jaun aundi ori; 3/6: etzen gutxi izitzen; 3/7: txapela galdu eta; 3/8: Ernanira joan zen; 4/1: Txapela galdu eta; 4/3: beste bat artu eta; 4/4: igesi abiya; 4/5: gezurrik esan gabe; 4/7: traidoria zan ere; 9/2: aunitz zabalduak; 9/3: asmo ortan etziran; 9/4: arontz bigalduak; 9/5: aiek erc dituzte; 9/6: ebentzat galduak; 10/1: Gañetikan laguna; 10/2: naparra ta ez txarra; 10/3: geiago etzan baño; 10/5: tirorik tira gabe; 9/8: kristinuak orla.

Eta bertsoen ondoren oar au:

*«Estos cantares los oía cantar a mi padre y a mi abuelo allá por los años 1868 al 1870. Ambos hicieron la primera guerra civil, y el padre también la segunda. Segundo Picabea».*



Bertso auek artean bizirik zeuden erriaren aoan 1957'an. Urte ortan, iru bertso jaso genizkion Ernaniko tanbolinteroari: 3, 4 eta 2'garrena.

Aldaketak: 2/3: ongi ibilli balira; 2/4: etziraden ilko; 2/6: etzuten utziko; 2/7: orain pagatzen dute; 3/1: O'Donnell jauna ori; 3/2: zutela agintzen; 3/3: panparroi ibilli zan; 3/8: Ernanira joan zen; 4/1: txapela galdu eta; 4/4: igesi abiya; 4/5: gezurra gabetanik; 4/6: esan det egiya.

---

(1) *No se da cuartel a los incendiarios.* (Piralaren itzulpena.)

(2) *Los prisioneros que resultaron ser ingleses, fueron fusilados en Tolosa como no comprendidos en el tratado de Eliot.* (Piralaren oarra)

(3) Antonio Pirala: *Historia de la guerra civil y de los partidos liberal y carlista, segunda edición, tomo IV, Madrid, 1869.*

(4) *Diario de guerra del teniente general D. José Ignacio de Uranga (1834-1838), San Sebastián, 1959.*

## «ARTILLERIA ERE...»

- 1/ Artilleria ere  
ez gendun fatala,  
suelto botatzen zuan  
bala ta metralla;  
batzuek anka falta,  
bestiak matralla,  
kristinuentzat txarra zan  
orduko batalla.
  
- 2/ Guriak il da eritu  
ogei dira noski,  
onenbestez kontentu,  
ez gerade gaizki;  
bestetatik geiago:  
kaballo ta guzti  
ez dira eskapatu  
millatatik zazpi.
  
- 3/ Kolumna bat igo zan  
Arkosko torrera,  
bigar kaballeria  
sorpresan aurrera;  
*gu a la bayoneta*  
lasterka aurrera,  
sekulan etzait aztuko  
orduko sarrera.

- 4/ Tiroka asi giñaden  
mendi batetikan,  
uju egin ziguten  
garai aldetikan:  
retira egiteko  
Jaungoikuagatikan,  
kolumna zetorrela  
Donostiatikan.
  
- 5/ Donostiko urbanuak  
fama aundiya dute,  
kanpora atera ezker  
karlistak alkate;  
luzaroko biziya  
baldin nai badute,  
portaliak barrendik  
egon obe dute.
  
- 6/ Kaballero-semiak  
uniformiakin  
dibertitzera datoz  
txapel txuriyakin,  
ustez dabiltzalako  
ollagorrarekin;  
morralak bete gabe  
juan ziraden arin.
  
- 7/ Amalau pezetero  
eridarik gabiak  
mendian an zebiltzan  
gure billakerian;  
gu berriz enbalido  
gizaixo pobriak,  
alare aiek bañan  
korrikari obiak.



Liberalak eta karlistak burrukan, Aralar mendian.

8/ Pakiak egiteko  
eman zuan itza,  
nekazari gaixuak  
pozeten dabilta;  
gizona balaz iltzen  
erraza ta gaitza,  
orduan portatu zan  
Don Pedro Iturriza.

Aurreko saillean, Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman, Andoaingo burruka-aldiari buruz bost bertso azaldu dirala esaten genduan; baiña ondoren, etenik gabe, beste zortzi bertso. Emen ezarri ditugun auek dira.

Auek ere Andoaingo burruka orri jarriak ote? Ez dakigu zer esan. Bertso batzuk badira ala diruditenak.

Beste batzuk ez, ordea. Irugarrenak «Arkosko torrera» esaten du; eta, Naparroako Los Arcos erria baldin bada, tokitan dago. Adurriagaren bilduman, bertsoen alboan lapitzez idatzita, onela irakurtzen da: «*Bertsos en confusión de distintas acciones*». Ditekena da ori ere.

Emengo leenengo bertsoa eta *Aieteko burruka berriz ere* izendatu degun saillaren seigarrena, berdintsuak dira.

Irugarren bertsoa Azkuek ere badakar, doiñu eta guzi, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 647 zenbakian, Amasako Karmen Mendiluzeren aotik jasota.

Baiña pentagramaren azpian «arkozko torrera» idazten du; eta gero «*a la torre de los Arcos*» itzultzen du.

«Arkosko Torrera» zer ote dan argitu nairik, auxe bururatu zaigu: Los Arcos'tik Logroño aldera artu eta zortzi bat kilometrora, Torres del Río erria dago. Los Arcos'tik naiko urbil, beraz. Ez al da bera izango? Orduan maiusku-laz asi bearko litzake: «Arkosko Torrera».

Ona emen doiñu ori:



Musical score for 'Artilleria ere...' in 5/8 time. The lyrics are in Basque, written below the notes. The score consists of four staves of music with corresponding lyrics:

Ko-lum-na bat i-go zan Ar-kos-ko to-nre-ra, mi-

lla ka-ba-lle-ri-a las-ter-kan au-nre-ra; gu a la ba-yo-

ne-ta, naiz e-ro-ni be-ra; se-ku-la e-tzaitaz- tu-ko or-

du-ko sa-nre-ra.


## **URNIETA**

- 1/ Dozena bat bertso berri sustantziaz nai ditut jarri, esplikatu nai nuke garbi; inozenteak ez du aditzen ez iso eta ez arri; ez barkatu nai alkarrí, geren odołak ixuri, zer balentia da ori?
- 2/ Orra nun dan Urnieta, ez besterikan pareta, malamentean erreta; orien bototik nekazariak egin biarko dik dieta; erdaldunaren kopeta: morralak ongi bete ta gero igesi lasterka.
- 3/ Zuazte emendikan aparte, guk berriz galdetu arte, egin dezute bastante; nai dezuena egin, etxeak erre, ongi portatuz zerate; onela joan dira bost urte, mantendu zerate merke, naiz nekazariak kalte.

- 4/ Ai, ango maiorazguak  
nun ote dira gaxuak?  
Ez orrela usatuak.  
Maiztarrentzako sardina erdia,  
berak ollasko osuak,  
eperrak eta usuak,  
erari jenerosuak,  
ongi beterik basuak.
- 5/ Frantzes ta inglesa, berriz,  
zezenak ikusten dabiltz,  
barrera gañetik irriz;  
garrotxa tira, eskua gorde  
egin digute bost aldiz;  
au konsideratzen balitz,  
balio luke txit aunitz  
buru gogorrik ez balitz.
- 6/ Ari dirade lanian  
Frantzian eta Espanian  
egiteko onen gañian:  
lau probintziak utzi itzazute  
lengo lege zuzenian,  
ez erdaldunaren mendian,  
gauzak lenengo oñian;  
ala bearko dik atzenian.
- 7/ Eskerra txarra tristea,  
ondo soldadu merkea,  
bere denborak betea;  
zenbat zarrago eta bearrago,  
gallendu zaio nekea;  
beti aldrebets suertea,  
nekez du aberastea,  
au da lastima tristea.



Karlistak eta liberalak Legazpi inguruan, 1833-XII-14.



Andoain'go zubian, 1837-V-29.

- 8/ Izan arren jakintsunak,  
antz ematen bai gizonak,  
ez jakin etorkizunak;  
aunitz alditan estuasunean  
koliko edo txukunak;  
aiek ere pasatzen egunak  
tristeak eta illunak,  
aditu, nere lagunak.
- 9/ Orra gure Muñagorri,  
predikatzen digu garbi  
goberna gaitezela ongi;  
zeruetatik enbajadore  
mundura zaigu eterri;  
pake on bat nai du jarri,  
lagundu gizon onari,  
gustatuko zaigu sarri.
- 10/ Muñagorriren jenteak  
sutan ez daude trebreak,  
billa litezke obeak;  
santa sekulan ez dik gauz onik  
ein gizon gogo gabeak,  
endemas desertoreak,  
diru billa atereak,  
aditu bear zetik obeak.
- 11/ Jaun onen ofizioa,  
ai zer esplikazioa,  
iruri du Misioa.  
«Biba fueroak eta pakea!  
Akabo okasioa!».   
Au da orren desioa:  
aplakatu desioa  
eta egin konposizioa.

- 12/ Muñagorriren salida  
esplikatzeko ensegida  
denborak eterri dira;  
zeruetatik enbajadore  
mundura eterria da.  
Orien tropak nun dira?  
Danak igesi juan dira,  
ta bera Frantzian jarri da.



Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bertso bilduman, aurreko amabi oietan ez dagoan beste bertso au arkitu degu:

- 13/ Zertan gera españolak  
orlako buru gogorrak  
ixurtzen geren odolak?  
Aita-semiak alkarren kontra  
enpeñatzen egiñalak;  
izan bagiñan leialak,  
ez giñuzen ilko balak;  
noiz artu biaitik jornalak?

Gero egingo ditugun oarrak obeto ulertu al izateko, bertso oni zenbakia jarri diogu. Baita onen urrengoei ere.



Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bildumak, berriz, beste iñun arkitu ez ditugun bertso auek dauzka:

- 14/ Astean guztiok bero,  
naiz urrikiturik gero,  
bosteri espu zaio gargerio; (*sic*)  
ofizio bat ez liteke izan  
ori den baño txarrago:  
iñon eztago seguro,  
beti balaren espero,  
ustekabian akabo.
- 15/ Egin dezute eginala,  
metralla, bonba eta bala,  
naiz irabazi ez batalla;  
iztarpetikan noiznai ageri  
atorra zarren egala;  
euskaldunaren azala,  
kolko beltza ta zabala,  
beratzeko a zer metala!
- 16/ Juan den sei-zazpi urtian  
nekazaria oinpian,  
bai ondo malamentian;  
semiak soldadu eraman da  
guraso zarrak etxian;  
gero aitaz oroitzian,  
pena bat det biotzian,  
dutena kendu gaitzian(3).



Bertso auek oso ezagunak izan ziran, garai batean beintzat. Eta, dudarik gabe, bigarrena danetan ezagunena:

Orra nun dan Urnieta,  
ez besterikan pareta,  
malamentian erreta...

Kantatu, berriz, Elizanbururen *Ikusten duzu goizean* bertsoen doiñuarekin egiten zirala uste degu. Baiña kanta ditezke, baita ere, *Ai ori begi ederra* edo *Edari maitagarria* bertsoen doiñuarekin.

Leen ere esan degunez, liberalak baserri pilla erre zuten Ernani eta Urnieta aldean, 1837'ko iraillean, O'Donnell jeneralia buru zutela. Pirala kondairalararen itzak ere eskeintzen genizkion irakurleari.

Ona, berriz. F. Lopez Alen jaunak zer dion, *Recuerdos de Urnieta* izeneko idazlan batean (*Euskal-Erria*, 1905):

«*En Urnieta quedaron totalmente incendiadas cuarenta y seis casas, y en su jurisdicción resultaron, igualmente destruidos del todo, ciento seis caseríos; dentro del casco de la villa sólo quedaron en pie cinco viviendas...*» .

Eta bertso zaar baten erdia ere badakar:

Urnieta negarra  
izango da gaurtik,  
gelditu ez dalako  
paretak besterik.

Teresa Amuategik onela dio *El Diario Vasco* egunarian, 1973'ko iraillaren 30'ean, *El Motín de Esquilache y las guerras carlistas en Urnieta* izeneko idazlan batean:

«*Días después de la batalla de Andoain, las fuerzas del general O'Donnell, buscando el desquite, atacaron la línea carlista en las proximidades de Urnieta y, al no conseguir avanzar, se retiraron de nuevo a Hernani, pero no sin antes incendiar y arrasar el pueblo de Urnieta. El Ayuntamiento, la iglesia, todas las casas, fueron pasto de las llamas. Se quemaron 46 edificios en el propio casco, y 128 caseríos. Sólo 5 casas consiguieron librarse del incendio... Se cuenta en Urnieta que uno de los incendiarios fue perseguido por un grupo de gente que protestaba con dolor e indignación el criminal hecho. Pudo escaparse por la cuesta de San Juan Iturri, refugiándose en el caserío Echeberri, pero fue alcanzado aquí por los enfurecidos urnietarras y conducido hasta la iglesia en llamas; lo cogieron por los pies y lo arrojaron vivo a la enorme hoguera al mismo tiempo que alguien gritaba: «Erre bear bada, erre i ere!».*

*Toda la población de Urnieta se refugió en los pueblos próximos de Arano,*

*Goizueta, Leiza, etc., hasta que se llevó a cabo la reconstrucción, después del Convenio de Vergara. Urnieta estuvo despoblado durante casi dos años, pero poco a poco, con verdadero tesón, pudieron ser reconstruidos todos los edificios públicos, así como los caseríos y casas particulares. Sin embargo, algunos caseríos y casas no se volvieron a construir, tales como Altuna-Txiqui, Dambolinea, Salonteguía, Juantxoenea, Eskolasarra, etc. El archivo de la villa fue llevado a un lejano caserío, pero a pesar de todo quedó destrozado y las pérdidas de documentación fueron considerables».*

Ala ere, erretze ori ez da bertso auen gai bakarra. Leenengo, gerra artako edonungo kalteak eta ondamendiak aitatzentz dituzte. Ondoren, 9, 10, 11 eta 12'garren bertsoak Muñagorriren kontra itzegenit dute.

Muñagorri onek. *Paz y Fueros* eskatzen zuan; eta ona zer dion emen 11'garren bertsoak:

«Biba fueroak eta pakea!  
Akabo okasioa!».  
Au da orren desioa...»

Muñagorriren gizonak desertoreak zirala esaten du 10'garren bertsoak. Piralak ere ala adierazten du, bere *Historia de la guerra civil liburuan*:

*«La gente de Muñagorri se componía de desertores carlistas y liberales, y de trescientos paisanos».*



Bertso auek toki edo iturri askotan arkitu ditugu. Iturri oietatik osoena eta jatorrena, guk uste beintzat, Loiolako Aita Jose Inazio Arana zanaren bildumakoa da. Orregatik, berari kopiatu dizkiogu bertsoak, bi lerrotan izan ezik.

Onela dio Aita Aranak 2/6 lerroan: *euskaldunaren kopeta*. Dudarik ez da *erdaldunaren kopeta* bear duala.

Eta 4/5 lerroan onela dio: *berak ollasko goxuak*. Beste toki geienetan, berriz, *berak ollasko osuak* dago, askoz egokiago guk uste, *sardina erdia'ren*

atzetik baidator. Eta orrela ezarri degu. 11'garren bertsoaren seigarren eta zazpigarren lerroak puntu bera dute: *desioa*. Oietako bat, bearbada, *azioa* bearko luke.

Argibide au ere badu: «Urnietako etxeak eta baita eleiza ere O'Donnell'en tropak erre zituztenekoak».



Tolosako Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bilduman, sail ontako lau bertso arkitu ditugu: 1, 2, 4 eta 5'garrena, aldaketa auekin: 1/3: esplikaziyan garbi; 1/6: barkatu nai ez alkarri; 2/2: ez da besterik pareta; 2/4: orien botoz egin biarko dik; 2/5: nekazariak dieta; 4/1: Angoxe maiorazkuak; 4/4: bordarentzat sardin erdiya; 5/7: balio luke bost aldiz.

Orrezaz gaiñera, goien itz auek: *Masoyan lanak*; eta ertzean: *Propaganda para el traidor abrazo de Vergara*. Baiña gauzak ez dira orrela. Ikusten danez, Adurriagak, edo bertso auek kopiatu nituanak, etzituan 10, 11 eta 12'garren bertsoak ezagutzen.



Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman, sail ontako sei bertso: 1, 6, 9, 12, 13 eta 15'garrena, aldaketa auekin: 1/3: esplikaziua garbi; 1/4: iñozentziak ez du aditzen; 9/7: segitu mudantza orri; 12'garrena:

Muñagorriren salida  
esplikatzeko segida  
denborak etorri dira;  
desio zuben irabaztia  
diruarekin partida.  
Jaun orren tropak nun dira?  
Danak igesi juan dira,  
bera Frantziyan jarri da.

13/1: Zertako gera españolak; 13/5: enpeñatu alegiñak; 13/8: noiz artu biaitu jornalak; 15'garrena:

Egin dute egiñala,  
granada, bonba ta bala,  
naiz irabazi ez batalla;  
naiz agiriyan galtza zarretik  
atorra zarren odolak,  
euskaldunaren azalak,  
kolko beltz eta zabalak,  
beratzeko zer metalak!



Barón de Montevilla zanaren bilduman, 2, 4, 5 eta 10'garrena, aldaketa auekin: 2/3: O'Donnell'ek du erreta; 2/4: beltz oien botoz nekazariyak; 2/5: egin biarko du dieta; 4/4: bordariyentzat txardiñ erdiya; 5/6: au konsiderauko balitz; 5/7: baliyoko luke anitz.

Bertsoen alboan, itz auek: «*Copiados de un preso*». Eta gero: «*He introducido alguna variante*». Aldaketa oietako bat, guk uste, 2/3'garren lerroa. Urrena onela dio:

«*Los satélites de Muñagorri enarbolan la bandera «Paz y Fueros». Válense de todos los medios para atraer al voluntario. Aviraneta le imita. El carlista del 37 desoye el reclamo de las sirenas y contesta a los muñagorristas con el siguiente cantar:*

Muñagorriren jendiak  
ez dira sutan trebiak,  
billatu leizke obiak;  
beñere ez du gauz onik egiñ  
gizon bururik gabiaik;  
geienak desertoriak,  
diru billa ateriak,  
aditu biaizkik beriak».

Barón de Montevilla onek berak, 12'garren bertsoa agertzen du bere *Coplas y brochazos del vivac* liburuan, aldaketa auekin: 12/2: aierazteko segira; 12/3: garaiak etorri dira; 12/4: Arnao zuen irabaztia; 12/5: dirubarekin partida; 12/6: jaun orren tropak nun dira? 12/8: bera Frantzian jarri da.



Jose Ariztimulo *Aitzol* zanaren bilduman, 2 eta 4'garren bertsoak, aldaketa auekin: 2/4: nekazaliak orien botun; 4/1: Hemengo maiorazkuak; 4/2: non ote dabiltz gaixuak; 4/4: bordarientzat txardin erdia; 4/5: eurek oilasko osuak; 4/8: ondo beterik basuak.



Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Andres Ezenarro *Urzelai* zanaren bilduman, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 9 ta 15'garren bertsoak, aldaketa auekin: 1/3: esplikaziyuak garbi; 1/7: gure odolak ixuri; 2/2: ez da besterik pareta; 2/4: ostera ere nekazariyak; 2/5: pasa bearko du dieta; 3/2: nik berriz galduetu arte; 3/4: etxiak erre nai zenduenian; 3/6: ola juan dira bost urte; 4/1: Ayako maiorazguak; 4/4: bordarientzat txardin erdiyak; 4/5: beudek ollasko osuak; 5/4: arriya tira, eskua gorde; 5/5: egin digute txit aldiz; 5/7: baliyo luke bost aldiz; 6/1: Asi dirade lanian; 6/4: lau probintzi onek utzi zazute; 6/8: ala biarko du azkenian; 9/1: Orra nun dan Muñagorri; 9/3: goberna gaitela ongi; 9/7: lagundu gizon on orri.

Baita ere, 9'garrenaren segidan, beste iñun arkitu ez degun bertso bat, guk uste sail ontakoa ez dana:

Utzi lengo biziyuak,  
joko ta maldiziyuak,  
egin restituziyuak;  
kartak saldu ta bearko ditugu  
erosi erosariyuak,

amabost misteriyuak,  
gauza onen leziyuak,  
or dituk gure amiguak.



Ramon Inzagaray jaunak, RIEV aldizkarian, 1933 urtean, *Muñagorrin kantak* izeneko idazlana agertu zuan, bertan sail ontako bost bertso sarturik, 12, 10, 2, 4 eta 5'garrena, orden ortan eta istoria aldetik argibide batzuk emanik.

Berak nundik dituan adierazteko, onela esaten du:

«Baron de Montevillak (G. B!) oraintxe argitaratu duen liburuño batean, Muñagorrirenak dirala diyo. Beintzat, onen aldeko burubidetarako sortuak.

Urniyetako gizon zar batzuek goguan dauzkate orañarteño. Bati abestu nizkion bertso aben sail-muturrak; muturra ezik, tximak eta adatsak eman zizkidan».

Aldaketak: 2/2: ez da besterik... pareta!; 2/3: ondorengoak erreta; 2/4: Beltz oien botoz nekazariyak; 2/5: egin biarko du dieta; 2/7: morrala ondo bete-ta; 4/3: ez orrelaxe oituak; 4/4: Bordariyentzat txardin-erdiya; 4/5: erak ollasko gozua; 4/8: ongi bete-ta basuak; 5/1: Prantzes Ingelesa berriz; 5/6: au konsiderauko balitz; 5/7: baliyoko luke anitz; 10/2: ez dira ontan trebiak; 10/3: billatu leizke obiak; 10/4: Beñere ez du gauz onik egin; 10/5: gizon bururik gabiak; 10/6: falta; 10/8: aitu biazkik beriak!; 12/2: ayerazteko segira; 12/3: garaiak etorri dira; 12/4: Naikoa zuen irabaztea; 12/5/ dirubarekin partida; 12/6: Jaun orren tropak non dira?; 12/8: bera Prantziyan jarri da.

Eta beste iñun arkitu ez degun bertso au ere badakar Inzagaray jaunak:

Orra oraingo euskara:  
nekazalerik ezpada,  
ezertarako ezkara.  
Arrazoi txarra ez emateko  
edozein berriz prest gara;

kolpia edo bulkara,  
beldur ezpada ikara,  
bete dezagun ijara!



Tolosako Karmele Goñiren kuaderno batean, leenengo bertsoa erdizka eta laugarreña osorik, baiña onela:

Nun ote dira gaxuak  
ango maiorazkotxoak,  
ez orrela oituak?  
Errenterua sardiñ erdiak,  
urek ollasko osuak...



L. Dassance zanak, *Gure Herria* aldizkarian, 1973'ko 3'garren zenbakian, idazlan bat agertu zuan, izenburu onekin: «*Ikusten duzu goizean*» kantuaren aireaz bi solas.

Lan ortan, besteak beste, onela dio Madamen Villehélio'ren *Souvenir des Pyrénées* kanta-bildumari buruz:

«Kaiertto polit hori gure lagun musikazaleek hain segur ezagutzen baitute, aipatuko dugu bakarrik «Zortziko» deitzen duen airea, eta musikaren ondotik daukan oharra: «*On a mis sur le chant en majeur de ce zortziko de charmantes paroles, le Laboureur heureux, qui sont maintenant très populaires et avaient obtenu, il y a quelques années, le prix de poésie donné annuellement à ses compatriotes par M. Antoine d'Abbadie...*».

Egia erran, delako zortzikoari behako bat eman orduko, ezagun da «*Ikusten duzu goizean*» orok ezagutzen duten olerkiarentzat J.-B. Elissamburuk hautatu zuen aire edo doiñu berbera dugula.

Liburutto horri esker baginakien beraz Eskual-Herri osoan, eta denbora laburrik barne, halako hedamena ezagutu zuen olerkia mendiz haraindiko aire batean moldatua izan dela.

Gure adiskide Pierre Lafitte kalonjeari esker, huna berriz nun, orai, bertze froga bat ekartzen ahal dugun gauza hortaz:

Eskuetan eman daukun kaier xahar batean aire bera kausitu dugu eta aurkintza horren huna airearen kopia, bertze seinalerik ez duena hastapeneko hitz hauetaz bertzerik:

«*Horra nun den Urnieta...*»

Urnieta hori Donostiarri hurbil den herri bat omen da. Damurik, hitz bakar horiek emanik gelditzen baita gure kaierttoa... Agian, gure Eskualzain adiskidek, Lecuona, Zabala edo Zatarain jaunek hastapen horri emanen diote ezagutu nahi ginuken segida!».

Eskaera ori irakurrik, bertso-sail au bialdu genion *Gure Herria* aldizkariari, Aita Jose Inazio Aranaren bilduman arkitu bezela. Baita *Gure Herria* aldizkariak bertso oiek argitaratu ere, baiña ez guk bialdu bezelaxe, uste gabean an eta emen ikutu edo aldaketa auek eginda baizik: 1/6: ez barkatu nai elgarri; 1/8: zer balentria da hori?; 2/6: erdaldunaren konpeta; 4/6: lerro au falta; 5/6: eru konsideratzen balitz.



*Diario de Navarra* egunkarian, 1978'ko iraillaren 15'an, *Donostiko Euskal Jaiak* idazlanean, *Intxisu* taldeak Lete idazlearen *Karlistadaren Kronika* antzeztu zuala esaten da; baita sail ontako sei bertso kantatu ere: 1, 2, 3, 5, 6 eta 9'garrena. Aldaketa batzuk baditu, bertsoak neurrian juxtuarren eta abar. Baiña *Gure Herria* aldizkariari artu dizkiola garbi dago, eta ez dute aitatzerik merezi.

## **KARLISTENAK**

- 1/ Zabaldu belarrijak,  
euskaldun maitiak,  
entzuteko gozaro  
zuben albistiak;  
ez da beste soñurik  
mundu zabaletan  
zuben izena baño  
aspaldi onetan.
  
- 2/ Egija esateko  
ez da erraz sinisten,  
begiz ikusi arren  
jakuna jazoten;  
lau urte luzeetan  
beti gerra baten,  
mundubak arriturik  
zaitube ikusten.
  
- 3/ Zubek asi zenduben  
gerra odoltsuba,  
bakarrik lagun zala  
Jaungoiko altsuba,  
lurreko indar baga  
gizonen ustian,  
geijago argituteko  
zeuben entzutian.

- 4/ Barria ta burlia  
arerijueta,  
ez zan beste gauzarik  
lelengo egunetan;  
eun bategaz legez  
izanik gudia,  
uste eben bertatik  
zubek goitutia.
  
- 5/ Milla osuetako  
talda ugarijak,  
alde guztijetatik  
ona etorrijak;  
arma, diru ta soñez  
osaro jantzijak,  
Inglaterratik daukez  
kañoie barrijak.
  
- 6/ Gitxi balira legez  
millazko eunak,  
kristiñuak ditubez  
billatzen lagunak;  
jente arrotzai deutse  
bertara deituten,  
gozatuten dirala  
bazterrak ondatzen.
  
- 7/ Frantzes, ingles, polako,  
portuges galduak,  
kristiñu malmutsakaz  
emonik eskubak;  
alde guztijetatik  
talda ugarijak,  
betetan ditubez gaur  
euskaldun errijak.

- 8/ «Mendi basuetara  
-diñue euskaldunak-,  
elduko dira nozbait  
ibarren egunak;  
bakotxak al dabena  
lepuan arturik,  
guazan ardura baga,  
ez euki bildurrik».
  
- 9/ Ez ziran euskaldunak  
bein bere menpetu,  
Erroma bera ez zan  
eurakaz jaubetu;  
gure asaba onakaz  
ez gara iñoz aztu,  
talda arro orrekaz  
gura dogu neurtu.
  
- 10/ Suba eta odola  
bazter guztijetan  
alperrik da zabaltzen  
euskal errijetan;  
egunik egunera  
indarrak barrijak  
erakusten ditube  
euskaldun argijak.
  
- 11/ Batzubek amaitu ta  
bestiak etorri,  
bazan areriju  
nunbaita ugari!  
Itxasoz ta liorrez  
nok leike zenbatu  
zenbat buru gaiztoko  
emen jakun sartu?

- 12/ Euren soiñ ta armakaz  
dira orniduten,  
menditarrak ez ditu  
askuak bildurtzen;  
zelai ibarretara  
asi dira jasten,  
nun-nai arerijuak  
azartu billatzen.
- 13/ «Emen gara mutillok  
-dirautse euskaldunak-,  
igaro ziran nozbait  
lelengo egunak;  
urten errijetatik,  
guria da lurra,  
bestelan ganian da  
suba ta egurra».
- 14/ Orma artetan dira  
kristiñuak sartzen,  
baña keia emonik  
ditube ateraten.  
Zenbat triskantza gogor  
ingles azurretan,  
baita bere ez gitxi  
euren lagunetan!
- 15/ Euskal errijak dira  
arrotzen izuba,  
agaitik arriturik  
geijago munduba;  
banaka gelditubak  
dakusez igesi,  
len arro, apaindubak,  
arlote ta itxusi.

- 16/ Frantzesak batera ta inglesak bestera,  
duaz euren lekuban barri emotera,  
polako, portugesak,  
lagunak itxirik,  
ta ona etorrijaz  
ondo damuturik.
  
- 17/ Amaitu ziran bada burla ta barriak,  
bildurrak artu ditu zantzuen ordiak;  
billatu, kristiñuak,  
goruntzko bidiak,  
ez zaituz lotsatuko iges egitiak.
  
- 18/ Baña atzian dira euskaldun senduak,  
guztiz amaituteko arturik goguak;  
bein asitako salsa nai dabe aurrera,  
garaitza osuagaz orduban etxera.
  
- 19/ Zelan ez da zurtuko gaur mundu guztija,  
ta erakutsi argiro bere mirarija,  
ezpadau iñoz izan gerra onek besterik luraren azalian bardindutekorik?

- 20/ Zerubari eskerrak,  
euskaldun maitiak,  
berak sendatu ditu  
zuben egitiak.  
Beragan daukazubez  
garaitza guztijak,  
daben legez esango  
guda onen amaijak.
- 21/ Goratuko zaitubez  
jatorri guztijak,  
ta benetan dontsatu  
uri ta errijak;  
belaunik belaunera  
zuben entzutiak  
pozez beteko ditu  
zarrak ta gaztiak.
- 22/ Baita bere eskerrak  
errege jaunari,  
Karlos bostgarrengo ta  
zuben burubari;  
bera izan dozube  
guztijan laguna,  
zubekaz igarorik  
gaba ta eguna.
- 23/ Nok dau iñoz ikusi  
alan erregerik,  
gose egarrijetan,  
sarritan ez lorik?  
Bala artetan bere  
bat bere bildurrik  
ikusten ez jakola...  
Nun da irudirik?

- 24/ Imiñi bada laster  
bere jarlekuban,  
eskribidurik dago  
alantxe zeruban:  
«Alperrik amorratu  
gutziz infernuba,  
etsi daike benetan  
auzija galduba».

Aita Jose Antonio Uriarte (1812-1869) euskaltzale sutsuaren lanik aundienna, Biblia euskeratzea izan zan. Baiña bertso-bilduma bat ere osatu zuan, dana eskuz idatzia. Izena onela du: *Poesía Bascongada. Dialecto Vizcaíno*. Bilduma ori 1987'an argitara eman zan, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Jon Kortazar eta Miren Billelabeitiak prestatuta.

Bilduma ontako bertso batzuk egillearren izenarekin daude: Eusebio Maria Azkue, Aboitz, Meagher, Ibarreta, Mogel, Durangoko zidargiñak eta abar. Beste batzuk, berriz, egillearren izenik gabeak ditugu. Oietakoa da bertso sail au.

Nor zan ez badakigu ere, erri bertsolariren bat etzala esan genezakela uste det. Gizon eskolaturen bat degu, gure iritzirako beintzat, beraren bertsogintzak aditzera ematen duanez.

Bigarren bertsoak, gerra asi zanetik lau urte luze igaro dirala esaten du. Gerra 1833'ko udazkenean asi baitzan, 1837'ko bukaera aldekoak izango ditugu, ziur aski, bertso auek.

Zazpigarren bertsoak, frantzes, ingles, polako ta portugesak aitatzen ditu, liberalekin «emonik eskubak» zebiltzanak. Erderaz *la Cuádruple Alianza* esaten zaiona firmatu zuten España, Inglaterra, Frantzia ta Portugalen artean, 1834'ko apirillaren 22'an. Eta gero armak eta gizonak andik onera bialdu nazio oiek. Talderik aundienna inglesena izan zan: amabi milla gizon, Lacy Evans jenerala buru zutela. Eta, bertso orrek dionez, polakoak ere baziran.

Liberalei *kristiñuak* esaten zaie bertso auetan. Isabel II erregiña iru urte zituan, beraren aita, Fernando VII, il zanean. Orregatik, erregiñaren ordezkari norbait bear eta beraren ama jarri zuten, María Cristina, *reina regente* izenarekin. Aren jarraitzaileei, berriz, erderaz *cristinos* eta euskeraz *kristiñuak* edo *kristinoak* esaten zitzaien.


## **PEÑACERRADA**

- 1/ Orra bertso berriak  
para Naparroan,  
probintzian bezela  
euskeria klaroan;  
egun batzuek onak  
pasa arren orduan,  
ongi pagatu degu  
oraiñeko suan.
  
- 2/ Gau ta egun martxa triste  
juanagatikan,  
ez zegon guretzako  
barkaziorikan;  
señaladamente joan giñan  
Pamplona aldetikan,  
arrantxoa jateko  
etzan lekurikan.
  
- 3/ Ara allegatu giñanai  
emanik ardoa,  
arekin artu gendun  
pixka bat garboa;  
ala ere ez gendun  
errazio osoa,  
bereala mandatua  
ai zala sua.

- 4/ Arabako bigarrena  
zan lendabizi asi,  
laxter igarri zion  
etzala nagusi;  
armak lurrera bota,  
laxterka igesi,  
orlako puntziorik  
ez du iñork ikusi.
- 5/ Gero probintzianoak  
eman geniyen frente,  
an ikusiagatik  
makiña bat jente;  
arma kalatuakin  
asi giñan fuerte,  
egun artan eutsi giñon  
gugandik aparte.
- 6/ Gero kaballeria  
ziguten atera,  
arma baioneta ta  
gu aien aurrera;  
juntatu giñanean  
alkarren aldera,  
banaka jexten ziran  
zalditik lurrera.
- 7/ Gero soro batean  
giñaden formatu,  
bi batalloiaik iru  
giñan juntatu;(1)  
ala ere gu len aña,  
ezin aumentatu,  
arras ez giñanean  
guziak ondatu.



Peñacerrada.



Zalduendo'ko burruka-aldia, 1833-XI-15.

- 8/ Gero mendietatik  
bota zuten brilla,(2)  
ain zan izugarria  
ango jende pilla;  
etziran berdiñean  
gu bezin abilla,  
bañan bakoitzarentzat  
bagenitun milla.
  
- 9/ Gerrillak aurrean ta  
kolumna ori masan,  
Espartero jauna ta  
Martin Bari ziran;  
aien kontra egiteko  
jendea ere nun zan?  
Gu izaten gera  
betiko esperantzan.
  
- 10/ Ala ere ez zegon  
jendea pakean,  
iru egun osoetan  
beti atakean;  
gerozko egun biyetan  
izan ez nitzean,  
zergatik jo ninduen  
balak beatzean.
  
- 11/ Balak izanagatik  
aurrean ugari,  
burua sano daukat,  
beatzetik eri;  
apuntatu zidaten  
beatzen erdira,  
oraindik señale det  
orduko erida.

12/ Trago ori artu ta  
ni ere erituta,  
luzaro egon gabe  
atzera begira,

.....  
.....  
.....  
.....

13/ Preziso bear gendun  
berriz bagajea,  
au're eskatutzeko  
nun zan korajea?  
Zaldia gorde eta  
ixten zuen atea,  
gizona serbitzeko  
a zer parajea!

14/ Probintziako mutillak  
Peñacerradara,  
zierto genekigula  
jun giñan gerrara;  
an eritu ta gero  
Salvatierrara,  
laugarren egunean  
joan giñan Bergara.

15/ Amaika amaren seme  
dolorez aziak,  
errematatu ditu  
oraingo auziak;  
illak falta dira baña  
animo biziak,  
gerra irabaziko al degu  
lau probintziak.

16/ Amasei bertsorekin  
nai det despeditu,  
gustatu nai dutenak  
kantatuko ditu,  
· · · · ·  
· · · · ·  
· · · · ·  
· · · · ·

Peñacerradako burrukak lau egun iraun zuan: 1838'ko garagarrillaren 19'tik 22'ra.

Peñacerrada, Gasteiztik Logroñorako kamioan dago, eta karlisten mendean zegoan. Antziñako arri-ormez inguratutako erri zaarra da, eta karlistak lan berriak ere egiñak zituzten, obeto zaintzearren. Izan ere, Araba eta Errioja bitarteko bideak erri onek ixten ditu.

Espartero liberal jeneralak, Peñacerrada ori artu nairik, Gasteiztik atera zan garagarrillaren 18'an, berekin indar audiak zituala: oiñezko jendea emezortzi batalloia; injenieroak iru konpañi; zaldizkoak lau eskuadroi; eta kañoi-mordo bat ere bai.

Aren asmoak igerririk, karlistak lau batalloia bialdu zituzten Peñacerradara: Arabako bigarrena, Naparroako leenengoa eta Gipuzkoako bi. Oietaz gaiñera, Peñacerradan bertan zeudenak. Auek erri barrutik eta besteak kanpotik saiatu ziran, Guergué jeneralu buru zutela.

Antonio Piralak onela dio bere *Historia de la guerra civil* liburuan:

«Cubría la izquierda liberal a corta distancia la columna del coronel Zurbarano, que al llegar a Baroja, cuando ya el cuartel general estaba sobre la altura citada (altura de Larrea), entre este pueblo y el castillo de Peñacerrada, suriendo el fuego de la artillería del mismo y el de obús de la plaza, se encontró con la cabeza del cuerpo enemigo, que volaba para posesionarse de la línea ocupada ya por las tropas liberales en su extremo izquierdo: se trabó un combate de guerrillas bien sostenido por Zurbarano a pesar de su inferioridad numérica, cuando el enemigo iba reforzándose a la carrera; y el conde de Luchana, echando mano, como siempre, de su escolta, la mandó al galope para tomar parte en la acción, y su ayuda produjo la dispersión del primer batallón que entró en fuego –el segundo

*de Alava–, el cual quedó cortado por unos pocos caballos. Los obstáculos que encontraron todos los demás en la dirección que tomaron para envolverlos le proporcionó salvarse al abrigo de los otros batallones, apoyados en grandes parapetos, en continuos bosques y eminencias, y en su artillería, dejando, sin embargo, en poder de los defensores de la reina 22 prisioneros y bastantes muertos y heridos. También recogieron algunos fusiles de los que arrojaron los carlistas».*

Gorabera oiek laugarren bertsoak aitatzen ditu. Ortik aurrera, ordea, ez dira alkarren parean errez jartzen Piralak eta bertsolariak esaten dituztenak.

Burruka au liberalak irabazi zuten, Peñacerrada artuz eta karlistak andik uxatuz. Txetasunak jakin nai dituanak, Piralaren liburua irakurtzea dauka: «*Historia de la guerra civil*», libro décimo, capítulo XX.



Bertsoak Aita Apalategiren paperetan agertu dira.

Bertsolaria nor zan ez dakigu; baiña gipuzkoarra zala bai. Bosgarren bertsoak onela esaten baitu:

Gero probintzianoak  
eman geniyen frente...



Barón de Montevilla zanaren paperetan, berriz, sail ontako bost bertso agertu dira. Nundik jaso zituan adierazteko onela dio: «*Recogidos en Abadiano, Vizcaya, por Elías de Burgos, en abril de 1925*».

Bertsoak, ordea, oso aldatuta eta naastuta daude, eta osorik jarriko ditugu:

Orra bertso berriak  
para Naparruan  
bezela probentzian  
euskera klaruan;  
probentziako mutilak  
bai Peñacerradan,  
ziartu genkijala  
juan giñan sutara.

Andikan urten eta  
bai Billafrankara,  
laugarren egunian  
jo gendun Bergara;  
Bergara eldu ta  
eman zuten ardua,  
arekin artu gendun  
piska bat kargua.

Ala ere ezkenduan  
erraziño osua,  
beriala mandatu  
ta ausi gendun sua;  
Arabako segunda  
lenbiziyan asi,  
laster igerri zuan  
etzala, bai, nausi.

Espartero jaun ori ta  
Martin Maria orri  
frente emateko  
jentia bear zan;  
aurrian ikusi arren  
makiña bat jente,  
orregaitik eman giñon  
guztiari frente.

Lenbizi solo baten  
giñaren formatu,  
iru batalloekin  
bi giñan juntatu;  
len faltatu ta gero  
ezin aumentatu,  
aizken aldian  
guztiok ondatu.

Doiñua ere jaso zuan Elias de Burgos dalako orrek. Onako au:

The musical score consists of four identical staves of music. Each staff begins with a G clef, a 2/4 time signature, and a key signature of one flat. The music is composed of eighth and sixteenth notes, primarily in the treble clef. The first three staves are fully visible, while the fourth staff begins at the bottom and continues upwards. The music is divided into measures by vertical bar lines.



Azkuek, Erreenteriko Luis del Puertori sail ontako iru bertso jaso zizkion: 2, 3 eta 14'garrena. Etzituan bere kanta bilduman agertu, eta beraren esku idatzietan azaldu dira. Oso aldatuta baitaude, osorik ezarriko ditugu:

- 2/ Gau ta egun martxa triste  
ibiligaitikan,  
guretzat etzegoan  
barkaziorikan;  
señaladamente giñan  
Panplona aldetikan,  
rantxoa jateko ere  
etzan astirikan.  
*Urra labiru labiru  
labiru labiru lete,  
urra labiru labiru  
labiru labiru let.*
- 3/ Abiatzeko orduan  
eman ziguten ardoa,  
orduan artu ginduen  
piska bat garboa;  
alare ezkenduen  
razioa osoa,  
bereala mandatua  
asi zala sua.
- 14/ Probentziako mutillak  
bai Peñacerrada,  
ziarto genakigula  
joan giñan gerrara;  
an eritu ta gero  
Salvatierrara,  
laugarren eguneko  
jo nuen Bergara.



Amabostgarren bertsoa ez dakigu sail ontakoa dan. Azkuek luzeagoa bildu baitzuan Arrasaten, Alejandro Altuberen aotik. Bere kanta bilduman argitaratu

zuan, doiñu ta guzi, 382 zenbakian, ondoren onela ziola: «*Según parece, este poemita brotó durante la primera guerra carlista*». Ona doiñu eta bertso oiek:

A- mai- ka a- ma- ren se- me do- lo- rez a- zi- ak e-

ra- man bear- ko di- tu o- rain- go au- zi- ak! I- laki- la- ga-

ti- kan au- rre- ra bi- zi- ak, al du- ten guz- ti- ak, eu-

ki- tsu ez eu- ki- ak a- ma e- txe- an u- tzi- ak: ge- rra au i- ra- baz-

te- ko lau pro- bin- tzi- ak.

Amaika amaren seme  
dolorez aziak  
eraman bearko ditu  
oraingo auziak!  
Ilak ilagatikan  
aurrera biziak,  
al duten guztiak,  
eukitsu ez eukiak,  
ama etxe- an utziak,  
gerra au irabazteko  
lau probintziak.

Baiña beste bertso bat ere jaso zuan Azkuek, gero bere kanta bilduman argitaratu ez bazuan ere. Orain beraren esku idatzietan azaldu da. Onela dio:

Iletikan ilera  
kontribuzioa,  
aurrak ongi azteko  
zer alibioa;  
eltzean koipe gutxi,  
dendan olioia.  
Au dek erioa!  
Nun da balioa?  
Purgatorioa;  
nori bota jakin ez  
maldezioa.

---

(1) Bi batalloi bakarrik giñan, bañan iru egin, etsaia asko giñala uste zezaten. (Aita Apalategiren orra. Itxura danez, norbaiten aotik jaso zituan bertso auck.)

(2) Brilla bola jokua da; granadak edo metralla bota zigutela. (Aita Apalategiren orra.)


## BERTSO BERRIAK

- 1/ Nere aditzallia,  
onuntz juntatu,  
Kastillako kontubak  
biar ditut kontatu;  
gogoan artu.  
Ez naiz bada  
txit barren sartu,  
baña ez gustatu.  
An bizi bañan obe  
likek urkatu.
- 2/ Ramalesko partetik  
Villaverdera,  
ango jende noblia  
bisitatzen  
izandu gera.  
Eskutik artu eta  
alojatzera  
koltxoi tartera,  
gure auntzak adarrak  
zeuzkan aldera.
- 3/ Andik Balmasedara  
urrengo buelta,  
antxe artu nituben  
iru boleta,  
bat ona izan ez ta.(1)  
Alojamentuba bai,  
*-jay qué muñeca!-,*  
balego erreta,  
berriz ez ibiltzeko  
zorriz beteta.

- 4/ Gure alojamentuko  
oia maitia:(2)  
estera zar audi bat  
lurrian botia,  
eze-ezia.  
Mandire usandu bat  
zorriz betia,  
azi merkia,  
aisa beteko nian  
pintako eltzia.
- 5/ Galdetzen bagenduen  
«Patrona, argiya»,  
alegiya ez aditu,  
urde audiya;  
zer maliziya!  
Dakigula artu biar  
pazientziya,  
penitentziya,  
naiz egon illunpetan  
kopeta ausiya.
- 6/ Bizkaiako arraia  
eta Kastilla,  
diferentzi aundirik  
ez dute milla;  
toki zirtzilla.  
Oierako neroni  
lasto zar billa,  
umil-umilla;  
an bizi nai dubena  
ito dedilla.



Nazar'ko burruka-aldea, Naparroan, 1833-XII-28.



Liberalak bidez-bide.

- 7/ Lagun bat ere banuben  
berez naparra;  
erriya esango det:  
gorritiarra,  
ez mutil txarra.  
Ederki ikasi zuben  
jotzen gitarra,  
zirri eta zarra;  
aldamenetik farrez  
Ezkerra zarra.
- 8/ Nere lagun ori zan  
asko ikusiya;  
ark lenagotik jakin  
zer zan zorriya,  
kasta nagiya.  
Biatzaz ikututa  
geldi-geldiya,  
faltso zuriya,  
malizi asko duben  
animaliya.
- 9/ An bizi bazerade  
urte guziyan,  
bat ez dezu ikusiko  
linaia gerriyan,  
bere biziyan,  
naiz senarra eduki  
parragarriyan,  
dana agirriyan.  
Orra zer andre onak(3)  
Erdalerriyan.

- 10/ Ikusiko bazenduke  
ango jantziya:  
gona zulatuba,  
kamisa autsiya,  
lastairakiya.  
Beatza bezin lodi  
arren ariya,  
zorri kabiya;  
iruditzen dik zaku  
gaizki josiya.
- 11/ Nolako andrea  
alako senarra:  
berez alper aundiya,  
gero zabarra,  
zikintsu zarra.  
Salaren zulotikan  
beren biarra  
tirri ta tarra;  
ojala lertu balitz  
urde zakarra.
- 12/ Ango sukalde bantzarrak  
kuriyosuak:  
lagatzikan agiri ez,  
falta aspuak.  
Alki senduak:  
iru edo lau arri  
kintalekuak.  
Ango zokuak  
ezkondu ezkeroztik  
garbitzkuak.

13/ Etxian sartu eta  
ango graziya,  
barajo eta puño(4)  
jolas guziya,  
ai zer biziya!  
Gurasoak txikitán  
erakutsiya  
filosofiya;  
aposta ez dakitela  
Abe Mariya.

Bertso auek ere gerratekoak ditugu. Baiña gerraterik ez dute ia aitaten. Aitamen bakarra irugarren bertsoak egiten du, Balmasedara iritxi eta bertso-jartzailleak iru *boleta* artu zituala esaten duan ortan. *Boleta* oiek zer ziran, onela adierazten du erdal iztegiak(5), beste esan-nai batzuen artean:

«*Cédula que se da a los militares cuando entran en un lugar, señalando a cada uno la casa donde ha de alojarse».*

Orretzaz gaiñera, beti uste izan da bertso auek leenengo karlisten gerratekoak dirala, geroago azalduko degunez.

Egillea nor dan zazpigaren bertsoak esaten du: *Ezkerra zarra*. Ezkerra orretzat 1834 urteko sail batean zerbait esan degu. Irundarra zan, eta liberala.

Iru erri izen agertzen dira bertso auetan: Ramales, Kantabriako lurretan eta Bizkaitik urbil samar dagoana; Villaverde, Villaverde de Trucios alegia, Kantabriako lurra berau ere, baiña Bizkaiak inguratua; eta Balmaseda. Ortik barrena ibili ziran Ezkerra eta bere soldadu lagunak. Ala ere, Kastilla aldean izan zirala uste du berak, «txit barren sartu» ez bada ere: leenengo bertsoak «Kastillako kontuak» esaten du; eta seigarrenak: Bizkaiako arraia eta Kastilla».

Bertso mota au ez det uste gaur egunean erabiltzen danik. Garai batean bai, ordea. Ortan moldatuak daude, adibidez, Iztuetaren «Maite bat maitatzen det maitagarria» bertsoak; «Hauxe da ikazketako mandoaren traza» eta bai Izuelako Artzaiaren «Alegantzi aundirik ez det goguan» asten diranak ere. Kantatzeko, beraz, Iztuetaren doiñua edo Ikazketako mandoarena erabil diteke.



Bertso auen argitaraldirik zaarrena eta osoena, guk eskuratu ditugunetan, «*Vergaran: Juan Lopez-en moldizteguian*» argitara emandako bertso-paper bat da. Ormaiztegin jaso genduan, Etxaburu baserriko Bizente Mujika zanaren eskuistik.



Francisque Michel'ek, bere *Le Pays Basque. 1857* liburuan, sail ontako bederatzi bertso agertzen ditu: 6, 2, 9, 11, 10, 12, 13, 7 eta 8'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 2/1: Runkale aldetikan; 2/2: Malmazonera; 2/3: hango jende gurbien; 2/5: izatu gara; 2/8: leku onera; 2/10: dauzkan aldera; 6/1: Bizkai eta Araga; 6/2: gero Castilla; 6/3: diferentziarikan; 6/5: leku zirtzilla; 6/6: bere aloiatzeko; 6/9: han bizi nahi derena; 6/10: ito dabilla; 7/1: Nere lagun Manuel; 7/3: egoitzaz ez hangotik; 7/6: ederki bezakien; 7/9: damurik zen harekin; 7/10: besoz exkerra; 8/1: Nere lagun hori da; 8/2: aski ikusia; 8/3: lehen ere badaki; 8/4: zer den zorria; 8/6: behatzaz ukitu eta; 9/1: Han egon bazite; 9/2: urte batian; 9/3: bat icus ainzaki; 9/4: çure bizian; 9/5: kilua gerrian; 9/6: nahiz senarra luken; 9/7: larru gorrian; 9/8: negu guzian; 10/1: Ikusten bazinuke; 10/2: hango jauntzia; 10/3: pantalon xar batzuko; 10/4: kamis hantzia; 10/5: zorri kafia; 10/8: lastairakia; 10/9: irudi baitu zaku; 11/1: Nolako emaztia; 11/3: berez alfer handia; 11/4: eta sankarra; 11/6: salako zilotikan; 11/7: bere beharra; 11/8: firri ta farra; 11/9: oxala lertu balitz; 11/10: puerco zarra; 12/1: Hango sukal bazterrak; 12/2: ikustekoak; 12/3: laratzikan baterez; 12/4: falta hanskoak; 12/9: ezkonduz geroztikan; 13/3: arraio eta arnegu; 13/4: solas guzia; 13/6: burrasoak ttikitik; 13/9: apostu ez dakitela.

Aingeru Irigaray'k, Fr. Michel'en bertso sorta berriz argitaratzean (*Colección Auñamendi*, 29), bertso auek berdin eskeintzen ditu, okerren batzuk zuzen-duta.



*Tolosa'n: E. Lopez'en echian* argitara emandako paper batean, sail ontako amabi bertso arkitu ditugu: 1, 2, 4, 6, 3, 7, 8, 10, 9, 11, 12 eta 13'garrena, orden ortan; eta 5'garrena falta.

Aldaketak: 1/3: Kastillako kontu bat; 1/4: biet kontatu; 1/6: ez naiz bada txit barren; 1/7: barrena sartu; 2/10: dauzkan aldera; 3/3: an aldatu nituben; 3/5: ona izan ezta; 3/6: alojamentu bat bai; 3/7: uraxen pesta; 6/4: ez ditek milla; 6/7: lasto eze billa; 7/4: gorrititarra; 8/6: biatzaz ukuituta; 9/4: lana egin naian; 9/7: larrugorriyan; 10/3: gona oso puskatuba; 10/9: iduritzten zait zaku; 11/1: Nolako andria ta; 12/1: Ango sukalde baztarren; 12/3: lagatzik ageri ez; 12/5: eserlekuba ere; 13/3: itz gaizto ugari; 13/9: apustu ez dakitela; 13/10: Agur Mariya.



Barón de Montevilla zanaren bilduman sail ontako bost bertso agertu dira: 2, 12, 10, 8 eta 7'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 2/1: Naparrezko partetik; 2/3: ango jende nobliak; 2/5: etorri gera; 2/7: besondotik artuta; 2/10: ditun aldera; 7/1: Nere oiko laguna; 7/3: esango dut nongua; 7/4: gorrititarra; 7/6: arek ikasi ziyen; 7/7: jotzen kitarra; 7/8: tirriti-tarra; 8/1-2: falta; 8/3: lendikan badakigu; 8/4: zer den zorriya; 8/5: falta; 8/6: eskuakin ikutu ta; 10/1: Ikusko bazenduke; 10/3: gona pedezatua; 10/6: iruritzten zitzaku; 10/7: gaizki josiya; 10/9: iruritzten zitzaku; 12/1: Ango sukal bazterren; 12/3: labatzik bat ere ez.



Irunen jaio eta Plazentzian bizi izan zan Gerardo Ezenaro *Urzelai* zanaren bilduman, sail ontako sei bertso arkitu ditugu: 1, 2, 13, 7, 8 eta 12'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 1/1: Nere adiskidiak; 1/2: onuntza juntatu; 1/4: biar dizut kontatu; 1/5,6,7: falta; 1/8: etzait gustatu; 2/1: Balmasedatik buelta; 7/1: Lagun bat ere bageunkan; 7/3: obeto esateko; 7/5: ta ez mutil txarra; 8/3: lenagotik zekien; 8/5: kastaz nagiya; 8/6: biatzaz ikututa ere; 12/3,4,5: falta; 12/10 garbi eztakuak;

13/3: dana maldiziyua; 13/5: filosofiya; 13/6: txikitán gurasuak; 13/8: ai zer biziya; 13/9: apostu ez dakitela.



Aita Donosti zanaren artxiboan, *Cuaderno de Argentina* deitzen dan batetan, sail ontako bederatzi bertso agertu dira: 6, 2, 3, 9, 11, 12, 13, 7 eta 8'garrena, orde ortan.

Aldaketak: 2/1: Erronkal aldetikan; 2/3: hango jende garbien; 2/6: eskutikan hartu eta; 2/8: leku onera; 2/10: dauzkan aldera; 3/2: urren buelta; 3/3: han mudatu nituen; 3/4: hirur muleta; 3/5: onak izan ez eta; 3/6: lastaia txar batekin; 3/7: ay que puñeta; 3/8: balago erreta; 7/1: Ene lagun Manuel; 7/3: egoitzaz ez hangoa; 7/6: ederki bazakien; 7/10: esker zakarra; 9/1: Allega bazindake; 9/2: erdal herrian; 9/3: bat ikusiko etzinuke; 9/4: kiloa gerrian; 9/5: zure bizian; 9/6: nahiz iduki senarra; 9/7: larru gorrian; 9/8: negu erdian; 9/9: horra zer andre diren; 11/1: Nolako emaztea; 11/4: eta zakarra; 11/7: bere beharra; 11/10: puerko tzarra; 12/1: Hango sukal bazterrak; 12/2: ikustekoak; 12/3: labatzarik baterez; 12/4: falta hauskoak; 12/9: ezkonduz geroztikan; 13/3: karajo eta puñeta; 13/6: burhasoek ttipitik; 13/9: apostu ez dakitela.



*Eusko-Folklore* aldizkarian, XXXV zenbakian, 1923'ko azaroan, 12'garren bertsoa agertzen da, aldaketa auekin: 12/1: Ango sukalzuloak; 12/2: ikustekoak; 12/3: labatzik bat ere ez.

Eta aurretik onako adierazpen au: «*Un voluntario carlista de Oyarzun de la última guerra civil compuso unos versos en que describía una casa de Villafría (Alava) donde se hospedó una noche, y dice que los asientos de la cocina eran tres o cuatro piedras de a quintal».*

Baiña, dakigunez, Ezkerra etzan oiartzuarra eta karlista, irundarra eta liberala baizik; leenengo gerrateko kontua degu au, eta ez bigarrengoa; eta etzan Villafríán ibilli, Ramales, Villaverde eta Balmaseda aldean baizik.



Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bilduman sail ontako amabi bertso agertu dira, eskuz idatzita: 1, 2, 3, 4, 7, 8, 6, 9, 11, 5, 12 eta 13'garrena, orden ortan; 10'garrena falta.

*Poesías populares 1936*, «*Aitita Malutakoren abestiak*» izeneko sortan daude. Jose Maria Arriaga Zuazok irurogei ta amabot urte zituan Markinako Madariaga'tar Josebari jaso omen zizkion.

Aldaketak: 1/1: Nere lagun maiteak; 1/6: ez naiz txit barren sartu; 1/7: falta; 1/9: an bizi baño oba; 2/1: Ramales partetik; 3/6-7: falta; 5/1: Eskatzen bagenduen; 8/3: arek lenotik jakin; 9/4: liñorik gerrian; 11/1: Nolako emaztea; 11/6: salaren zulotik; 13/3: karajo ta koño; 13/9: apostu ez dakitela.

Orretzaz gaiñera, bertsoen ondotik urte bat ageri da: 1839. Emalearen edo biltzaillearen iritziz bertso auek jarri ziran urtea izango da.



Jose Ariztimulo *Aitzol* zanaren bilduman, nork bialdua ez dakigun kuaderno beltz batean, bost bertso agertu dira: 2, 13, 12, 8 eta 9'garrena, orden ortan.

Aldaketak: 2/3: ango jende noblian; 2/5: izanduk gera; 2/6: eskutikan artu eta; 2/7: alojitzera; 2/10: dituen aldera; 8/1: Nere oieko lagun; 8/2: gaitza ikusiya; 8/3: len ere bazekiyen; 8/6: biatza gañera eman; 8/8: falta; 9/1: Egoten bazirade; 9/3: ez dezu ikusiko; 9/4: kilua gerriyan; 9/5: zere biziyan; 9/6: nai senar iduki; 9/7: larrugorrian; 9/9: orra zer emakume; 12/1: Ango sukal baztarrak; 12/3: laratzarikan ez ta; 12/4: falta aspua; 13/3: karajo eta koño; 13/4: solas guzia; 13/5-6-7-9-10: falta.



Gerra denboran Bilbon agertu zan *Eguna* euskal egunkarian, 1937'ko apirilaren 18'an, sail ontako amabi bertso agertu ziran: 1, 2, 3, 4, 7, 8, 6, 9, 11, 5, 12 eta 13'garrena, orden ortan; 10'garrena falta.

Aldaketak: 1/1: Neure lagun maitiak; 1/6-7: ez naiz txit barnean sartu; 3/3: Añez'en artu dituan; 3/5: bat ona ez ta; 3/6: alojamentua bai aiek; 3/7: falta; 4/2: oiaren mantia; 4/6: maindira usaindun bat; 4/9: arekin beteko nian; 4/10: junta-ko eltzia; 5/1: Eskatzen bagenduan; 6/1: Bizkaiko arraia; 7/9: aldamenetik barrez; 9/3: bat ez dezute ikusiko; 9/4: liñorik gerrian; 11/1: Nolako emaztea; 11/3: berez alper nagia; 11/6: saliaren zulotik; 11/7: bere biarra; 12/3: latzik agiri ez; 13/3: karatxo ta k...; 13/6: gurasuak umeta.

Eta ondotik onako adierazpen au:

«Oarra.– Bertso oneik lenagoko gerrate ostean, gerran ibiltako Ezkerra Oiartzundar bertsolari ospetsuak egiñak dira ta Mandiola'tar Joseba, gudate orretan ibillitakoak esanak; bertso oneik esan dauskuzan gizon orrek larogetabat urte daukaz, baiña ederto abesten dauz oraintxe be».

---

(1) Bertso-paperak: *ezda*.

(2) Bertso-paperak: *maitea*.

(3) Bertso-paperak: *onek*.

(4) Lerro au onela dauka bertso-paperak. Bearbada *carajo eta coño* bearko luke.

(5) *Real Academia Española: Diccionario de la lengua española*, 1984.

## «BILBAON EGIN DUTE...»

- 1/ Bilbaon egin dute  
lastozko zubiya,  
andik igarotzeko  
Don Gaspar ordiya.  
*¡Viva la religión!*  
*¡Alerta, centinela,*  
*Carlos V Borbón!*
  
- 2/ Don Pedro Jose Iturriagak  
osasuna badu,  
Esparteron bigoteak  
dantzatuko ditu.  
*¡Viva la religión!...*

Bertso pare au, *Barón de Montevilla* zanaren bilduman arkitu degu.

Don Gaspar ori, Don Gaspar Jauregi jeneralra, *Artzaia* alegia, izango da. Beraren argibideak emanak ditugu. Espartero, dakigunez, liberalen jeneralik aundienetako bat izan zan. Don Pedro Jose Iturriaga, berriz, ez dakigu nor izan zan.

# **BERTSO BERRIYAK EGI GARBIYAK**

## **MUÑAGORRIREN KANTAK I**

- 1/ Muñagorrik diona  
bere proklamian:  
gerrak ondatzen gaitu  
bostgarren urtian;  
igaz jarri zan Karlos  
Madrilko bidian,  
bultza zuten atzera,  
gerra bere oñian.
- 2/ Agintari onenak  
preso daduzkate,  
euskalduna izatia  
du bakoitzak kalte;  
Tejeiro ta Maroto  
guzien alkate,  
zer gizon oietatik  
espera gentzake?
- 3/ Karlos agertu ezkero  
probintzi aubetan,  
beti bizi gerade  
neke ta penetan;  
maiz kendu guk duguna,  
befiere ezer eman,  
bost negar egiteko  
nunbait jaio giñan.

- 4/ Semia soldadu ta  
preso gurasuak,  
eziñ pagaturikan  
kontribuziuak;  
trintxera lanetara  
gañera auzuak,  
dolorezkoak dira  
gaur gure pausuak.
  
- 5/ Kordoiz inguraturik  
kostatik Ebrora,  
trabaz josirik gaude  
bera eta gora;  
atzenikan frantzesak  
itxi du frontera,  
gerrak ez dakar onik  
iñundik iñora.
  
- 6/ Atiak itxi eta  
ogia garesti,  
artua ere ai da  
igotzen poliki;  
diruba ezkutatzen da  
egunero emendi,  
nola bizi geraren  
arritutzen naiz ni.
  
- 7/ Bost urte badijuaz  
ta nekian beti,  
ia bear ditugu  
begiak idiki;  
karlistak Ebroz gora  
motel eta gutxi,  
aien esperantzetan  
ez gaitezen bizi.



Arlaban'go burruka-aldea, 1836-I-16 eta 17.

- 8/ Ainbeste odol ixurtze  
ez da doloria?  
Il da probintzi auetan  
gaztien loria;  
Patria defenditza  
litzake onoria,  
anaia anaien kontra  
txit gauza tristia.
- 9/ Oraiñ sei eun urte  
gutxi gora bera,  
Gaztelako reinura  
unituak gera;  
Gaztelan zein buru dan  
ura guk artzera,  
fueroak gordezkerro,  
egin zan papera.
- 10/ Disputarikan bada  
zeiñentzat korua,  
erabaki bear da  
Gaztelan pleitua;  
errege edo erregiña  
gure deretxua,  
beti gorde digula  
garbiro fuerua.
- 11/ Zertan sartu gerrara  
juez iñorentzat?  
Madrilen da tronuba  
gaztelaubentzat;  
an koronatzen dena  
guztioan burutzat,  
fueroa gordezkerro  
ona da guretzat.

- 12/ Adiskide maiteak,  
ona klaro gauza:  
bakarrikan feroak  
dira gure kausa;  
aiek defenditzeko  
deretxua dauka  
probintziko semiak,  
ori eziñ uka.
  
- 13/ Relijo santuan  
guk elkar arturik,  
ez du gure artean  
izango kalterik;  
len bezela egiñikan  
gure funtzoak,  
elizetan sermoiak  
ta prozesioak.
  
- 14/ Zori onez berentzat,  
gure aurrekoak  
beti gorde zituzten  
leialki fueroak;  
urtero mudaturikan  
diputazioak,  
Juntan ematen ziran  
orduban kontuak.
  
- 15/ Etzan lapur famarik  
diputazioan,  
ez da beste soñurik  
oraingo denboran;  
deitu gabe Juntarik,  
illunpe moduban,  
artu eman garbirik  
ez oi da munduban.

- 16/ Juntak eta apaizak  
elkar artu ezkero,  
noren beldur gera gu  
ez orain ta ez gero?  
Gerrak idiki ditu  
guztioan begiak  
unitzeko, ez bagaude  
burutik jausiak.
- 17/ Legea autsi ezkero  
bizi gera penaz,  
legea osa dezagun  
laster eta benaz;  
pakea etorriko da  
ondoren txit erraz,  
Muñagorrik diona,  
kontentuz ta pozaz.
- 18/ Muñagorri, zu zera, zu,  
zori onekua,  
bandera altxatu dezu  
gure bakekua.  
Potentzi ongilpeak  
emanik besua,  
laister egingo degu  
bake ditxosua.
- 19/ Probintziano gazte  
onorez betiak,  
bandera bakekora  
guazen guziak;  
soldadu, ofiziale,  
orobat jefiak,  
danak izango ditu  
gradu ta agintiak.

- 20/ Potentzi indartsubak  
eman dute itza,  
egiteko bakiak  
prestuak dabiltza;  
probintziak bakean  
daduka bizitza,  
nork ez du bere amaren  
sendatu nai gaitza?

Muñagorriren kantak ditugu onako auek. Jose Antonio Muñagorri, Berastegin jaioa, Tolosako eskribaua zan karlisten leenengo gerratearen denboran. Gerra asperturik, agiri bat zabaldzu zuan –leenengo bertsoak *proklama* esaten dio–, euskaldunen bandera pakea eta fueroak izan bear zutela, eta besterik ezer ere ez.

Muñagorri jaun onen bizitza Antonio María Labayen jaunak idatzia du, *Muñagorri, eskribaua, pakegille ta ferozale* izenburuarekin (Donostia, 1976).

Liburu onek Muñagorriren agiri ori ere badakar, 382 orrialdean. Onela dio:  
«*Navarros y guipuzcoanos*:

*Hace cinco años que la desolación y la muerte pesa sobre nuestra patria. La sangre vertida en nuestros campos es la sangre de nuestros hermanos, de esos valientes que, seducidos y engañados por intrigantes, combaten por un príncipe cuyos derechos a la corona de España son muy dudosos. ¿Qué pedís? ¿Por qué combatís? ¿Por quién? ¡PAZ Y FUEROS! Tal debe de ser nuestro objeto. ¡Si ambiciosos desean el trono, allá se las hayan!*

*La Navarra, las provincias vascongadas, unidas por tantos vínculos de amistad, de sangre, de costumbres, de libertades, son desde ahora independientes. Desde hoy no somos ya los esclavos de esos miserables acostumbrados a mandar como señores y a enriquecerse a expensas de los pobres.*

*¡A las armas! ¡Viva la independencia! ¡Paz! ¡Libertad! ¡Obediencia a las nuevas autoridades! Berástegui, 1838. El comandante general jefe de la independencia. MUÑAGORRI».*

Eskutitz bat ere bialdu zion Don Karlosi:

«*SEÑOR*:

*La felicidad de mi país, la felicidad de España, me han prescrito un deber sagrado. Ambas me impelen a buscar los medios de poner término a la guerra civil, a esta plaga que todo lo destruye sin objeto ninguno y sin escuchar la voz de la clemencia. Treinta mil familias han desaparecido de nuestro suelo, otras cien mil se hallan reducidas a la más horrorosa miseria.*

*Esta desolación, estas desgracias nos han venido por vos. Estos desastres desgarran el corazón de todo buen español. Yo me siento llamado a llenar la importante misión de sustraer a mi país a los horrores de la guerra. ¿Lograré llevar a cabo este noble proyecto? La muerte será la única que pueda oponérseme a ello; pero yo la arrostraré.*

*V. A. R. conocerá fácilmente que le es preciso salir de estas provincias. Vos y vuestros consejeros las habéis convertido en un desierto; habéis sembrado en ellas el luto y hacinado a montones los cadáveres. Abandonadlas, pues, cuanto antes. Si en ellas tenéis amigos que os sigan, enhorabuena. Si tenéis derechos a la corona de España, nosotros no nos opondremos a ello; pero sabed que ésta no es una guerra de personas y que nosotros, navarros y vizcaínos, no hemos reconocido jamás otros reyes que nuestros fueros y nuestros privilegios.*

*¿Vos queréis reinar? Marchad, pues, a las provincias que os puedan reconocer por rey; pelead con auxilio de los hombres que os creen con derecho al trono. Que decida la espada entre vos e Isabel, entre vos y todos los demás pretendientes; pero no contéis más, en adelante, con los esfuerzos de las provincias exentas.*

*Demasiada sangre se ha derramado para alimentar las plantas parásitas que os rodean. Renunciad a la esperanza de sofocar el grito de independencia que ha proferido mi boca; mi voz es la de todos mis compatriotas; mi voluntad es la suya.*

*Nuestros valles y nuestros montes repetirán nuestros juramentos.*

*Abandonad el suelo de Navarra; marchad, señor; nosotros queremos paz; queremos disfrutar de un día de descanso. Llevad a otra parte vuestras máximas de destrucción, pero no olvidéis que la justicia divina castiga a los príncipes como a los hombres más ínfimos de la sociedad.*

*Dios guarde a V. A. R. muchos años.*

*Cuartel general del ejército independiente. En Verástegui, 19 de abril de 1838. Firmado: J. A. de Muñagorri. A S. A, el infante D. Carlos».*

Agiri eta eskutitz auetan esanak bertsoetan jarri arazi zituan, beraz, eta Euskal Errian zabaldu.

Muñagorriren egíñalak alperrikakoak izan ziran. Berak ere azken txarra izan zuan: Elorrio *txapelgorriak* il zuan, gerra bukatu ta gero, 1841'eko urriaren 14'an, Erasungo Zumarrista izeneko lekuaren.



Bertso auek Francisque Michel jaunak argitaratu zituan, bere *Le Pays Basque* liburuan (Paris, 1857). Bertso-paperen batetik izango zituan berak. Gaizki kopiatiak zeudelakoan, zuzenketa batzuk egin ditugu. Michel orrek onela zituan: 3/2: auietan; 6/1: ichil; 7/7: a! aien esperantzetan; 8/3: autan; 8/5: defenditzean; 9/3: Gazteluko; 9/8: paperan; 13/5: cen; 16/3: gare; 17/3: deciagun; 17/4: beraz; 17/6: ondoren; 17/8: eta; 20/5: provinciaco.

Michel'en liburua 1962'an argitaratu zan berriro, Donostian, Aingeru Irigary zanaren ardurapean, frantzesetik gaztelerara itzulita; eta bertso auek ere an agertu ziran.

*Enciclopedia Auñamendi* izenekoak ere (Vol. I, Literatura, Donostia, 1968) argitara eman zituan bertso auek, Michel'en liburutik artuta.



Antonio Maria Labayenek ere argitaratu zituan, bere *Muñagorri, eskribaua, pakegille ta furozale* liburuan (Donostia, 1976), 69 orrialdean. Baiña 385 orrialdean gerra denborako bertso-paperaren *facsímil* bat agertzen du, lenengo sei bertsoekin, eta itz guztiak ez daude berdin. Sei bertso oiek guk *facsímil* orri kopiati dizkiogu. Baiña Labayenek aldaketa auek ditu: 1/2: proklamean; 1/4: boskarren; 1/5: jarririk; 2/3: izatea; 2/5: Tejero; 3/2: auetan; 3/6: beñere ez ezer eman; 4/1: Semeak; 4/2: gurasoak; 4/3: ezin; 4/6: auzoak; 4/8: pausoak; 5/3: trabaz gaude josirk; 6/3: ari da; 6/5: dirua; 6/6: emendik; 6/7: geraden. Dendarik gabe, aldaketa oietako batzuk fonetismoak kentzearren sartuak dira.

Gaizki idatziak zeudelakoan, zuzenketa batzuk egin ditugu sei bertso oie-

tan. Onela daude bertso-paperean: 1/3: Guerra ondatzen gaitu; 1/5: jarrisan; 2/4: bacoitzat; 5/7: Guerra ez dacar onik.

*Facsímil* orrek sei bertso baizik agertzen ez baiditu, ortik aurrerakoak ezin berari kopiatu, eta Michelen liburutik artu ditugu.

## «PAKEA TA FUEROAK...»

### MUÑAGORRIAREN KANTAK II

- 1/ Pakea ta fueroak  
da gure bandera,  
gure anai maiteak,  
atozte onera;  
nafarrak, alabesak,  
giputz, bizkaitarrak,  
atozte guregana,  
gazte eta zarrak.
- 2/ Gerran asi giñiren  
ezala ustean,  
fueroen ordez gaude  
lepotik katean;  
etxeagan gosea ta  
kanpuan paluak,  
ona Karlosek eman  
dizkigun fueroak.
- 3/ Fueroak nai baditu  
Karlosek bakarrik,  
zergatik ez da egin  
oraindik Juntarik?  
Zergatikan Karlosek  
ta onen lagunak  
etsaitzat daukazite  
Junta nai dutenak?

- 4/ Ikusia daukagu,  
ez gera eroak,  
zertarako jaun oiek  
dituzten furooak;  
itzez fueroak eta  
egia makillaz,  
baña gu ez gabiltza  
furo oien billa.
  
- 5/ Euskaldun agintari  
guztien pagua,  
ikusten dan bezela,  
oi da gaztelua;  
gerra egin ondoren  
gure umeakin,  
pagatu nai gaituzte  
ostiko batekin.
  
- 6/ Beltzak eta zuriak  
dira erausiak,  
elkar artu dezagun  
euskaldun guztiak;  
egiten degularik  
bizitza berria,  
defenditu dezagun  
fueñoen erria.
  
- 7/ Pakea ta fueñoen  
bandera zuria,  
ona emen, anaiak,  
beagun guztia;  
Karlosekin or daude  
gerra ta katea,  
emen libertadea,  
poza ta pakea.

- 8/ Altxatzen bagerade  
guztiok batean,  
pakea egiña da  
biaramonean;  
fuerok izan eta  
gerra nai dutenak,  
ez dira gure anai  
eta euskaldunak.
  
- 9/ Laureun milla euskaldun  
guztiok bagera,  
milla baten beldurrez  
gu egongo gera?  
Ez dira milla ere,  
ez, gaur euskaldunak  
beren probetxurako  
gerra nai dutenak.
  
- 10/ Lots andia liteke,  
guk nairik pakea,  
laureun millak millaren  
beldur izatea,  
kentzen dizkigutela  
senarrak, semeak,  
oiekin ipintzeko  
oñetan kateak.
  
- 11/ Gerra egin diegu  
eun milla gizoni,  
ez diogu egingo  
jende kaskar oni?  
Oiek nai dute gerra,  
guk berriz pakea,  
dudarikan gabe da  
pleitoa gurea.

- 12/ Gerran asi bagiñan  
ez ala ustean,  
gerok buka dezagun  
elkarren artean;  
ez degu irteteko  
gure gaitzetatik  
pakearen bandera  
billatzea baizik.
- 13/ Juntak izan dirade  
gure gurasoak,  
oiekin giñan gu len  
zorionekuak;  
oiek defendituko  
dituzte fueroak,  
sendatzeko gerraren  
ondoren gaiztoak.
- 14/ Mundua arritu degu  
gerra egitean,  
arritu bear degu  
orobat pakean;  
gai gera, konpondurik  
elkarren artean,  
bizitza ateratzeko  
arkaitzen gañean.
- 15/ Gerran azkarrak eta  
pakean umillak,  
beti izandu gera  
euskaldun mutillak.  
Eziñ egin dutena  
eun milla gizonek,  
egin oi du gurekin  
alkatetxo batek.

- 16/ Bear ditugu Juntak  
eta alkateak,  
lenengo lege zarrak,  
uso, kostunbreak;  
gure eskuan dago  
oiek izatea,  
ez da baizik guztiok  
oju egitea.
- 17/ Biba, biba pakea  
ta biba fuenoak!  
Biba Muñagorri ta  
au bezelakoak!  
Guazen, billa dezagun  
bandera zuria,  
an arkituko degu  
beagun guztia.

Muñagorriren bigarren kanta auek istoria aldetik argituak ditugu. Naikoa da aurreko saillaren ondotik jarritakoa irakurtzea.



Bertso auek Madrilletik eta fotokopiaz bialdu zizkigun Jose R. de Urquijok, argibide onekin:

«Los versos de Muñaforri los encontré en un informe de la policía carlista, que señalaba el reparto de tales versos».



Antonio Maria Labayenek ere argitaratu zituan, bere *Muñagorri, su exposición a Don Carlos, su Proclama y sus famosas coplas de propaganda*: «Bertso

*Berriak»* idazlanean. Lan au, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País* aldizkarian agertu zan, 1975 urtean.

Berak bertso auek nundik dituan adierazteko, onela dio Labayen jaunak:

*«Hoy tenemos la satisfacción de poder ofrecer a los lectores 17 nuevas estrofas de aquellas coplas que han aparecido en la biblioteca de los herederos del conde Villafuertes y nos han sido facilitadas gracias a la atención de nuestro querido amigo e historiador D. Federico de Zavala a quien expresamos nuestra gratitud. Por no haber sido publicadas hasta la fecha en libro alguno las transcribimos copiadas de la hoja de «Bertso Berriak» en que están impresas y que descubren la factura tipográfica de la Casa Baroja de aquella época».*

Bertsoak eskeiñi ondoren, berriz, onela dio:

*«Estas estrofas, de no muy depurada poesía, son obra de algún vate popular del «Beterri» guipuzcoano que recibió la inspiración de Muñagorri y son, a la manera de las coplas de Mingo Revulgo, una crónica del estado de opinión que reinaba en el País. Muestra del estro poético popular vasco.*

*Cabe que en su composición colaborasen Iztueta y D. A. Pascual Iturriaga, autoridades en la incipiente literatura euskérica del momento.*

*Sabemos que Iturriaga fue gran amigo de Muñagorri y que estaba identificado con su plan...».*

Bere Muñagorri, eskribaua, pakegille ta ferozale liburuan ere agertu zituan Labayenek bertso auek. Gu ez gera Labayen jaunaren iritzikoak. Bertso auek ez dira erri-bertsolari baten lana, gizon eskolatu batena baizik.

# **GIPUZKOARRAK**


## **MUÑAGORRIREN KANTAK**

### **III**

- 1/ Oraintxe sei eun urte,  
gutxi gora bera,  
gipuztarrak joan giñan  
Gaztel aldera;  
artean Nafarroak,  
Gipuzkoak gañera,  
egiñ izandu zuten  
erreíño bat bera;  
orain galdeera  
zoaz egitera:  
zeren billatzera  
gipuztarrak joan giñan  
Gaztel aldera?
  
- 2/ Gaztelako erregek  
zeukan Bitoria  
tropaz inguraturik  
zana guztia;  
gipuztarrak, ikusiz  
galdutzen auzia  
nafarren erregea  
eta nagusia,  
zien Donostia  
ta Ondarrabia  
eta probintzia  
Gaztelako erregeri  
eman guztia.

3/ Baña onetarako  
juramentu egin  
zuen lenaz erregek  
gipuztarrakin:  
aekin bezelaxe  
ondorengoakin  
fueroak goardatzeko  
fede onarekin;  
geroztik orrekin  
egin degu alegin  
Gaztelabarekin  
gu ere izateko  
leial eta fiñ.

4/ Fueroak esan nai du  
gure errieta  
ez zaigula sartuko  
iñor ezertan;  
aita ta seme beti  
gure frontereta  
armatuko gerala  
diraden gerretan;  
gañerakoetan  
guk gure Juntetan  
okasioetan  
aginduko degula  
geren gauzetan.



Zumalakarregi Gasteiz'i erasotzen, 1834-III-16.



Oriamendi'ko burruka-aldia, Gipuzkoan, 1837-III-15 eta 16.

5/ Fuero onen konforme,  
kontribuziorik  
ez degu eman bear  
gure aldetik;  
ez gerran, ez pakean  
ez degu kintarik,  
ez paper sillaturik,  
ez aduanarik;  
baña orregatik  
ez da erregerik  
guk utzi degunik  
eman gabe, danean  
estutasunik.

6/ Baña gure ematea  
borondatezkoa  
izan oi da, danean  
okasioa;  
eta deitzen diogu  
guk donatiboa,  
zergatik onek ez du  
autsitzen fueroa;  
da erregaloa  
beti onelakoa  
erakustekoa  
errege serbitzeko  
degun gogoa.

- 7/ Euskaldunak euskaldun  
geran denboratik,  
ez degu izan beste  
bizi-modurik;  
erregiñak eman nai  
ez du izan itzik  
ez zaigula iñolaz  
kenduko fuerorik;  
guk gure aldetik  
ez degu iñondik  
obligaziorik  
aren obediente  
gelditzekorik.
- 8/ Nola kontratuari  
baitzion faltatu,  
geren buruen jabe  
gera gelditu;  
gero nai izan degu  
Don Karlos billatu,  
eta oni diogu  
juramentu artu:  
fueroak guardatu  
eta anparatu,  
ongi gobernatu  
bear duela eta  
zentzuz portatu.

9/ Baña gaurdaño eman  
dizkigun fueroak  
dira miseria ta  
makillazoak;  
gure itzak ez dira,  
ez, onelakoak,  
eta Karlosen kontra  
jo gaitu gogoak;  
gaur gure asmoak  
dira alakoak  
non gelditzekoak  
libre, baldin nai badu  
gure Jainkoak.

10/ Karlosek jo arazo  
digu guri lurra,  
sinista arazoaz  
beti gezurra;  
baña gezurrik oi du  
zaña txit laburra,  
eta ifiñi digu  
azkenik bildurra  
isteko zintzurra,  
artuaz egurra,  
eta lepezurra  
austeko, joaz ala  
nola zakurra.

11/ Egin bear deguna  
da gaur euskaldunak  
guztiok juntatzea  
gogo degunak;  
ta Muñagorrigana  
bildu al degunak,  
an topatuko dira  
beste aren lagunak;  
dira ezagunak,  
maite ditugunak,  
lenengo egunak  
emango dizkiguten  
nagusi jaunak.

12/ Gizon prestu guziok  
elkar ondo arturik,  
ez degu iñoren zer  
izan beldurrik;  
geren batzarre eta  
Juntetan bildurik,  
ez da ezer egingo  
fuero gabetanik;  
geren jabe egiñik,  
ez da erregiñik,  
ez ere erregerik,  
gu gabe ezer egin  
dezakeenik.

13/ Baña ez dezaguke  
iñoi z ezer egin,  
ez bagera unitzen  
gu elkarrekin;  
beltzak eta zuriak  
Muñagorriarekin  
geldituko gerade  
bandera batekin;  
gero naiz onekin  
edo naiz arekin,  
nai degunarekin,  
geldituko gerade  
gu fueroakin.

14/ Ez da sekulan izan,  
ez, okasiorik,  
orain datorkiguna  
bezelakorik;  
ez bagerade jausi  
guztiok burutik,  
aprobetxatu bear  
degu guk bertatik;  
ez det ikusten nik  
erremediorik  
au ez bada baizik,  
libratzeko erriak  
galtze penatik.

15/ Geldituko gerade  
euskaldun erriak  
soldadurikan gabe  
diran guztiak;  
gu berriz gure jabe  
eta nagusiak,  
utzirikan alde bat  
ditugun auziak;  
euskaldun guztiak,  
morro-i-nagusiak,  
beltz eta zuriak,  
batuko gaitu bizi  
modu berriak.

16/ Nai ditzagula Jaunak  
egun au ekarri,  
barkatzen diogula  
ziñez elkarri;  
ikusi genezake  
egun au guk sarri,  
laztan gogoz emanaz  
batak besteari;  
ez fia iñori  
fuero-kontu ori;  
gure buruari,  
ikusiak ikusi,  
fia gauz ori.

Muñagorriren aldeko kantak ditugu auek ere, eta istoriaren aldetik argitu bearrik ez dute, esateko guziak len esan ditugu eta.

Bertso auek, Gregorio Mujika zanak argitaratu zituan bere *Ernani'ar ospe-tsuak* liburuan, Iturriaga'ren esku-idatzietatik artuta, idatzi oiek berak nun arkitu zituan esaten ez badu ere.

Bertso-paperetan inprintatutu eta zabaltzeko asmoarekin moldatuko zituan Iturriaga'k bertso auek. Baiña ala egin ote zuan ez dakigu, bertso-paper oietakorik bakar bat ere ez degu iñon arkitu eta.

Bertso auek Iturriaga'renak badira, arenak izango dira, dudarik gabe, onen aurreko bi saillak ere. Aita beraren umeak dirala ematen du, gure iritzirako beintzat.

*Auspoo*'ren 71-72 zenbakian argitaratu genituan guk bertso auek; Iturriaga'ren bertso-lan guzien bildumarekin prestatu genituan liburuan, alegia.

## **TXAPELTXURI EUSKALDUN ERNEGATU BATEN AI, AI, AI KANTAK**

- 1/ Amabi bertso berri  
ona, euskaldunak;  
aditu nere miñak,  
gaitz eritasunak;  
ai, ai, ai ikasi  
nola naizen bizi.
  
- 2/ Karlos jaunaren alde  
artu nuben arma,  
negarretan utzirik  
aita eta ama;  
ai, ai, ai gaixoak  
nere gurasoak.
  
- 3/ Laster berritu ziran  
etxeko malkoak,  
aditu utsarekin  
jende fedekoak;  
ai, ai, ai zitalak  
eta giza txarrak.
  
- 4/ Fedea da beltzaren  
odol egarria.  
ondamen, suba, garra  
ta lapurreria;  
ai, ai, ai likitzak,  
leoi katamotzak.

- 5/ Esku batean dute  
Kristo gurutzean,  
odola dariola  
ezpata bestean;  
ai, ai, ai biyetan  
beti odoletan.
- 6/ Txuri ta beltzik bage  
leneko legean  
guztiok bizi giñan  
gloriyan pakean;  
ai, ai ai ez ala  
gaurko egunean.
- 7/ Ez dakit zertarako  
gabiltzan onela:  
españolak itxurtzen  
elkarren odola;  
ai, ai, ai zer pena  
eta itxumena.
- 8/ Zer egiteko degu  
Karlosen gauzetan,  
soldadu ibiltzeko  
bere banderetan?  
Ai, ai, ai neketan  
gau ta egunetan.
- 9/ Aberatsaren kontra  
pobrearen gerra  
denbora guztietañ  
izan da okerra;  
ai, ai, ai zer txarra  
dan damu negarra.

- 10/ Erregek diru gutxi,  
jendea ez asko,  
guztia eskas dauka  
gerra egiteko;  
ai, ai, ai gazteak,  
egin dik gureak.
  
- 11/ Karlosek egin arren  
bere alegiña,  
eziñ garai lezake  
iñoz erregiña;  
ai, ai, ai txuriak  
zer barrengo miña.
  
- 12/ Akabatzera noa,  
agindu det eta,  
orain amabirekin  
gaurko bertsoketa;  
ai, ai, ai barkatu  
nere jarduketa.

Bertso auek bi tokitan azaldu zaizkigu: Bonaparte printzipiaren bilduman eta Gregorio Mujikarenean. Moldiztegi izenik gabeko kanta-paper bat da.

Egillea Donostikoa Jose Bizente Etxagaray degu, Jose Manterolak esaten duanez. Jaun onen itzak aurreko sail baten ondotik arkituko ditu irakurleak. An adierazten danez, sail au 1838 urtekoa da.

Bertso auek len ere argitaratuak ditu *Auspoa Liburutegiak*, bere 35-36 zenbakian, Etxagaray orren liburuan, 166 orrialdean.

*Txapeltxuriak* karlistak ziran. Eta, *ernegatua* baldin bada, lengo bere pentsamoduari uko egin diona bear du.

*Ai, ai, ai kantak* idazteak, gure iritzirako beintzat, *Ai, ai, ai, mutillak* kantaren doinuaz kantatu bear dirala esan naiko du. Soiñu ori asko erabili zan karlisten gerrateen denboran. Baita gero ere.

## NAGUSIYA ETA MORROIA

*Zazpi urteko gerraren iya bukaeran,  
nagusi eta maizter karlistak,  
Oiartzunguak, ondo aspertubak gerraz,  
Burdeosen alkarri esandako itz neurtubak.*

The musical score consists of six staves of music in common time (indicated by '2') and G major (indicated by a 'G'). The lyrics are written below each staff, corresponding to the melody. The lyrics are in Basque and describe historical figures and events.

Fran-tzis-ko, zer da-ka-rrrek ik gu-re e-mi-tik? As-

pal-di-an ez di-at an-go be-ri-rik. Zer-bait ja-kin nai

ni-kek al-der-di ar-ta-tik, a-se-mi-a ni-a-gok ez

dek mi-la-gro-rik; ez di-at e-gu-nik ez e-ta a-

rra-tsik, si-nis-ta na-zak ik pen-tsa-men-tuz e-txe-ra juan ga-

be-ta-nik, pen-tsa-men-tuz e-txe-ra juan ga-be-ta-nik.

*Nagusiyak:*

Frantzisko, zer dakarrek  
ik gure erritik?  
Aspaldian ez diat  
ango berririk.  
Zerbait jakin nai nkek  
alderdi artatik;  
aserria niagok,  
ez dek milagrorik;  
ez diat egunik,  
ez eta arratsik,  
sinista nazak ik,  
pentsamentuz etxera  
juan gabetanik.

*Morroiak:*

Nere nagusi jauna,  
etxeko berriyak  
dira ezin geiago  
negargarriyak.  
Ez ditu sinistuko  
ango pikardiyak,  
arras galdurik daude  
betiko erriyak;  
jende aundimendiyak,  
naiz nekazariyak,  
txiki eta aundiak,  
arras galdurik dauzka(1)  
iya miseriyak.

*Nagusiyak:*

Zori gaiztoz etorri  
zaigun gerratia,  
oroitu bearra duk  
ziñez jendia.  
Au sortu zuenaren  
deabruz betia,  
naiz dala apaiz eta  
igual frailia.  
Fraskutxo neria,  
duk askoz obia  
turkuen legia,  
ez oiek predikatzen  
duten fedia.

*Morroiak:*

Gezurrezko itzakin,  
ez ala ustian,  
txalma para digute,  
jaunak, gañian.  
Jendiak uste zuen,  
aiek aditzian,  
gerra bukatzen zala  
bigaramunian.  
Biyen bitartian  
goseak etxian,  
makilka lanian,  
antxen garabilzkite  
bala tartian.

*Nagusiyak:*

Pagu ori zenduten  
ondo mereziya,  
jende txiak dik, Fraisku,  
kulpa guziya.  
Estimatu bearrian  
maizterrak nagusiya,  
zerontzat nai zenduten  
gure baserriya.  
Jende aundimendiya  
ezin ikusiya  
eta enbidiya;  
orra zuen beltz eta  
zuen zuriya.

*Morroiak:*

Iñola ez genduben  
nai gerrara sartu,  
fuerzan gaituzte, jaunak,  
onetaratu.  
Aiek makillaz jo eta  
beok predikatu,  
modu ontan gaituzte  
sekulako ondatu.  
Jainkuak nai badu  
gaur edo biyar gu  
pakian paratu,  
norbaitek egun gorriya  
ikusiko du.

*Nagusiyak:*

Fuerzan egin dizute  
aiek alegiña,  
jakiñikan norentzat  
zenduten griña.  
Txakurrak gaizki zaunka  
zueri egiña  
duk oraindikan, Fraisku,  
daukazuten miña.  
Baduk erregiña  
zuentzako diña,  
ereman eziña;  
pagatu bear dezute  
tema zikiña.

Doiñu eta bertso auen argitaraldirik zaarrena, guk arkitu ditugunetan, onako au da: *Echeverría y Guimón: Ecos de Vasconia, A. Díaz y Cía Editores, Avenida de la Libertad 3, San Sebastián.*

*Ecos de Vasconia* dalako ori, kanta bilduma eder bat da, eta onako au 28'garren kanta.

Doiñua eta bertsoak egille ez jakiñarenak dirala esaten du: *Música de XXX. Poesía de XXX.*

Etxeberria eta Gimonek, doiñua kanturako eta pianorako jartzen dute. Guk, kanturako bakarrik.



Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian, 66'garren tomoan, 1912 urtean, 560'garren orrialdean, sail ontako sei bertso arkitu ditugu. Irugarrena falta da. Bialtzaillearen firma ere badakar: «Argitaratzagiak, Jose Zapirain eta Irastorza».

Aldaketak: 1/1: Praiskutxo, zer dakarrek; 1/6: alderdi aitatik; 1/13: juan

gabekorik; 2/1: Nere nausi jaunari; 2/10: txiki ta audiak; 2/11: naiz-ta nekazariyak; 2/12: lurrik juan daukazki; 2/13: ain mixeriyak; 4/6: biyen bitartian; 4/9: makilka lanian; 4/11: beti nekepian; 5/10: txiki ta audiya; 5/11: naiz nekazariya; 6/3: indarrian gaituzte; 6/4: jauna, ontaratu; 6/9: gaur edo biyar gu; 6/10: Jainkuak nai badu; 7/1: Indarrian dizute; 7/2: egin alegiña; 7/3: ikusirik norenatzat; 7/7: da oraindikan, Praisku; 7/12: pagatu beazute.



Jose Ariztinmuño *Aitzol* zanaren bilduman ere agertu dira bertso auek, azalean *Miscelánea* dion kuaderno batean. Baiña *Ecos de Vasconia* kanta-bilduman bezelaxe, ezeren aldaketarik gabe. Andik kopiatuak izango dira, ziur aski.



Antonio Maria Labayenek ere agertu zituan bertso auek bere *Muñagorri, eskribaua, pakegille, fuerozale* liburuan (Donostia, 1976); baiña beste orden ontan: 1, 2, 3, 6, 7, 4 eta 5'garrena. Aldaketak: fonetismo asko kendu eta beste onako auek: 2/9: aundimandiak; 2/11: audi ta txikiak; 2/13: ea miseriak; 3/3: dek; 3/9: Praixkutxo; 4/3: txalma jarri digute; 4/11: makilla lanean; 4/13: balaartean; 5/3: Praixku; 5/9: aundimandia; 5/12: orra zuen beltza ta; 5/13: txuria; 6/1: Iñolaz ez genduan; 6/3: jauna; 6/4: gu ortaratu; 6/5: aiek makillaz jota; 6/12: norbaitek egun-gorri; 7/5: zakurrak; 7/7: Praixku.

---

(1) *Ecos de Vasconia*'n: dauka.

## **PAKEA POZKARRIAREN ATSEGIN LELOAK ZORTZIKOAN**

- 1/ Ai au egun gozoa,  
jakin bage nondi,  
ustez ustekabean  
zaiku gaur etorri!  
Begiratu ezkero  
amodioz oni,  
pozkidatu gaitezke  
eusklaldunak ongi.
  
- 2/ Gerra luze gaiztoak  
nekaturik lazki,  
sei urteren buruan  
egon gera gaizki,  
igarotzen degula  
naigaberik aski;  
Euskal Erriak ondo  
gogoan daukazki.
  
- 3/ Pozkidatu diteke  
España guzia,  
gerrak Euskal Errian  
laga du bizia;  
arras beti-betiko  
berari utzia,  
ez dago damuturik  
gure probintzia.

- 4/ Atsegíñetan dago  
euskaldun jendea,  
iritsi duelako  
zorion betea;  
lokarri gaiztoa da  
gerraren katea,  
guztia urraturik  
egin da pakea.
  
- 5/ Bergarako erri on  
txit maitagarria,  
sekulan izango da  
gogoangarria;  
jaiotzatik dalako  
euskaldun garbia,  
emen egin da pake  
gozatsu andia.
  
- 6/ Euskaldun prestu, leial,  
beldurrik bageak  
badakite gordetzen  
leneko legeak;  
beren guraso onak  
antziña pareak,  
baita maitatzen ere  
euren erregeak.
  
- 7/ Ematen duen itza  
zintzo ta leialki,  
euskaldun onraduak  
gordetzen badaki;  
ez da zer dudarikan  
onetan iduki,  
ala ekusi baita  
orain eta beti.



Baldomero Fernández de Espartero jenerala, (1793-1879)


- 8/ Mundu osoak dauka  
iskribuz jarria,  
euskaldunen odola  
dala txit garbia;  
lan-bide guztietañ  
prestu ta argia,  
guretzako arras da  
au ditxa andia.
  
- 9/ Jostaldia gaitezen  
Bergaran festetan,  
onelakorik ez da  
egingo bestetan;  
euli gisara gerra  
ito da esnetan,  
ez du inork zer jarri  
geiago kezketan.
  
- 10/ Bizi bedi pakea,  
gozo, atsegina,  
Bergarako errian  
irmoki egiña;  
izan ta izango da  
euskaldunen griña,  
gogoz maitatutzeko  
beren erregina.

Bertso auek bi tokitan agertu dira: bata, Azkue zanaren paperetan, Jose Antonio Arana adiskideak billatu eta fotokopiaz bialduta. Moldiztegi izenik gabeko paper bat da.

Bestea, *Barón de Montevilla* zanaren bilduman, eskuz idatzita. Berak nundik zituan, bertsoen aurretik adierazten du:

«*Proporcionados por mi pariente y condiscípulo Joaquín Yrizar, de Vergara, que los copió de un impresó existente en su archivo».*

Alkarren artean aldaketarik ez dute bi iturri auek.



Inglesak Iruni erasotzen, 1837-V-16.

Egillea nor dan ez dute bertsoak esaten, eta ori somatzeko biderik ere ez degu ikusten. Auxe bakarrik esan genezake: liberaletakoa dala eta gizon eskolaturen bat, bearbada.

Bertsoen gaia, «Bergarako Besarkada» deritzana da. Espartero eta Maroto jeneralak alkar artu eta prestatu zutena. Antxe bukatu zan Euskal Errian lenengo karlista gerratea, 1839'ko abuztuaren 31'ean. Baiña beste urtebete jarraitu zuan Kataluña, Valentzia eta Aragoi aldean.

## **A LA PAZ EUSKALDUNAK**


- 1/ *Vascongados, albricias,  
erritar maiteak,  
al encantador eco:  
pakeak, pakeak.  
Con cantos armoniosos  
gaur, adiskideak,  
anunciamos gozosos  
berri on gureak.*
  
- 2/ *El día treinta y uno  
aboztu illean,  
Espartero y Maroto,  
anai on legean,  
se abrazan con ternura  
Bergaran kalean,  
dejándonos unidos  
betiko pakean.*
  
- 3/ *Estos dos generales  
elkarganaturik,  
de la vertida sangre  
daude damuturik;  
la España, la Europa,  
guztiz arriturik,  
admiran el prodigo  
ezin sinisturik.*

4/ *Obra maravillosa*  
Bergaran egiña,  
*el tratado más sabio,*  
oberik eziña;  
*desenlace felice*  
esan ez adiña,  
*alabanza ninguna*  
ez da zure diña.

5/ *A la voz prodigiosa:*  
«Etxera, mutillak!»,  
añaden: «*No más guerra;*  
sobra dira illak».  
*Abandonan a Carlos*  
millak eta millak,  
*y contentos entregan*  
Bergaran fusillak.

6/ *Después de mortal lucha,*  
seigarren urtean,  
*el iris de paz nace*  
euskaldun lurrean;  
*nos deja placenteros*  
pozez ta pakean,  
*hermanados alegres*  
zori on gurean.

7/ *Sin más enemistades*  
gera euskaldunak  
*una misma familia,*  
guztiok lagunak;  
*con sinceras promesas*  
adiskide onak,  
*olvidando por siempre*  
gaitz etsaitasunak.



Bergara'ko besarkada, 1839-VIII-31.

- 8/ *El absoluto Carlos,*  
beingoan lur joa,  
*perseguido de cerca*  
igesi dijoa;  
*por veredas y breñas*  
galdu, nekosoa,  
*entra por fin en Francia*  
ez guztiz jasoa.
- 9/ *Ahora quedan solas*  
iru probintzia:  
*Aragón, Cataluña*  
eta Valencia,  
*en las que reconocen*  
dala geiegia  
*durante seis años*  
odol isuria.
- 10/ *A ellas se dirige*  
jeneral gurea,  
*Duque de la Victoria,*  
parerik gabea,  
*invencible, activo,*  
garaitzen nekea,  
*con aguerridas huestes,*  
eman naiz pakea.
- 11/ *Todos anhelan, piden*  
lasterka pakea,  
*españoles, se acerca*  
zori on gurea,  
*el venturoso día*  
doaiez betea,  
*el felice momento*  
ona baña obea.

12/ *La constitución viva*  
Españiakoa,  
*viva Isabel segunda*  
biotz gurekoa,  
*con María Cristina*  
Ama egiazkoa,  
*y la paz para todos*  
zori onekoia.

Bergarako besarkada ondoko bertsoak ditugu auek ere. Len esan bezela, 1839'ko abuztuaren 31'ekoa degu tratu ori, Espartero eta Maroto jeneralak gauzak aurretik bideratuta.

Bertsoak, Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren eskutik jaso genituan, fotokopia batez. *San Sebastian, imprenta de Baroja*'n argitara emandako kanta-paper bat da.

Egillea nor dan ez du paperak esaten. Baiña Donostiko Jose Manterolak bere *Cancionero Vasco*'n diona, berriro onera aldatuko degu:

«*Echagaray, que profesaba ideas liberales, ha dejado entre sus canciones políticas sus Chapel-churi euscaldun baten Ay, ay, ay, cantac, (escritas en 1838); su Carlos Bostagarren errengue deitzendanari Euscaldunak zortzicoa (1838), y una composición en vascuence y castellano A la paz, escrita en 1839, todas las cuales fueron impresas sin nombre de autor».*

Bera degu, beraz, bertso auen egillea. Donostiko Jose Bizente Etxagaray ori oso bertso-jartzaille ugaria izan zan. Beraren bertsoak *Auspoa Liburutegia*-ren 35-36 zenbakian agertu genituan, 1964 urtean. Onako au ez, ordea, artean eskuratu gabe genduan eta.

Bergarako besarkada orren bidez Euskal-Errian pakea eginda, Aragoi, Kataluña eta Balentzia aldera eraman zituzten liberalak beren soldadu-taldeak, *Duque de la Victoria* izendatua zan Espartero jenerala buru zutela. Gorabeira oien aitamenak amargarren eta amaikagarren bertsoak egiten dituzte.

## **BERTSO BERRIAK UNIOAREN GANEAN**

- 1/ Neguba juan eta  
uda berritzera,  
kanta berri batzuek  
noa jarritzera,  
eman al banezake  
zerbait aditzera;  
prokuratzen degula  
elkar serbitzera,  
errezelorik gabe  
guazen unitzera.
  
- 2/ Errezeloz betiak  
oraiñ Españian  
uste det badirala  
juan dan aspaldian,  
duenderen bat dalako  
agertu nayian;  
ez beldurrikan izan  
gauz orren gañian,  
jardun kuidado gabe  
zeiñ bere lanian.

- 3/ Beti kontrario du  
gezurrak egiya,  
ez da egun goizian  
disputan jarriya;  
askotan gelditu da  
korde gabe illa;  
lengo sustraietatik  
arturikan giya,  
beti presentatzen da  
okasio billa.
- 4/ Usu ematen ditu  
atake fuertiak,  
artarako daduzka  
bere ajentiak:  
txit disimulatubak,  
ustez prudentiak,  
soberbia buruban,  
ez inozentiak,  
malizia kolkuau,  
deabruz betiak.
- 5/ Onela daramaizki  
urte ta mendiak,  
endreratzalle oekin  
nasturik jendiak;  
ederrenaz gañera  
gaiztuak gordiak,  
moneda faltsoakin  
iduri urriak  
zori gaiztoko metal  
prezio gabiak.



- 6/ O, euskaldun leialak,  
bizi kontuz, erne,  
moneda faltsoakin  
deskuidatu gabe;  
eskamenturik asko  
ekusiak gaude;  
asko okasiyotan  
egiten oi dute  
berak arriya tira,  
naiz eskuba gorde.
- 7/ Okasiorik gabe  
libra al baledi,  
ez beti begiratu  
nork bere naiari;  
artu baño lenago  
pasio geiegi,  
gure argi-bidea  
eskatu Jaunari,  
Berak dakialako  
zer zaigun konbeni.
- 8/ Emen ez da topatzen  
dakiyenikanen  
Aren probidentziyak  
zertarako diren;  
eziñ esango degu  
gauza txarrikanen  
iñoz egin duala  
bat bakarrikanen;  
konfiantza orretan  
jakiñian gauden.

- 9/ Oraiñ ere badira  
esperientziak:  
ura firme zeguen,  
gu geunden antziyak:  
nola ibilli geran  
español guziyak,  
zarrak eta gaztiak,  
andi ta txikiyak,  
iduri gendubela  
burutik jausiyak.
- 10/ Emen ibilli gera  
danak okerturik,  
odolgiro gaiztoak  
eziñ asperturik;  
elkar eziñ illikan  
neketan lerturik,  
bizio gaizto ontan  
arras itsuturik,  
kontu ez gendubela  
bestetan gustorik.
- 11/ Gure gaiztakeriyak  
dirala medio,  
etsaiari askotan  
lajatu oi dio;  
sendagai suabiak  
etzuten balio,  
samiña ta garratza  
aplikatu dio,  
Aren botikan bada  
milla erremedio.

- 12/ Gaitz gogorra sartu zan  
egunen batian,  
erraz sendatutzeko  
au gure artian;  
desditxa triste ontan  
ainbeste urtian  
nola egondu geran  
guzien kaltian,  
eskamentuben bistan  
kontura gaitian.
- 13/ Rekaida gaiztorik  
izango ez bagendu,  
gaitz otik libratzia  
esperatzen degu;  
kalentura bajatuz  
onera eman du,  
askok esango dute  
bazubela ordu,  
kunplitzen den plazua  
etzaigu berandu.
- 14/ Gelditzen geralarik  
oraingotik libre,  
artu propositua  
irauteko firme,  
bengantzak lajatubaz  
asperkunde gabe,  
Jaun onari eskerrak  
emanik alere,  
bestela gure lanak  
alferrikan dire.

15/ Pasatubak pasatu,  
lenguak antzirik,  
ez, ez geiago berriz  
gurekin auzirik;  
bizio galgarriak  
betiko utzirik,  
pakian ta unioan  
birtutez jantzirik,  
ez da mundu onetan  
alako gauzarik.

Bertso auek Bonaparte printzipearen bildumatik ditugu, moldiztegi izenik ez duan kanta-paper batetik.

Izenburuak dionez, batasun-zale batek jarriak dira. Noiz, ordea? Gure iritzirako, karlisten lenengo gerra bukatu berrian.

# **GERRA ONDOKO BERTSOAK**

## **(1839-1848)**

## **ISABEL BIGARRENARI TOLOSAKO ERRIYAK**

1/ Ai, au egun jostati,  
gozatsu, andia!  
Tolosarako guztiz  
atseginingarria.  
Pozkidatutzen da txit  
bertako erria,  
erregiñai egiten  
ongi etorria.

2/ Tolosako erriak  
zintzo ta leialki  
erregeak maitatzen  
antziñatik daki.  
Isabeli nai diyo  
biotz-biotzetik,  
Kristinari orobat,  
Luisari gañetik.

3/ Jakiñaren gañean  
egon bitez garbi  
beronak geradela  
len, orañ ta beti;  
Tolosako erria  
jarten da bertati  
ama ta aizpa maite  
bien serbitzari.

4/ Isabel bigarrena  
gure erregiña,  
guztiz da maitatia,  
leiala ta piña;  
gazte-gaztetanik du  
jatorrizko griña  
sendatutzeko arras(1)  
euskaldunen miña.

Lau bertso auek, Donostiko Jose Manterola zanaren bilduman arkitu ditugu. Eskuz idatzita daude.

Isabel II erregiña, bere ama ta aizparekin, Euskal-Errira etorri zan 1845'eko udaran, eta Tolosako erriak ongi etorria ematen die bertso auen bidez.

Aien etorreraz onela dio Pirala'k(2):

*«El 21 de Julio salió al fin la reina de Barcelona en medio de la indiferencia del pueblo y del disgusto de las corporaciones populares que, aunque adictas a S. M., recibieron algún desaire, no a ella atribuído. Pernocó en Cervera, el 22 en Fraga, el 23 en Zaragoza, donde resolvió la reina trasladarse a Pamplona, marchando el 29 a Tudela, por el canal, en el que estuvo a punto de lamentarse algunas desgracias, por volcar el barco en que iban el presidente del consejo, el ministro de Estado, altos empleados de palacio y otros personajes; se acudió inmediatamente en su auxilio, recibió la reina en su embarcación a los naufragos, y continuó tranquila la navegación hasta la ciudad donde la grande obra de Pignatelli tiene su origen; a las dos de la madrugada del 1(3) llegó a Pamplona, y a la misma hora del 1.<sup>o</sup> de Agosto a San Sebastián, habiendo pasado antes por Tolosa, donde fue muy festejada, aunque no se detuvo el tiempo suficiente para que se efectuaran las danzas dispuestas y se quemaran los fuegos artificiales preparados. De estos y otros festejos disfrutó en San Sebastián, a la vez que de los baños de mar, y efectuó encantadoras excursiones por todos aquellos pintorescos alrededores, sin escolta ni otro acompañamiento que algún diputado de provincia o el liberal alcalde de la ciudad don Angel G. de Alcain».*

Andik amabost egunera berriz etorri ziran Tolosara, aldi artan patxara geiago artuz. Ona zer dion Gorosabel'ek(4):

*«Doña Isabel II, con su madre y hermana, al paso para San Sebastián, hizo*



Azoka eguna Euskalerrian.

*en el palacio de Idiáquez una corta mansión el 1.<sup>o</sup> de agosto de 1845 a la noche; y las mismas señoritas de regreso pasaron por esta villa el 16, deteniéndose a ver una comparsa de jóvenes de ambos sexos. Entraron nuevamente en Tolosa el 2 de setiembre, cuya noche pasaron en esta villa; y prosiguieron a Pamplona el 3».*

Sei urte bakarrik ziran, pakea egin zala. Gerra denboran, Euskal-Errigiena erregiñaren aurka jarduna zan. Ala ere, erri guzietan arrera ona egin zioten. Arriturik zeuden ori ikusten zutenak. Onela dio Pirala'k(5):

*«Quedando en la capital de Guipúzcoa doña Luisa Fernanda, fué el 16 la reina con su augusta madre a Mondragón; y después de tomar los baños de Santa Agueda, visitó los pueblos inmediatos, vitoreándola lo mismo en Vergara que en Oñate, la predilecta corte de don Carlos, tan vitoreado también por los mismos que a la sazón aclamaban a Isabel II, y la ofrecía el anciano casero los hijos que hacía cinco años dejaran las armas con que la habían combatido, y contaba disminuída la prole por los otros hijos que defendiendo a don Carlos sucumbieron. Reunida toda la familia, marchó la corte a Bilbao el 28, atravesando en medio de generales aclamaciones un país que tanto se distinguió por su fervoroso carlismo. ¿Qué principios políticos formaban la convicción de aquellas gentes? No se trataba entonces de ninguna cuestión foral, porque Narvaez hizo que se quitara en el programa de las fiestas ejecutadas en Mondragón el viva a los fueros que se consignaba con más intención que patriotismo; es verdad que se creó mucho entusiasmo oficial por las diputaciones y autoridades locales, pero también se vio que hubo entusiasmo en algunos pueblos, y le demostraron esas clases que se entregan más a la expansión de sus sentimientos que a la obediencia de un precepto, aun cuando éste sea grato y conocido el carácter sumiso del vascongado. Elorrio, Elgueta, Durango, todos los pueblos importantes del tránsito, no sólo adornaron espléndidamente el camino que siguió la reina, y la recibieron con toda clase de festejos, sino que la vitorearon, y vitoreada fué hasta Bilbao, la invicta villa que así sabe ser heroica como obsequiosa. En ninguna parte tan ostentosos y delicados festejos, en ninguna vio la reina el entusiasmo que en aquel pueblo de héroes, a los que en gran parte debía la corona. Hacía bien en visitar a Bilbao, y bien sabían y saben los bilbaínos cómo se obsequia a sus huéspedes; con orgullo podían decir, como escribieron en un arco:*

*Bilbao la frente a su señora inclina  
que al temor no humilló de su ruina.*

*Dejó la reina el 1.<sup>º</sup> de Setiembre las orillas del Nervión, y desde Eibar a Azcoitia viajó de noche por entre montes y cañadas, que es por donde van los caminos, y durmió en aquella villa; el 2 en la de Tolosa y el 3 en la capital de Navarra, a donde la llevaba la política, no la salud.*

*...La reina dejó el 9 a Pamplona, estuvo dos días en Vitoria, fué el 11 a Burgos y el 13 durmió en Madrid, pudiendo estar satisfecha de los obsequios que había recibido y de la salud que ganara».*

Are geiago arrituko ziran noski, andik urteetara karlistak berriro altxatuko zirala norbaitek esan balie.



Erderaz ere prestatu zituan bertsoak Tolosako erriak. Azpeitiko Jose Maria Garmendiaren orri batetik ditugu:

*MARCHA  
QUE CANTARA LA COMPARSA  
DE ESTA VILLA DE TOLOSA  
EN EL RECIBIMIENTO  
DE SS. MM. Y A.*

*Llenos de gozo los guipuzcoanos  
con tu presencia, Reina Isabel,  
a bendecirte corren ufanos,  
late al mirarte su pecho fiel.  
Todos se agrupan con noble celo,  
todos se apiñan en un tropel;  
de veros, Reina, tal es su anhelo  
que casi invaden el real dosel.*

*Cual apacibles son las montañas  
son estas gentes francas, de bien;  
y si guerreras cuentan hazañas,  
la paz no tiene mejor sostén.  
Su gloria cifran en ser leales,  
de agradecidas precian también;  
con sentimientos tan liberales,  
hoy ¿qué no hicieran por Isabel?*

*Ninfas del Oria, llegad ligeras,  
venid esbeltas con el placer  
de ser las ninfas bascas primeras  
que a vuestra reina conseguís ver.  
Vedla con formas todas preciosas  
muchas bellezas oscurecer;  
sus afecciones bellas, grandiosas,  
aún la realzan más que su tez.*

*Oh Reina ilustre, cándida, pura,  
angel del cielo, de Iberia prez,  
cautiva a todos vuestra dulzura,  
todos os miran con interés.  
En el afecto del pueblo basco  
reinad mil años, bella Isabel;  
será invariable cual un peñasco,  
puesto que os jura sincera fe.*

- 
- (1) Esku-idatzian: *sendatzeko*. Neurria osatzearen, *sendatutzeko* idatzi degu.
  - (2) Antonio Pirala: *Anales de la guerra civil, 1906, tomo I.*
  - (3) Bearbada, «31» esan beariko luke emen.
  - (4) Pablo Gorosabel: *Diccionario histórico geográfico descriptivo de Guipúzcoa, Tolosa itza adieraztean.*
  - (5) Pirala: toki beretik.

## **ONGI MEREZI DUEN ERREGIÑARI GIPUZKOATAR BATEK**

- 1/ Isabel bigarrena  
pobrearen ama,  
maitagarria zera  
gure Soberana;  
billatzen dezuna da  
erriaren ona,  
deseatzen dizugu  
luze osasuna.
  
- 2/ Zure gauzak saltzeko  
errien fabore,  
kontribuzioetan  
asko kendu gabe,  
Isabel, zera biotz  
audiaren jabe,  
nola paga gintzake  
ainbeste mesede?
  
- 3/ Nork ikusi du inoiz  
onelakorikan  
egiten Erregeak  
puebloagatikan?  
Etzera aterako  
biotz guretikan,  
ez orain da ez gero  
ezerengatikan.

- 4/ Iristen bazerade  
noizenbat premian,  
laguntza esperatu  
gure probintzian;  
onari on egiten  
al duten guztian  
dakite, eta gogoz,  
euskaldun errian.
  
- 5/ Biba Isabel eta  
gure España!  
Biba erdaldunekiñ  
euskaldun guztia!  
Ematen dizkitzugu  
milloi bat grazia,  
zu ondo izateen  
badago premia.

Bertso auek, eskuz idatzitako orri batean arkitu ditugu, Donostiko Jose Manterola zanaren bilduman.

Bertsoen azpian, firma bezela, bi letra agertzen dira: «F. A.». Bertso-jartzaillearen izen-abizenen asierako letrak izango dira. Baiña nor izan diteken ez degu somatu aal izan.

Bertso auetan asko goratzen da Isabel II erregiña. Zer edo zer egin du erriaren alde. Kontribuzioak jetxi edo olako zerbait. Argibiderik arkituko ote genduan, kondaira liburueta azterka jardunak gera. Baiña alperrik gure saioa. Gu baiño abillagoa bearko da ori argitzeko. Edozein moduz, aurreko sailla eta onako au garai beretsuan jarriak izango diralakoan, alkarren segidan eskeintzen dizkiogu irakurleari.

## **JOAKIN JULIAN ALZAA (1808-1848)**

- 1/ Eguna luzea eta  
denbora ezin pasa,  
bi bertso paratzea  
noa al baneza;  
deklaratu nai nuke  
bereala kausa,  
erdiak tira bagez  
galdu dedin baza.
  
- 2/ Ogei ta amazazpi  
giñaden guztiak,  
fundamentuko armarik  
ez gendun erdiak;  
beltzak enboskaturik  
txit ondo jarriak,  
gu allegatzerako  
arturik neurriak.
  
- 3/ Guk arma gutxi eta  
munizio faltan,  
beltzak ongi zekiten  
gu nola gebiltzan;  
bestetik espia bat  
aietara juan zan,  
esanaz egoteko  
geldirikan bertan.

- 4/ Arrondo eta beste sei  
giñaden aurretik,  
bañan utzi ziguten  
pasatzen erditik;  
jakiñik jeneralra  
zotorrela atzetik,  
printzipala nai zuten  
arrapatu beti.
  
- 5/ Arrondok ez bazuan  
tiroa tiratu,  
guztiok enboskadan  
nai ginduzten artu;  
ala ere sobre giñan  
aurreratxo sartu,  
ez bagiñan aldapan  
pixka bat gelditu.
  
- 6/ Beltzak korneta joaz  
korrika gugana,  
zeladoreak ziran  
agertu aurrena;  
zibillak bidez-bide  
zetozen urrena,  
erretiratu giñan  
mendiak barrena.
  
- 7/ Beltzak korneta joez  
tiroa tiratzen,  
akordatu ziraden  
jeneralra nor zen;  
ikusi zutenean  
bi gizonek eltzen,  
bereala an ziran  
oni persegitzen.



Joakin Julian Alzaa jeneralra, (1808-1848).

- 8/ Legar egiña zan ta  
ezin zan mugitu,  
besoz zeramatenak  
ziraden nekatu;  
beste erremediorik  
iñola ezin sortu,  
orrela nola diguten(1)  
guri aita artu.
  
- 9/ Izugarrizko golpe  
onen ondorendik,  
dispersatu giñaden  
nor bere aldetik;  
beltzak amorratutzen  
galdezka gugaitik,  
Frantzira sartu giñan  
Berako mugatik.
  
- 10/ Aita bat galdu eta  
bestearen galdez,  
ez giñan Frantziara  
allegatu errezz;  
Elioren esperantzan  
onegatik pozez,  
errezibitu gaitu  
biotz eta amorez.
  
- 11/ Ez gerala galduak  
esperantza eman du,  
gizon piña da eta  
ala egingo du;  
pruebarikan asko  
lenago ere eman du,  
onen mendean pozez  
biziko gera gu.

- 12/ Orra amabi bertso  
Frantzian jarriak,  
ez daude ongi bañan  
dirade egiak;  
emendikan aurrera  
zabaldu begiak,  
obetogo artutzeko  
nork bere neurriak.



Bertso auek, Aita Jose Inazio Arana zanaren bildumatik ditugu. Eskuz idatzita daude, izenburu luze onekin: »Aralarko Baiarraten Alzaa arrapatu zutenekoa, Santa Isabel, Garillaren 2'an, eta urrengoa». Besterik gabe, bertsoen gaia zer dan esanik dago.

Karlisten leenengo gerratea 1839'an bukatu zan Euskal-Errian. Andik sei urtera, 1845'eko maiatzaren 18'an, Karlos bostgarrenak bere errege eskubideak semeari pasa zizkion, Karlos seigarrenari alegia. Onek *Conde de Montemolín* izena erabiltzen zuan.

Urrengo urtean, 1846'ko iraillean, katalan karlistak mendira irten eta iru urte iraungo zituan gerra berri batia asiera eman zioten. *Guerra de los matiners* izenez ezagutzen da kondaira liburueta. Cabrera etorritakoan, indar aundia artu zuan Kataluña aldean. Oso txikia, ordea, gaiñontzeko lurrardeetan.

Orregatik, karlistenak iru gerra izan ziran Kataluña; bi, ordea, Euskal-Errian eta besteetan ere. Ori dala-ta, naaspil puska bat sortzen da zenbait aldiz, gerra oiek kontatzen asita.

Karlistak, noski, gogo aundia zuten gerra ori Euskal-Errira ere zabaldu zedin. Orretarako, Joakin Elio jenerala izendatu zuten emengo karlisten buru. Baiña etzuan mugarik igaro. Jaun orren aitamena, amargarren bertsoak egiten du.

Alzaa jeneralak, berriz, 1848'ko garagarrillean mugaz ego aldera pasa eta egiñal guziak egin zituan. Alperrik, ordea.

Alzaa jeneralaren ekiñaldia ez da, beraz, leenengo gerra denborakoa. Au,

dakigunez, 1833'an asi eta 1839'an bukatu baitzan Euskal-Errian. Emengo bigarrengoaren denborakoa ere ez, ordea; au 1872'an asi eta 1876'an amaitu baitzan. Bien bitartekoa da. Baiña nunbait ere jarri bear; eta leenengoari geiago urbiltzen baitzaio, eta Alzaa ere leenengo ortan ibilia baitzan, berari erantsi dizkiogu bertso auek.



Antonio Pirala kondaira idazleak zearazki kontatzen du Alzaaren ekiñaldia nola izan zan, bere *Anales de la guerra civil* (Madrid, 1906) liburuan:

«...don Joaquín Julián de Alzáa, hijo de una de las primeras familias del país. doctor en ambos derechos, habiendo ejercido la abogacía en Oñate, de donde era natural, hasta 1833, en que se lanzó a defender a don Carlos... Contando ahora unos 40 años, alto, derecho, de noble figura y continente, de carácter dulce y fino trato, protector del desvalido y humano con todos, era de los jefes más simpáticos para sus soldados y de los más amados del pueblo. Vencida su resistencia a encargarse de la misión de levantar en armas la provincia de Guipúzcoa, entró al fin en Navarra el 23 de Junio, y de acuerdo con sus amigos, y experimentando algunos desengaños, formó el proyecto de apoderarse de Tolosa y de sus autoridades por un golpe de mano, el 27, en que se celebraba un gran partido de pelota; formóse también el plan de reunir cerca de Placencia en la misma noche del 27 un gran número de hombres para ocupar al amanecer del siguiente día la fábrica de armas y sus caudales, siendo el tercero de los proyectos tomar por sorpresa el castillo de Santa Bárbara de Hernani, para cuya operación se contaba con el oficial que mandaba la tropa del fuerte. Buenos eran los proyectos; pero no era tan buena la discreción de sus autores o cooperadores que no llegaran a traslucirlos las autoridades, las que no queriendo alarma al país, en vez de suspender el partido de pelota, situaron una compañía de granaderos en Irura, a un cuarto de legua de Tolosa; se reunieron en el cuartel las dos compañías de la guarnición, se pusieron miguelletes en el palacio de la diputación y tesorería, se trasladó el resto de esta fuerza al juego de pelota y se impidió la ejecución del plan, haciéndose crítica la situación de Alzáa, oculto en las inmediaciones de la villa.

Sin base alguna, Alzáa aún confió en que se le unieran los que con él habían peleado siete años. Urbiztongo, que era la autoridad militar en las Provincias, no

*podía ver en Alzáa a su anterior compañero, correligionario y amigo, sino al contrario, que venía a perturbar el distrito de su mando y a encender de nuevo la guerra civil que tan desengañado tenía al que era también su paisano, y destacó al punto fuerzas en su persecución... imprimióse gran movilidad a las columnas, se fusiló a un prisionero que se hizo, y a los dos días se presentaron muchos a indulto...*

*Perseguían a la pequeña partida que guiaban Alzáa y Arrondo una columna procedente de San Sebastián a las órdenes del brigadier Zapatero, y ya que el montemolinista no podía hacer frente a tan superiores fuerzas, supo esquivar su encuentro y mostrar más estrategia que su perseguidor, ganar el monte Aralar y correrse hacia Navarra, donde se le prometió ayuda; pero perseguido por el experto coronel Damato, que desde Ataun se puso en comunicación con las fuerzas de Navarra, obligáronle éstas a regresar a Guipúzcoa y al monte Aralar; mostróse Damato infatigable, efectuando muy acertadas marchas nocturnas, bajó a Lezcano para subir en seguida por las vertientes de Zaldivia y Amezqueta hacia la cumbre del Aralar, convocando a este punto a la Guardia civil, y Alzáa, que huyendo de la columna Echarri bajaba para Zaldivia, observó el movimiento de Damato, e informado de que no había fuerzas en Ataun, retrocedió en esta dirección, y se encontró con la Guardia civil y migueletes. Fatigado y sin poder andar, no pudo eludir la persecución; le apresó un miguelete en la tarde del 2 de Julio, y llevado a Zaldivia, fue fusilado a las ocho de la mañana del 3. Todo el país vascongado sintió su muerte, por las excelentes cualidades que le distinguían; pero las simpatías hacia su persona no eran bastantes para lanzar a la guerra a los que hacía nueve años acababan de dejar las armas, más desengañados que satisfechos. Y no era porque no pensasen lo mismo que Alzáa; el clero seguía alimentando el espíritu carlista, mas no estaba aún gravemente excitado el ardor belicoso del pueblo; se carecía de armas y se necesitaba algún tiempo y un núcleo de fuerzas que sirviera de base para el alzamiento de la juventud, más dispuesta que los veteranos de la anterior guerra. Así lo comprendió Urbiztundo, que conocía a sus paisanos y antiguos correligionarios y se mostró tan activo y acertado que ahogó en su cuna esta incipiente insurrección, que amenazaba con una nueva guerra civil.*

*La sangre de Alzáa ahogó la insurrección en Guipúzcoa...».*



Omenaldi bat antolatu zuten karlistak 1923 urtean Alzaa jeneralaren gores-penerako. Artarako, onela dion orri bat argitaratu zuten:

*«Dios, Fueros, Patria, Rey / La fiesta de los Mártires de la Tradición / en Zaldibia / el día 11 del presente mes de Marzo de 1923. / Homenaje / al ilustre General Carlista y sabio letrado / D. Joaquín Julián de Alzúa / dispuesto por la / Junta Foral Jaimista de Guipúzcoa».*

Ondoren, zer ospakizun egingo diran adierazten du:

*«Día 11 de Marzo, domingo, a las diez y media de la mañana, Misa Mayor diaconada, en la iglesia parroquial de Santa Fe de Zaldibia, en sufragio del Mártir de la Tradición D. Joaquín Julián Alzúa.*

*Terminada la Misa, se llevará a cabo el acto solemne de descubrir la lápida que con sentida dedicatoria, en euskera, se colocará en (el) sitio donde fue inhumanamente fusilado aquel benemérito oñatiense, soldado heroico y abnegado de la Fe, de las patrias libertades y de la Legitimidad.*

*A continuación se rezará un Responso y se dirigirán al público unas palabras alusivas al acto».*

Alzaaren bizitzaren eta eriotzaren berri ere ematen du orri onek. Argibide-rik geienak Piralari artuak dauzka, baiña txeetasun berririk ere ematen du:

*«Conducido a la villa de Zaldibia, mostraron sus aprehensores especial empeño en apresurar la ejecución. No pudieron impedirla muy atendibles instancias de personas influyentes del país, con quienes estaba fuertemente ligado por vínculos de amistad y parentesco.*

*El sabio presbítero euskerólogo Don Francisco Ignacio de Lardizabal, autor de la popularísima obra Testamento zarreko eta berriko kondaira, absolvióle en el tribunal de la penitencia y le fortaleció para el supremo trance. Negósele el consuelo de recibir la Sagrada Eucaristía, así como el de ordenar su testamento. A las ocho de la mañana del siguiente día fue fusilado aquel varón esclarecido. Una tradición verbalmente recogida en el bello pueblecito de Zaldibia afirma que momentos después de la ejecución llegó un enviado de la autoridad superior con la noticia del indulto. Era ya tarde, y los restos del infeliz general recibieron tierra en la fosa común del cementerio».*



*Estampa Tradicionalista* aldizkariak, 1932’ko abenduan, Alzaaren biografia berriro argitaratu zuan, 1923’ko orriari kopiatuta. Baiña karlistak Zaldibiko errian ezarri zuten idazkiak ziona agertzen du:

«3 – VII – 1848. Emen areriyuak ill zuten era txarrean karlistetako jenerala On Joakin Julian Alzaa, Oñati’ko seme prestu ta letradu jakintsua.

Zerun gerta dedilla.

Gipuzkoa’ko jaimetarrak oroinmengarri au ipintzen diote, Eliza ta gañerako bidezkotasunen alde bere izate guzia eman zuan euskaldun benetakoari. 11 – III – 1923».

Aldizkari onek Alzaaren il agiria ere azaltzen du, Zaldibiko parrokik artuta. Jauna artzerik eta testamentua egiterik izan etzuala, agiri ontatik artu dala dirudi. Onela esaten baitu:

*«Día 3 de Julio de 1848 por orden del Coronel D. Salvador Damato, Comandante de una coluna (sic) de tropa que llegó a esta Villa, fue fusilado en ella don Joaquín Julián de Alzáa, General que fue del Exército de D. Carlos, natural de la Villa de Oñate, hijo legítimo de D. Juan Antonio de Alzaá, natural de Marquina Echevarría, y de D.“ Carlota de Gomendio, natural de la Villa de Oñate, ya difuntos, vecinos que fueron de la misma villa. Era de 50 años de edad y de estado soltero. Recibió el Santa Sacramento de la Penitencia, para lo cual únicamente se le concedió tiempo. No testó; y en el mismo día, después de celebrado el oficio de sepultura, fue conducido su cadáver al Campo Santo. Y firme: D. Francisco Ignacio de Urretavizcaya, Vicario».*



Baiarraten, liberalak Alzaa atxitu zuten tokian alegia, gurutze bat ezarri zuten karlistak 1935 urtean. *La Constancia* egunkariak onela esaten baitu 1935’eko apirillaren 14’an, argazki baten oiñean:

*«Jóvenes tradicionalistas en el monte Aralar, momentos después de colocar una cruz en memoria del ilustre general carlista Miguel(2) Alzaa, en el lugar donde fue hecho prisionero, siendo fusilado en la villa de Zaldivia».*

Galdetu genduan; eta, esan zigutenez, Baiarraten gurutze bat ba omen zan

orain urte batzuk. Baiña *pista* berriren bat idiki zuten an ere, eta gurutzea eta danak aurrean eraman omen zituan makinak...



Leen aitatu degunez, karlistak 1923 urtean orri bat argitaratu zuten, Alzaa jeneralaren berri emanez. Ondoren, sail ontako iru bertso ageri dira orri ortan: 4, 5 eta 10'garrena, aldaketa auekin:

4/3: guri utzi ziguten; 4/5: bazekiten bazala; 4/6: jenerala atzetik; 4/7: arrapatu nai zuten; 4/8: buruzaia betik; 5/3: ustekabe ginduzten; 5/4: gu guztiok artu; 5/5: iya geitxo giñaden; 5/7: aldapan ez bagiña; 10/3: ez giñan ez gu sartu; 10/4: Frantziara errez; 10/6: bizi gera pozez; 10/7: zainduko gaituela; 10/8: osoro biotzez.



Leen aitatu degun *Estampa Tradicionalista* aldizkari ortan ere agertu ziran bertso auek; baiña zortzigarrena osorik falta zala, eta bigarrenaren erdia ere bai.

Aldaketak: 1/1: Eguna luze eta; 1/3: bertso bi paratzera; 1/5: esan bearrean naiz; 1/7: tirorik egin gabe; 1/8: galdu degu baza; 2/2: giñaden guztiyok; 2/3: pulamentuzko armariak; 2/4: ez genuen erdiyok; 3/6: oitera joantzan; 4/3: guri utzi ziguten; 4/5: bazekiten bazala; 4/6: jenerala atzetik; 4/7: buruzai au nai zuten; 4/8: arrapatu beetik; 5/3: uste gabe ginduzten; 5/4: gu guztiok artu; 5/5: ia geitxo giñaden; 5/7: aldapan ez bagiña; 6/1: Beltzak tiro tiruan; 6/2: zetozene gugana; 6/3: mikeletiak ziran; 6/4: agertu aurrera; 6/5: zibillak bidez-bidez; 6/8: mendien barrena; 7/3: gogoratu ziraden; 7/7: bereala asi ziran; 7/8: beregana joaten; 9/3: banakatu giñaden; 9/5: beltzak amorratuaz; 10/3: ez giñan ez gu sartu; 10/4: Frantzia'ra errez; 10/5: Elio'n esperantzan; 10/6: bizi gera pozez; 10/7: zainduko gaituela; 10/8: osoro biotzez; 11/2: argimena eman du; 11/3: orren mendeian pozez; 11/4: bizkor gerade gu; 11/5: egite onik asko; 11/6: lenago ere badu; 11/7: gizon fiña da eta; 11/8: ala egingo du; 12/3: ez daude ondo bañan; 12/8: beltzaari neurriyak.

Aurretik, argibide jakingarri au ematen du:

«He aquí curiosísimos versos euskéricos de aquel levantamiento, recogidos a viejos pastores de Zaldivia».

Eta laugarren eta bostgarren bertsoetan aitaten dan Arrondo orrengatik onela dio:

«Arrondo, famoso pelotari oyartzuarra de aquel tiempo».



Tolosako Manuel Urreta zanaren bilduman sail ontako zenbait bertso agertu dira, eskuz idatzita. Aldaketa batzuk baditzte, baiña aitatzerik merezi ez dutenak. Ondoren, berriz, onela dio:

«Estos versos fueron escritos durante la última guerra carlista por un pastor al médico Nizolás Zubizarreta, quien los retuvo en su memoria y los recitó a...».

Azken itza ezin ulertu degu.

---

(1) Ziur aski, *orra nola diguten* bearko luke emen.

(2) Dakigunez, Joaquín Julián zan Alzaa'ren izena.

# **ARKIBIDEA**

Itzaurrea .....	7
-----------------	---

## ***Guerra realista (1821-1823)***

Markina, Xemein ta Etxebarriak irurak bat agur egiten deutse Konstituzioneko damiari .....	15
Donostian soldado .....	43

## ***Leenengo karlistatearen aurreko bertsoak (1823-1833)***

Ama Gipuzkoaren seme-alaba maitiak, beren errege ta erregiña onegien etorrerak pozkidaturik, kantuz jostalditzeko atera diraden bertso edo itz neutrualak .....	61
Donostiyak errege eta erregiñaren zorioneko etorrerari zortzikoa .....	75
<i>A los reyes nuestros señores</i> Arkadiako artzaiaik .....	81
<i>El ayuntamiento y vecinos del la ciudad de San Sebastián a su rey y señor Don Fernando séptimo en el acto de fijar con su augusta mano la primera piedra fundamental de su casa consistorial en 10 de junio de 1828</i> .....	85
Bizkai guztiz linargi eta lejalak Don Fernando 7. <sup>º</sup> eta Maria Josefa Amalia bere jaun eta jaubiei bagillaren eta 16, 1828 <sup>º</sup> garren urtian .....	93
«Armada eder bat...» .....	103

## ***Karlisten leenengo gerrateko bertsoak (1833-1839)***

Bilbo .....	109
Egia arrigarriak zortzikoan, sinistagarrian eta kontraegotzan jarriak .....	113
Vizcaiko erritar armadunak .....	121
«Milla zortzireun eta ogei ta amairuan...» .....	125
Don Gaspar de Jaureguik bere anai euskaldunai zortzikoetan .....	127
«Zumalakarregi da gure jeneral...» .....	133
Arantzazu .....	137
<i>Chanson cristino</i> .....	145
Lekarotz .....	151

Bertso berriak: «Karlista baliente, prestu ta argiak...» .....	159
«Karlos Ondarruara...» .....	165
Zumalakarregiren kantia .....	169
Ikusirik bertso berriak, egia garbiak idikitzeko begiak, Amezketako erretore jaunak jarriak, beraren anaia, apaiz Argaia, anima zaia, ezaguturik gaia, eta egiñik erantzun naia, prestatzera noakio lelengo maia .....	171
<i>Canciones de los urbanos</i> .....	189
Zumalakarregi .....	191
<i>Epitafio trilingüe a D. Tomás de Zumalacarregui</i> .....	199
Euscaldunac .....	201
«Kontrabandixtak dira...» .....	209
Maiatzaren bosteko salidaren gañean bertso berriak .....	211
Aieteko burruka berriz ere .....	219
Bertso berriak Bilbaoko sitioa altxatzean Donostian jarriak .....	229
Irun .....	237
Karlos bostgarren errege deitzen danari euskaldunak zortzikoa .....	247
Karlos V'ren denborako kantak .....	255
Andoain .....	257
«Artilleria ere...» .....	275
Urnieta .....	281
Karlistenak .....	295
Peñacerrada .....	303
Bertso berriak: «Nere aditzalliak, onuntz juntatu...» .....	315
«Bilbao egin dute....» .....	327
Bertso berriyak egi garbiyak. Muñagorriren kantak (I) .....	329
«Pakean ta fueroak....». Muñagorriren kantak (II) .....	339
Gipuzkoarrak. Muñagorriren kantak (III) .....	345
Txapeltxuri euskaldun ernegatu baten ai, ai, ai kantak .....	355
Nagusiya eta morroia. Zazpi urteko gerraren iya bukaeran, nagusi eta maizter karlistak, Oiartzunguak, ondo aspertubak gerraz, Burdeosen alkarrí esandako itz neurtubak .....	359
Pakea pozkarriaren atsegín leloak zortzikoan .....	365
<i>A la paz</i> euskaldunak .....	371
Bertso berriak unioaren gañean .....	377


## Gerra ondoko bertsoak (1839-1848)

Isabel bigarrenari Tolosako erriyak .....	385
Ongi merezi duen erregiñari gipuzkoatar batek .....	391
Joakin Julian Alzaa (1808-1848) .....	393



1009673  
BO-2999

AKTU BIBLIOTEKA  
EU KULTURALDIA  
BILBO  
76703  
1992 MAR 11



auspoa